

# MIGRAZIOAK

## Mugikortasun berriak mugitzen ari den munduan

*Cristina Blanco Fdz. de Valderrama (arg.)*



Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración





# MIGRAZIOAK

## Mugikortasun berriak mugitzen ari den munduan

*Cristina Blanco Fdz. de Valderrama (arg.)*



**ikuspegi**

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

Argitaraldia: 2006ko azaroa  
Ale-kopurua: 300 ale  
Argitaratzailea: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Fotokonposizioa: MARRA  
Inprimatzea: ITXAROPENA, S.A.  
Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)  
ISBN: 84-8373-879-1  
Lege-gordailua: BI-2762-06

## Aurkibidea

Aurkezpena	7
1. Sarrera. Mugikortasun gero eta handiagoa eta migrazio-ikuspegi berriak <i>Cristina Blanco</i>	9
<i>Lehen zatia Migrazio-fluxu eta -sare garaikideak</i>	29
2. Nazioarteko Migrazio-Joerrak, 1980. urtetik <i>Hania Zlotnik</i>	31
3. Migrazio-sareak, garapen-baliabidetzat: diru-bidalketez harago <i>Kathleen Newland</i>	49
4. Europa eta immigrazioa: harreman gatazkatsua <i>Joaquín Arango</i>	75
<i>Bigarren zatia Zaurgarritasun handiko taldeak</i>	89
5. Asiloa Europan eta konbergentzia globala: errefuxiatuak, lehen heroi, orain paria <i>Daniele Joly</i>	91
6. Lau arrazoi legez kanpoko immigrazioari buruzko gogoeta egiteko. <i>Antonio Izquierdo</i>	109
7. Pertsonen salerosketa kontzeptua eta migrazio-agendan duen lekua: Andeetako herrialdeen kasua <i>Dolores Cortés</i>	127

<i>Hirugarren zatia Migrazio-modu berriak</i>	147
8. Lehia orokorra langile kualifikatuak lortzeko <i>Manolo Abella</i>	149
9. Emakumeen migrazio-fluxuen garrantzia <i>Trinidad L. Vicente</i>	167
<i>Laugarren zatia Migrazioaren errealitatea kudeatzeko ereduak eta ekimenak</i>	191
10. Immigrazioa eta herritartasuna, Britainia Handian <i>John Rex</i>	193
11. Bernako Ekimena eta Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agenda <i>Michele Klein Solomon</i>	207
12. Ondorioak <i>Ana María Mendieta</i>	221
Egileak	229

## Aurkezpena

Giza migrazioak garrantzi handiko gertakariak dira gaurko munduan. Izan ere, egun nagusi diren hainbat faktorek inoiz ez bezala bultzatzen dute giza mugikortasuna: eskualdeen garapen-maila desberdinek, nazioen elkarrenganako mendekotasun ekonomikoak, komunikabideen eta garraioen aurrerakuntzak, etorkinek beren familiekin bizitzeko duten eskubidearen aitortpenak, munduan zehar gero eta ugariagoak diren gatazkek –horien eraginez, gero eta gehiago dira errefuxiatuak edo desplazatuak– eta abarrek.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere nabari da gertakari horien guztien eragina. Etorkinek oraindik lurralde hau kokaleku nagusitzat hartu ez badute ere, kontuan hartu behar da etorkin gehien hartzen dituen eremuaren baitan dagoela; horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan ere etorkinen fluxua asko handitu da azken 10 urteotan.

Egoera horren aurrean, *Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokiak, 2003an sortu zenetik, helburu nagusitzat du gertakari hori hobeto ezagutzeko ekimenak bultzatzea. Hain zuzen, ekimen horietako bat da 2005eko maiatzaren 31tik ekainaren 2ra Bilboko Euskalduna Jauregian antolatu zuen Nazioarteko Konferentzia: *Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa* izenekoak.

Ekimen horren helburu nagusia immigrazioaren errealitatea, fenomeno sozial globala, euskal herritar guztiengana hurbiltzea zen. Izan ere, ez gaude oraindik oso ohituta fenomeno hori gure artean ikusten, baina horixe ekartzen dute globalizazioak eta mundu honetako herrialdeen artean gero eta alde handiagoak izateak garapenean. Hurbilketa horren bitartez, egun immigrazioari eta etorkinei buruz nagusi diren aurreiritzi eta arrazoibideei –etnozentrismoak eta estereotipoz josiak– aurre egin nahi genien zeharka bada ere, horiek ez baitatoz bat inolaz ere immigrazioaren eta etorkinen benetako egoerarekin. Hala, Konferentzia honek mundu garatuaz haratago sortu diren nazioarteko sareak ezagutarazi nahi ditu, baita ezin-

bestean egin beharreko migrazioak etorkinengan duen eragina eta sortzen ari diren migrazio era berriak ere. Horrekin guztiarekin, euskal gizarteak nazioarteko migrazioari buruz dituen zenbait irudi desmitifikatuko dira.

Helburu hori gogoan, Konferentzia hiru gai nagusiren inguruan antolatu zen: *Nazioarteko migrazio-fluxuak eta -sareak*, *Bereziki ahulak diren taldeak eta Migratzeko era berriak; mugikortasun-mota berriak*. Horietan, migrazioaren gaiaren ezagutzari dagokionez ibilbide luzea eta nazioarteko esperientzia duten adituak izango ditugu gure artean.

Gaien garrantziak, parte-hartzaileen ospeak eta kalitateak, eta deialdiaren arrakastak bultzatuta erabaki genuen emandako konferentziak biltzea eta oroitzapenezko lan batean argitaratzea. Horrela, egindako lana ez da konferentzia haietan parte hartu genuen oroimenean galduko, eta, gainera, lana interesgarritzat duen edonoren esku jartzen dugu, fenomeno horrek garrantzi handia baitu gizartean.

Beraz, horrela sortu da *Migrazioak: mugikortasun berriak, mugitzen ari den mundu batean* lana.

*Konferentzia* haren egitura originalari honako hauek gehitu dizkiogu: migrazioak eta kudeatzeko ereduak eta ekimen zehatzei buruzko atal bat, eta artikulu bat, sarrera gisa. Horrela, lanak lau atal ditu.

Lehenengoa *Nazioarteko migrazio-fluxuak eta -sareak* izenekoa da. Horretan, egungo nazioarteko migrazio-mugimenduen ezaugarriak eta horien nondik norakoak aztertzen dira, sortzen diren sareak, eta fluxu horien norabideak eta arrazoiak: kultur antzekotasunak, harreman historikoak, antzinako kolonialismoak, merkataritza-sareak, lan-ibilbideak... Helburua egungo giza mugikortasuna behar bezala kokatzea da, eta, gainera, Europako testuinguruan arreta berezia jartzea; izan ere, modu horretan sailhestuko ditugu iritzi etnozentrakoak, migrazioak fenomeno berria direla eta mundu garatuan bakarrik gertatzen direla diotenak. Lanaren sarrera nagusiak ere testuinguruan kokatzeko asmo horixe du.

Bigarrenean, *Bereziki ahulak diren taldeak* atalean, ezinbestean egin beharreko migrazio horietan jarri nahi du arreta, horiek munduko milaka eta milaka pertsonengan egoera iraingarriak, arriskutsuak eta larritzeko modukoak eragiten baitituzte gaur egun. Globalizatzeko joerak kapitalen, merkantzien edo ideien mugimendu handiagoa eragiten badute ere, pertsonak batetik bestera aske mugitzeko aukera ez da benetan gertatzen lurraldetan zatitutako gure mundu honetan. Migrazio-politiken helburua egungo unitate politiko-administratiboan mugei eustea da eta, ondorioz, zenbait migrazio-mugimendu ezkutuan egiten dira: ezkutuko migratzaile horiek gero eta ugariagoa den gizakien trafikoa eta salerosketan erortzeko arriskua dute. Bestalde, gatazkak nonahi gertatzen dira munduan eta horiekin batera, genozidioak, jazarpen etnikoak, kulturalak edo erlijiosoak; egoera horiek



behartuta, milioika pertsona beren etxeetatik alde egiten dute, baldintza tamalgarrrietan, gainera. Atal honetan bereziki ahulak diren 3 talde aztertzen dira: errefuxiatuak eta erbesteratuak, klandestinoak eta salerosketan erori direnak.

Hirugarren atala *Migratzeko era berriak; mugikortasun mota berriak* izeneko da. Atal horretan, pertsonen mugikortasun geografikoa gertatzeko bi modu berri aztertuko dira; eta horiek berriak dira, hain zuzen ere, arrazoi politikoak eta ekonomikoak eragindako ohiko immigrazioaren ereduak kontuan hartzen baditugu. Etengabe mugitzen ari den munduan bizi gara, eta gero eta pertsona gehiagok aldatzen dute beren bizilekua, betirako edo aldi baterako; bizilekuz aldatzeko arrazoiak ere askotarikoak dira, baita bizilekuz aldatzen direnak ere: hirugarren adinekoak, emakumeak, borondatezko langileak, berriz elkartutako familiak, prestakuntza maila handiko profesionalak, etab. Bigarren saio honen helburua mugikortasun-mota berri horietako biren ezaugarriak azaltzea eta horien zenbaketa egitea izango da; honako bi hauek dira mota berriak: gero eta gehiago mugitzen diren emakumeak, eta prestakuntza-maila handiko langileak.

Bukatzeko, laugarren atala *Migrazioaren errealitatea kudeatzeko ereduak eta ekimenak* izango da. Azken honetan, gaurko munduan gertatzen diren bi eredu edo ekimen zehatz azaltzen dira: kultur aniztasuna kudeatzeko britainiar ereduak eta Bernako Ekimena.

Egile guztien ekarpenak azken atalean datoz laburtuta: *Ondorioak* atalean. Horren bitartez, orain aurkezten dugun lan honen ikuspegi orokorra eman nahi dugu.

Aurkezpenarekin amaitzeko, *Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokiak jaso dituen ekarpen ugariak eskertu nahi genituzke, bai Nazioarteko Konferentzia egiteko, baita lan hau idatzi eta burutzeko ere.

Hala, ez ditugu zorrak hemen zehatz-mehatz azalduko, baina eskerrak emango dizkiegu *Ikuspegi* erakundeko langileak diren Agurtzane Eguiari, Isabel Berganzari eta Saioa Bilbaori, bai eta Brenda Castrillori, Iker Barberori eta Jesús Mijangosi ere; horiei guztiei eskertzen diegu jarritako gogoak, emandako logistika-laguntza eta Konferentzian zehar erakutsi duten lana ondo egiteko gaitasuna. Ana María Mendietari, hizlarien parte-hartzea kudeatzerakoan egin duen ordainezinezko lana eta izan dituen indarra eta nekaezintasuna eskertu behar dizkiogu, eta, gainera, erakutsi duen profesionaltasuna. Joaquín Arangori, eman dizkigun aholku baliagarriak eskertzen dizkiogu, bai eta bere eskuzabaltasuna ere, gure esku jarri baitu landu beharreko gai bakoitzeko entitate eta pertsona ezagunei buruzko informazioa.

Eskerrak eman behar dizkiogu baita ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, eta, batez ere, Javier Madrazo sailburuari eta Omer Oke Immigrazio Zuzendari ohiari; izan ere, horiek bultzatu zuten *Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokia. Horrez gainera, gure lanerako gaitasunean eta

profesionaltasunean konfiantza osoa izan dute, eta gure proiektuetan laguntza eman digute; besteak beste, *Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa* Nazioarteko Konferentzia antolatzeko, bai eta liburu hau argitaratzeko ere. Haiei zor diegu guztiak antolatzeko laguntza ekonomikoa.

Euskal Herriko Unibertsitateari, eta bereziki Miguel Angel Gutierrez Ikerketa errektoreordeari, konfiantza eta segurtasuna izan dutelako ezagutzaren arlo honetan aditu eta ikertzaile gisa dugun gaitasunean.

Azkenik, gure eskerrak Konferentzian parte hartu zuten lagun guztiei, horrek justifikatzen baitu gure lana, eta, bereziki, eskerrik asko obra hau osatzen duten hizaldien eta lanen egileei.

Horien guztien laguntzarik gabe, ezin izango genuke hau guztia egin.

Xabier Aierdi eta Cristina Blanco  
*Ikuspegi* erakundeko zuzendariak  
Bilbon, 2006ko maiatzean

Sarrera

## Mugikortasun gero eta handiagoa eta migrazio-ikuspegi berriak

Cristina Blanco

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

Gizakiaren mugikortasuna esparru eta dimentsio guztietan gero eta handiago dela den-denek onartutako ideia da. *Migrazioak: mugikortasun berriak, mugitzen ari den mundu batean* obraren helburua, izenburutik hasita, gertaera hori egiaztatzea da. Egiaztapen horretara heltzeko, zenbait geografia-testuinguru, akademia-diziplina, metodologia-eskola eta azterketa-tradizio jorratu ditugu, gertaera hori gainditzeko gogoeta sortu nahian. Gogoetaren bidez, mugikortasuna desmitifikatu nahi dugu, gure inguru gertukoenean bakarrik gertatzen den fenomeno ez dela adierazi, alegia. Aldi berean, fenomeno horrek sortutako erronkei aurre egiteko tresna teoriko eta metodologiko berrien beharra dagoela adierazi nahi dugu; izan ere, nahiz eta fenomeno berria ez izan, historiaren une honetan berezitasun garrantzitsuak ditu, eta horiek orain arte ezagutzen ez ditugun gizarte-ondorioak izango dituzte.

### Migrazio-joerak eta mitoak

Hania Zlotnik-en esanetan, XX. mendeko azken hamarkadan, aldaketak izan dira nazioarteko migrazio-joeretan; migrazioa aztertzeke nazioarteko erakundeek eginitako txostenetako datuetan islatzen dira aldaketa horiek<sup>1</sup>. Hona hemen inoiz izandako gizaki-mugikortasun handien horren ezaugarri nagusiak: migratzaileen kopurua gero eta handiagoa da; nazioarteko migrazio-sareetan gero eta herrialde gehiago daude edo parte hartzen dute; migrazio-motak (edo leku batetik bestera joateko arrazoiak) dibertsifikatu egin dira, bai eta horien gizarte-, ekonomia- eta kultura-arrazoiak ere.


Hortaz, Nazioarteko Migrazioen Txosten famatuaren arabera (Nazio Batuen Biztanleria Fondoak egin zuen, 2002an), 2000. urtean munduko biztanleen %3

---

<sup>1</sup> EUROSTAT (2000), ELGA (2000), OIM (2001), SOPEMI (2001), Nazio Batuak (1998, 2002), GCIM (2005) eta beste batzuk.

(175 milioi pertsona inguru)<sup>2</sup> bere jaioterritik kanpo bizi zen. Txostenak azkeneko hamarkadetan izandako migrazio-joera nabarmenetako bat ere uzten du agerian: herrialde garatuagoetan gero eta migratzaile gehiago dagoela, eta jende asko joaten dela gutxien garatutako eskualdeetatik hazkunde ekonomiko handiagoko eskualdeetara, horien arteko demografia-aldeak asko aldatu gabe.

Hala ere, herrialde hartzaile nagusiak eta “herrialde garatuena” gauza bera direla pentsatzeak okerrak eragin ditzake. Eskualde handietako edo kontinenteetako kopuruei erreparatzen badiegu, datu horien arabera, Mendebaldea da, gero eta gehiago, atzerriko etorkinen hartzaile nagusia. Dena den, datuak herrialde herrialde aztertuz gero, gauzak bestelakoak dira. Aipatutako txosteneko datuen arabera, herrialde garatuak etorkin gehiago izaten dituzte, gutxien garatutako herrialde guztiek batera baino; bestalde, atzeritarren proportzioa askoz handiagoa da: eskualde garatuagoetan, 100 biztanletik ia 9 atzeritarrak dira; gutxien garatutako eskualdeetan, berriz, 100 biztanletik 1,5 bakarrik dira atzeritarrak<sup>3</sup>. Gainera, denboraren poderioz, atzeritarren proportzioaren aldeak handitzeko joera du (herrialdekako eta biztanleria guztiarekiko etorkin-proportzioari buruzko datuak adierazten dira 1. grafikoan). Afrikan, Asian, Latinoamerikan eta Karibeetan etorkin atzeritarren proportzioa gutxitu egin da 1990. eta 2000. urteen artean; Europan, Ipar Amerikan eta Ozeanian, berriz, handitu. Zenbait lekutan (esaterako, Ipar Amerikan), 3 puntutik gorako hazkundera ere izan du proportzio horrek.




Iturria: Nazio Batuetako Biztanleria Dibisioaren *International Migration Report 2002* txostenean oinarrituta.

<sup>2</sup> Garrantzitsua da pertsona-kopuru horrek nazioarteko migrazio-mugimenduei bakarrik dagokiela azpimarratzea, eta ez berezko mugimenduei (migratzaileen kopurua baino askoz gehiago dira) edota egungo herrialdeen barruan gertatzen diren mugimenduei (barne-migrazioak). Alde horretatik, kontuan hartu behar dugu geografia-mugikortasuna askoz handiagoa dela, munduko herrialdeetan bizi diren atzeritarren kopurua baino.

<sup>3</sup> Ikus testu honetako 1. taula (H. Zlotnik-ek aurkeztua).

Datu global horiek direnak direla, eskualdeko edo kontinenteko testuingurua alde batera utzi eta herrialdeak banan-banan hartuz gero, egoera anitzagoa eta konplexuagoa da. Herrialdez herrialde, atzerritarren proportzioa biztanle-kopuru osoarekin alderatzen badugu, Asiako edo Ekialde Hurbileko herrialdeak dira atzerritar immigrazio gehiago jasotzen dutenak. Hala ere, alderaketa hori kontinenteka egi- nez gero, Ozeania dugu nagusi, besteekiko aldea oso handia izanik.



Iturria: Nazio Batuetako Biztanleria Dibisioaren *International Migration Report 2002* txostenean oinarrituta.

Zer adierazten digute datu horiek? Mendebaldeko herrialdeak ez direla atzerritarren proportzio handiena dutenak, baizik eta petrolio-ekoizle diren arabiar herrialdeak. Horien eskulan-eskaria oso handia denez, atzerritarren proportzioa izugarria da; esaterako, %70etik gorakoa da Arabiar Emirerrietan, edota %57tik gorakoa Kuwaiten. Edonola ere, proportzio horiek Europar Batasunean (bai Batasun osoan, bai herrialdeak banan-banan hartuta) darabilzkgunak baino askoz handiagoak dira.

Datu horiek –eta beste batzuek– adierazten digute zuhurtziaz jokatu behar dela nolabaiteko kutsu etnozentrikoari eusten dioten ikuspegi tradizionalei erreparatzean.

Izan ere, ikuspegi horien arabera, Mendebaldea izan da eta da atzerri-immigrazioaren hartzailer nagusia, eta badaude joera hori laburbiltzen duten terminoak; esaterako, "Hegoalde-Iparralde migrazioa" (mugikortasunak norabide horri jarraitzen diola adierazten du), edota "Mendebaldea, asilo-lurraldea" (errefuxiatuak eta babes jasotzen dutenak gerrarik eta hondamendirik gabeko Mendebaldean biltzen direla adierazten du). Hala ere, datuak eta ideia horiek ez datoz bat, eta Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi-komisarioak (ACNUR) emandako datuei erreparatuta, munduko errefuxiatuen kopuruak, hain zuzen, teoria hori baliogabetzen du.

1. taula. ACNUR erakundearen babespeko pertsonen kopurua, eskualdeka eta kategoriara (2005eko urtarrilaren 1eko datuak).						
Eskualdea	Errefuxiatuak	Asilo-eskatzailerak	Itzulitakoak	Herrialde barnean lekuz aldatzera behartutakoak	Herrigabeak eta beste batzuk	GUZTIRA 2005eko urtarrilaren 1a
Asia	3.471.300	56.200	1.145.900	1.389.000	837.200	6.899.600
Afrika	3.022.600	208.100	329.700	1.233.900	67.100	4.861.400
Europa	2.067.900	269.800	18.800	951.100	1.122.300	4.429.900
Ipar Amerika	562.300	291.000	*	*	*	853.300
Latinoamerika eta Karibea	36.200	8.100	100	2.000.000	26.400	2.070.800
Ozeania	76.300	6.000	*	*	100	82.400
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.236.600</b>	<b>839.200</b>	<b>1.494.500</b>	<b>5.574.000</b>	<b>2.053.100</b>	<b>19.197.400</b>

\* Bere herrialdean lekuz aldatzera behartutakoetatik 2004an etxera itzulitako 147.900 pertsona barne.

Iturria: [www.acnur.org](http://www.acnur.org)

2005ean ACNUR erakundearen babespean zeuden 19 milioi pertsonetatik, ia %40 Asian zegoen. Asiako eta Afrikako datuak batera hartuta, berriz, kopuru hori %60tik gorakoa zen. Hala uste badaiteke ere, kopuru hori ez da kontinente horietako gatazka armatuen eta jazarpenen ondorioa; pertsona horiek errefuxiatuak dira, hitzaren zentzu hertsian; hau da, "arrazaz, erlijioz, nazionalitate edo gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldurra izanik, bere herrialdetik kanpo bizi eta itzuli ezin diren pertsonak"<sup>4</sup>. Izan ere, ACNUR erakundearen datuen arabera, asilo- eta babes-herrialdea nagusietakoak ditugu Pakistan, Iran, Txad, Uganda, Etiopia, Kenya eta Kongo. Bestetik, European dauden errefuxiatuen kopurua Estatu Batuen eta Kanadan daudenen halako lau da.

Noski, hurbiltasun geografikoa oso garrantzitsua da, nork bere burua herrialdetik ihes egiteko beharrean ikusten badu edo gatazka orokor bat gertatzen bada. Baina,

<sup>4</sup> Zenbait eskualde ekimenetan (esaterako, Afrikar Batasunerako Erakundearen Errefuxiatuei buruzko 1969ko Konbentzioan eta 1984ko Cartagenako Deklarazioan, Latinoamerikan), barne-gerra edo -gatazka batengatik ihes egindako jendea ere sartu zuten mandatu horretan.

hala eta guztiz ere, gogoeta egin behar dugu lehen aipatutako iritzien egiazkotasunari buruz. Arrazoiak arrazoi, herritarrok mugimendu gehienak Hegoaldetik Iparralderantz edo Ekialdetik Mendebalderantz izaten direla uste badugu ere, mugimendu asko gertatzen dira garapen txikiagoko herrialdeen artean; hau da, Hegoaldean eta Ekialdean.

2. taula. Errefuxiatu-populazio handien jatorria, 2004an (hamar talde handienak (1))		
Jatorrizko 1. herrialdea	Asilo-herrialde nagusiak	Guztira
Afganistan <sup>2</sup>	Pakistan/Iran/Alemania/Herbehereak/Erresuma Batua	2.084.900(c)
Sudan	Txad/Uganda/Etiopia/Kenya/Kongoko Errep. Dem./Afrika Erdiko Errep.	730.600
Burundi	Tanzania/Kongoko Errepublikoa Demokratikoa/Ruanda/Hegoafrika/Kanada	485.800
Kongoko E. D.	Tanzania/Zambia/Kongo/Burundi/ Ruanda	462.200
Somalia	Kenya/Yemen/AEB/Erresuma Batua/Djibuti	389.300
Palestinarrak <sup>3</sup>	Saudi Arabia/Egipto/Irak/Libia/Aljeria	350.600
Vietnam	Txina/Alemania/AEB/Frantzia/Suitza	349.800
Liberia	Ginea/Boli Kosta/Sierra Leona/Ghana/AEB	335.500
Irak	Iran/Alemania/Herbehereak/Erresuma Batua/Suedia	311.800
Azerbaijan	Armenia/Alemania/AEB/Herbehereak	250.500


(1) Taula horretan ACNUR erakundeak herrialde industrializatueta dauden errefuxiatuen nazionalitateei buruz eginiko kalkuluak adierazita daude. Kalkulu horretarako, berrasentatu gisa heldutako azken pertsonak eta asilo-eskatzailen kopurua hartu dira oinarri.

(2) ACNUR erakundearen kalkulua. 2004an itzulera asko izan arren, Irani dagokion kopurua gorantz zuzendu da, erregistro [erroldatze] orokorreko ekintza bat martxan jarri ondoren. Pakistani dagokion kopuruan, errefuxiatu-esparruetan bizi diren afganiarrak baino ez dira hartzen kontuan. Herrialde horretako beste leku batzuetan bizi diren 1,9 milioi afganiar inguru ez dira kopuru horretan sartu, eta baliteke horietako batzuk errefuxiatuak izatea -2005eko hasieran erroldatu zituzten lehen aldiz-.

(3) Palestinarentzako Nazio Batuen Sorospen eta Lan Agentzia Ekialde Hurbilean Erakundearen (United Nations Relief and Works Agency for Palestine, UNRWA) mandatupeko 4 milioi palestinar inguru ez dira kontuan hartzen kopuru horretan.

Iturria: [www.acnur.org](http://www.acnur.org)

Bestetik, ELGA erakundeak adierazitako asilo-eskaeren kopuruari erreparatuta, Mendebaldeko herrialdeetan asilo-eskaerak nahiko gutxi izateaz gain, bere horretan jarraitzeko edo gutxitzeko joera dagoela ikus daiteke. Hori dela-eta, zalantzan jar daiteke “Mendebaldea, asiloaren lurraldea” dela.



Iturria: SOPEMI, *Trends in International Migration*. Zenbait urtez.


Baina Hegoaldearen edo Ekialdearen baitako mugimendu guztiak ez dira eskualde horietan gertatutako gerren eta ezbeharren ondorioa. Halaber, migrazio-fenomenoaren dibertsifikazioa dela-eta (mugikortasun-mota berriak, alegia), zuhur jokatu behar dugu Nazio Batuen txostenean egungo joeratzat zehaztutakoa ontzat hartzerakoan, herrialde garatuetaranzko immigrazioa gero eta handiagoa dela adierazten baitute txostenean. Egia da migrazio-joera berriak edo gero eta gehiago gertatzen diren joera batzuk Hegoalde-Iparalde eta Ekialde-Mendebalde norabidetakoa direla (esaterako, migrazio irregularra), baina badira gero eta gehiago gertatzen diren norabide anitzeko migrazio-mota berri batzuk: kualifikazio handiko langileen fluxuak; enpresa multinazionalak langileen lekualdaketa; atzerriara ikastera joandako ikasleak (gero eta gehiago dira horiek ere); kooperanteak; adinekoak... Horiek guztiek osatutako mugikortasuna oso anitza da, eta ez da erraza hori Hegoalde-Iparalde / Ekialde-Mendebalde eskema tradizionalen txertatzea.

Migrazioaren mitologiak badu beste ikono bat: migrazio-mugimenduak munduko demografia-orekarako lagungarriak direla, alegia. Mekanismo orekatzaile den aldetik, gehiegi jendeztatutako lekuetako jendea mugitzea lagungarria izango litzateke herrialde garatueta biztanleria zahartua berritzeko eta gaztetzeko. Herrialde horietara joandako biztanleak, batetik, eta biztanle gazte horien jaiotza-tasa altuak



eraginiko zeharkako efektua, bestetik, izango lirateke munduko demografia berrorekatuko luketen faktoreak. Hala ere, datuak kontuan hartuta, ez dago joera horiek ondorio sinboliko hutsetatik haratago egiaztatzerik.

Nazio Batuek eskainitako informazioak argi eta garbi adierazten du zer-nolako eginkizuna betetzen duten migrazioek hazkunde demografikoan eta munduko leku jendeztatuenean eta beheranzko demografia (biztanleriaren hazkunde naturala) dutenen biztanleriaren banaketan. Munduko eskualdeen arteko demografia-aldeak argi eta garbi ikusten dira 4. grafikoan adierazitako parametroetan.




Iturria: Nazio Batuetako Biztanleria Dibisioaren *International Migration Report 2002* txostenean oinarrituta.

Denbora igaro ahala eskualde guztietan joera bera badago ere (biztanleriaren hazkundera txikitzea, bai hazkunde naturala, bai guztizko hazkundera), garapen-bidean dauden herrialdeetan, hazkunde demografiko naturalaren urteko batez bestekoa %16,6 da. Herrialde garatuagoetan, berriz, batez besteko hori %1 inguru da, beheranzko joera izanik. Egia esan, migrazioek ez dituzte alde horiek asko murrizten: herrialde garatuagoetan, immigrazioaren eraginez, guztizko hazkunde demografikoa %3raino igotzen da, eta gutxiago garaturiko herrialdeetan, berriz, emigrazioak guztizko hazkunde demografikoa murrizten du, baina oso gutxi (2000. urteko datuei erreparatuta, hazkunde naturalaren urteko batez bestekoa %16,6 izan zen, eta guztizko hazkundera %16koa).

Nazio Batuen txostenak immigrazioa herrialde garatuetan finkatzen dela badio ere, ez dirudi migrazio-mugimenduen ondorioz izaten diren populazio-aldaketek eskualde garatuagoen eta gutxiago garatutako eskualdeen arteko aldeak erabat gutxitzen dituztenik.

Kontinenteka, deigarriak dira, batetik, Afrikako hazkunde naturala (2000. urtean, batez bestekoa %25ekoa izan zen), eta, bestetik, Europako hazkunde negatiboa, azken horrek gero eta biztanle gutxiago baititu, baita etorkinak kontuan hartuta ere.



Iturria: Nazio Batuetako Biztanleria Dibisioaren *International Migration Report 2002* txostenean oinarrituta.

Emigrazio-kontinenteak Afrika, Latinoamerika, Karibea eta Asia dira, hazkunde demografiko natural handieneko kontinenteak, alegia. Kontinente hartzaileak Ipar Amerika, Ozeania eta Europa dira, ordena horretan. Hala ere, ez dirudi hazkunde demografiko naturalaren (txikiagoa) eta immigrazioaren (handiagoa) artean erlazio zuzenik dagoenik. Izan ere, horrelakorik izanez gero, Europak izan beharko luke migrazio garbi handiena, bertako biztanleria-galerak orekatzeko. Edonola ere, demografiaren ondorio zuzenak kaskarrak dira, eta ezin daiteke esan migrazioak munduko demografiaren balioen mekanismo orekatzailerik direnik.

### **Ikerketarako esparru berriak agertzea: transnazionalismoa eta kudeaketa**

Migrazioei buruz nagusi diren eta errealitatearekin guztiz bat ez datozen ideia batzuk zalantzan jartzea garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da gogoeta

egitea migrazio-fenomenoaren dimentsio berriei eta horiek izan lezaketen ondorioei buruz. Gero eta gehiago gertatzen ari diren prozesu horien erregistro sakon eta zehatza egiteko helburua ez badugu ere, fenomeno horien adibide erabilgarri batzuk azaldu nahi ditugu. Aurreko atalean bezala, gogoeta egin nahi dugu, migrazio-gaietan “dena esanda dagoela” adierazten duen ideari buruz.

## Transnazionalismoa

Azken garaietako teknologia-aurrerapen handiak ondorio garrantzitsuak eragiten ari dira. Garraioak asko merkatu dira eta azkarragoak dira; teknologia berriak erabiltzen dira komunikazioan, telematikan... Hori guztia dela-eta, egun, munduko edozein lekuk du mundu osotik “gertu” izateko aukera. Distantzia fisikoak txikiagoak egiten dira, mugimenduak biderkatu egin dira, eta munduko edozein lekutan dago besteekin informatika bidez kontaktatzeko aukera.

Distantzia fisikoak azkarrago egiteko aukera dela-eta, jendea askoz gehiago ibiltzen da leku batetik bestera, iraganean baino; bestetik, teknologia berriei esker, munduko edozein lekurekin izan ditzakegu informatika bidezko harremanak; horrenbestez, munduko beste leku batera emigratu badugu ere, aukera dago gure herrialdearekin, familiarekin, lagunekin eta herrikideekin sarritan komunikatzeko, eta lotura eta harreman iraunkorrak izateko. Aukera horiek fenomeno transnazionalaren loraldia eragin dute.

Egoera horrek, zalantzarik gabe, jendeak egungo mugen zehar eginiko mugimendu-kopuruan ez ezik, ondorioak izango ditu migrazioen ezaugarrietan beretan, “jatorri” eta “xede” kontzeptuetan, edota horien artean migratzaileen bidez izango diren harremanetan.

Historian, mugimendu eta jarduera transnazionalak –eta migrazioak, oro haraspalditik gertatzen dira. Hala ere, azken aldian, transnazionalismoa gero eta gehiago gertatzen ari da eta gizarte-fenomenoa bihurtu da, bai eta ikerketa-esparru berria ere (Portes, Guarnizo eta Landolt; 1999). Transnazionalismoaren berrikuntza ez datza berez fenomeno horretan, baizik eta prozesu transnazionalen hedaduran; izan ere, jarduera-mota horiek areagotu eta benetako gizarte-komunitate eta -esparruak ezartzeko gero eta aukera gehiago izan ahala, ondorio berri-tzaileak izango ditu fenomeno horrek.

“Transnazional” hitzaren lehen adiera ezagunena Glick-Schiller, Basch eta Szanton-Blanc emakume antropologoen eman zuten. 1992an argitaratutako lan batean, gero eta gizarte-eremu transnazionalak gehiago sortzeak eta horiek migratzaileen jatorri- eta xede-gizarteak modu berezian lotzeak iraganarekiko haustura adierazten zutela esan zuten. Jada ez da beharrezkoa sorlekuarekiko lotura galtzea; are gehiago, egungo munduan, “transmigratzaileek”, sorlekuarekiko loturei eusteaz gain, lotura horiek sendotu eta beste lotura berri batzuk ere eratzen dituzte. Era horre-

tan, benetako “komunitate lurralderik gabeak” sortzen dituzte. Transnazionalismoa migratzaile transnationalek sortutako jardueren multzoa izango litzateke; jarduera horien bidez, bi komunitate ezberdinetan aldi berean bizitzeko aukera izango lukete migratzaile horiek. Beraz, nor dira transmigratzaileak? Egunero herrialde-mugen arteko etengabeko konexio anitzen menpe bizi diren eta nazio-estatu baten baino gehiagoren inguruan identitatea eratzen duten etorkinak (Glick-Schiller, N.; Basch, L.; Szanton-Blanc, C.; 1995).

Kontzeptua horrela sortuta, amerikarren asimilazio-eredu tradizionalen aurkakoa zenez, gizarte-zientzialari askok gogor kritikatu zuten transnazionalismoa. Erreakzio horien aurrean, transnazionalismoa gero eta gehiago gertatzen zen gizarte-errealitatez onartu zuten zenbait zientzialarik kontzeptu hori gehiago mugatzea eta hobeto zehaztea erabaki zuten. Hori dela-eta, Portes, Guarnizo eta Landolt kontzeptua mugatzearen alde ageri ziren, eta horien esanetan, herrialdeen arteko mugen zehar gizarte-harreman erregularrak eta iraunkorrak eskatzen dituzten lan eta jarduerak adieraziko lirateke transnazionalismoaren kontzeptuaren bidez (1999:219). Horrenbestez, *migratzaile transnationalek* honako ezaugarri hauek izango lituzkete: elebidunak izatea eta kultura ezberdinetan erraz moldatzea; sarritan, bi herrialdetan etxebizitza izatea; eta, bi herrialde horietan egotea eskatuko luketen interes ekonomiko, politiko eta kulturalak izatea (Portes, 1996).

Transnazionalismo horren oinarria migrazio-mugimenduak badira ere, transnazionalismoa eta migrazioak ez dira gauza bera. Transnazionalismoa migrazio-forma berezia da, eta ez du zertan unibertuala izan, ezta gaur egun ere. Migratzaile guztiak ez dira “transmigratzaileak”; sorlekuarekiko eta xedearekiko harreman estuei eusten dietenak dira, eta bizimoduaren dualizazio edo bipolarizazio nabarmena izaten dute. Horregatik, sorlekuan gelditutako familiari dirua bidaltzea edo jaioterriara bidaiatzea ez dira, berez, transnazionalismoaren ezaugarriak. *Jarduera transnacional* horiek erregularitasuna eta iraunkortasuna izan behar dute denboran zehar, migratzaileengan eta horien sorleku- eta xede-gizarteengan benetako ondorioak eragiteko, eta, horrela, benetako komunitate transnazionalak sortzeko. Horrenbestez, etorkinek sorlekuaren eta xede-lekuaren artean eginiko jarduerak (diru-bidalketak; ekonomiako, politikako, kulturako, komunikaziozko... jarduerak; etab.) transnazionalak izango dira, hitzaren zentzu hertsian, erregularitasunez eta sistemaz egiten badira.

Egia da historian jarduera transnazional garrantzitsuak izan direla, baina, Portes-en ustez, jarduera horiek ez dute egungo transnazionalismoaren adibideen erregularitasuna, errutina eta masa kritikoa. Iraganean izandako benetako transnazionalismoko kasuak salbuespenak izan dira. Egungo transnazionalismoa –egileen esanetan–, munduko ekonomiaren beste eboluzio-aldi bati dagokio; aldi berean, logika menderatzailearekiko egoera kaskarragoan bizi den jendeak garaturiko erantzun-eta estrategia-multzo ezberdin batek osatzen du transnazionalismo hori. Arrazoi

horregatik du garrantzia fenomeno hori gero eta gehiago gertatzea (Portes, Guarnizo eta Landlot, 1999:227).

Nahiz eta jarduera transnazionalak berriak ez izan, eta historian, iraganean, komunitate transnazionalen adibide argi eta garbiak badauden arren, transnazionalismoa gizarte-ikerketako esparru berria dela aldarrikatzen dute Portesek eta bere kolaboratzaileek. Zertan datza fenomenoaren benetako originaltasuna? Trukeen intentsitatea areagotu egin da; transakzio-modu berriak daude; eta, mugez gaindiko harreman jarraituei eta bidaiei dagokienez, gero eta jarduera gehiagotan egin behar da horrelakorik (Portes, Guarnizo eta Landlot, 1999:219). Hori dela-eta, badago transnazionalismoa ikerketa-esparrutzat hartzeko arrazoirik.

Izan ere, asko dira transnazionalismo migratzailea ikerketa-gaitzat hartu duten egile eta ikerlariak. Esparru horren edukiak zehazteaz gain, transnazionalismoaren operazionalizazioari heldu diote, bai eta ikerketa enpirikoari ere, fenomenoaren existentzia, adierazpenak, motak eta ondorioak egiaztatzeko<sup>5</sup>. Sortutako ikerketa-esparru horretan, gero eta gehiago jarduten da, baina, hala ere, asko dago egiteke, Europan, batez ere. Guarnizo-ren, Portes-en eta Haller-en hitzetan, “behetik” hasita munduan zehar lotura transnazionalak ugaritzea oso fenomeno garrantzitsua da, baina, hala eta guztiz ere, arreta gutxi eman zaio literatura soziologikoan (Guarnizo, Portes eta Haller, 2003: 1212).

Arreta gutxi eman bazaio ere, transnazionalismoak kritika dezente jaso ditu eta gogor ari dira horri buruz eztabaidatzen. Esaterako, transnazionalismoaren existentzia berari –fenomeno berri gisa– buruz jarduten dute, baina eztabaidak bereziki gogorak dira fenomeno horrek egungo gizarteetan eta gizarte-ordenan izan ditzakeen ondorioei buruz jarduten dutenean. Horrenbestez, batzuen ustez, jarduera transnazionalek “hirugarren eremu” lurraldegabe bat osatzen dute, eta ez dute zerikusirik aurretiko herri eta herrialdeekin; beraz, gaitasuna dute egungo sistema (Estatu-nazioaren sistema, alegia) higitzeko eta erorarazteko, sistema

hori gainditzen dute-eta (Kearney, 1991, 1995; Kastoryano, 2002). Beste batzuk haratago doaz, eta migratzaile transnazionalek “liberazio”-lana egiten dutela uste dute, status quo-ren egungo mugak saihesten dituztelako, hain zuzen ere. Esparru txikiagotan, batzuen ustez, transmigratzaileen ustezko gizarte-erreferentzia zehatzen falta, eta, beste batzuen ustez, jatorrizko identitateari eustea eta hori betikotzea nahikoa arrazoi dira etorkinak gizarte hartzaileetan integratuko ez direla beldur izateko. Sentipen hori bereziki bizia da Estatu Batuetako testuinguruan; hor, askoren ustez, asimilazio-prozesua da arraza-bereizkeria eta gizarte-bazterkeria

<sup>5</sup> Steven Vertovec, Alejandro Portes, Luis Guarnizo, Thomas Faist, Patricia Landlot, beste askoren artean. Badugu ikerketa-esparru berri horren garrantziaren adibide bat: Oxfordeko Unibertsitateko Gizarte eta Kultura Antropologiako Institutuan komunitate transnazionaleri buruzko ikerketa-programa zehatz bat sortu zuten, bost urteko (1997-2003) aldirako. Vertovec-ek zuzendutako proiektu horretan, zenbait ikerketa-proiektu, jardunaldi eta argitalpen egin zituzten transnazionalismoari eta transnazionalismoaren gizarte-, kultura-, politika-, ekonomia- eta nortasun-esparruei buruz.

eraginkortasunez ezaba ditzakeen prozesu bakarra. Sare eta jarduera transnazioaletan jarduten duten etorkinek, jatorrizko komunitateekin etengabe harremanetan izanik –erreferentzien eta alderdi praktikoen aldetik–, benetako zailtasunak izango lituzkete gizarte hartzaileetan integratzeko.

Beste batzuek, berriz, kontrako ideiak dituzte, eta aurretik aipaturiko alderdi guztiei aurre egiten diete: jatorri- eta xede-herrietan eta/edo -herrialdeetan egon daitezkeen mugek eta aukerek eragina dute jarduera transnazioaletan, bai eta bateko zein besteko leku zehatzetan bizia antolatzen duten araudiek ere; migratzaile transnazionalak, askotan, dauden ekonomia-, lege-, mendetasun-... aginduak urratu baino, betikotu egiten dituzte, beste modu eta baldintza batzuetan<sup>6</sup> (Smith eta Guarnizo, 1998). Bestetik, Estatu-nazioarekiko erasoari dagokionez, Estatuaren eta Nazioaren arteko harremanak berriro zehaztera behartuko badu ere, transnazionalismoak antolakuntza politiko-administratibo hori ez duela deuseztatuko adierazten dute zenbait egilek (Kastoryano, 2003). Eta transnazionalismoak integrazioa/asimilazioari dakarkion erronkari erreparatuta, egile batzuek transnazionalismoa eta asimilazioa bateragarriak direla esaten dute, eta, edonola ere, transnazionalismoak komunitate berri panetnikoak (Webner, 2002) edo irudikaturiko komunitateak (Anderson, 1983) sorrarazten baditu ere, bigarren eta ondorengo belaunaldietakoek prozesu horiei eusten dieten jakitea da gako nagusia, eta ez dirudi hori gertatuko denik (Lucassen, 2004).

Aipatutako horiek transnazionalismoak azken urteotan eraginiko eztabaiden ildo orokorrak baino ez dira; izan ere, fenomeno berria dugu, eta oraindik asko dago ikertzeko. Egile batzuek jada adierazi dituzte transnazionalismoari buruzko ikerketak zer behari erantzun beharko liekeen.

Smith-ek eta Guarnizo-k (1998), esaterako, transnazionalismoaren fenomenoak jorratzeko metodologia-arazoak azpimarratzen dituzte. Sakon ikertu behar diren gai batzuk aipatzeaz gain (esaterako, jarduera transnazionalak bigarren eta hirugarren belaunaldietan duten eragina), egileek bereziki azpimarratzen dituzte transnazionalismoaren ikerketaren behar epistemologikoak eta metodologikoak. Kasuazterketa enpirikoetan gehienbat ikuspegi antropologikoa jorratzen denez eta komunitate zehatz batzuen azterketan metodologia etnografikoak eta kualitatibok erabiltzen direnez, Smith-ek eta Guarnizok joera hori aldatu behar dela uste dute, fenomenoaren konplexutasuna ulertu ahal izateko eta metodologia etnografikoak soilik eta neurritz kanpo erabiltzeak sortutako zentzugabekeriak ez gertatzeko: "beraz, erronka bikoitza dugu; hau da: batetik, azterketan makro eta mikro motako determinatzaileak integratzea, eta, bestetik, ikerketa-estrategia egokia garatzea, eta estrategia hori prozesu transnazionalaren konplexutasuna ulertzeko

---

<sup>6</sup> Txinatarraren komunitateak eta horiek asentatze-herrialdeetan izaten duten ekonomia-jardunbidea adibide klasikoa dugu; izan era, jardunbide horrek antza gehiago du XIX. mendeko ekonomia kapitalistarekin, komunitate horiek asentatzeko aukeraturiko gaur egungo Estatuak (Estatu sozial eta zuzenbidezkoa) ekonomiekin baino.

gai izatea” (Smith eta Guarnizo, 1998: 24). Egile horien esanetan, transnazionalismoa aztertzean, orain arte hiru muga eta/edo akats sortu/egin dira, eta horiek gainditu beharko lirateke etorkizunean. Honako hauek dira:

- Ikerketa-metodo egokiak ez erabiltzea eta argi eta garbi ez zehaztea. Zenbait mailatako ikuspegia jorratu behar da: makroa, ertaina eta mikroa.
- Gizarte-gertaerak horien ondorioekin nahastea. Sarritan, prozesuak eta kontzeptuak nahasten dira, eta batera eta besterako erabiltzen dira prozesuak adierazten dituztenak (esaterako, gizarte-sare transnazionalak) eta prozesuen emaitzak edo ondorioak adierazten dituztenak (esaterako, komunitate transnazionalak). Horrenbestez, ahalegin handia egin behar da gaur egun nahasten diren eta nahasita erabiltzen diren kontzeptu eta prozesuak zehazteko, ikerketa enpirikorako zailtasun larriak eragiten dituzte-eta.
- Ez dago kasu-azterketatik ondorioak ateratzeko aukera ematen duen ikerketa konparatibo sistematorik. Egin beharko liratekeen ikerketa konparatiboen zenbait adibide ematen dituzte egileek: talde beraren ohiturak alderatzea, tokiko testuinguru ezberdinetan; udalerrri beretan dauden talde ezberdinen ohitura transnazionalak alderatzea; edo, etorkinen ohitura transnazionalak alderatzea, munduko eskualde ezberdinetan.

Bestetik, transnazionalismoak zenbait mailatan eragin ditzakeen ondorioei etorkizunean heldu behar zaiela azpimarratzen du Vertovec-ek (2004). Azterketa-arloak deskribatzen ditu, transnazionalismoak eragiten dituen oinarrizko hiru esparrutan: sozio-kulturala (gizarte igorleetan eta hartzaileetan jarduten duten gizabanakoaren *habitus*a egokitzea), politikoa (ezarritako identitateak, mugak eta ordenak berretzea) eta ekonomikoa (eragina, garapenean). “Prozesu horiek eta beste batzuk –dio Vertovec-ek– gertatuko dira etorkizun hurbilean. Transnazionalismo migratzaileko jarraibide asko (aipatutakoak, esaterako) eta horiei lotutako eraldatze-moduak hedatu, areagotu eta azkartu dira”. (Vertovec, 2004:55). Eta bigarrenengo eta ondorengo belaunaldiek gurasoen praktika eta ohitura transnationalei ez eustea gerta litekeela onartzen badu ere, praktika eta ohitura horiek haien nortasunean, interesetan eta jardueretan erabateko eragina izango dutela adierazten du.

Argi dago, beraz, transnazionalismoak etorkizunerako gizarte-azterketako benetako arloa osatzen duela, eta arlo hori benetan berria eta bizia dela. Edonola ere, ezin da ukatu transnazionalismoaren eta etorkinen integrazioaren (gizarte hartzaileetan) arteko harremanek, berez, ikerketa-arlo garrantzitsua osatzen dutela, gai nagusietakoak dira-eta transnazionalismoaren azterketak eragindako eztabaidetan.

## Migrazioak kudeatzea

Migrazioen arloan gai berria dugu ere migrazio-mugimenduak eta horien ondorioak *kudeatu* beharraren ideia. Aurreko gaia bezala, obra honetako kapituluetak

batean jorratzen da gai hori. Kudeaketaren ideiak giza migrazioak jorrazteko ikuspegi berri bat adierazten du.

Mugimenduen bolumena, gizarte-ondorio zabal eta konplexuak, eta gizarte-gatazka eta -arazo berrien sorrera (gizakien salerosketa, munduan aldeak areagotzea, etab.) direla-eta, munduko herrialdeetako agenda politikoetako gai nagusietakoa bihurtu dira migrazioak, bai herrialde garatueta, bai garapen-bidean dauden herrialdeetan. Izan ere, XX. mendeko amaieran aldaketa garrantzitsuak izan dira migrazio-mugimenduak ulertzeko moduan eta horiek jorrazteko erabilitako ikuspegian.

Migrazio-mugimenduak ulertzeko moduari dagokionez, aurreko mendean baka-rik, zenbait diskurtso-jarrierei eutsi diete, eta horiek sendotuz joan dira bata bestearen atzetik. Alde horretatik, XX. mendeko lehen erdiko ekonomia liberalaren ustez, nazioarteko ekonomia- eta enplegu-desdoitzeak orekatzeko mekanismoa ziren migrazio-mugimenduak. Hori da, hain zuzen, *push-pull* teoria ezagunaren oinarria. Hala ere, ikuspegi horren arabera, onurak eraginkorak izateko, ez luke egon behar migrazio-mugimenduei buruzko araudirik; lan-merkatuak berak erregulatu behar ditu migrazioaren joan-etorriak<sup>7</sup>.

Ondoren, immigrazioak historian eginkizun ekonomiko positiboak bete eta gero, negatiboak izan zitekeela pentsatzen hasi ziren. Horrela gertatu zen Europan: gerrek hondatutako herrialdeak altxatzeko, eskulan ugari behar izan zuten. Behin gizarte- eta ekonomia-garapeneko nolabaiteko maila lortu eta gero, bazirudien atzerriko eskulana hain beharrezkoa ez zela, bereziki egitura-aldaketek zirela-eta bertako biztanleen langabezia-maila handitu zenean. Horrenbestez, diskurtso negatiboak eta mehatxuzkoa sortu zen: etorkinak bertako biztanleekin lehian ari ziren, baliabide urri batzuegatik (lana eta gizarte-zerbitzuak).

90eko hamarkadaren amaieran, ikuspegi hori aldatzen hasi zen. Zenbait faktoreen eraginez (unean uneko eskulan-behar berriak; gero eta erritmo handiagoko hazkunde ekonomikoari eusteko espezializazio-eskakizunak; herrialde garatueta-ko jaiotza-tasa txikiak eta biztanleria zahartzea), alor horretako agintariek eta adituek gogoeta egiteari ekin zioten, eta honako ondorio hau ateratu zuten: immigrazioa denontzat positiboak izan daiteke, *baldin eta behar bezala bideratzen bada*. Eta hemen agertzen da migrazio-mugimenduak jorrazteko moduaren aldaketa.

Nazioarteko mugikortasuna gero eta handiagoa izateak desdoitze eta disfuntzio larriak sorrarazi ditu; batetik, nazioarteko migrazio-politikarik ez dagoelako, eta,

---

<sup>7</sup> Ikuspegi hori defendatzen dute oraindik ere ekonomialari liberal aditu batzuek, nahiz eta zenbait nabardurekin. Esaterako, Michael Todaro-k, ikuspegi horren aitzindariak (Todaro, M. "A Model of Labor Migration and Urban Unemployment in Less Developer Countries", *American Economic Review*, 59 (1), 1969, 138-148), eta George Borjas-ek. Azken horrek, duela gutxi argitaraturiko lan eztabaidatuan, zalantzan jarri du AEBei atzerriko eskulanak onurak ekar diezazkiekeenik; egilearen ustez, AEBetan ez dute eskulan horren beharrik, eta herrialdearen mugen barruan langile horien kargu hartu behar dute (Borjas, G.J., *Heaven's Door: Immigration Policy and the American Economy*. Princeton University Press, 2001). Horrenbestez, immigrazioaren onurak kalte bihurtuko lirateke, kanpoko langileak herrialdeko ekonomiarentzat beharrezkoak ez balira. Okerreko kontratatze-politikek edo eskulana integratzeko politikek babestutako immigrazioa, immigrazio disfuntzionala bihurtzen da.



bestetik, herrialdeetako migrazio-politikak beste prozesu nagusi batzuekiko “formalki isolatuta” daudelako (Sassen, S.; 2001:95). Ekonomia liberaleko teoria tradizionaletan, migrazio-mugimenduak munduko eskualdeen arteko garapen-aldeak erregulatzeko mekanismoak zirela aldarrikatzen zuten, baina teoria horrek ez du korrelaturik izan errealtatean. Zenbait egileren esanetan (esaterako, Inmanuel Wallerstein), migrazio-mugimenduek nazioarteko lan-merkatua ez orekatzeaz gain, munduko herrialde pobreenen eta aberatsenen arteko aldeak areagotu egin dituzte (Balibar eta Wallerstein, 1991). Adierazpen hori paradoxikoa badirudi ere, badira hori azaltzen duten zenbait faktore eta arrazoi: herrialde pobreetan giza kapitalaren migrazioak eragindako deskapitalizazioa (langile horiek izaten direlako, hain zuzen, garapen-prozesuak lantzeko eta gidatzeko hobekien prestatuta daudenak), edota herrialde hartzaileetako ekonomia-garapenaren erritmoari (gero eta handiago) eusteko behar den eskulana joatea.

Edonola ere, azken aldian, migrazio-mugimenduekin lotutako arazo larriak ditugu gizakien salerosketa eta legez kanpoko immigrazioa, eta gero eta leku gehiagotan gertatzen dira.

Gizakien mugikortasuna gero eta handiagoa izateari aurre egin ezin zaionez, fenomeno horrekin zuzenean lotuta dauden herrialde askok (bai herrialde igorle izateagatik, bai herrialde hartzailea izateagatik) jarreraz aldatzea erabaki dute. Badirudi herrialde batzuek (herrialde hartzaileek) immigrazioaren fenomenoari aurre egiteko erabilitako jarrera pasiboa (mugen “defentsa” eta kontrola) alde batera uzten ari direla; beste herrialde batzuetan, berriz, hamarkada askotan eskulana atzerrira joatean erabateko *laissez-faire*ko jarrera bazuten ere, ez diote jada horri eusten. Gaur egun, batzuk nahiz besteak bat datoz: immigrazio-fenomenoa jorrazteko ikuspegi proaktiboa erabili behar dela pentsatzen dute, bai eta kudeaketaren (kontrol hutsiko fasea gaindituz) eta nazioartekotasunaren ideiak erabili behar direla ere, subiranotasunari uko egin gabe.

Nazioartean, migrazioen gaiari heltzeko eskualde-politika eta -hitzarmen globalak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta horren adibide ditugu zenbait ekimen. Ekimen horietan, herrialde igorleek eta hartzaileek hartzen dute parte, kudeaketaren ideiak denentzat ekar zitzakeen onuren bila. Esaterako, 1996. urteaz geroztik, Migrazioei Buruzko Eskualde Konferentzian, Amerikako (Ipar eta Erdialdeko Amerika) herrialde igorleak eta hartzaileak lankidetzan jarduteko biltzen dira, migrazio-fluxuek eragin positiboa izan dezaten herrialde igorleentzat nahiz hartzaileentzat. Pueblako Konferentzia (Mexiko, 1996) esaten diote, eta honela adierazi zuten konferentziako jakinarazpen ofizialean:

“Oro har, migrazioa fenomeno onuragarria da; izan ere, abantailak ekar diezazkieke jatorrizko herrialdeei nahiz xede-herrialdeei. Hala eta guztiz ere, onura horiek gauzatzeko, ezinbestekoa da migrazioa antolatua izatea”

1996tik urtero-urtero bildu dira Migrazioei buruzko Eskualde Konferentziako herrialdeak (Belize, Kanada, Costa Rica, El Salvador, Ameriketako Estatu Batuak, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua eta Panama), eta, elkarrizketa emankorrei ekin eta gero, lankidetzako zenbait ekimen zehatzak gauzatu dituzte, Amerikako latitude horietan sortutako migrazio-fluxuak eraginkortasunez kudeatzeko.

Bernako Ekimena ere aipagarria dugu. 2001ean ekin zioten eta, eginiko lanen ondorioz, Migrazioen kudeaketarako nazioarteko agenda aurkeztu dute duela gutxi (2005eko maiatzean). Honela diote agendaren hitzaurrean:

“Azken urteotan, migrazioak gero eta leku gehiago hartu du nazioarteko gaitzerrendan, eta, gaur egun, gobernu guztien premiazko arreta eskatzen du, gobernu horiek pertsonen mugimenduen kudeaketan zer-nolako interesa edo partaidetza duten alde batera utzita. Migrazioaren kudeaketak sortutako erronkak gaur egungo erronken isla dira, eta, aukerak behar bezala bideratuz gero, onurak ekar diezazkieke jatorrizko herrialdeei, xede-herrialdeei eta migratzaileei”.

Jarrera pasiboaren ordeztu (mugen kontrol hutsa, alegia), badirudi migrazio-fluxuak modu egokian kudeatzeko beharra dela herrialdeen migrazio-politiketako ildo nagusia. Bestetik, ekimenak eskualde- edo nazioarte-esparruan jorratzea (herrialdekako politika isolatuen ordeztu) dirudi bide egokiena kudeaketa hori denen mesederako izateko.

Horrenbestez, badira migrazio-fenomenoak azterketa-gaitzat gero eta interes handiagoa izateko oinarriak. Batetik, integrazio-prozesuak berradieraztearen beharra aipa dezakegu, zenbait fenomeno (transnazionalismoa, adibidez) gero eta gehiago gertatzeagatik, eta beste fenomeno batzuk larriagotzeagatik (esaterako, bizitegi-segregazioa). Bestetik, migrazioaren ikuspegi orokorrean nagusi izan diren ideiak (migrazio-motei, fluxuen norabideei, bizitegiak aukeratzeko ereduaren arrazoiei buruzko ideiak) ere berrikusteko beharra dago, bai eta kultur aniztasuna gizarte-balio konpartitutzat ulertu ere.

## Erreferentziak

ACNUR. *Los refugiados en cifras*. Zenbait urtetako datuak ([www.acnur.org](http://www.acnur.org)).

BALIBAR, E. eta WALERSTEIN, I. *Raza, Nación y Clase*. Madril, IEPALA. 1991.

BLANCO, C. “La integración de los inmigrantes. Fundamentos para abordar una política global de intervención”. *Migraciones*, 10 2001, (207-248).

BLANCO, C. “La gestión de los flujos migratorios. Algunas cuestiones previas en torno al caso español”, *Mediterráneo Económico* 1, 2002 (225-245).

BLANCO, C. “Avances para la creación de una política común de inmigración y asilo en la UE”, in *La inmigración en la UE: situación y perspectivas para Euskadi*.

- Bilbo, Mugimendu Europazalearen Euskal Kontseilua, 2003. (23-34).
- BLANCO, C. "Las migraciones internacionales y su incidencia en el País Vasco", in *Ekonomi Gerizan* 13. zenbakia, 2006.
- BORJAS, G.J. *Heaven's Door. Immigration Policy and the American Economy*. Princeton University Press. 2001.
- FAIST, Thomas. "Transnationalization in International Migration: implications for the study of Citizenship and Culture". Working Paper WPTC-99-08 of Transnational Communities Programme. ISCA, University of Oxford.  
(www.transcom.ox.ac.uk) 1999.
- FAIST, Thomas. "Developing transnational social spaces: the Turkish German example". L. Pries (comp) *Migration and Transnational Social Spaces*. Aldershot, Ashgate (36-72) 1999 b).
- FITZGERALD, David. *Negotiating Extre-Territorial Citizenship: Mexican Migration and the Transnational Politics of Community*. Center for Comparative Immigration Studies, University of California. 2000.
- FITZGERALD, David. "Beyond 'transnationalism': Mexican hometown politics at an American labour union". *Ethnic and Racial Studies*. 27. lib., 2. zenbakia (228-247). 2004.
- GCIM. *Las migraciones en un mundo interdependiente: nuevas orientaciones para actuar*. Comisión Mundial sobre las Migraciones Internacionales, 2005.
- GLICK-SCHILLER, N.; BASCH, L.; SZANTON-BLANC, C. (editoreak). *Towards a Transnational Perspective on Migration. Race, Class, Ethnicity, and Nationalism Reconsidered*. New York: New York Academy of Sciences. 1995.
- GUARNIZO, L.E. y SMITH, M.P. "The Locations of Transnationalism", L.E. Guarnizo eta M.P. Smith (editoreak), *Transnationalism from Below. Comparative Urban and Community Research*, 6. lib. (3-34) 1998.
- GUARNIZO, L.E. "The economics of transnational living". *International Migration Review*. 2003.
- GUARNIZO, L.E.; PORTES, A. y HALLER, W. "Assimilation and transnationalism: determinants of transnational political action among contemporary migrants". *AJS*, 108. lib. (6) (1211-1248) 2003.
- GUIRAUDON, V. (Ed.) *Controlling a New Migration World*, Routledge, 2001.
- KASTORYANO, R. *Negotiating Identities. States and Immigrants in France and Germany*, Princeton, Princeton University Press, 2002.
- KASTORYANO, Riva. "The Reach of Transnationalism". E. Hershberg eta K. Moore, *Critical Views of September 11. Analyses from Around the World*. W.W. Norton & Company. 2002.

KASTORYANO, Riva. "Transnational Participation and Citizenship: Immigrants in European Union". *National Europe Centre Paper* n.64. 2003.

KEARNER, Michael. "The local and the global: the anthropology of globalization and Transnationalism". *Annual Review of Anthropology*, 24 (547-565). 1995.

OCDE. *Factbook 2005*. (www.oecd.org) 2005.

LUCASSEN, Leo. "Is Transnationalism compatible with assimilation? Examples from Western Europe since 1850". Migratzaileak, nazioak eta herritartasuna (Migrants, Nations and Citizenship) konferentzia aurkeztutako agiria. CRASSH, University of Cambridge. 2004.

OCDE. *Labour Force Statistics*. Paris, 2004.

ELGA. *Trends in International Migration*. SOPEMI, 2002, 2003, 2004.

OIM, *World Migration 2005: Costs and Benefits of International Migration*. Geneva, 2005.

PORTES, Alejandro. "Conclusion: towards a new world: the origins and effects of transnational activities" *Ethnic and Racial Studies*. 22. lib, 2. zenbakia (463-477). 1999.

PORTES, A.; GUARNIZO, L.E; LANDLOT, P. "The study of Transnationalism: pitfalls and promise of an emergent research field". *Ethnic and Racial Studies*. 22. lib, 2. zenbakia (217-237). 1999.

PORTES, A.; HALLER, W. eta GUARNIZO, L.E. "Transnacional entrepreneurs: the emergente and determinants o fan alternative form of immigrant economic adaptation". *American Sociological Review*, 67 (278-298) 2002.

PORTES, A.; ESCOBAR, C. eta WALTON, A. "Immigrant Transnational Organizations and Development: A Comparative Study". (prentsan). 2006.

SASSEN, S. *¿Perdiendo el control?* Bartzelona, Bellaterra, 2001.

SCHNAPPER, D. *La comunidad de ciudadanos*. Madril, Alianza, 2001.

TODARO, M. "A Model of Labor Migration and Urban Unemployment in Less Developer Countries", *American Economic Review*, 59 (1), (138-148). 1969.

UNITED NATIONS. *International Migration Report 2002*. New York, 2002.

VERTOVEC, Steven. "Conceiving and Researching Transnationalism". *Ethnic and Racial Studies*. 22. lib, 2. zenbakia. 1999.

VERTOVEC, Steven. "Transnational Challenges to the "new" Multiculturalism". Transnational Communities Programme programaren WPTC-01-06 lanerako agiria.

ISCA, University of Oxford. [www.transcom.ox.ac.uk](http://www.transcom.ox.ac.uk). 2001.

VERTOVEC, Steven. *Trends and Impacts of Migrant Transnationalism*. Centre on Migration, Policy and Society. University of Oxford, lanerako agiria, 3. zenbakia. 2004.

WALDINGER, R. y FITZGERALD, D. "Transnationalism in Question". *American Journal of Sociology*, 109, 5 (1177-1195). 2004.

ZLOTNIK, H. *The Global Dimensions of Female Migration*. New York, Nazio Batuak, 2003.





*Lehen zatia. Migrazio-fluxu eta -sare garaikideak*





## **Nazioarteko Migrazio-Joerak, 1980. urtetik**

Hania Zlotnik<sup>1</sup>

*Populazio Banaketa*

*Ekonomia eta Gizarte Gaietako*

*Departamentua Nazio Batuak*

### **A. Sarrera**

Asko dira XX. mendeko azken hamarkadetan nazioarteko migrazioa asko igo zela diotenak. Nazio Batuen Populazio Banaketak (United Nations, 2004a eta 2004b) munduko herrialde bakoitzeko nazioarteko migrazio-kopuruaren estimazioak egin zituen, eta, datu horietan oinarrituta, 1980. urtetik nazioarteko migrazioan izandako aldaketak ebaluatu dira txosten honetan.

1980. eta 2000. urteen artean, munduko nazioarteko migrazioa 100 milioitik 175 milioi-ira igo zen. Beraz, urtean, %2,8ko gorakada izan zuen, 1960. urtetik izan duen gorakadarik azkarrena. Dena den, igoera hori ez zuen populazioaren mugikortasunak berez eragin, Sobietar Batasunaren zatiketaren ondoren sortutako estatuak baizik. Zatiketa hori gertatu izan ez balitz, nazioarteko migrazio-kopurua 27 milioi baxuagoa izango zen 2000. urtean, eta kopuru hori ez zen hain azkar igoko.

Nazioarteko migratzaile-kopuruaren hazkuntza lurraldetik lurraldera aldatu egin dela erakusten du txosten honek. Hau da, SESBren (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) zatiketa kontuan hartu gabe ere, 1980. urtearen ondoren, nazioarteko migratzaile-kopurua oso azkar igo zen lurralde garatuetan eta oso poliki garapen-bidean zeuden herrialdeetan. Izan ere, 90eko hamarkadan, garapen-bidean zeuden herrialdeetan, nazioarteko migratzaile-kopurua ez zen apenas aldatu, mundu-esparruari dagokionez.

Mundu garatuan izandako nazioarteko migratzaile-kopuruaren hazkuntza azkararen eta etengabearen ondorioz, handitu egin da nazioarteko migratzaile-kopuruaren

---

<sup>1</sup> Txosten hau *Estudio Económico y Social Mundial 2004* lanaren II. kapituluaren "Tendencias de la Migración Internacional" (Nazio Batuak, 2004c) eta "The global dimensions of female migration" (Zlotnik, 2003) dokumentuan oinarritzen da, batez ere. Bestalde, txosten honetan adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearenak dira eta ez dute, derrigorrean, Nazio Batuen iritziekin bat etorri behar.

kontzentrazioa herrialde garatuetan; esaterako, munduko nazioarteko migratzaile guztien bostena Ameriketako Estatu Batuetan biltzen da.

Oro har, herrialde guztiek hartzen dituzte nazioarteko migratzaileak, baina munduko migratzaile gehien-gehienak herri gutxi batzuetan kontzentratzen dira. 2000. urtean, munduko nazioarteko migratzaile guztien hiru laurden 28 herrialdeetan bildu ziren: 13, garapen-bidean zeuden herrialdeak ziren; 10, herrialde garatuak; eta 4, SESB ohiaren ondorengo herrialdeak.

Emakumeek aspalditik hartu izan dute parte aktiboki nazioarteko migrazioan. 60ko hamarkadako kalkuluen arabera, garai hartan, emakumeak eta neskak nazioarteko migratzaile guztien %47 ziren; 2000. urtean, berriz, ia %49. Herrialde garatuetan, emakumezko migratzaileak gizonezko migratzaileak baino ugariago dira. Garapen-bidean dauden herrialdeei dagokienez, bestalde, emakumezkoak gutxiago dira Afrikaren iparraldean eta Asiaren hegoaldean eta erdialdean: populazio migratzailearen %43 eta %44 dira, hurrenez hurren. Emakumezko migratzaile-kopuruaren hazkuntza, beraz, ez da unibertsala eta uniformea izan lurralde guztietan.

## **B. Nazioarteko migratzaile-kopuruaren joerak, lurraldeka**

2000. urtean, munduko 35 pertsonatik bat nazioarteko migratzailea zen. Bi hamarkada lehenago, berriz, 44 pertsonatik bat zen nazioarteko migratzailea. 1980. eta 2000. urteen artean, nazioarteko migratzaile-kopurua %75 handitu zen munduan, eta ia 100 milioi izatetik 175 milioi izatera pasa zen. Dena den, hazkunde horren heren bat baino gehiago Sobietar Batasunaren zatiketaren ondorio izan zen. Are gehiago, 1991n, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna (SESB) 15 estatu independentek ordezkatu zutenean, jatorrizko errepublika ez zen beste batean bizitzeagatik, SESBn barne-migratzaile izandako pertsonak nazioarteko migratzaile bihurtu ziren, egun batetik bestera. Gutxi gorabehera, 27 milioi pertsona zeuden egoera horretan.

Mundu osoko nazioarteko migratzaile guztien kopuruaren estimazioak lortzeko, SESB ohiaren zatiketaren ondorioak 1990. urtea baino lehenagokotzat jo ziren, 1990. eta 2000. urte arteko migratzaile-kopuruaren hazkuntza erreala (1. taula) hobeto adierazteko. Beraz, zatiketaren eraginez, 1980 eta 1990 urteen arteko hazkuntza apur bat aldatuta dago. Hori kontuan izanda, nazioarteko migratzaile-kopurua 54 milioi handitu zen hamarkada hartan. Kopuru horri SESBko migratzaile-kopurua kenduz gero, 1980 eta 1990 urte bitarteko hazkuntza erdira jaisten da: 27 milioira. Hala ere, 1990 eta 2000 urte bitarteko kalkulaturakoa baino handiagoa da. Hau da, zatiketaren ondorioak kontuan hartu gabe ere, gero eta geldoagoa egin zen mundu guztian 1990 eta 2000 artean izandako migratzaile-kopuruaren hazkuntza. 90eko hamarkadako hazkuntza-indizeari eutsi izan balitz, 2005. urtean nazioarteko migratzaile-kopurua 190 milioitik gertu egongo litzateke.

Mundu guztian nazioarteko migratzaile-kopuruaren hazkuntza moteldu izana, oro har garapen-bidean dauden herrialdeetan nazioarteko migratzaile-kopuruak ia bere horre-

tan eutsi izanarekin lotu behar da, batez ere. Horrenbestez, garapen-bidean zeuden herrialdeetan, nazioarteko migratzaile-kopurua 80ko hamarkadan 12 milioi handitu zen (52 milioitik 64ra); baina, 90eko hamarkadan, ia kopuru horri eutsi zion. Bestalde, ez baditugu SESB ohiari eragindako aldaketak kontuan hartzen, lurralde garatuenean 15 milioi migratzaile jaso zituzten, 1980 eta 1990 artean, eta 21 milioi baino gehiago, 1990 eta 2000 artean. Hau da, 80ko hamarkadan, herrialde garatuek (SESB kontuan hartu gabe) nazioarteko migratzaileen %20 gehiago soilik jaso zuten, garapen-bidean zeuden herrialdeek baino, eta 90eko hamarkadan, berriz, mundu guztiko nazioarteko migratzaile-kopuruaren ia hazkuntza osoa jaso zuten.

Garapen-bidean dauden herrialdeetan migratzaile-kopurua orekatu izanak asko zor dio munduan izandako beherakada nabarmenari. 2. taulak erakusten duenez, errefuxiatuak alde batera utziz, garapen-bidean dauden herrialdeetako migratzaile-kopurua 1980an 44 milioi izatetik 1990ean 47 milioi baino gehiago izatera pasa zen eta 2000n 51 milioi izatera. Beraz, gutxi gorabehera, 3 milioi hamarkada bakoitzean. Bestalde, garapen-bidean zeuden herrialdeetako errefuxiatu-kopurua bat-batean hazi zen 1980. eta 1990. urteen artean (8 milioitik 17 milioira, 9 milioiko hazkuntza), baina, gero, 90eko hamarkadan, asko egin zuen behera (3,5 milioi) eta 2000. urterako 13,5 milioi-raino jaitsi zen. Beraz, 90eko hamarkadan gertatu zen errefuxiatu-kopuruaren murrizketak orekatu egin zuen aldi berean garapen-bidean zeuden herrialdeetan izandako beste migratzaile-kopuruaren etengabeko hazkuntza eta ez zuen inolako aldaketarik ekarri garapen-bidean zeuden herrialdeetako populazio migratzailean.

Gertaera horien ondorioz, aldaketa handia izan da mundu garatuan nazioarteko migratzaile-kopuruari dagokionez. 1980an, nazioarteko migratzaile-kopuru guztiaren %48 herrialde garatuetan (SESBn izan ezik) bizi zen eta %52 garapen-bidean zeuden herrialdeetan; 2000n, berriz, nazioarteko migratzaile-kopuru guztiaren %46 herrialde garatuetan bizi zen eta soilik %37 garapen-bidean zeuden herrialdeetan (1. taula). SESB ohia kontuan hartuz gero, herrialde horietako nazioarteko migratzaileen ehunekoak %48ra igoko litzateke 1980. urtean eta %63ra 2000. urtean. SESB ohiaren ondoren sortutako estatu batzuk, egun, garapen-bidean dauden herrialdeetat hartzen direla kontuan hartuta ere, mundu garatuko nazioarteko migratzaile-kopuruak ia %60 izaten jarraitzen zuen 2000. urtean.

**1. taula. Nazioarteko migratzaile-kopuraren garapena, munduan eta leku nagusietan, eta nazioarteko migratzaile-banaketa<sup>a</sup>ri dagokionez hautatutako adierazleak, 1980-2000**

Tokil nagusia	Nazioarteko migratzaile-kopurua (milioiak)			Nazioarteko migratzaile-kopuraren urteko batez besteko hazkuntza-indizea (ehunekoa)			Nazioarteko migratzaileen populazioarekiko ehunekoa		Nazioarteko migratzaile-banaketa <sup>a</sup> ren ehunekoa, lurraldeka	
	1980	1990	2000	1980-1990	1990-2000	1980	2000	1980	2000	
Mundua	99,8	154,0	174,9	4,3	1,3	2,3	2,9	100,0	100,0	
Herralde garatuak	47,7	89,7	110,3	6,3	2,1	4,2	8,7	47,8	63,1	
Herralde garatuak, SESB izan ezik	44,5	59,3	80,8	2,9	3,0	5,1	8,3	44,6	46,2	
Garapen-bidean dauden herraldeak	52,1	64,3	64,6	2,1	0,0	1,6	1,3	52,2	36,9	
Afrika	14,1	16,2	16,3	1,4	0,0	3,0	2,0	14,1	9,3	
Asia <sup>a</sup>	32,3	41,8	43,8	2,6	0,5	1,3	1,2	32,4	25,0	
Latinoamerika eta Karibe	6,1	7,0	5,9	1,3	-1,7	1,7	1,1	6,2	3,4	
Iparramerika	18,1	27,6	40,8	4,2	3,9	7,1	12,9	18,1	23,3	
Ozeania	3,8	4,8	5,8	2,3	2,1	16,4	18,8	3,8	3,3	
Europa <sup>b</sup>	22,2	26,3	32,8	1,7	2,2	4,6	6,4	22,2	18,7	
SESB ohia	3,3	30,3	29,5	22,3	-0,3	1,2	10,2	3,3	16,8	

Iurria: Nazio Batuen Populazio Banaketa, Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision (POP/DB/MIG/2003/1 eta ESA/P/WP.188), informazioa euskari digitalatzen.

<sup>a</sup>: Armenia, Azerbaijan, Georgia, Kazakhstan, Kirgizistan, Tadjikistan, Turkmenistan eta Uzbekistan izan ezlik.

<sup>b</sup>: Bielorrusia, Estonia, Letonia, Lituania, Mordoviako errepublika, Errusiar Federakundea eta Ukraina izan ezlik.

Eskualdeko, nazioarteko migratzaile-ehunekoaren hazkuntza Iparramerikan (1980ko %18tik 2000ko %23ra) eta SESB ohian (%3tik %17ra, 1980 eta 2000 urteen artean) gertatu zen, batez ere. Gainerako lurralde guztien ehunekoa jaitzi egin zen; bereziki, Asian, Latinoamerikan eta Kariben. Asian, 1980an, %32 zen nazioarteko migratzaile-ehunekoa, eta 2000n, %25; Latinoamerikan eta Kariben, berriz, ehunekoa ia erdira jaitzi zen, 1980 eta 2000 urteen artean (%6tik %3ra).

Iparramerikan nazioarteko migratzaile-kopuruan izan zen bat-bateko hazkuntza azpimarratu behar da; izan ere, 1980 eta 2000 artean, kopurua bikoiztu egin zen: 18 milioi izatetik 41 milioi izatera pasa zen. Urtean, %4,1 hazi zen, batez beste. Hazkuntza hori Ameriketako Estatu Batuetan atzerritarren multzoan sortutako populazioaren gorakadaren ondorio da, batez ere; 1980an, 14 milioi izatetik 2000n 35 milioi izatera pasa ziren. Aldaketa horiek zirela-eta, Iparramerikako nazioarteko migratzaile-ehunekoa ia bikoiztu egin zen; zehazki, %7 tik (1980) %13ra (2000).

Europar ere (SESB ohia kontuan hartu gabe) nazioarteko migratzaile-kopuruak modu adierazgarrian egin zuen gora; bereziki, 90eko hamarkadan. 1980 eta 2000 artean, 22 milioitik 33 milioira hazi zen kopuru hori, eta, populazio osoaren ehunekoari dagokionez, %4,6tik %6,4ra. Hau da, 1970ean, Europako nazioarteko migratzaile-kopurua Ameriketako Estatu Batuetakoaren bikoitza zen; mende amaieran, ordea, Ameriketako Estatu Batuetan nazioarteko migratzaile gehiago zeuden European baino (SESB ohia kontuan hartu gabe).

Faktore askok zuzendu dituzte migrazio-fluxuak ikusi ditugun aldaketa horietara. Herrialde garatuek eta garapen-bidean dauden herrialdeek diru-sarrerei eta lan-aukerei dagokienez duten betiereko desberdintasunen ondorioz, herrialde garatuak geroz eta helmuga erakargarriago bihurtu dira garapen-bidean dauden herrialdeetako migratzaileentzat; bereziki, garapenaren marrak banatutako herrialdeen artean, aurrez, beste era bateko lotura dagoenean. Horrez gain, aldaketa politikoaren eraginez (80. urtean hasi eta European eta SESB ohian erregimen komunistaren desagertpenarekin amaitu zena), herrialde komunistetan nazioarteko mugimenduen liberalizazioa gertatu zen, eta horrek migratzaileen irteera-fluxu handia eragin zuen. Ekialdeko herrialde-multzoko migratzaile askok mendebaldean sartzea lortu zuten, asilo eskatzaile moduan. Bereziki, Jugoslavia ohiaren zatiketarekin lotutako gatazkak pertsona-fluxu handia eragin zuen; hain zuzen, ondoko herrialdeetara babes bila zihoazenak. Gainera, herrialde komunistak ohietako gutxiengo etnikoei immigrazioa erraztu zieten, eta ondorioz, hainbat herrialdek (esaterako, Alemaniak, Greziak eta Israelek) sekula jaso gabeko migratzaile-kopurua jaso zuten, denbora gutxian, 80ko urteen amaieran eta 90eko urteen hasieran.

Aurrez aipatu bezala, behartutako migrazio-joerak asko aldatu ziren 80ko hamarkadaren amaieraren eta 90eko hamarkada hasieraren artean. 90eko urteen hasiera arte etengabe handituz joan zen errefuxiatu-kopuru guztia hamarkada horretan bertan murriztu zen. 80ko hamarkada nahaste handiko garaia izan zen; gainera, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordearen babesean, errefuxiatu-kopurua asko handitu zen: 7 milioitik 16 milioira pasa zen 1980 eta 2000. urteen artean. 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadan, iraupen luzeko gatazka asko konpondu

ziren; ondorioz, borondatezko aberrirratzea posible izan zen hainbat errefuxiatu-populazientzat eta horien kopuruak behera egin zuen. 2000. urtean, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordearen babesean zeuden errefuxiatu-kopurua 12 milioira jaitsi zen (horiek NBEren Laguntza Zerbitzuaren babesean zeuden 5 milioi errefuxiatuarekin batera, munduko nazioarteko migratzaile guztien %9,7 osatzen zuten). Munduko errefuxiatu gehienek garapen-bidean zeuden herrialdeetan aurkitu zuten asiloa; batez ere, Afrikan eta Asian. Errefuxiatuak migratzaile guztien ehuneko handia ziren garapen-bidean zeuden herrialde horietan. Asian, esaterako, errefuxiatuak nazioarteko migratzaile guztien %23 ziren, 2000. urtean, eta Afrikan, berriz, %22. 90eko hamarkadan, errefuxiatu-kopuruaren murrizketa nabarmenagoa izan zen Afrikan (5,4 milioitik 3,6 milioira jaitsi zen) eta Latinoamerikan eta Kariben (1,2 milioitik ia hutsa ez izatera pasa zen). 1980. eta 2000. urteak alderatuz, mundu garatuko errefuxiatu-kopuruak etengabe gora egin zuen, eta 2000. urtean 3 milioira iritsi zen (herrialde garatuetako migratzaile guztien %3 da kopuru hori).

Errefuxiatuak ez ziren nazioarteko migratzaileen %90 horretatik, gehien-gehienak aukera ekonomiko hobegoen bila joan ziren. Dena den, tradizionalki, bereizketa bat egin izan da ekonomikoki aktiboak diren migratzaileen eta beste arrazoi batzuegatik (normalean, ekonomikoki aktiboak diren pertsonen laguntzeko eta atzerrian ikasteko) mugitu diren pertsonen artean. Ez dago ekonomikoki aktiboa den nazioarteko migratzaile-kopurua erakusten duen informaziorik. LANEk kalkulatu du nazioarteko migratzaile guztien %50 (hau da, 86 milioi), gutxi gorabehera, 2000. urtean ekonomikoki aktiboa zirela.

Asilo-leku nagusia	Nazioarteko migratzaile-kopurua, errefuxiatuak izan ezik (milioiak)			Errefuxiatu-kopurua (milioiak)			Errefuxiatu-ehunekoa		
	1980	1990	2000	1980	1990	2000	1980	1990	2000
Mundua	90,2	135,0	158,3	9,5	19,0	16,6	9,6	12,3	9,5
Herrialde garatuak	46,2	87,6	107,1	1,5	2,0	3,2	3,1	2,2	2,9
Garapen-bidean dauden herrialdeak	44,0	47,4	51,2	8,1	17,0	13,5	15,5	26,4	20,8
Afrika	10,5	10,9	12,7	3,6	5,4	3,6	25,6	33,0	22,0
Asia	28,0	31,3	33,9	4,3	10,4	9,8	13,3	25,0	22,5
Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordearen babesean	..	..	..	2,0	7,4	5,1	6,1	17,7	11,6
NBEren Laguntza Zerbitzuaren babesean	..	..	..	2,3	3,1	4,8	7,2	7,3	10,9
Latinoamerika eta Karibe	6,0	5,8	5,9	0,1	1,2	0,0	2,4	17,1	0,8
Iparramerika	17,4	27,0	40,2	0,6	0,6	0,6	3,6	2,1	1,6
Ozeania	3,4	4,6	5,8	0,3	0,1	0,1	8,4	2,3	1,1
Europa eta SESB ohia	24,9	55,4	59,8	0,5	1,3	2,4	2,1	2,3	3,9

Iturria: Nazio Batuen Erakundearen Populazio Banaketa, *Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision* (POP/DB/MIG/2003/1 eta ESA/P/WP.188), informazioa euskarri digitalean.

## C. Emakumeen Migrazio-maila

70eko hamarkadaren bukaera arte, nazioarteko migrazioari buruzko bibliografia gehiena migratzaile gizezkoetan soilik oinarritzen zen (normalean, gizezko langile migratzailetzat hartzen ziren) edo, bestela, migratzaile gehienak gizezkoak zirelako uste inplizituan. Uste hori are nabarmenagoa zen arreta nazioarteko migrazioaren alderdi ekonomikoetan jartzen zenean; izan ere, eskuarki, eskulanari lotutako nazioarteko migrazioan emakumezkoen parte-hartzea hutsala zela uste zen. Baina, noski, uste horiek nekez oinarritzen ziren estatistika-datuetan. Sexuaren arabera sailkatutako nazioarteko migratzaile-kopuruaren egungo estimazioek, denbora luzean, emakumezkoak eta neskak nazioarteko migratzaile guztien ehuneko oso altua izan direla adierazten dute. Jada, 1960an, jatorrizko herrialdetik kanpo bizi ziren 100 migratzailetatik 47 emakumezkoak ziren. Ehuneko hori apur bat igo zen 1980. urtean, eta, geroztik, gora egin zuen, 2000. urtean %49ra iritsi arte (3. taula). Joera hori koherentea da nazioarteko migrazioan gertatutako emakumezkoen hazkuntzarekin; dena den, dokumentatutako igoera hori txikia da, 1960. urtean zegoen emakumezko-kopuru altuarekin alderatuta. 40 urte baino gehiagoan, emakumezko migratzaileak gizezko migratzaileak beste izan dira ia: 1960an, emakumezko migratzaileak 35 milioi ziren eta gizezko migratzaileak 40 milioi; 2000. urterako, berriz, nahiz eta migratzaile-kopuruaren guztizkoa soberan bikoiztu zen, emakumezkoen eta gizezkoen arteko aldeak berdin jarraitu zuen: emakumezkoak 85 milioi ziren eta gizezkoak 90 milioi.

Oro har, migratzaile guztiak kontuan hartuta, emakumezko migratzaileek ehuneko altuagoa izan dute herrialde garatuetan garapen-bidean dauden herrialdeetan baino. 1980an, herrialde garatuetako migratzaile guztien %50 emakumezkoak edo neskak ziren; garapen-bidean zeuden herrialdeetan, bestalde, %45. 2000. urtean, bien arteko aldeak gehiago handitu ziren; izan ere, mundu garatuan, migratzaile guztien %51 ziren emakumezkoak, eta, garapen-bidean zeuden herrialdeetan, berriz, artean, migratzaile guztien %45. Zenbait faktore hartu beharko lirateke kontuan alde horren zergatia jakiteko: migratzaileak helburu duten herrialdeetan sartzea arautzen duten lege eta erregulazioetan eta jatorrizko herrialdeetatik irtetea arautzen dutenetan, eta jatorri eta helburu diren herrialde horietan, emakumezkoen egoera juridikoa eta soziala baldintzatzuten duten faktoreak. Legalki onartutako migratzaile-familiak bateratzea onartuz, herrialde garatuek bertan emakumezko migratzaileak sartzea errazten dute. Horrez gain, herrialde garatuetako emakumezkoen egoera ekonomikoa eta soziala guztiz bestelakoa da eta emakumezkoek lan- eta hezkuntza-aukera ugari dituzte; hori dela-eta, egoera hori erakargarria da bizitza ekonomikoa eta sozialean eskubidez parte hartu nahi duten emakumezkoentzat.

Bestalde, garapen-bidean dauden herrialdeetan (nazioarteko migrazioaren hartzaile garrantzitsuak), oro har, migratzaileak lanagatik soilik hartzen dituzte eta gizezkoak izan ohi dira nagusi eskulanari lotutako migrazio-fluxuetan. Dena den, 70eko urteen amaieratik, garapen-bidean dauden herrialdeetara doan eskulaneko migrazio-fluxuan emakumezkoen parte-hartzeak gora egin du. Emakumezkoen eskulanari lotutako migrazioarako, leku hauek dira erakargarrienak: Asiaren mendebaldea (petrolioan aberatsak diren Golkoko Lankidetza Kontseiluko herrialdeetan) eta Ozeano Barearen kos-

<b>3. taula. Emakumezkoen ehunekoa nazioarteko migratzaile guztien artean, leku nagusia. 1980, 1990 eta 2000.</b>			
<i>Asilo-leku nagusia</i>	<i>1980</i>	<i>1990</i>	<i>2000</i>
Mundua	47,3	47,9	48,6
Herrialde garatuak	50,0	50,6	51,0
Herrialde garatuak, SESB izan ezik	50,2	50,3	50,6
Garapen-bidean dauden herrialdeak	44,7	44,2	44,6
Afrika	44,2	45,9	46,7
Asia <sup>a</sup>	44,4	42,8	43,3
Latinoamerika eta Karibe	48,2	49,9	50,2
Iparramerika	52,6	51,0	50,3
Ozeania	48,5	49,8	51,0
Europa <sup>b</sup>	47,9	49,1	50,5
SESB ohia	48,5	51,1	52,1

Iturria: Nazio Batuen Populazio Banaketa, *Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision* (POP/DB/MIG/2003/1 eta ESA/P/WP.188), informazioa euskarri digitallean.

<sup>a</sup>: Armenia, Azerbaijan, Georgia, Kazakhstan, Kirgizistan, Tadjikistan, Turkmenistan eta Uzbekistan izan ezik.

<sup>b</sup>: Bielorrusia, Estonia, Letonia, Lituania, Mordoviako errepublika, Errusiar Federakundea eta Ukraina izan ezik.

taldean dauden herrialdeak (Asiaren ekialdean eta hego-ekialdean). Bi gune horietan, 1980tik, etengabe gora egin du emakumezkoen ehunekoa nazioarteko migratzaile guztiekiko. 2000. urterako, emakumezko migratzaileen kopuruak gizonezkoena gaindituko zuela uste zen, Asiaren ekialdean eta hego-ekialdean (5 milioi, 4,9 milioiren aurrean), eta uste zen Asiaren mendebaldeko 7,4 milioi emakumezko migratzaileak lurralde horretako migratzaile guztien %39 zirela. Dena den, azpimarratu behar da lurralde horretako emakumezko migratzaile guztiak ez direla langileak. Esaterako, 1975. urtearen inguruan, emakumezkoen migrazioa migrazio-fluxuen elementu garrantzitsu bihurtu aurretik, emakumezko migratzaileen kopurua jadanik esanguratsua zen petrolioa sortzen duten Asiaren mendebaldeko herrialdeetan: Kuwaiteko populazio atzerritarren %43, Saudi Arabiako %33, Bahreineko, gutxi gorabehera, %30 eta Arabiar Emirerri Batuetako atzerriko migratzaileen %20. Segur aski, emakumezko migratzaile gehienak migratzaile langileen ardurapekotzat jotzen zituzten; baina, tartean, baziren irakasletzat, erizaintzat edo emakumezkoentzat gordetako lanak egiteko kontratatutakoak.

Sahararen hegoaldeko Afrikan, emakumezko migratzaile-kopuruak kontinenteko errefuxiatu-kopuruaren igoerarekin batera egin zuen gora. 90eko hamarkadaren hasieran, emakumezko errefuxiatuen egoera zaila arreta-gune bihurtu zenean, hori defendatzen zutenek errefuxiatu guztien %80 emakumezkoak eta haurrak zirela zabaldu zuten. Adinaren eta sexuaren arabera sailkatutako errefuxiatuei buruzko informazioa ez zegoen eskura; beraz, estimazio hori benetakoa izan zitekeen Sahararen hegoaldeko Afrikan dauden ugalkortasun-maila handiko herrialdeetarako; izan ere, herrialde horie-



tan emakumezkoak eta haurrak populazio guztiaren ehuneko handia ziren. 90eko hamarkadaren amaiera aldera, Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordea eta Errefuxiatuen Nazio Batuen Goi Komisarioa errefuxiatuei buruzko informazioa sexuaren arabera sailkatuta argitaratzen hasi ziren. Informazio horren arabera, Afrikan errefuxiatutako emakumezkoak lagundutako errefuxiatu guztien, gutxi gorabehera, erdia ziren; horien ehunekoa, beraz, ez zen oso handia kontinenteko errefuxiatu-populazioarekin alderatua. Izan ere, 2000. urtean, emakumezkoak eta neskek Sahararen hegoaldeko Afrikako migratzaile guztien %47 ziren. Kopuru hori munduko batez bestekotik apur bat behera zegoen, eta kontinenteko migratzaileen artean, oraindik, gizonetzkoak emakumezkoak baino gehiago zirela adierazten zuen.

Emakumezko migratzaileen ehunekoa bereziki txikia izan da Afrikaren iparraldeko eta Asiaren hegoalde eta erdialdeko migratzaile guztiekin alderatuz. Bi lurralde horietan, emakumezko migratzaileen ehunekoak behera egin du 1970etik; neurri batean, lurralde horiek nazioarteko migratzaileentzat oso erakargarriak ez direlako. Afrikaren iparraldeko herrialde gehienek migratzaileak jaso baino gehiago igorri egiten dituzte. Asiaren hegoaldean eta erdialdean, behartutako migrazioak fluxu handiak eragin ditu lurralde-barruan, baina urriak dira migrazio mota horren populazio-osaketari buruzko sexuaren araberrako datuak. Beraz, baliteke hemen aurkeztutako gutxi gorabeherako mailek zehaztasun osoz ez adieraztea emakumezko migratzaileen ehunekoari dagokionez lurraldean dauden aldatetak.

Latinoamerikan eta Kariben, nazioarteko migratzaile-kopuruari buruzko datu ugari daude, eta nazioarteko migrazioan emakumezkoen igoera-joera sendotuta dago. Garapen-bidean zeuden herrialdeetatik Latinoamerika izan zen lehenengoa emakumezko eta gizonezko migratzaile-kopurua ia berdintzen, eta hori bereziki aipagarria da: 1990ean, lurraldeko 7 milioi nazioarteko migratzaileetatik 3,5 milioi emakumezkoak ziren. 90eko hamarkadan, lurraldeko migratzaile-kopuruak behera egin zuela uste da, baina 2000. urterako lurraldeko ia 6 milioi migratzaileetatik erdia baino apur bat gehiago ziren.

#### **D. Nazioarteko Migratzaileen Nazioko Banaketa**

Nazioarteko migrazioa fenomeno unibertsala da. Herrialde guztietan daude nazioarteko migratzaileak. Dena den, nazioarteko migratzaileen populazioko ehunekoa asko aldatzen da herrialdetik herrialdera. 1980an, nazioarteko migratzaileak populazioaren %0,1 baino gutxiago ziren hainbat herrialdetan, esaterako Kanbodian, Txinan eta Vietnamen; baina, aldi berean, migratzaileentzat helburu izan ziren herrialde txiki batzuetako populazioaren, gutxienez, %65 zen migratzaileen ehunekoa (besteak beste, Kuwait, Monako, Qatar eta Arabiar Emirerri Batuak). Munduko herrialde guztietako laurden batean, gutxienez, nazioarteko migratzaileak populazioaren %1,1 baino gutxiago ziren. Banaketaren goiko muturrean, berriz, honako hau ikus zitekeen: 1980an, herrialde guztietako laurden batean, nazioarteko migratzaileak populazioaren %11,7 edo gehiago ziren. Garai hartan, herrialdeetako populazioko migratzaileen batez bes-

tekoa %3,5 zen. 2000. urtean, batez besteko balio hori igo egin zen (%3,8ra iritsi zen); baina, hala ere, herrialde guztien laurden batean, populazio osoaren %1,1, gehienez, ziren migratzaileak.

Herrialde edo leku gehienetan, nazioarteko migratzaileek ehuneko txikiak zituzten, populazioarekin alderatuz. 1980an, 212 herrialde edo lekutatik 122tan ziren migratzaileak populazioaren %5 baino gutxiago; 2000. urtean, berriz, ehuneko horretarako, herrialdeen kopuru baliokidea txikiagoa zen: 117 hain zuzen. 2000. urtean, gutxi ziren migratzaile-kontzentrazio altuak zituzten herrialdeak. Andorran, Txinako Macaoko Administrazio Lurralde Berezian, Monakon, Qatarren eta Arabiar Emirerri Batuetan %65etik gora ziren nazioarteko migratzaileek.

Nazioarteko migratzaileen ehuneko altuak dituzten herrialde edo leku gehienek milioi bat baino bizilagun gutxiago izan ohi dute. 10 milioitik gora bizilagun dituzten 53 herrialdeetatik hirutan soilik gainditzen zuen nazioarteko migratzaile-kopuruak %10; hain zuzen: Australian, Kanadan eta Frantzia. 2000. urtean, kopuru horrek gora egin zuen eta 10 milioi bizilagun zituzten 78 herrialdeetatik 9 herrialdeetan soilik gainditzen zuten: Australian, Bielorrusian, Kanadan, Boli Kostan, Frantzia, Kazakhstanen, Saudi Arabian, Ukrainan eta Ameriketako Estatu Batuetan. 1970ean, nazioarteko migratzaile-kontzentrazio handiena zuten hiru herrialdeek munduko migrazio-populazio guztiaren %13 zuten; 2000. urtean, berriz, zerrendako 9 herrialdeek %40 ordezkaten zuten.

Izan ere, nazioarteko migratzaile gehienek herrialde gutxi samar batzuetan kontzentratuta jarraitzen dute. Hala, 1980an, 10 milioi bizilagun baino gehiago zituzten 53 herrialdeen artean, 26 herrialdek soilik zituzten nazioarteko migratzaile guztien hiru laurdenak, eta, 2000. urtean, 28 herrialdek soilik; hau da, herrialde horiek herrialde guztien %12 soilik ziren, 1980an eta 2000n (4. taula). Nazioarteko migratzaile-kontzentrazio handiena herrialde hartzaile nagusian egon da: Ameriketako Estatu Batuetan. Populazio migratzaile guztiaren herrialde horretako ehunekoak gora egin zuen eta 1980an %14 izatetik 2000n %20 izatera pasa zen. Nazioarteko migratzaile guztiarekiko ehunekoa asko igo zen beste herrialde batzuetan ere; esaterako, Australian, Kanadan, Alemanian eta Saudi Arabian. Gainera, 1980ko herrialde hartzaile nagusien zerrendan agertzen ez ziren hainbat herrialde (besteak beste, Japonia, Jordania, Kazakhstan, Malasia, Herbehereak, Errusiar Federakundea, Turkia, Ukraina, Arabiar Emirerri Batuak eta Uzbekistan) 2000. urteari zegokion zerrendan agertzen ziren. Brasil, Kongoko Errepublikak Demokratikoa, Kuwait, Nigeria, Somalia, Hegoafrika, SESB ohia eta Venezuela ordezkatu zituzten (horiek ez ziren 2000ko zerrendan agertzen). Azken herrialde horiek (gehienez Afrikan daude) bertako nazioarteko migratzaile-kopuruak behera egin zuela ikusi zuten, 90eko hamarkadan errefuxiatuak aberriratu izanaren ondorioz.

1980an, herrialde hartzaile nagusietatik 9 herrialde garatuetan (gehi SESB) zeuden eta 16 garapen-bidean zeuden herrialdeetan (4. taula). 2000. urtean, 28 herrialde hartzaile garrantzitsuenetatik 11 herrialde garatuak ziren, 4 SESB ohiaren ondoren sortutako herrialdeak eta 13 garapen-bidean zeuden herrialdeak. Baina, herrialde hartzaile nagusien

sien garapen-taldekako banaketa asko aldatu ez zen arren, talde bakoitzari zegokion nazioarteko migratzaile-ehunekoan funtsezko aldaketa bat gertatu zen. Hala, 2000. urtean, mundu garatuko 11 herrialde hartzaile garrantzitsuenek nazioarteko migratzaile guztien %41 zuten; 1980ko zerrendan, aldiz, %42 zen 10 herrialde garauei zegokien ehunekoa. Aldi berean, garapen-bidean zeuden herrialdeetako ehunekoak behera egin zuen eta 1980an %33 izatetik 2000n %20 izatera pasa zen. Aldearen zati handiena SESB ohia zatitu ondoren sortutako estatuetako herrialde hartzaile nagusietara pasa zen; izan ere, %3tik %14ra igo zen herrialde horietako ehunekoa.

Aldaketa horiek erakusten dutenez, garapen-bidean zeuden herrialdeetarako nazioarteko migrazioaren garrantzia gutxitu egin zen apur bat. Garapen-bidean dauden herrialdeetan, nazioarteko migratzaile-kopuru garrantzitsua dagoen arren, ehu-

4. taula. Nazioarteko migratzaile-kopuru gehien hartzen duten herrialdeak. 1980 eta 2000			
1980			
<i>Kat.</i>	<i>Herrialdea edo lekua</i>	<i>Migratzaileak guztira (milioiak)</i>	<i>Munduko migratzaile guztien ehunekoa</i>
1	Ameriketako Estatu Batuak	14,3	14,3
2	India	8,8	8,9
3	Frantzia	5,9	5,9
4	Pakistan	5,0	5,0
5	Alemania	4,0	4,0
6	Kanada	3,8	3,8
7	Britainia Handia	3,5	3,5
8	SESB (ohia)	3,3	3,3
9	Australia	3,1	3,1
10	Txina, Hong Kong (RAE)	2,1	2,1
11	Argentina	1,9	2,0
12	Polonia	1,9	1,9
13	Saudi Arabia	1,8	1,8
14	Somalia	1,6	1,6
15	Boli Kosta	1,5	1,5
16	Israel	1,4	1,4
17	Kongoko Errepublika Demokratikoa	1,4	1,4
18	Nigeria	1,3	1,3
19	Brasil	1,2	1,2
20	Italia	1,1	1,1
21	Irango Errepublika Islamiarra	1,1	1,1
22	Suitza	1,1	1,1
23	Hegoafrika	1,0	1,0
24	Okupaturako Lurralde Palestinarrak	1,0	1,0
25	Venezuela	1,0	1,0
26	Kuwait	1,0	1,0
	<b>Mundua</b>	<b>99,8</b>	<b>100,0</b>

1990			
<i>Kat.</i>	<i>Herraldea edo lekua</i>	<i>Migratzaileak guztira (milioiak)</i>	<i>Munduko migratzaile guztien ehunekoa</i>
1	Ameriketako Estatu Batuak	23,3	15,1
2	Errusiar Federakundea	11,7	7,6
3	India	7,4	4,8
4	Ukraina	7,1	4,6
5	Pakistan	6,6	4,3
6	Frantzia	5,9	3,8
7	Alemania	5,2	3,4
8	Kanada	4,3	2,8
9	Saudi Arabia	4,2	2,7
10	Australia	4,0	2,6
11	Irango Errepublikari Islamiarra	3,8	2,5
12	Kazakhstan	3,8	2,5
13	Britainia Handia	3,8	2,4
14	Txina, Hong Kong (RAE)	2,2	1,4
15	Boli Kosta	2,0	1,3
16	Uzbekistan	1,7	1,1
17	Polonia	1,7	1,1
18	Argentina	1,7	1,1
19	Israel	1,6	1,1
20	Kuwait	1,6	1,0
21	Arabiar Emirerri Batuak	1,6	1,0
22	Suitza	1,4	0,9
23	Italia	1,3	0,9
24	Bielorrusia	1,3	0,8
25	Sudan	1,3	0,8
26	Hegoafrika	1,2	0,8
27	Herbehereak	1,2	0,8
28	Okupatutako Lurralde Palestinarrak	1,2	0,8
29	Malawi	1,2	0,8
30	Etiopia	1,2	0,7
	<b>Mundua</b>	<b>154,0</b>	<b>100,0</b>

2000			
Kat.	Herrialdea edo lekua	Migratzaileak guztira (milioiak)	Munduko migratzaile guztien ehunekoa
1	Ameriketako Estatu Batuak	35,0	20,0
2	Errusiar Federakundea	13,3	7,6
3	Alemania	7,3	4,2
4	Ukraina	6,9	4,0
5	Frantzia	6,3	3,6
6	India	6,3	3,6
7	Kanada	5,8	3,3
8	Saudi Arabia	5,3	3,0
9	Australia	4,7	2,7
10	Pakistan	4,2	2,4
11	Ingalaterra	4,0	2,3
12	Kazakhstan	3,0	1,7
13	Txina, Hong Kong (RAE)	2,7	1,5
14	Boli Kosta	2,3	1,3
15	Irango Errepublika Islamiarra	2,3	1,3
16	Israel	2,3	1,3
17	Polonia	2,1	1,2
18	Jordania	1,9	1,1
19	Arabiar Emirerri Batuak	1,9	1,1
20	Suitza	1,8	1,0
21	Okupatutako Lurralde Palestinarrak	1,7	1,0
22	Italia	1,6	0,9
23	Japonia	1,6	0,9
24	Herbehereak	1,6	0,9
25	Turkia	1,5	0,9
26	Argentina	1,4	0,8
27	Malasia	1,4	0,8
28	Uzbekistan	1,4	0,8
	<b>Mundua</b>	<b>174,9</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Nazio Batuen Populazio Banaketa, *Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision* (POP/DB/MIG/2003/1 eta ESA/P/WP.188), informazioa euskarri digitalean.

nekoak behera egin du, bai munduko migrazio-populazio osoaren ehunekoari dagokionez, bai garapen-bidean dauden herrialdeetako populazio guztiaren ehunekoari dagokionez. Hala, garapen-bidean zeuden herrialdeetako populazioan nazioarteko migratzaileek zuten ehunekoak behera egin eta 1980an %1,6 izatetik 2000n %1,3 izatera pasa zen. Joera hori bestelakoa zen herrialde garatueta: populazioan zegoen nazioarteko migratzaileen ehunekoa %3,6 izatetik %8,7 izatera pasa zen, aldi berean (1. taula).

Nazioarteko migrazioak herrialde garatuetan duen garrantzia populazioaren hazkunderan duen eraginean ere ikus daiteke. 1980 eta 2000 arteko aldian, lurralde garatuenetako hazkunde naturalaren tasa milako 4,6 zen eta migrazio-tasa garbia, berriz, milako 1,4. Beraz, migrazio garbia hazkunde naturalaren<sup>2</sup> tasari eransten zitzaionean, hazkunde-tasa milako 5,9 egiten zen (5. taula). Hau da, migrazio garbiak populazioaren hazkunderaren hazkunde naturalari %30 eransten zion lurralde garatuetan. Gutxiago garatutako herrialdeetan (hazkunde naturalaren tasa milako 21 den lekuetan), berriz, migrazio-tasa garbiari esker (milako -0,4), hazkunde naturalaren tasa %1,9 soilik murriztu zuen. 1990. eta 2000. urteen artean, nazioarteko migrazioak lurralde garatuenetako hazkuntzan zuen eragin erlatiboa asko handitu zen; izan ere, migrazio garbia hazkunde naturalaren ia bikoitza izan zen (milako 2,2 eta 1,6). Gutxiago garatutako herrialdeetan, bestalde, migrazio garbia, oraindik, hazkunde naturaleko tasa murrizten ari zen, ehuneko txiki batean (%3,3, hain zuzen).

Beste modu batean ere azal daiteke. Garapen-bidean dauden herrialdeak, oro har, populazioa modu sistematikoan galduz joan dira nazioarteko migrazioaren eraginez; dena den, hazkuntza naturalaren tasa oso altua da oraindik eta, beraz, emigrazio garbiak populazio-joeren eragin txiki bat baino ez du izan. Bestalde, nazioarteko geroz eta migratzaile gehiago etortzen ari dira lurralde garatuenetara eta hori erabakigarria izan da eta izango da populazioaren hazkuntza-maila igotzeko edo, zenbait kasutan, populazio-jaitsierarik ez izateko. European, esaterako, populazioa 4,3 milioi jaitsiko zen 1990 eta 2000 artean, migratzaileak etorri izan ez balira. Izan ere, Europara 11,4 milioi migratzaile etorri ziren, 1990 eta 2000 artean, baina populazioa 7,1 milioi soilik igo zen. 5. taulan ikus dezakegun bezala, 1990 eta 2000 (milako 1,6) artean, Europako migrazio-tasa garbiak hazkuntza naturalaren indize negatiboa (milako -0,6) orekatu egin zuen. Migrazio garbiak populazioaren hazkuntzari emandako laguntzak, bestalde, Iparramerikan zuen garrantzia ere handitu egin zuen: izan ere, hazkuntza naturalaren %50 izatetik (1980-1990 artean), %68 izatera pasa zen (1990-2000 artean). Dena den, migrazio garbiaren ekarpen erlatiboak apur bat behera egin du Ozeanian, eta hazkuntza naturalaren %28 izatetik %25 izatera pasatu da, bi hamarkadatan.

Nazioka, Alemaniako populazioak etengabe behera egingo zuen (gutxienez 1970etik) herrialdean migrazio garbia handitu izan ez balitz. 90eko hamarkadaren amaieran izandako nazioarteko migrazio garbi eta positiboak ekarpen oso garrantzitsuak egin zizkion hainbat herrialderen hazkuntzari; esaterako, Austria, Danimarka, Grezia, Italia, Luxenburgo, Espainia eta Suitzari. Azken horretan, gainera, hazkuntza naturala, gutxienez, hirukoiztu egin du.

Laburbilduz, nazioarteko migratzaile-kopurua herrialde garatuetan kontzentratzen ari da, batez ere, eta herrialde gutxi batzuek biltzen dute munduko nazioarteko migratzaileen gehiengoa (2000. urtean, 28 herrialdek). Herrialde garatuetan, mendebaldeko multzoko herrialdeetan gertatu zen, batez ere, nazioarteko migratzaile-kopuruaren ia

<sup>2</sup> Hazkuntza naturalaren tasak populazioa zer erritmotan hazten den adierazten du, populazioko jaiotzen eta heriotzen arteko aldea aztertuz. Hau da, ez du kontuan hartzen nazioarteko migrazio garbiak populazioari egiten dion ekarpena (sobe-rakina edo defizitarioa).

hazkuntza guztia, 90eko hamarkadan. Nazioarteko migratzaile-kopurua %10etik gora duten herrialdeak gehiago dira 2000. urtean 1980. urtean baino: 59tik 70era pasa da. Dena den, herrialde horietako gehienetan, guztizko populazioa txikia da, bai eta nazioarteko migratzaile-kopurua ere. Nazioarteko migrazioaren eragina bereziki garrantzitsua da mendebaldeko multzoan dauden herrialdeetan. Izan ere, munduko gainerako lekuek baino nazioarteko migratzaile gehiago erakartzen dituzte; baina, horrez gain, nazioarteko migrazioak populazioaren hazkunde-tasa negatiboak edo baxuak handitzen ari dira, hazkunde natural handia baitute. Ameriketako Estatu Batuak migratzaileen herrialde hartzaile nagusia izan dira, eta nagusitasun hori handituz joan da. 2000. urtean, nazioarteko 5 migratzailetik bat Ameriketako Estatu Batuetan bizi zen.

**5. taula. Nazioarteko migrazio garbiaren ekarpena populazioaren hazkuntzari edo beherakadari, 1980-1990 eta 1990-2000.**

<i>1980-1990</i>				
<i>Toki nagusiak</i>	<i>Migrazio-tasa garbia (1.000 biztanle-ko)</i>	<i>Hazkuntza naturalaren tasa (mila biztanleko)</i>	<i>Populazioaren hazkuntza-tasa (mila biztanleko)</i>	<i>Migrazio garbia hazkuntza naturalaren ehunekotzat</i>
Lurralde garatuenak	1,4	4,6	5,9	29,9
Gutxien garatutako lurraldeak	-0,4	21,1	20,7	-3,3
Afrika	-0,4	28,8	28,3	-1,5
Asia	-0,2	18,8	18,6	-1,1
Latinoamerika eta Karibe	-1,6	21,9	20,3	-7,3
Iparramerika	3,4	6,9	10,3	49,7
Europa	0,7	3,4	4,1	19,8
Ozeania	3,4	12,1	15,5	28,2

<i>1990-2000</i>				
<i>Toki nagusiak</i>	<i>Migrazio-tasa garbia (mila biztanle-ko)</i>	<i>Hazkuntza naturalaren tasa (mila biztanle-ko)</i>	<i>Populazioaren hazkuntza-tasa (mila biztanleko)</i>	<i>Migrazio garbia hazkuntza naturalaren ehunekotzat</i>
Lurralde garatuenak	2,2	1,6	3,8	134,5
Gutxien garatutako lurraldeak	-0,6	17,5	16,9	-1,9
Afrika	-0,4	24,9	24,5	-1,5
Asia	-0,4	15,3	14,8	-2,7
Latinoamerika eta Karibe	-1,7	18,1	16,4	-9,1
Iparramerika	4,3	6,3	10,6	67,7
Europa	1,6	-0,6	1,0	..
Ozeania	3,0	11,7	14,7	25,4

Iturria: Nazio Batuen Populazio Banaketa, *World Population Prospects: The 2002 Revision*, Volume I: Comprehensive Tables, Nazio Batuen argitalpenak, Sales No. E.03.XIII.6, 2003.

## E. Ondorioak

XX. mendearen amaieran, hainbat aldaketa gertatu ziren nazioarteko migrazio-joeran, baina baliteke aldaketa horiek sarri deskribatzen diren bezain gogorrak ez izatea. 1980, urtetik, herrialde garatuak helmuga dituen migrazioa asko hazi da; Europa, esaterako, helmuga garrantzitsu bihurtu zen beste lurralde batzuetatik zetozen migratzaileentzat. 80ko hamarkadan, garai batean eskulana bidaltzen zuten Europaren hegoaldeko herrialdeak (bereziki, Europako Batasunean sartu berri zirenak) atzerrian lan bila zebiltzan nazioarteko migratzaileen helmuga bihurtu ziren. Horrez gain, herrialde komunistetan liberalizazioa hedatzen hasi ondoren, ekialdetik mendebalderako migra-tzaile-fluxuak handitu egin ziren, eta elementu garrantzitsu bihurtu ziren, mendebalde-ko hainbat herrialdek (batez ere, SESB eta Jugoslavia ohien zatiketaren ondoren) jasotako migratzaile-kopuruarekin alderatuta zuten ehuneko zela-eta. Asilo-eskatzaileak, errefuxiatuak eta beraien familiarekin elkartzera zetozen migratzaileak onartzea gero eta garrantzitsuago bihurtu zen mendebaldeko Europan sartzen ziren migratzaile-kopuruaren elementutzat. Aldi berean, Ekialdeko garai bateko herrialdeen arteko mugak ireki eta SESB ohia zatitu ondoren, migrazio-fluxu handiak sortu ziren herrialde horien artean. Nazionalitatean banatu izanak eragin zituen, neurri batean, fluxu horiek; izan ere, zenbait talde etnikok beraien jatorriko errepublikara itzuli nahi zuten.

90eko hamarkadan, garatutako herrialdeek indarrak hartu edo gehitu zituzten atzerri-tik aldi baterako langile kualifikatuak erakartzeko; izan ere, beraien ekonomia-sektore batzuetan, eskulanaren eskaera geroz eta handiagoa zen, eta horri erantzun beharra zegoen. Beraz, langileen aldi baterako onarpenak ugaritu egin ziren, bai immigrazio-herrialdeetan (esaterako, Australia eta Ameriketako Estatu Batuak), bai Europako herrialdeetan. Aldaketa horien ondorioz, mundu garatuko herrialde hartzaile nagusie-tara migratzaileak bidaltzen dituzten herrialde garrantzitsuak dibertsifikatu egin dira; hala eta guztiz ere, migratzaile-kopuruari dagokionez, oraindik nazionalitate gutxi bat-zuk dira nagusi herrialde hartzaile gehienetan.

Garapen bidean dauden herrialdeetan (batez ere, Afrikan, Latinoamerikan eta Kariben), lurralde bakoitzetik kanpo dauden helmugetara egiten den migrazioa lurraldean bertan egiten dena baino garrantzitsuagoa da. Herrialde horietan, iraupen luze-ko gatazka ugari konpondu ziren; eta, horri esker (neurri handi batean) errefuxiatu ugari euren borondatez aberriratu egin ziren. Hori dela-eta, errefuxiatu-kopuruak behera egin zuen. Beherakada horren eraginez, nazioarteko migratzaile-kopurua poli-ki handitu zen Afrikan, eta Latinoamerikan, berriz, kopuruak jaitsi egin ziren. Bi lurralde horietan, garai bateko interesguneek zailtasun politikoak edo ekonomikoak izan dituzte, eta, ondorioz, migrazio-fluxu handiak izan dira, bai lehenagoko migratzaileen itzulerak, bai bertako herritarren atzerriratzeak. Horrenbestez, Latinoamerikako herrialde hartzaile garrantzitsuenak (Argentina, Brasil edo Venezuela, esaterako) nazioarteko migratzaile-igorle garbi bihurtu dira.

Lurraldeko interesgune nagusietan aldaketa handiak izan dira. Esanguratsuenetako bat Asiako ekialdeko eta Hego-ekialdeko herrialdeek izandako aldaketa da. Izan ere, herrialde horiek oso azkar ari dira industrializatzen, eta, 80ko hamarkadaren amaieran



eta 90eko hamarkadan langile migratzaileen helburu bihurtu ziren hamarkada bat lehenago migratzaile igoerle garrantzitsuak ziren herrialde horietako asko. Batzuetatik (besteak beste, Malasia eta Koreako Errepublika) herritar ugari irteten dira; baina, aldi berean, asko dira atzerritik bertaratutako langileak ere. Horri dagokionez, Europako herrialde askoren antza dute; horietan, herritarren beherakada garbiak eta atzerritarren gorakada garbiak gertatu izan baitira, 1970. urtetik.

Bistan denez, nazioarteko migrazioa herrialdeetako egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa aldatu ahala garatzen da. Zenbat eta estatu independente gehiago, orduan eta aukera handiagoa nazioarteko migrazioa gertatzeko. Gainera, herrialdeen arteko desberdintasun ekonomiko nabarmenek jarraitu egiten dute; beraz, populazio mugimenduek herrialde aberatsenetan (mundu garatuan daudenak nahiz garapen-bidean dauden lurraldeetako leku aberatsenetan) dauden aukerei erantzuten jarraituko dute, seguru asko. Aldaketa horiek dinamika demografikoan ere eragiten dute; izan ere, herrialde aberatsenetan ugalkortasun-mailak baxuenak izaten dira, eta populazioa geroz eta azkarrago zahartzen da. Nazioarteko migrazioari esker, mundu garatuko hainbat herrialdeetako populazio-kopuruaren beherakada eragozten edo gelditzen ari da, eta, etorkizunean ere, bide horretatik jarraituko duela uste da.

## Bibliografia

Lanaren Nazioarteko Erakundea (2004). *En busca de un compromiso equitativo para los trabajadores migrantes en la economía globalizada*. VI. txostena, Lanaren Nazioartek Biltzarra, 92ª Sesión, 2004. Ginebra: Lanaren Nazioarteko Erakundea.

Nazio Batuak (2003a). *World Population Prospects. The 2002 Revision. Volume I: Comprehensive Tables*. Salmenta-zenbakia: E.03.XIII.6.

\_\_\_\_\_ (2003b). *Levels and Trends of International Migration to Selected Countries in Asia*. Salmenta-zenbakia: E.03.XIII.2.

\_\_\_\_\_ (2004a). *Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision* (POP/DB/MIG/2003/1), datu-basea, euskarri digitalean.

\_\_\_\_\_ (2004b). *Trends in Total Migrant Stock: The 2003 Revision*. (Dokumentazioa disketean). Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaien Departamentuko Populazio Banaketaren ESA/P/WP.188 zenbakiko lan-txostena

\_\_\_\_\_ (2004c). *Estudio Económico y Social Mundial 2004: Migración Internacional*. Salmenta-zenbakia: E/2004/75/Rev.1/Add.1.

Zlotnik, Hania (2003). The global dimensions of female migration. Migration Information Source. <http://www.migrationinformation.org/Feature/display.cfm?ID=109>



## **Migrazio-sareak, garapen-baliabidetzat: diru-bidalketez harago**

Kathleen Newland zuzendariak egina

*Migration Policy Institute (Migrazio Politikaren Institutua)*  
*Washington, DC*

Nazioarteko migrazioa giza portaeraren salbuespena da. Izan ere, oraindik ez da “arau” bihurtu. Gaur egun, 175 milioi pertsona inguru sorterriaz bestelako herrialde batean bizi dela kalkulatu da. Beste modu batean esanda: gizakien %97k, gutxi gorabehera, bere herrialdean jarraitzen du. Horren aurrean, galdera honi erantzun behar zaio: Zergatik da hain garrantzitsua nazioarteko migrazioa, bat-batean, nazioarteko politikaren agendan? Neurri handi batean, migrazioa jasotzen duten herrialdeen politika nazionaletan dago erantzuna; izan ere, herrialde horietan, gai polemikoa da immigrazioa, eta horretaz baliatzen dira eskuineko alderdi politikoak. Immigrante gehienak hartzen dituzten herrialdeetan, bat-bateko trantsizio demografikoa gertatzen ari da, eta hori da arazoaren zati bat. Beste faktore bat giza kapitala galtzeak edo *jakintsuen ihesa* delakoak sortzen duen kezka da. Hala ere, alde onak ere baditu migrazioak; besteak beste, gero eta baikortasun handiagoa dago biztanle immigranteek egiten dituzten diru-bidalketa eta inbertsioek eragindako finantza-fluxuen inguruan, horiei lotuta baitago garapen-ahalmena. Horri eta beste faktore batzuei esker, gero eta argiago daukagu migrazioa hazkunde ekonomikorako eta gizarte-aldaketarako indar handia dela.

Gure espeziea sortu zenetik, giza jokabidearen berezko osagaia izan da migrazioa. Alabaina, jende askoren arabera, egungo migrazioa iraganeko lekualdaketez bestelakoa da. Egia da hori; nolabait, bederen. Esaterako, hau da gaur egungo nazioarteko migrazioaren ezaugarri bereizgarrietako bat: XX. mendeko bigarren erdialdea baino lehen ez bezala, migrazioak ez dakar, egunean egun, sorterrietako hain haustura gogorra. Erreakzio-hegazkin eta telekomunikazio-sateliteei esker, pertsona pobre samarren eskura ere badaude distantzia luzeko garraioa eta telekomunikazioak. Arrazoizko prezioko hegaldi eta telefono-deiei esker, nazioarteko migratzaileek atzera geratutako familia eta komunitateetako loturei eusteko aukera dute. Egun, *komunitate transnazionalak* bi herrialde edo gehiago lotzen dituz-

ten gizarte-gunetzat izaten ari diren hazkundera aztertzen dihardute adituek; izan ere, komunitate haiei esker, migratzaileak beste herrialde batean berea atzean utzi gabe koka daitezke. Sorterrien eta migrazioa jasotzen duten herrialdeen arteko harreman-sareak oso trinkoak dira; hori da, hain zuzen, gure garaiko nazioarteko migrazioaren ezaugarri garrantzitsu bat.

Kapitulu honetako gaia nazioarteko migrazio-sareen hazkunderaren alderdi bat izango da; hots, garapenerako baliabide legez duten potentzial handia. Azken lau edo bost urteetan, nabarmen handitu da gobernu-politikak egiten dituzten arduradunek migrazioaren eta garapenaren arteko loturan duten interesa. Esan daiteke politikariek migrazio-komunitateetan edo jatorri migratzaileko komunitateetan –alegia, diasporetan– azaltzen duten interes hori globalizazioak sortzen duen kezka zati bat dela; hain zuzen ere, duela oso gutxi konturatu dira langile migratzaileek eta horien ondorengoek garapen-bidean dauden herrialdeetara egiten dituzten diru-bidalketen bolumena oso handia dela (eta bolumen potentziala askoz handiagoa dela),<sup>1</sup> eta, batez ere, horrek sortzen du politikarien interesa. Potentzial positibo horretan azaldutako interesak emigrazioaren ondoriozko trebetasun- eta talentu-galerak –*jakintsuen ihesa* delakoak– sortutako kezka orekatzen du.

## **Diru-bidalketak**

Zaila da diru-bidalketak zehatz-mehatz kalkulatzeko, neurri batean dirua, askotan, bide informalen bidez mugitzen delako eta, beraz, ez delako finantza-estatistiketan adierazten. Hala ere, jakin badakigu diru-bidalketak oso baliabide garrantzitsu direla, bai atzerrian lan egiten duten senideengandik jasotzen dituzten familientzat, bai dirua bidaltzen duten emigrante-kopuru handia duten herrialdeetarako. Mundu Bankuak kalkulatu du, 2004an, diru-bidalketak Ameriketako Estatu Batuetako 100.000 milioi dolar baino gehiagokoak izan zirela, ia 150.000 milioi dolarrekoak. Zenbateko hori herrialderik aberatsenek garapenerako emandako laguntza ofizialaren zenbateko osoaren bikoitza da.

Diru-bidalketek zuzeneko eragina dute pobrezia txikiagotzean. Izan ere, familia pobreek jasotzen dute diru hori (baina ez, ezinbestean, familiarik pobreenek), eta, batik bat, oinarrizko premiak estaltzeko erabiltzen dute; hau da, elikagaiak, etxebizitza, hezkuntza eta osasuna ordaintzeko. Oro har, diru-bidalketak ez dira inbertsio *produktiboak* egiteko erabiltzen, eta, horretan arreta jarriz gero, oinarrizko premia horiei erantzutea familia pobreen zentzuzko lehentasuna dela ahaztuko dugu. Dirua oinarrizko premietan gastatzeak ere badu eragin biderkatzailea komunitatean.

---

<sup>1</sup> Nazioarteko diru-bidalketak migratzaile batek edo migratzaile-familia batek migratzailearen sorterriko beste gizabako edo familia bati bidalitako dirua dira. Zoritxarrez, ez daukagu herrialde bakoitzetik bidalitako diru-bidalketen kopuruari buruzko informaziorik. Nazioarteko erakundeek –esaterako, NMFk eta Mundu Bankuak– diru-bidalketei buruz jasotako eta argitaratutako informazioa herrialde bakoitzean *jasotako* zenbatekoari dagokio, besterik ez. Informazio horrek ez du ezer esaten herrialde bakoitzetik *bidalitako* zenbatekoari buruz, ezta diru-bidalketak jasotzen dituzten banakako herrialdeen artean banatutako zenbatekoari buruz ere.

Hala ere, diru-bidalketak ez dira diasporak sorterriko pobrezia-indizean eragina izateko bide bakarra, ezta gutxiago ere. Herrialde askotarako, diasporak oso garrantzitsuak dira, hau eragiten baitute: zuzeneko inbertsio atzeritarra (ZIA), merkatu-garapena (ekoizpenaren esternalizazioa barne hartuta), teknologiaren transmisioa, filantropia, turismoa, ekarpen politikoak eta, ez hain nabarmena, ezagutza-fluxuen ekarpenak, jarrera berriak eta kultur eragina. Diasporak gai horietan duen eraginari buruzko informazioa –kopuruez harago, bederen– oso eskasa da, eta hori oso zailtasun handia da, politikak garatzeko orduan.

Diasporei buruzko iritzi orokorrak azaltzea oso arriskutsua da; izan ere, diasporak izugarri aldatu dira historian zehar, sorterriko agintariekiko harremanei, oparotasun- eta heziketa-mailei, erlijio-testuinguruari eta jatorri etnikoari erreparatuta, bai diasporei beraiei dagokionez, bai diaspora bakoitzeko komunitateei dagokienez. Sorterritik kanpo bizitzeko esperientziak talde baten barruko aldeak areagotu ditzake, edo talde bateko kideen artean nortasun-elementu komun berriak sortu. Diasporako komunitateak oso heterogeneoak edo oso homogeneoak izanda ere, sorterrien eta kokapen-herrialdeen arteko lotura bizia osatzen dute.

Nahiz eta diasporarekin lotutako diru-bidalketen eta beste finantza-fluxu batzuen kopurua oso handia den, aditu askok uste dute eskulan-migrazioak ez dituela sorterriko garapen-aukerak asko hobetzen. Migratzaileen jatorriko herrialdeek zailtasun handiak izan dituzte bidalketen diru-sarrerak ekoizpen-ahalmen iraunkor bihurtzeko. Horrez gain, estatu gehienak ez dira beren eskulan migratzailea nola osatuta dagoen kontrolatzeko gai; izan ere, atzerriko lan-merkatuek baldintzatzen dute eskulanaren osaera, eta horrek, agian, ez du inolako zerikusirik sorterriko eskulanaren *soberakin*arekin. Zenbait herrialdek, asmo handiz, atzerriko merkatuetarako langile gaituak *ekoizteari* ekin diote; esate baterako, Filipinetan, erizainak, eta, Indian, informatika-programatzaileak. Herrialde gehienek, ostera, jarrera pasiboa agertzen dute nazioarteko eskaintzaren eta eskaeraren aurrean.

Horrez gain, esaten da bidalketen diru-sarrerak oso gutxitan erabiltzen direla helburu produktiboekin. Diru-bidalketetan, oso zenbateko txikiak bidaltzen dira; adibidez, Estatu Batuetatik Latinoamerikara egiten diren transferentzia normalak 200 dolar ingurukoak izaten dira, batez beste<sup>2</sup> (166,65 eurokoak). Gainera, jende pobrearentzat izaten dira, eta jende horrek zuzeneko kontsumoko gastuak ordaintzeko erabiltzen du, eta etxebizitzak, osasunak eta hezkuntzak sortutako gastuak ordaintzeko. Dirudienek, bidalitako diruaren oso zati txiki bat erabiltzen da enplegua eta diru-sarrerak sortzeko inbertsioak egiteko. Bestalde, diru-bidalketek desberdintasuna areagotu, inportazio-artikuluen kontsumoa sustatu eta mendekotasuna sor dezakete. Maiz, oso eraginkortasun txikiarekin egiten dira; diru-bidalketen balioaren %20 galdu egiten dela kalkulatu da, oro har, transferentzia-komisioak

<sup>2</sup> SURO, Roberto: "Billions in Motion: Latino Immigrants, Remittances and Banking" in Migration Information Source (www.migrationinformation.org), (2003ko otsaila). Ikerketaren laburpena.

oso handiak direlako eta kanbio-tasak oso txikiak direlako. Azken urteetan, ostera, zertxobait txikitu dira transferentzia-kostuak, diru-bidalketen merkatua gero eta lehiakorragoa baita.

Sorterrietara egindako bidalketen diru-sarreraren ondoriozko mozkinak ez dute diru-bidalketek pobrezian duten eragin osoa azaltzen, ezinbestean. Agian, diru-bidalketek ez dituzte arazo guztiak konpontzen, baina ez dago ukatzerik dirua jasotzen duten familien bizitza-mailan eragin handia dutela; izan ere, familiaren diru-sarreraren zati handia dira diru-bidalketak. Deborah Waller Meyers analistak diru-bidalketei buruzko bibliografia aztertu zuen eta herrialde guztietan bidalketen bidez jasotako dirua oso berdintsu erabiltzen zela ondorioztatu zuen: "Diru gehiena eguneko gastuak ordaintzeko erabiltzen da; hala nola, elikagaiak, arropa eta osasuna ordaintzeko. Etxebizitzak egiteko edo hobetzeko ere erabiltzen da dirua, baita lurra edo abereak erosteko eta kontsumo-ondasunak –adibidez, garbigailuak eta telebistak– erosteko ere"<sup>3</sup> Horrez gain, familiek hezkuntzan ere gastatzen dute diru-bidalketen zenbatekoa. Hori aintzat hartuta, hau ondorioztatu zuen Meyersek: antzeko egoeran beste iturri batzuetatik izandako diru-sarrerak erabiltzen diren moduan erabiltzen dira diru-bidalketak.

Diru-bidalketak gizarte-segurantzako sare garrantzitsua dira familia pobreentzat, eta, agian, bereziki zailak diren uneetan atzerrirako migrazioa handiagoa izatea eragozten du. Dominikar Errepublikan egindako zenbait ikerketek frogatu zuten ekonomia- eta gizarte-maila guztietako biztanleek jasotzen zituztela diru-bidalketak, baina, itxaron zitekeen legez, askoz handiagoa da pobreek horrekiko duten mendekotasuna. 1991ko ikerketa batetik ondoriozta daitekeenez, dominikarren %33,8k jasotzen zituen diru-bidalketak, eta diru hori familiaren diru-sarreraren %60 zen, batez beste.<sup>4</sup> Erdialdeko Amerikako gobernuak migratzaileen diru-bidalketak gizarte-segurantzako sare garrantzitsuak zirela onartzen zuten. 1999an Mitch urakan hondatzailea gertatu ondoren, El Salvadorko gobernuak ez zion Estatu Batuetako gobernuari giza laguntza gehiagorik eskatu; izan ere, El Salvadorko immigranteei Estatu Batuetan legez geratzeko baimena luzatzeko eskatu zion, immigrante horiek etxean zeuden eta urakanaren eraginak izan zituzten senideei dirua bidaltzen jarrai zezaten.

Diru-bidalketetatik, inbertsioak egiteko –giza kapitalean hezkuntza- eta osasungastuaren bidez egindako inbertsioa alde batera utzita– erabiltzen den zatia txiki samarra da, eta horrek, familia pobreen berehalako kontsumo-beharrez gain, inbertsioei dagokienez pobreak, gaur egun, oso egoera kaskarrean daudela adierazten du. Zenbait arazori heltzen ez zaion bitartean –besteak beste, azpiegitura eskasa, ustelkeria, kredituak eskatu ezina, azoken urruntasuna, negozioetarako tre-

---

<sup>3</sup> WALLER MEYERS, Deborah: "Remesas en América Latina: revisión de la literatura", Elkarriketa Inter-Amerikarrak eta Tomas Rivera Policy Institute delakoak eskatutako txostena, Washington DC, 1998.

<sup>4</sup> Ibid.

betasunetan prestakuntzarik eza, aurrezteko pizgarririk eza, etab.–, ez da errealista diru-bidalketek komunitate pobreen inbertsio-ahalmen txikiaren arazoa konponduko duenik itxarotea. Bien bitartean, diru-bidalketek pobreziatik ateratzen dute diru hori hartzen duten pertsona asko, nahiz eta horrek transferentziak jasotzen dituzten artean iraun.

## Jakintsuen ihesa

Horrenbestez, sorterrien ikuspegitik, migrazioaren onura nagusiak dira diru-bidalketak, baina, aitzitik, giza baliabideen galera da kosturik larriena; gehienbat, goi-mailako prestakuntza duten pertsonen galera. Prestakuntza handiko langileen merkata mundu-mailako merkatu bihurtu da, egiaz, eta industria-ekonomiarik dinamikoenak goi-mailako prestakuntza duten langile asko (herrialde pobreetakoak) hartzen ari dira, bai eta, zenbaitetan, kontratatzen ere.<sup>5</sup> *The Economist* aldizkariak, 2002an immigrazioari buruz argitaratutako artikulu batean, jakintsuen ihesari buruzko ohar hauek bildu zituen, ausaz:

- Kultura-maila handiko ghanatar eta sierraleonar guztien %30 inguru atzerrian bizi dira.
- Goi-mailako ikasketak dituzten Mexikoko biztanleen %12 Estatu Batuetan bizi dira, baita doktoregaien %30 ere.
- Goi-mailako ikasketak dituzten jamaikarren %75 Estatu Batuetan bizi dira.
- Komunismoa erori eta hurrengo hamarkadan, Albaniak goi-mailako prestakuntzako biztanleriaren herena galdu zuen.
- Estatu Batuetan doktoretza lortzen duten ikasle atzerritar guztien erdiak bertan jarraitzen du doktoretza lortu eta bost urte geroago.

Goi-mailako ikasketetako oso biztanle gutxi dituzten herrialdeetako emigranteak, beren herrikideak baino kultuagoak izateaz gain, harrera-herrialdeetako biztanleek baino askoz prestakuntza handiagoa izaten dute, eta hori oso ironikoa da. Estatu Batuetara berriki iritsitako immigrante legalen artean egindako ikerketa batek erakutsi zuen horien %21ek 17 urteko ikasketa-urte dituztela, gutxienez; kontuan izan behar dugu Estatu Batuetan jaiotakoek %8k soilik lortzen duela ikasketak-maila hori.<sup>6</sup>

Goi-mailako prestakuntza duten langileak galtzeak zenbait kostu-mota ditu sorterrietan. Agian, kosturik nabariena hezkuntza berarena da; izan ere, ia herrialde guztietan, estatuaren diru-laguntza ugari eman zaio hezkuntzari. Horren ondorioz,

<sup>5</sup> Goi-mailako prestakuntza duten pertsonen emigrazioa ez da herrialde pobreen arazoa soilik. Besteak beste, Australiako, Kanadako eta Eresuma Batuko goi-mailako prestakuntzako pertsonak Estatu Batuetara joaten dira lan egitera.

<sup>6</sup> DESAI, Mihir A.; KAPUR, Devesh; MCHALE John: "The Fiscal Impact of the Brain Drain: Indian Emigration to the U.S.", Third Annual NBER-NCAER conference delakorako prestatutako lana (2001eko abenduaren 17a eta 18a).

pertsona kultuen emigrazioa herrialde pobreetatik herrialde aberatsetara egindako transferentzia moduko bat da. Halaber, kostu fiskalak ere badaude jakintsuen ihesarekin lotuta; alegia, seguru asko soldata handiak izango lituzketen profesional horiek Ogasun Publikoari ordainduko lizkioketen zergak galtzen ditu sorterriak. Mihir A. Desai, Devesh Kapur eta John McHale adituek, ikerketa batean, zergaoinarriaren elementu nagusietako bat Indiatik Estatu Batuetara emigratzearekin lotutako zuzeneko zerga-galerak aztertu zituzten. Goi-mailako prestakuntzako profesionalek, Indian geratu izan balira, irabazi eta zergatan ordainduko zuketena kalkulatu zuten eta emaitza hau lortu zuten: zerga-galera garbiak Indiako BPGren %0,24 eta %0,5 bitartekoak ziren (kalkulua egiteko erabilitako metodologiaren arabera). Indiako emigranteek soldata onak dituzte, baita beren kide estatubatuarrekin alderatuta ere. Atzerriko hinduen diru-sarrerak, guztira, Indiako diru-sarrera nazionalen %10 dira, eta emigrante hinduak Indiako biztanleriaren %0,1 baino ez dira. Ikerketa horrek “onenek eta bikainenek” emigratu ohi dutela ere frogatu zuen: atzerrian bizi ziren hindu gehienak Indiako erakunderik ospetsuenetan lizentziatuak, beren eskoletan nota akademikorik onenekin lizentziatuak eta arlo-rik eskatuenetan espezializatuak dira.<sup>7</sup>

Jakintsuen ihesak garapenean eragin dituen galera garbiak askoz zailagoak dira kalkulatzeko. Sorterrietan egoera oso kaskarra izango balitz (ekonomia-administrazio negargarria, gatazka, lan-baldintza txarrak eta ordainsari-maila txikiak) eta hori atzerriko aukerekin bateratuz gero, goi-mailako prestakuntzako profesionalek emigratzeak erakundeak eta ekonomia-sektoreak geldiaraziko lituzke. Europar Batzordearen Migrazio eta Garapenari buruzko Komunikazio batek hau ematen du jakitera: “Zambiako medikuen hiru laurdenak herrialdea utzi zuen, oso urte gutxitan. Nigeriako 21.000 medikuk herrialde industrializatueta emigratu zuten”.<sup>8</sup>

Jakintsuen ihesak garapenean duen eragina askoz larriagoa da giza baliabide ahuleko sorterrietan; alegia, hezkuntza-sistemak emigratzen dutenak ordezkatzeko gai ez diren herrialdeetan. Jonathan Crush adituak honela deskribatu zuen emigrazioak Hego Afrikako osasun-sektorean duen eragina: *aulki-jokoaren* moduko zerbait da, hori baita beste herrialde batzuetako ordezkapen-migrazioa. Hego Afrikak Kanadan duen enbaxadorearen hitz batzuk aipatzen ditu: “Zikloa, nik ulertzen dudana moduan, honelakoa da: zuen hiri-medikuak (Kanadakoak) Estatu Batuetara joaten dira, irabazi ederren bila. Ondoren, zuen landa-medikuak hona etortzen dira (hiriguneetara), eta gure medikuak zuen landa-eremuetara joaten dira. Eta guk Kubako medikuak jasotzen ditugu.”<sup>9</sup> Crushen azalpenean, misterioitsuena ez da

<sup>7</sup> DESAI, Mihir A.; KAPUR, Devesh; MCHALE John: “The Fiscal Impact of the Brain Drain: Indian Emigration to the U.S.”, Third Annual NBER-NCAER conference delakorako prestatutako lana (2001eko abenduaren 17a eta 18a).

<sup>8</sup> Europako Batzordea: “Batzordearen Komunikazioa Europako Kontseiluari eta Parlamentuari: I. Migrazioa eta Garapena”, Brusela, 2002-12-03, COM (2002) 703, 24.

<sup>9</sup> CRUSH, Jonathan: “The Global Raiders: Nationalism, Globalization and the South African Brain Drain”, in *Journal of International Affairs*, 56 (2002ko udazkena), 1. zk.



Hego Afrikako medikuen emigrazioa (besteak beste, Kanadako kontratazioak suspertua), Hego Afrikak, bere aldetik, ordezkioak kontratatzeaz arduratu ez izana baizik. Berez irekia den ekonomia batean immigrazioari oztopo politikoak jartzeak globalizazioaren alde txarrak dakartza berekin, eta, horrez gain, horren onura potentzialak izatea eragozten dio herrialdeari.

Afrikako Sahara aspiko herrialdeak beste muturrean daude; esaterako, Zambia, Liberia eta Zimbabwe. Krisian dauden herrialdeetarako, erorketa librean dagoen ekonomia baten arazo orokorrako baten adierazpen bat baizik ez da jakintsuen ihesa. Goi-mailako prestakuntzako emigrazio-maila handiak dituzten herrialdeak eskulanaren esportazioa –eta trebeziaren esportazioa– abantaila erlatibotzat hartzen hasi dira, eta horrek eragindako irabaziak handitzeko modua bilatzen.

Egoera egokietan, goi-mailako prestakuntza duten langileek atzerrian lan egiteak onurak ekar diezazkieke sorterrii. Behin migratu dutenean, goi-mailako prestakuntzako profesionalak ez dituzte ezinbestean beren sorterriak alde batera uzten. Beharrezko aukerak izanez gero, beren sorterrietan inbertituko dute, edo ekoizpena beren herrialdeetara eramango. Halaber, beren trebetasuna ere eramango dute sorterrira. Adibidez, 80ko hamarkadan Silicon Valley-n bizi ziren migratzaile taiwandarrak bezala; *astronautak* deitzen zieten, “airean bizitzen baitziren”, Kalifornia eta Taiwan artean bidaiatzen (ikus 3. taula). Profesional migratzaileen elkarteek –esate baterako, Kanpoaldeko *jakintsuen* Hego Afrikako Sarea (*South African Network of Skills Abroad*)– ezagutza teknikoak eramaten dituzte sorterrira, eta, horri esker, bertako ikertzaileek nazioarteko aurrerapenen jakinaren gainean egoteko aukera dute. Batzuetan, goi-mailako prestakuntzako migratzaileak sorterrira itzultzen dira, bertan behin eta betiko geratzeko; batik bat, sorterrian gertatutako aldaketaren batek –adibidez, demokratizazioak edo ekonomiaren hazkundeak– beren trebeziak erabiltzeko benetako aukera bat ematen badie itzultzen dira. *Jakintsuen ihesaren* beste aurkia da *jakintsuen zirkulazioa*.

Garapen-bidean dauden herrialdeek goi-mailako prestakuntzako profesionalen emigrazioa deitoratzen dute; izan ere, emigrazioa dela-eta, nazioko ekonomiak ez du hezkuntzan fondo publikoen bidez diruz lagundutako inbertsioak egiteko aukerarik. Hala ere, Taiwanen kasuak frogatzen duenez, goi-mailako prestakuntzako emigrazioak eragin hobea –eta positiboa– izan dezake garapenean. Emigrante-kopuruari dagokionez, garapen-bidean dagoen beste edozein herrialde-tan adinakoa izan da *jakintsuen ihesa* Taiwanen. XX. mendeko bigarren erdialdean, 90.000 taiandar joan ziren atzerrira ikastera, eta, zenbait urteren ondoren, joan zirenen %10 baino gutxiago itzuli zen.<sup>10</sup> Baina emigrante horiek ez zuten berekin fondo publikoz lagundutako ikasketa askorik eraman atzerrira. Batez ere, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta lanbide heziketan inbertitu zuen

<sup>10</sup> LUO, Yu-Ling; WANG, Wei-Jen. “High-skill migration and Chinese Taipei’s industrial development”, in OCDE, *International Mobility of the Highly Skilled*, OECD, Paris, 2002.

Taiwanek; duela gutxi hasi da goi-mailako ikasketak diruz laguntzen, nazioko ekonomiak prestakuntza hori eskatzen duelako. Horren ondorioz, unibertsitate-ikasketak egin nahi zituzten ikasle taiwandarrek emigratu behar izaten zuten; alabaina, atzerrian hartutako hezkuntza modu pribatuan finantzatu zuten, eta, askotan, harrera-herrialdeek diru-laguntzak ematen zizkieten ikasketak egiteko.

Behin emigrante horiek emigratuta, ez zituzten beren sorterriak ahaztu. Taiwango goi-mailako teknologiko sektorea handitu ahala, atzerrian zeuden emigrante horiek ekarpen handia egin zuten; alegia, beren trebetasuna, esperientzia eta merkataritza-kontaktuak. Sorterrira itzultzen hasi ziren; batzuetan, goi-mailako prestakuntzako migratzaileak eta Taiwango enplegu-aukerak lotzen zituen gobernuko datu-base baten bidez. Asko beren negozioak martxan jartzeko itzuli ziren; batik bat, gobernuak bereziki eraikitako industrialdeetan jartzen zituzten beren enpresak. Horietako bat Hinschu industrialdea da; bertan, Mendebaldeko estiloko etxebizitzak eraiki zituen gobernuak, eta nazioarteko batzarrak antolatu, goi-mailako prestakuntzako ahalik emigrante-kopururik handiena itzul zedin eragiteko.

Filipinetan, eskulanaren esportazioa gobernuaren ekonomia-planaren berariazko estrategia bat izan da. Gobernuaren politika horren helburuak ideia honekiko koherenteak izan dira: aldi baterako migrazioa izan behar zuen, eta bide ofiziale-tatik egingo zen. Atzerriko Enpleguaren Filipinetako Administrazioak (POEA) onartu behar du atzerriko enplegu oro; erakunde hori, horrez gain, atzerriko konpainia eta gobernuekin jartzen da harremanetan, zuzenean, mota guztietako eskulana eskaintzeko. POEAri esker, hau lor dezakete langileek: gaixotasun-aseguru baten prestazioak (beraizentzat eta beren familientzat), informazio- eta aholkularitza-bilerak (irten aurretik), kutzazain automatikorako txartel bat (diru-bidalketak egiteko erabil daiteke) eta, prozedura arbitral baten bidez, enpresaren aurkako demanda jartzeko eskubidea. Horrez gain, POEak ahaleginak egiten ditu langile legalen lan-baldintzak egiaztatzeko; izan ere, duela gutxi, Hong Kong-era joan behar zuen eskulanaren emigrazioa bertan behera utzi zuen, etxeko langile filipinarrek etengabeko abusua jasaten zutela egiaztatu zuenean. Halaber, emigrante filipinarren eta sorterriaren arteko lotura politikoak eta sozialak estutzen saiatzen da gobernuak; horretarako, atzeritik bozkatzeko aukera ematen die emigranteei, eta kultura-ikuskizun filipinarrak babesten ditu harrera-herrialdeetan. Politika aktibo horren helburua filipinarren emigrazioa aldi baterakoagoa, legalagoa, gizalegezkoagoa eta emankorragoa izatea da, baina zaila da hori zenbateraino lortzen duen kalkulatzeko. Gobernuaren arabera, 2000n, aldi baterako 2,9 milioi langile joan ziren atzerriera kanal ofizialen bidez. Hala ere, 1,8 milioi filipinar modu irregularrean zeuden atzerrian, eta 2,5 milioi modu iraunkorrean bizi ziren beste herrialde batean.<sup>11</sup>

---

<sup>11</sup> Atzerriko Enpleguaren Filipinetako Administrazioak, <http://www.poea.gov.ph/> web orria, 2003ko apirilaren 2a.

Egunean egun, lan-migrazioa oso industria garrantzitsua da; izan ere, diru-bidalke-ta ofizialak BPGren %8,9 da, gutxi gorabehera.<sup>12</sup> Beste sektore batzuek –hala nola, hezkuntzak eta turismoak– onura horietako zati handia lortzen dute, emigratu nahi dutenei eta egungo emigranteei emandako zerbitzuen ondorioz. Baina aldi batera-ko langileak itzultzeak oso eragin txikia izan du garapen-tresnatzat. Ikerketek fro-gatzen dutenez, migratzaileak, askotan, trebetasun baliagarri berriak eskuratuta itzultzen dira; alabaina, oro har, lanik gabe egoten dira atzerrira berriro joaten diren arte.

Hona hemen beste garai batean *jakintsuen ihesa* deituko zitzaionaren beste zen-bait adibide. Science aldizkariak eman zituen aditzera, 2004. urtean.<sup>13</sup> Horietako batean, genetikako aditu baten (jatorri txinatarrekoa) esperientziaren berri ematen zuen:

Bruce Lahn genetikako adituak hamar urte luzez ikasi eta lan egin du Estatu Batuetan, baina haren bihotzaren zati batek sorterrian jarraitzen du, Txinan, ale-gia. Sorterriari goi-mailako zientziaren arloan lehiatzen lagundu nahi dio eta hori egiteko modurik onena Estatu Batuetan geratzea dela erabaki du.

35 urte ditu Lahnek, eta Chicagoko alboko irakaslea eta Howard Hughes Mediku Institutuko (HMMI) ikertzailea da; horrez gain, Guangzhou-ko prima-teen ikerketa-zentro berri bateko zientzia-aholkulari nagusia ere badugu. Biologia Zelularreko eta Ehun Ingeniaritzako Zentroak (Center for Stem Cell Biology and Tissue Engineering) milioi bat dolarreko kostua izan zuen. Laborategi bat du Sun Yat-sen-eko Unibertsitatean, eta primateak hazteko zen-tro bat, autoz ordubetera. Peng Xiang-ek (Lahnen doktoratu ondoko kide ohia) zuzentzen du zentroa, eta hau da horren helburua: primate transgenikoak sor-tzea eta gizakien eta tximinoen ama-zelulen ehunka andui isolatzea.<sup>14</sup>

Science aldizkariak argitaratutakoen artean, bi herrialde mugakideren arteko lan-kidetzari buruzko hau dago, HIESaren aurkako ikerketako artxibategietatik atera-takoa:

[Alash'le] Abimiku 1988an doktoratu zen Londresko Higieneko eta Medikuntza Tropikaleko Eskolan (London School of Hygiene & Tropical Medicine). 1991n iritsi zen Estatu Batuetara, Robert Gallo HIESaren arloko ikertzaile aitzindaria-rekin lan egitera. Garai hartan, Bethesda-ko (Maryland) Minbiziaren Institutu Nazionalean zegoen Gallo. Urte hartan, Kultura Zientifikorako Nazioarteko Zentroa–HIESa ikertzeko Munduko Laborategia (International Center for Scientific Culture–World Laboratory AIDS Research Center) fundatu zuten biek,

<sup>12</sup> Nazioarteko Moneta Funtsa, *Balance of Payments Yearbook (Ordainketa-balantzari buruzko urteko txostena) 2002*, IMF, Washington, DC, 2003; Mundu Bankua, *Indicadores de desarrollo mundial 2002*, Washington, DC, 2003.

<sup>13</sup> Cho, Adrian: "A Foot in Each Country", in *Science*, 304 (5675), 1286, 2004ko maiatzaren 28a.

<sup>14</sup> *Ibid.*

Jos-en. Batik bat, Plateau estatuko gobernuak finantzatzen du zentro hori. Abimiku da zentroko zuzendaria, eta haren lehenengo asmoa Nigerian garai hartan sortzen ari zen GIBen anduia isolatzea zen. Hala ere, laster, epidemiari aurre egiteko txekoetan eta oinarritzko hezkuntza jarri zuen arreta. Hasieran, Abimikuk ia denboraren erdia eman zuen Nigerian.

Urteak joan ahala, Abimikuk zientzian bildu du arreta, berriro ere; izan ere, hark zuzendutako taldeak Mendebaldeko Afrikan nagusi den GIBen anduia isolatzea lortu zuen. Bill eta Melinda Gates Fundazioak emandako laguntzari esker, Nigerian egiten zuen lana handitzeko aukera izan du. “Hemengo kontaktu akademikoei esker, han gauza asko egitea lortu dugu”, dio emakume honek.<sup>15</sup>

Aldizkariak adierazten duenez, gero eta ohikoagoa eta zabalagoa da zientzialari emigranteen eta beren sorterrietako erakundeen arteko elkarlana. Truke-bisita hutsak izan beharrean, sektore publikoan zein pribatuan erakundeak sustatzeko asmo handiko ahaleginak diasporaren ekarpenetatik elikatzen dira.<sup>16</sup>

### **Diru-bidalketen eta jakintsuen ihesaren arteko borrokatik harago**

Gero eta ikerketa gehiagoren arabera, diru-bidalketen onuren eta jakintsuen ihesaren kostuen arteko balantzea netoa izateko ahalegina esparru mugatuegia da, migrazioak garapenean duen eragina ebaluatu ahal izateko. Beste finantza-fluxu batzuek diru-bidalketek baino eragin handiagoa izan dezakete garapenean; izan ere, ikusi dugunez, eguneroko kontsumoko gastuak ordaintzeko erabiltzen dira diru-bidalketak. Sorterrietara itzuli diren emigranteen zuzeneko inbertsioek izugarritzko potentziala dute, eta, egun, oso garrantzitsua da zenbait herrialdetarako. Adibidez, mundu osoan, 55 milioi emigrante txinatar daude, gutxi gorabehera, eta emigrante horien komunitateek 60.000 milioi dolar inguru inbertitzen dute Txinan. Horrekin alderatuta, Indiako 20 milioi emigrante sei milioi dolar inguru inbertitzen dute, besterik ez.<sup>17</sup> Horrez gain, immigranteen komunitateek sorterrietara joaten dira turismoa egitera, eta hori diru-sarreraren iturri handia da herrialde askotarako; besteak beste, Irlandarako eta Vietnamerako. Emigranteen elkarrean edo emigrante indibidualen filantropiak ere ematen du tokiko mailako garapenerako baliabide ugari; Jatorriko Komunitateen Elkarrean [Home Town Associations] (Mexiko), Itzuli diren emigranteen elkarrean (Jamaika) eta ongintzako fundazioak (Egipto) dira elkarte horien zenbait adibide. Hautagai eta kausa politikoetarako funts-bilketak diasporako komunitateei eskatzen zaizkie. Sorterriko elikagai eta produktuengatik emigranteek duten nostalgiaz harrera-herrialdeetan produktu

---

<sup>15</sup> Ibid.

<sup>16</sup> Ibid.

<sup>17</sup> WALDMAN, Amy: “India Harvests Fruits of Diaspora”, *in* New York Times, 2003ko urtarrilaren 12a.

horietarako merkatuak sortzea eragiten du, eta horrek tokiko ekoizpena eta nazioarteko merkataritza sustatzen ditu. Migratzaileen, sorterrien eta harrera-herrialdeen arteko loturak estuak eta sakonak izatea errazten duten sare transnazionalak handitu egin dira, eta, horri esker, interakzio haiek guztiak sustatu egiten dira. Komunikazio-aro honetan, azkarrak eta merkeak dira garraiobideak, eta, horren ondorioz, emigrazioa ez da sorterriarekiko haustura, lehen ez bezala. Testuinguru horretan, ez dago kapital ekonomikoa eta soziala analitikoki argi eta garbi isolatzerik. Ikasle migratzaile asko bat datoz honetan: gaur egun, sare transnazional horiek dira nazioarteko migrazioarekin lotutako garapen-baliabiderik garrantzitsuena.<sup>18</sup>

Sare transnazionalen fenomenoak ez da berria. Baina, garapen-analistentzat eta politikak egiteko arduradunentzat, berriz, berri samarrak dira, interes-gaitzat. Jagdish Bhagwati ekonomialariak hau iradokitzen du: "Erantzun errealista bat emateko, alde batera utzi behar dugu *jakintsuen ihesari* aurre egiteko goi-mailako prestakuntzako profesionalak beren herrialdeetan geratzeko helburua duen ikuspegia. Diaspora ereduak arrakasta izateko askoz aukera gehiago ditu, iraganeko eta egungo herritarrak sorterria gunetzat duen komunitate handitu eta zehaztuan eskubide- eta betebehar-sare batean sartzen baititu".<sup>19</sup> Sorterrietako gobernuek gero eta lotura gehiago sortu nahi dute diasporako komunitateekin; izan ere, emigranteak inbertsio-iturri bat dira, baita kanpo-merkatuen irekiera, dibisa-iturria, ezagutza teknikokoa eta laguntza politikokoa ere (bai kanpaina nazionaletan, bai harrera-herrialdeetako gobernuei dagokienez). Adibidez, 2003ko urtarrilean, Indiako gobernua Indiako Merkataritza Ganberen Federazioarekin lan egin zuen, Indian bizi ez diren hinduei eta hinduen ondorengoei buruzko batzar bat egiteko; ia 2.000 pertsona bertaratu ziren.<sup>20</sup> Gobernuak atzerrian (Erresuma Batuan, Estatu Batuetan, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian eta Singapurren) bizi diren hinduei nazionalitate bikoitza ematea pentsatzen ari da, bai eta Indiako herritarrek atzerrian egin ditzaketen inbertsioei traba gutxiago jartzea ere. Beste gobernu batzuk antzekoa egiten ari dira, diasporako komunitateekin lotura transnazional estuak sortzeko.

Kasu gehien-gehienetan, diasporaren eta sorterriaren arteko lotura-sarea beren kabuz jarduten duten gizabanakoen eta taldeen lanaren ondorioa da, gobernuak sustatutako produktua baino gehiago. Diasporaren konpromisoak forma ugari du eta hainbat eremu hartzen ditu barne, eta, hori dela eta, oso zaila da horri buruzko iritzi orokorrik ematea. Senideen arteko harremanen maila pertsonal hutsa hartzen du barne, baina baita nazioarteko finantza-merkatuena ere. Familia-mailaz eta gizabanakoaren mailaz harago, diasporako erakundeen artean hainbat elkarte-mota dago; hala nola, herri bereko migratzaileenak, kidetasun etnikoko taldeak,

<sup>18</sup> PORTES, Alejandro: "Introduction: The debates and significance of immigrant transnationalism", in *Global Networks*, 1 (3) (2001), 181-194.

<sup>19</sup> BHAGWATI Jagdish: "Borders Beyond Control," in *Foreign Affairs* (2003ko urtarrila/otsaila)

<sup>20</sup> WALDMAN, Op. cit.

ikasle ohien elkarteak, erlijio-elkarteak, elkarte profesionalak, ongintzako elkarteak, garapenerako GKEak, inbertsio-taldeak, alderdi politikoen filialak, giza laguntzako erakundeak, kultura kontserbatzeko klubak, sare birtualak eta elkarten federazioak. Diasporaren konpromisoetatik pobrezia txikiagotzea zeinek eragiten duten gehien jakiteko, eraginen denbora-dimentsioari erreparatu behar zaio; izan ere, eraginik berehalakoena, agian, ez dira eraginkorrenak epe luzean.

Diasporak familiarekiko eta komunitatearekiko duen konpromisoak du eraginik zuzenekoena eta berehalakoena pobrezian. Adibide bakar bat jartzearren, Tadjikistan-en (Sobiet Batasuna desegin zenean, bertako ekonomiak behera jo zuen), etxeen erdia diru-bidalketen diru-sarreraren mende dago, Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera.<sup>21</sup> Argi eta garbi dago esku-dirutako bidalketak direla nabarmenenak, baina gauzazko bidalketak ere oso garrantzitsuak ere badira. Fernando Nimal (Garapenerako Asiako Bankuko landa-eremuetarako finantza-aditua) konturatu denez, gauzazko transferentziak, askotan, gutxietsi edo bidalketen kalkulu ofizialetatik kanpo geratzen dira.<sup>22</sup>

### **Jatorriko komunitateen elkarteak (Home Town Associations)**

Diasporaren konpromisoetatik, Mexikoko Jatorriko komunitateen elkarteak da (Home Town Association). Mexikoko hiri edo herri bereko biztanleek Estatu Batuetako leku berera emigratu ohi dute. Emigranteek sortutako Jatorriko komunitateen elkarteak bi helburu dituzte: alde batetik, migratzaileei gizarte-laguntza ematea eta jatorriko herri eta hiriei laguntza ekonomikoa ematea. Mexikarrek elkarteak baino lehen, gauza bera egin zuten irlandarren, poloniarren, italiarren eta beste immigrante-talde batzuen elkarteak. Gaur egun, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herrialdeetako immigranteak antzeko elkarteak sortzen ari dira Estatu Batuetan; Nigeriako eta Ghanako immigranteek gauza bera egin dute Erresuma Batuan.

Manuel Orozco hainbat ikerketa egin du, eta, horietatik ondorioztatu duenez, Mexikoko Jatorriko komunitateen elkarteak izugarri aldatzen dira sorterrira bidaltzen duten laguntza-motari erreparatuta: ongintzako ekarpenak, azpiegituran hobekuntzak, giza garapenerako proiektuetarako finantzazioa (olgetako proiektuak, hezkuntzakoak eta osasunekoak) eta diru-sarrerak sortzen dituzten jardueretan kapital-inbertsioak.<sup>23</sup> 1998. urtearen amaieran, horrelako 400 klub baino gehiago

<sup>21</sup> MNE, Pentsararako informazio-bilera bateko oharra, 2004ko apirilaren 20a.

<sup>22</sup> NIMAL A. Fernando, "Workers' Remittances and Microfinance: The Neglected Nexus", Garapenerako Asiako Bankuko Eskualdeko Garapen Iraunkorreko Saila, *Finance for the Poor*, 4, (2), 2003ko ekaina, 5. Sartu [adb.org/Documents/Periodicals/Microfinance/finance\\_200342.pdf](http://adb.org/Documents/Periodicals/Microfinance/finance_200342.pdf) web orrian (ingelesez).

<sup>23</sup> OROZCO, Manuel: "Globalización y Migración: El impacto de las remesas familiares en América Latina", in *Enfoques para Aumentar el Valor Productivo de las Remesas*, Mundu Bankuan 2001eko martxoaren 19an egindako batzarrean -Fundazio Inter-Amerikarrak, NBEko Latinoamerikako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak (Washingtongo bulegoa) eta Mundu Bankuak babestuta- aurkeztutako txostenak, 19-38.

zegoen Estatu Batuetan; klub horietan, Zacatecas eta Guanajuato estatu mexikarretakoak ziren aktiboak eta handienak. Klub horiek elkarteak sortu dituzte, eta horiek, lehen azaldu den legez, ahaleginak eta esperientzia bateratu eta maila federalean eta estatalean dihardute elkarlanean.

Bangladeshko Gobernuko Immigranteen Ongizaterako eta Atzerriko Enpleguko Ministerioak eta Migrazioen Nazioarteko Erakundeak Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako emigrante bangladeshtarren artean egindako ikerketa batek ondorioztatu zuenez, Bangladesheko herri edo hiri berekoek antzeko elkarteak sortzen zituzten. Elkarte horiek batera egiten zuten lan, sorterrian eskolak eta meskitak egiteko eta mantentzeko dirua biltzeko, azpiegiturak konpontzeko, ikasleei beka emateko eta, hondamendi naturalen ondoren, berreraikuntza-jarduerak eta giza laguntza antolatzeko.<sup>24</sup> Erresuma Batuko elkarte horietako bi Londresko Bianibazar Elkarteak Bianibazar Association of London (Londresko Bianibazar Elkarteak) eta Londresko East End-eko Baniachang Elkarteak (Baniachang Association of the East End). Azkenean, komunitate-erakunde txiki asko handituz eta handituz zihoazenez, federazioak sortu ziren; esate baterako, Sylhet-eko eta kanpoaldeko Ongizaterako eta Garapenerako Batzordea (Greater Sylhet Development and Welfare Council, GSDWC) Birmingham-en 1993an fundatua. Erakunde federatuen helburua Erresuma Batuko bangladeshtarren komunitateetako plataforma komuna lortzea eta zenbait gaitan lidergoa erakustea da; esaterako, emigranteek Bangladeshen bozkatzeko eskubidea eta Erresuma Batuko arraza-diskriminazioa gaitetan. Adibidez, GSDWC federazioa eskualde-bulegoak ditu Erresuma Batuan eta Irlandan, Sylheten eta kanpoaldean dituen lau bulegoek gain. Hala ere, txostenak erakusten du elkarte horiek komunitate etniko edo erlijio-komunitate jakinen inguruan antolatzen direla, eta, horren ondorioz, zatitu egiten direla, eta lagundu nahi duten komunitatea ahuldu.<sup>25</sup>

Migratzaile askorentzat, Jatorriko komunitateen elkarteak eta horrelako egiturako elkarte guztiak lehen urrats bat dira, gizarte transnazionalak herritartasun aktibo bihurtzeko prozesuan. Migratzaileen loturei eta nortasunari eusten laguntzen dute, bai eta jatorriko herri eta hirietan azpiegitura fisikoak eta gizarte-azpiegiturak sustatzen ere. Baina, horrez gain, arazoak ere badituzte. Emigranteek beren jatorriko komunitatetarako nahi dituzten helburuek, agian, ez dituzte bertan geratu direnen lehentasunak islatzen, eta horrek tirabirak sortuko lituzke proiektuak aukeratu eta inplementatu behar direnean. Askotan, genero-rolak oso ohikoak dira Jatorriko komunitateen elkarteetan; hala ere, migrazioaren ondorioz, rol horiek izugarri alda daitezke. Agian, garrantzitsuena Jatorriko komunitateen elkarteetan tokiko ikuspegia da, eta pobrezia txikitzeko oztopoak, berriz, eskualdekoak, naziokoak eta mundukoak izan daitezke.

<sup>24</sup> Bangladeshko Gobernuak, Immigranteen Ongizaterako eta Atzerriko Enpleguko Ministerioak Ministerioa eta Migrazioen Nazioarteko Erakundeak, Dhaka, "Institutionalizing Diaspora Linkage: The Emigrant Bangladeshis in UK and USA", 2004ko otsaila.

<sup>25</sup> MNEren eta Bangladeshko Gobernuaren txostena, Op. cit., 65.

## **Merkataritza-sareak**

Merkataritza-sareak oso ohikoak dira diasporako komunitateen artean. Horietako batzuk oso sendoak dira, eta duela denbora asko funtzionatzen dute merkataritzaganbera etniko gisa, harrera-herrialde bakar batean; beste batzuk, berriz, oso berriak dira, eta transnazionalak. Merkataritza-sare askok informazioaren teknologiak erabiltzen dituzte kideen arteko loturak sortzeko eta haiei eusteko. Esate baterako, Libanoko Merkataritza Sarea (Lebanese Business Network, LBN) irabaziasmorik gabeko *merkataritza-garapenerako bidea* da; on line merkatua du, eta merkataritzako datu-basea. Haren helburua Libanoko enpresarien, emigranteen eta nazioarteko enpresen arteko loturak sortzea da, merkataritza-aukerak eta elkartze-ko aukera eman dezaketen merkataritza-arloak bilatuz.<sup>26</sup>

Informazioaren teknologien (IT) enpresari eta profesional hinduek zenbait merkataritza-sare ezarri dituzte. Sarerik handienetako bat TIE (The IndUS Entrepreneur) da. Estatu Batuetan eta Indian sortu zen, eta, gaur egun, 25 bulego dituzte; besteak beste, Singapurren, Suitzan eta Erresuma Batuan. Sare horren helburua enpresari eskarmentudunak eta exekutibo berriak elkartzea da, jagole eta apopilo arteko harreman moduko batean. Horrez gain, zenbait kide inbertitzaileen arriskukapitalarekin etorkizun oparoko ekimenak egitearen alde egiten du (Estatu Batuetan eta India). Devesh Kapur adituak adierazten du sareen onurak inbertsio errentagarriez eta hasierako finantzazioez harago doazela:

“Indiarrek beraiek eta inbertitzaile atzerritarrek Indiaren potentzialari buruz zuten konfiantza handitu egin da, Indian arazo ugari badaude ere. Zenbait konpainiak –besteak beste, Yahoo, Hewlett Packard eta General Electric konpainiek– I & D zentroak ireki dituzte Indian, neurri handi batean, enpresa horietako merkataritza-eragiketetan lan egiten duten hinduek sortutako konfiantzaren ondorioz. Horrek adierazten ditu diasporaren nortasun progresibo, erakargari eta koherentearen proiektiotik ondorioztatzen diren eragin kognitiboak; izan ere, oparotasun- eta aurrerapen-irudia ematen du kontsumitzaile eta inbertitzaile potentzialen aurrean”.<sup>27</sup>

Santa Klarako (Kalifornia) Silicon Valleyko Profesional Hinduen Elkartearen (Silicon Valley Indian Professional Association, SIPA, sipa.org), 1.800 kide baino gehiago daude.<sup>28</sup> Elkarte horren eginkizuna “Indiako enpresari, profesional eta burokratekin biltzeko eta komunitate profesionalaren barruan informazioaren hedapena eta koordinazioa errazteko interesa duten gizabanakoei foro bat eskaintzea” da; horretarako, zenbait batzar eta mintegi antolatzen ditu, besteak beste, esternalizazioari, jabetza-eskubideei eta Indiako zerbitzu-hornitzaileei buruzkoak. Hinduen diaspo-

---

<sup>26</sup> LBN, sartu [linbusiness.com/LBN/LB\\_LearnMore.asp](http://linbusiness.com/LBN/LB_LearnMore.asp) helbidean.

<sup>27</sup> KAPUR, Op. cit..

<sup>28</sup> SHEELS, Maggie: “Asian Exodus from Silicon Valley?”, in BBC News.com, 2001eko apirilaren 17a.



rako zenbait merkataritza-elkartek Erresuma Batuan funtzionatzen dute; hona zenbait adibide: Erresuma Batuko Indiako Garapenerako Taldea (Indian Development Group (UK) Ltd), Negozioetarako Hinduen Foroa (Indian forum for Business) eta India Taldea (India Group); azken horrek London Business School negozio-eskolan du egoitza.<sup>29</sup>

Estatu Batuetako Goi Mailako Teknologiaiko Armeniarren Kontseilua (Armenia High Tech Council of America, ArmenTech, armentech.org), SiliconArmenia (siliconarmenia.com) delakoa eta horien antzeko beste ekimen txiki asko Estatu Batuetako irabazi-asmorik gabeko elkarteak dira; beren kideen esperientzia (kide gehienak IT arloko profesional armenio-amerikarrak dira) Armenian goi-mailako teknologiaren negozioa eta Informazioaren Teknologiaei buruzko hezkuntza sustatzeko erabiltzea dute helburu. ArmenTecha asmoa eragiketa gehiago egitea da, Europako armeniarren diaspora ere proiektu horretan sar dadin. SiliconArmenia 2003ko urtarrilean esekitako web orri bat da, eta goratze-bidean den Armeniako goi-mailako teknologia sustatzeko helburua du, nazioarteko konpainia eta inbertitzaileekin gero eta harreman handia izanez. Web orrian, berriak, inbertsio- eta negozio-aukerak, lotura-zentro bat, ordenagailu bidezko ikasketa, on line prestakuntza eta informatika-trebetasunen garapena. SiliconArmeniak finantzazio-iturri publiko eta pribatuaren laguntza jasotzen du, baita Mundu Bankuarena ere.<sup>30</sup>

Beste ekimen interesgarri bat Afrikako Diasporari buruzko Gailurra da (African Diaspora Summit); 2003ko abenduan antolatatu zuen AfroNeth diaspora afro-nederlandarrak. Batzarrean, Herbeheretako Kanpo Harremanetako ministerioak, Herbeheretako Negozioetarako Kontseilu Afrikarrak (Netherlands African Business Council) eta Gatazkak Aurreikusteko Europako Zentroak hartu zuten parte. Elkarrizketa batean,<sup>31</sup> Afrikako Diasporari buruzko Gailurraren antolatzaileak adierazi zuen Afrikako Garapenerako Itun Berria (NEPAD) sortzeak eta horrek Afrikako independentziaren alde hartutako jarrerak eragin handia izan zuela AfroNeth eta diasporaren antzeko erakunde batzuen sorreran. Gailurreko parte-hartzaileek oso argi zuten, Afrikako garapen independentea lortzeko, ezagutzak eta baliabideak behar zirela eta diasporako afrikarrak ezagutza eta baliabide horiek emateko gai zirela; horrez gain, oso ondo zekiten Mendebaldeko herrialdeek Afrikako herrialdeetan egindako garapen-politikak ez zirela batera egokiak izan. Negozioen interesak eta gatazken konponketa uztartzean, diaspora garapenerako sormen-iturri berria zela azaldu zuten batzarraren antolatzaileek: "Afrikako kulturaren zein Mendebaldeko kulturaren sustraiak dituzten afrikarrek garapenerako eta garapen ekonomikorako lankidetzaren beste ikuspegi bat lortzeko beharrezkoa diren osagaiak eman ditzakete".<sup>32</sup>

<sup>29</sup> VAN HEAR et al., Op. cit., 13.

<sup>30</sup> "SiliconArmenia opens electronic highway between Armenia's technology sector and the world," armentech.org/Main/PreviewScripts/PreviewNews.asp?p\_ID=11, 2003 urtarrilaren 27a.

<sup>31</sup> AFFORD, *Diaspora Developments*, 1 (3), 2003ko abendua, 4

<sup>32</sup> Ibid.

GhanaExpo horren antzeko saio bat izan zen; Londres egin zuten, 2003ko urrian. ExpoAfrica Net erakundeak babestu zuen; erakunde horrek Londresen eta Accran ditu bulego zentralak. GhanaExpo erakusketa-azoka bat izan zen, diasporako afrikarrei Afrikako negozio, ondasun eta zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera emateko. Hogei sektore baino gehiago zeuden bertan ordezkaturata; besteak beste, nekazaritza eta lehengaiak, artisautza eta txikizkako beste produktu batzuk, automobilgintzak, elektronikoa eta bidaiak eta turismoa. Promozio handia izan zuen erakusketak, eta Ghanako lehendakariak eta Ashanti erregeak bertaratu ziren. Horrelako lehen gertakaria izan zen, baina haren helburua Afrikako beste herrialde batzuek ere antzeko zerbeit egitea zen. Erakusketak kulturari ere garrantzi handia eman zion; izan ere, hainbat ikuskizun izan ziren: dantzak eta danbor tradizionalak, etab. Horrez gain, Erresuma Batuko Historia Beltzeko Hilabeteen (Black History Month) egin zuten. 2004an egin zuten berriro erakusketa, Atlantan, Georgia (AEB).

Garapenerako Bitartekoak (Interims for Development, IfD, [interimsFD.com](http://interimsFD.com)) Erresuma Batuko erakunde bat da, TOKTENen (IV. atalean deskribatua) antzekoa, baina Afrikan soilik jartzen du arreta. Jatorri afrikarreko herritar britainiarrek fundatu zuten, beren sorterrietako garapenarekin konprometituta baitzeuden. Afrikako, Karibeko eta beste gutxiengo batzuetako boluntarioen laguntza jasotzea dute helburu nagusia, baina programa ez da diasporara soilik mugatzen. IfD elkar-teak helburu hau ere badu: “Afrikarantz beharrezko ezagutza teknikoak eta esperientzia zuzentzea, bertako konpainia publiko eta pribatuei herritarren ongizatea hobetzeko ekonomiak aldatzeko egiten ari diren ahaleginetan laguntzeko” (elkar-tearen web orritik ateratakoa). Boluntarioak goi-mailako profesional eskarmentudunak dira eta Zuzendari Bitartekoak deitzen zaie; IfD-k onartutako Afrikako konpainietan hasten dira lanean. Zuzendari Bitartekoek parte hartzeko bi modu aukera ditzakete: nork bere aldetik egin dezake edo bere enpresak (britainiarrak) babestuta. Izan ere, gizarte-kezkak dituzten enpresa britainiarrei eskaintzen zaie programa, eta/edo garapen -bidean dauden herrialdeetan merkatuak/negozioak zabaldu nahi dituzten enpresei. Beren langileak Zuzendari Bitartekotzat bidaltzeko aukerarik ez duten Erresuma Batuko enpresek parte hartzeko interesa badute, Afrikako enpresa bat “adoptatu” dezakete, eta Zuzendari Bitarteko independente bati “konpainiaren izenean” parte hartzeagatik ordaindu. IfD-k parte hartzen duten enpresa eta zuzendari bitarteko guztiak aztertu eta leku egokietan jartzen ditu.

IfD-k, halaber, asko indartzen du bere programen osagai kulturala; besteak beste, Afrikako herrialdera joan aurretik, informazio-bilera kulturalak egiten dituzte parte hartzaileekin, eta horiek bertako familiekin bizi dira Afrikan dauden bitartean. Errekrutatze-liburuxken helburu nagusia diasporako parte hartzaileak erakartzea da; horretarako, hauen moduko galdera batzuk egiten dira: “Afrikako Karibeko edo beste gutxiengo etniko bateko jatorriko herritar britainiarra al zara? *Etxeko* bizi-modua nolako den ikusi nahia izan al duzu inoiz? Garapen-bidean dauden herrial-

deetako langileekin elkarbanatzeko trebetasun profesionalik al duzu? Zuk baino zorte txikiagoa dutenei laguntzeko zerbait egiteko interesik al duzu?”.

Diasporako inbertitzaileek sorterrian egindako inbertsio esanguratsuak sorterriko merkatua berritzeko eta/edo erakundeak indartzeko eragile handiak izan daitezke. Berrero ere India hartuko dugu adibide. Izan ere, bertako gobernuak, hindu ez-egoiliarrei eta Indiako jatorriko pertsoneri buruzko ikerketa batzuen emaitzen ondorioz, zenbait erreformari ekin dio; besteak beste, burokraziaren zailtasunen eta ustelkeria gertatzeko arriskuen ondorioz, Indian inbertitzeko edo filantropia-jardueretan aritzeko asmo gutxi zutela adierazi zuten pertsona haiek. Agian, gobernuaren erreforma horiei esker, halaber, diasporako inbertitzaileez gain, nazioarteko inbertitzaileak ere animatuko lirateke Indian inbertitzera.

Zaila da aurreikusten diasporaren ekimenek sustatutako industria-garapen jakin batzuek (esate baterako, aurreago aipatutakoek eta antzekoek) zenbateraino txikiagotuko duten pobrezia. Dibisetako diru-sarrerak handiagoak eta inbertitzaile-entzat eta informatika-ingeniarientzat aukera gehiago badira ere, horrek ez du automatikoki pobreen egoera hobetzen. Robert Lucas adituaren kalkuluen arabera, IT arloko 500 mila profesional daude Indian, baina Indian 330 milioi langile baino gehiago daudela adierazten du.<sup>33</sup> Politika ekonomikoaren esparrua egokia bada, gizarte-maila ertain ekintzailea eta industria-oinarria sortu eta horrek hazkundera ekarriko luke; hazkundeak, halaber, pobreen eskulanaren eskaria handitzea eta gizarte-segurantzako sarea indartzea eragingo luke. Hala ere, pobrezian eragin zuzenagoa eta azkarragoa izateko, komunitate pobreetan zuzeneko inbertsio-bideak indartu beharko lirateke. Ildo horretan, honako hau interesgarria da: Mexikoko mikroenpresetan inbertitutako kapital guztiaren %20 diru-bidalketetatik dator.<sup>34</sup> Erakunde mikrofinantzarioek gero eta arreta handiagoa jartzen dute diasporan, enpresa txikiak finantzatzeko iturrizat.

## Gizarte-kapitalaren eraikuntza

Diasporaren esku-hartze ekonomikoek pobrezian duten eragina zehaztea askoz errazagoa izan arren, gertakari horrek politikan eta gizartean bultzatzen dituen ekintzek are eta eragin sakonagoa izan dezakete behartsuen ikuspegiari, nahiz eta eragin hori zeharkakoa izan. Peggy Levittek honela definitzen ditu “gizarte igorpenak”: herrialde hartzaileetatik herrialde igorleko komunitateetara heltzen diren ideiak, jokabideak, nortasunak eta gizarte-kapitala”.<sup>35</sup> Horiek guztiak ebaluatzea

<sup>33</sup> Robert E.B. Lucas, *Estudio preliminar sobre regimenes de migración internacional y desarrollo económico*, edizio-prozesuan da, honentzat: Expert Group on Development Issues Government of Sweden (Garapen gaietako adituen taldea, Suediako Gobernuak), helbide honetan eskuragarri: <http://www.egdi.gov.se/pdf/ch.pdf>, 6. atala, 16. orrialdea.

<sup>34</sup> Christopher Woodruff eta Rene Zenteno, “Remittance and Microenterprise in Mexico,” 2001eko abuztua. Helbide honetan eskuragarri: [http://sccie.ucsc.edu/papers/epapers/Remittances\\_Mexico.pdf](http://sccie.ucsc.edu/papers/epapers/Remittances_Mexico.pdf), 2004ko martxoak.

<sup>35</sup> Peggy Levitt, “Social Remittances: Migration-driven, Local-Level Forms of Cultural Diffusion,” *International Migration Review* 32 Lib., 4. zk., 1998ko negua, 927. or.

ekarpen ekonomikoak ebaluatzea baino zailagoa izan arren, eragin handia izan dezakete hainbat gairekiko jarretan: giza eskubideak, emakumeen eskubideak, nesken hezkuntzaren balioa, emakumeen lanaren onurak edo indarkeriaren erabilpena gatazka politikoak konpontzeko. Gizarte-kapitala eraikitzea edo berreraikitzea bereziki garrantzitsua da gatazka baten ondoren.

Erbesteratutako komunitateek berreraikuntza-lanetan duten eginkizunari buruzko txosten batean Erresuma Batuan eta Herbehereetan bizi diren Bosniako intelektual eta artista ugariaren jarduera aztertu zen: “horiek ez dira herrialdez herrialde bidaiatzen duten pertsonak soilik; izan ere, ideiak, baloreak eta kultur tresnak ere beraiekin eramaten dituzte”. Elkarrizketatutako batzuk kazetariak ziren, eta beren kabuz Bosniako aldizkarietan, irratietan eta telebistetan lanean jarraitzen zuten adopzio-herrialdean, “tolerantziarekin lotutako ideiak, etnia anitzeko Bosnia, demokrazia eta adierazpen askatasuna” sustatzeko asmoz. Beste batzuek, berriz, literaturan, artean edo beste komunikabide hedagarrietan lan egin nahi zutelara adierazi zuten, “ideiak aldatzeko” asmoz, bai Bosnian, bai adopzio-herrialdean.<sup>36</sup>

Ihesaren ezaugarriek ere eragina izan dezakete laguntzeko prestasunean. Aurretik aipatutako txostenaren egileen arabera, ihes egin aurretik gehiegikeriak jasan eta gaur egun beren eskualdeko gehiengo etnikoaren kide ziren errefuxiatu bosniarrek gehiegikeriarik jasan ez duten bosniarrek baino prestasun handiagoa zuten laguntzeko. Gehiegikeriak jasan eta gaur egun bere eskualdeko gutxiengo etnikoaren kide diren errefuxiatuek, ordea, ez zuten laguntzeko inolako prestasunik agertzen. Erresuma Batuan, batez ere, oso bereizketa argia dago bakarrik heldu ziren errefuxiatuen eta UNHCR/ACNUR erakundearen bidez heldu zirenen artean; kasu horretan, lehenengo taldeko errefuxiatuek prestutasun gutxiago agertzen zuten komunitateko elkarte batean edo kultur ekintza batean parte hartzeko. Izan ere, batzuetan errefuxiatu horiek ez zituzten elkarte edo ekintza horiek ezagutu ere egiten.<sup>37</sup>

Afrikako Garapenaren aldeko Fundazioa (AFFORD, [afford-uk.org](http://afford-uk.org)) erregistratutako ongintzako erakunde bat da, eta egoitza nagusia Londonen dauka. Fundazio horren helburua atzerrian Afrikako garapenaren alde diharduten afrikarrak eta horien erakundeak kontinente horretan helburu berberak dituzten erakundeekin harremanetan jartzea da. AFFORD fundazioaren eginkizuna Diasporako afrikarrek Afrikako garapenaren alde egiten dituzten ekarpenak hedatzea eta areagotzea da. Askotariko proiektuak bultzatzen ditu, besteak beste:

- *africa21*, Erresuma Batuko garapenaren aldeko 9 erakundez osatutako par-tzuergoa da eta horien guztien zuzendariak afrikarrak dira. Urtero, uztailean,

<sup>36</sup> Nadje Al-Ali, Richard Black eta Khalid Koser, “Mobilisation and Participation of Transnational Exile Communities in Post-Conflict Reconstruction,” *Ekonomia- eta Gizarte Ikerketarako Kontseiluaren Nazioz Haraindiko Komunitateen Ikerketarako Programarentzat (ESRC) egindako behin-behineko lana*, 1999, 2. or.

<sup>37</sup> *Ibidem*.

afrika<sup>21</sup> partzuergoak “Afrikako Diasporaren eta Garapenaren Eguna” (*ad3*) antolatzen du; egun horretan Afrikako garapenaz kezkatzen diren Erresuma Batuko hainbat pertsona eta erakunde biltzen dira, eta *ad3* ekimenak tailerrak, mintegiak, erakusketak eta “garapenerako merkatua” eskaintzen ditu. Horrek guztiak Erresuma Batuko afrikarrei elkarrekin lan egiteko aukera ematen die Afrikako garapena bultzatzeko eta nazioarteko garapenerako hainbat erakunde, emaile, GKE eta abar ezagutzeko. *Ad3* bakoitzak lan jakin bat lantzen du. 2004an, esaterako, honako hau izan zen gai nagusia: “Tokikoa leku guztietan eraldatuz”. Urte horretan “Erresuma Batuko afrikarrak aldaketa bultzatzeko egiten ari direna aztertu zen, bai Erresuma Batuan, bai bakoitzaren jatorrizko eskualdean... Alde horretatik, London Laku Handiekin lotzen duten gaiak landu ziren, baita Kairo Cambrigdekin edo Mogadishu Manchesterrekin ere”. Urte hartako *Ad3* ekimenaren tailerretan hainbat gai landu ziren: diasporako baliabideen mobilizazioa, Erresuma Batuan bizi diren afrikarren lana emailei ezagutaraztea, gazteriarekin eta generoarekin lotutako gaiak, migrazioa eta garapena. Horrekin batera, kanpaina bat ere bultzatu zuten diru-transferentziatarako agentzia tradizionalak ixteak –Somaliako Barakat agentzia, esaterako– Erresuma Batuan eta Afrikan ekarri dituen zailtasunen berri emateko eta jendea arazo horretaz ohartarazteko.

- Halaber, 2004ko *ad3* ekimenean *African Diaspora Voices for Africa's Development* (ADVAD, Afrikako Garapenaren aldeko Afrikar Diasporaren Ahotsak) izeneko afrikar erakundeen koalizioa aurkeztu nahi izan zuten. Erakunde horiek guztiak Erresuma Batuan daude, eta diasporako afrikarrei “ahots bakar batez” mintzatzeko aukera ematea dute helburu. Royal African Society erakundeak bilera bat antolatu zuen Erresuma Batuko parlamentuarekin; bilera horretan, ADVAD erakundeko kideek eta Erresuma Batuko afrikar diaspora hedatuena aintzatespena jaso zuten hautesle, zergadun, lana ematen duten enpresari eta garapenaren bultzatzaile izateagatik, jatorrizko kontinentearekiko berariazko kezka duten herritarrak izateaz gain.
- 2004ko otsailean, AFFORD elkarte *Fahamu* izeneko gizarte-justiziaren aldeko erakundearekin elkartu zen. Erakunde hori Oxforden, Durbanen eta Lurmutur Hirian dago, eta Oxfordeko Unibertsitateak bermatutako urrutiko ikaskuntza eskaintzen du Erresuma Batuan bizi diren afrikarrentzat. Ikastaro horretan funtsen bilketa eta baliabideen mobilizazioa aztertzen dira, Diasporako afrikarrek funtsak biltzeko dituzten gaitasunak areagotu ditzaten.

Diasporako erakundeek bat egitea eta bakoitzaren ahaleginen berri izatea –eskala txikikoak, gehienetan– lagungarria izan daiteke horien guztien eraginkortasuna areagotzeko. Britainia Handiko Nazioarteko Garapenerako Sailak (DFID) “Connections for Development” (“Garapenaren aldeko loturak”) izeneko komunitate-erakundeen sarea bultzatzen du; sare hori boluntario beltzez edo bestelako

gutxiengo etnikoetako boluntarioz osatuta dago eta gizarte zibila mobilizatzea du helburu, nazioarteko garapenean parte har dezan.

### **Gatazkak babestea**

Gatazka armatua edo indarkeria bidez ordena publikoaren aldaketa erabat lotuta dago pobreziarekin. Izan ere, gatazkak eragin zuzena du bizi-baliabideetan eta garapen-prozesuan eta, ondorioz, erabateko suntsipena dakar berekin. Etengabeko ziurgabetasunak giro ekonomiko negatiboa sortzen du eta horrek murriztu egiten ditu inbertsio-aukerak. Sarritan, diasporek laguntza eskaintzen diete (dirua, laguntza pertsonala, armak, garraioa, etc.) jatorrizko herrialdean gatazka bortitzetan parte hartzen duten taldeei. Diasporako komunitateetako kideek ere gatazkan parte har dezakete, talde matxinatuak prestatuz, programazio informatikoaz arduratuz, eraispenak antolatuz, dirua bilduz edo finantza-kudeaketak eginez. Izan ere, diasporek ia mundu osoko eskualdeetako gatazketan parte hartzen dute, Sri Lanka, Kosovo, Eritrea, Somalia, Turkia eta Ipar Irlanda barne.

Diasporek ez dituzte jasaten indarkeriaren eguneroko ondorioak, eta sarritan jatorrizko herrialdeko kideek baino konpromiso-maila txikiagoa hartzen dute beren gain. Kanadako Gobernuak Margaret Purdy ministroak honako hau adierazi du: “distantziak bihotza bigun dezake. Milaka kilometrotako tarteak eta herrialde berriak eskaintzen duen nolabaiteko segurtasunak ideia idealizatuak sor ditzake eta jatorrizko herriko gatazkaren sustraien errealitatea ilundu”. “Diasporek ez dituzte indarkeriaren ondorioak jasaten, eta ez dira egunero arerierekin harremanetan egoten”<sup>38</sup>

Indiako Gujarat estatuko Diasporak hainbat ekintza antolatzen ditu hinduen indarkeria nazionalista (kristauen eta musulmanen aurka) diruz laguntzeko eta areagotzeko. *The Hindu* aldizkariak “gorrotoaren atzerriko inbertsio zuzena” deitu die ekintza horiei. Erresuma Batuko Gujarateko diasporaren eta 2002. urte hasieran Gujaraten musulmanen aurka izandako hilketan parte hartu zuten hinduen talde nazionalista batzuen (“Hindutva”, Sangh Parivar izenekoak) arteko lotura materialak eta ideologikoak aztertzen dituen artikulu baten arabera, Sewa International eta beste Sangh Parivar taldeentzako “epe luzeko finantzaketa-iturri nagusia” Britainia Handiko Gujarateko komunitatea zen. Artikuluak azaltzen duenez, talde hauek honako ekintza hauek bultzatu dituzte: batetik, urtetan zehar Erresuma Batuko Gujarateko komunitateen eta Indiako familien eta komunitateen artean erabili diren pertsonen eta baliabideen zirkulazio-bideak hinduen aldeko alderdi nazionalistak diruz laguntzeko erabili dituzte. Bestetik, Gujaratarrek Erresuma Batuan bizi izan dituzten arrazakeria- eta alienazio-esperientziak “chauvinismo hindu bortitz” batera eraman ditu. Azkenik, Britainia Handiko gobernuak dirua ere bildu

---

<sup>38</sup> Paul Collier, Margaret Purdyk aipatua, “Targeting Diasporas: The Canadian Counter-Terrorism Experience,” Nazioarteko Harremanetarako Zentroarentzako egindako atariko lana, British Columbiako unibertsitatea, 2003, 5. or.

dute, "fede-elkarte" direla sinestaraziz eta, ondorioz, gobernua gutxiengo etnikoak babestearen alde bultzatu nahi duen politika berriaren legezko onuradun direla argudiatuz.<sup>39</sup>

Egoitza nagusiak Frantzia eta India dituzten erakunde batzuek egindako ikerketak ere lotura berberak aurkitu ditu India Development and Relief Fund (IDRF, Indiarako Laguntza Humanitarioaren eta Garapenaren aldeko Funtsa; egoitza nagusia AEBetan dago) erakundearen eta nazionalismo hindu bortitzaren artean.<sup>40</sup> IDRF erakundearen aldekoek salatu eta gezurtatu egin zuten txosten hau, eta Hindutva "hinduak gutxiengo txikiak diren gizarteetan nortasunari eusteko esparrua" baino ez dela aldarrikatu zuten.<sup>41</sup>

Mugimendu matxinatu guztien artean, Sri Lankako Liberation Tigers of Tamil Eelam (LTTE, Tamil Lurraldearen Askapenaren aldeko Tigreak) taldearen Diasporak omen du antolakuntza-mailarik onena, eta talde hori omen da, gainera, "produktiboena", ekarpen ekonomikoei, funtsak biltzeko finantza-sareei, arma-kontrabandoari (pertsonek kontrabandoa barne) eta eragin politikoari dagokionez.<sup>42</sup> Kalkuluen arabera, Tamilen Diaspora milioi eta erdi lagunez osatuta dago, eta LTTE delakoa 54 Estatutan badago ere, talde bereziki handiak dauden mende-baldeko Estatuetan jarduten du gogotsuen; esaterako, Erresuma Batuan eta Kanadan (Norvegian, Suitzan eta Hegoafrikan ere komunitate handiak daude).

LTTE taldeak hiru adar ditu: publizitatea eta propaganda, armen erosketa eta funtsen bilketa, eta horiek guztiak mundu osoan zehar daude antolatuta. Hainbat arrazoi daude Diasporako tamilek LTTE taldeari dirua emateko eta talde horren alde lan egiteko. Hauek dira arrazoi nagusiak: 1).Tamilen kasuarekiko uste sendoan oinarritutako ekarpen boluntarioak, indar zingalesek eragindako izugarrikeriek indartuta; 2). Legez kanpoko migratzaile tamilek, asiloa eskatzen dutenek eta adopzio-herriko gizartetik at dauden beste pertsona batzuek Tigreen taldea seguru modura ikusten dut inoiz Sri Lankara itzultzeko beharra izango balute; 3). Beldurra, batez ere oraindik Sri Lankan bizi diren senitartekoak dituztenentzat. Diasporan dauden LTTEko kideek egindako xantaiak edo estortsioak areagotu egin dezake gainera beldur hori (esaterako, Suitzako poliziak egindako sarekada batean LTTE taldeko hamabi kide baino gehiago atxilotu zituen, estortsio-planen porrotaren ondorioz Suitzan hainbat tamil erail ondoren).<sup>43</sup>

<sup>39</sup> Kalpana Wilson, "Foreign Direct Investment in Hatred," *The Hindu* aldizkaria, 2003ko martxoak 23.

<sup>40</sup> Sabrang Communications Private Limited eta The South Asia Citizens, "The Foreign Exchange of Hate: IDRF and the American Funding of Hindutva," delakoaren web orria. 2002ko azaroak 20. Honako helbide honetan ikusgai: [stopfundinghate.org/sacw/index.html](http://stopfundinghate.org/sacw/index.html), 2004ko otsaila.

<sup>41</sup> "A Factual Response to the Hate Attack on the India Development and Relief Fund (IDRF)," data ezezaguna. Honako helbide honetan ikusgai: [letindiadevelop.org/thereport/introduction.html](http://letindiadevelop.org/thereport/introduction.html), 2004ko otsaila.

<sup>42</sup> Ikus Byman et al., *Trends in Outside Support for Insurgent Movements* (Santa Monica, CA: RAND Corporation, 2001). 3. atala, "Diaspora Support for Insurgencies". Atal horretan LTTE taldeari buruzko azterketa bat aurkezten du.

<sup>43</sup> Anthony Davis, "Tiger International: How a secret global network keeps Sri Lanka's Tamil guerrilla organization up and killing," *Asiaweek*, 1996ko uztailak 26.

Kalkuluen arabera, Diaspora tamilak egindako finantza-ekarpenen eta bestelakoen ondorioz, LTTE taldeak 27 milioi libera esterlina jasotzen ditu urtean (39.946.738 euro, alegia); horrez gain, beste 823.000 libera esterlina biltzen ditu hilero (1.217.636 euro), Erresuma Batuko, Kanadako eta Australiako komunitate tamilen ekarpenei esker.<sup>44</sup> Suitzako tamilek 1,6 milioi libera esterlina inguru (2.367.214 euro) ematen dituzte urtero<sup>45</sup>. Sarritan, diru hori tokiko LTTE taldeak bertan bizi diren tamilei ezartzen dien “zerga” moduko batetik sortzen da –hau da, dirua nahitaez eman behar dute–. Hala ere, LTTE taldearen aldeko ekarpen boluntarioak areagotu egiten dira erakundeek jatorrizko herrialdean arrakastak lortzen dituztenean edo Heroes’ Day (Heroien Eguna) bezalako jai-egunetan.<sup>46</sup> Kalkuluen arabera, LTTE taldearen gerra-aurrekontuaren %90etik %95era atzerritik dator (suetenaren aldeko azken ahaleginen aurretik, behinik behin).<sup>47</sup>

Gehienetan, gatazka armatuak kalteak eragiten ditu epe laburrean herrialde baten ekonomian; hala ere, zenbait Diasporen arabera, jatorrizko herrialdean autodeterminaziorik ez izatea da epe luzerako garapena lortzeko oztopo nagusia. Esaterako, badirudi Eritreako eta Bangladesheko askapenaren aldeko gerrek baieztatu egiten dutela ideia hori. Dagoeneko aztertu dugu Eritreako Diasporak independentziaren aldeko gerrari emandako laguntza. Erresuma Batuko Bangladesheko Diasporak Bangladesheko 1971ko Askapenerako Gerra irabazten lagundu omen zuen. Diaspora horren ekintzen jatorria East Pakistan House delakoan dago (Erresuma Batuan sortua, 1963an), baita 1969ko ikasleen mugimenduan izandako partaide-tzan eta *Janamat* aldizkari disidenten argitalpenean ere. Gerra benetan hasi zenean, Erresuma Batuko bangladeshtarrek Ekintza Batzordeak sortu zituzten Erresuma Batuko iritzi publikoa Bangladesheko independentziaren alde jartzeko. Horrekin batera, beste hainbat ekintza bultzatu zituzten: gerrarako dirua bildu, “BBC katea kontzientziatu”, Parlamentuko kideenganako eta Europako nahiz AEBetako funtzionario politikoenganako presioa egin eta gerra-garaian Erresuma batuko parlamentari bat Indiaren eta Bangladeshen arteko mugara eraman.<sup>48</sup>

## Gatazkaren moderazioa

Zenbait Diasporak edo Diasporetako zenbait kidek eragin moderatzailea izan dezakete jatorrizko herrialdeetako gatazketan. Esaterako, batzuetan talde matxinatuen zenbait ekintza gaitzesten dituzte, eta bestetan, berriz, ukatu egiten dute

<sup>44</sup> Byman et al., 50. or.

<sup>45</sup> Ramachandra Guha, “Tigers in the Alps,” *World Policy Journal*, 2003ko negua/4.70. or.

<sup>46</sup> Ikus Byman et al., Op. cit., 50-51. or. Koser eta van Hear (“Asylum and Migration: Implications for Countries of Origin,” UNU-WIDER – Conference on Poverty, International Migration and Asylum –delakoarentzat egindako lana, Helsinki, Finlandia, 2002ko iraila). Egile hauen arabera, gatazka-egoerak gogortzen direnean, igorpen-fluxuak ere areagotu egiten dira. Litekeena da gatazka-egoerak dauden eskualdeetara egindako igorpenak ekintza “produktibotarako” gutxiago erabiltzea, inbertsio horiek egiteko aukerak ere txikiagoak direlako. Gainera, gatazkako alderdiek familiei egindako igorpenak indarrez har ditzakete.

<sup>47</sup> Byman et al., Op. cit., 54. or.

<sup>48</sup> MNEak eta Bangladesheko Gobernuak egindako txostena, Op. cit.,45-46. or.



ekintza horietarako laguntza. Kanadako Gobernuko eta Nazioarteko Harremanetarako Zentroko kide den Margaret Purdyk honela idatzi du: “Gatazkaren eragin zuzenik jasotzen ez dutenez, Diasporek ikuspegi zabalagoa eta objektiboagoa izan dezakete; emozioaren eta haserrearen eraginetik urrunago baitaude. Aberri berrian, hainbat informazio-iturri eskura ditzakete; esaterako, lan- eta gizarte-kontaktuen, komunikabideen eta Internet bidezko komunikazioaren bidez”.<sup>49</sup> Esaterako, hainbat berriemaileen arabera, Irlandako Diasporaren eragin moderatzailea –dirulaguntzen murrizketa, alegia– funtsezkoa izan zen IRA erakundeak Good Friday Agreement (GFA, Ostiral Santuko Akordioa) delako akordioa onartzeko, 1998ko apirilean.<sup>50</sup>

Diasporak aldaketa politikoetan izan dezakeen partaidetza lagungarria izan daiteke gatazka bortitzak saihesteko, indarkeriarik gabeko aurkaritza-bideak sustatu eta finantza baititzakete. Atzerriko filipinarren kanpaina oso garrantzitsua izan zen Marcosen erregimena bertan behera uzteko. Corazon Aquino San Frantziskora (Kalifornia) joan zen presidente izendatu zutenean, filipinar-amerikarrek mugimendu demokratikoaren alde egindako ekarpena eskertzeko.<sup>51</sup> Atzerriko hegoafrikarrez osatutako sare boteretsu batek nazioarteko laguntza lortu eta apartheidaren aurkako mugimendua antolatu zuen nazioarte-mailan. Eragin hori oinarritzeko erakundeetatik edo Diasporako komunitateen baitako banakako aitzindariengandik sor daiteke; esaterako, biztanle ugariengan eragina izateko gai diren aitzindari etnikoak, erlijio-aitzindariak edo negozio-mundukoak, kazetariak eta/edo intelektualak, artistak eta aktore/aktoreak.

## Filantropia

Diasporako zenbait elkarteren edo kideren inbertsioak ez dira onura pertsonala lortzeko egiten, ongintzako ekimenak bultzatzeko baizik. Ekimen horiek askotarikoak dira: oso eskala txikiko ezohiko ahaleginetatik hasi eta ondo antolatutako ekimen iraunkorretara heldu arte, dohain pertsonaletatik hasi eta antzeko ideiak dituzten emailez osatutako sare boteretsuetara heldu arte.

Espektro honetako muturrik txikienean Action for Children (AfC) delako taldea dago. 1995. urtean sortu zuen Erresuma Batuan bizi zen sierraleondar talde batek,

<sup>49</sup> Purdy, Op. cit., 16. or.

<sup>50</sup> Aitzitik, berriemaileen arabera, GFA edo Ostiral Santuko Akordioaren ondoko hilabeteetan eta urteetan IRA erakundetik banandu ziren taldeek –esaterako Real IRA (Benetako IRA) eta horren 32 County Sovereignty Committee (32 Konderrien Subiranotasunaren aldeko Batzordea), Irish Freedom Committee (Irlandaren Askapenerako Batzordea), etab.– AEBetako diasporako kide erradikalenen artean bilatu zuten laguntza ekonomikoa eta babes politikoa, horiek ez baitzeuden batera gustura bake-prozesuarekin. Esaterako, PBS kanaleko *Frontline* dokumentalaren baitan, Kevin Cullenek “America and the Conflict” izeneko dokumentua idatzi zuen: “Errepublikar mugimendua politikoki geroz eta sofistikuago bihurtzen ari zen hainean, ez zen inolako aldaketa politikorik gertatu AEBetako IRaren betiko jarraitzaileen artean” (ikus [www.pbs.org/wgbh/pages/frontline/shows/ira/reports/America.html](http://www.pbs.org/wgbh/pages/frontline/shows/ira/reports/America.html))

<sup>51</sup> Robert E.B. Lucas, nazioarteko migrazioarekin eta garapen ekonomikoarekin lotutako erregimenei buruzko atariko ikerketa, oraindik amaitu gabea. Ikerketa hori Expert Group on Development Issues Government of Sweden (Suediako Gobernuko Garapen Gaiet buruzko Aditu Taldea) taldearentzako egiten ari da, eta helbide honetan dago ikusgai: <http://www.egdi.gov.se/pdf/ch.pdf>, 6. atala, 16. or.

beren jaioterriko gerraren ondorioak jasaten zituzten haurrei laguntzeko asmoz. Talde horretako kideek 6.000 libera esterlina (8.877,05 euro) bildu zituzten horretan aritu ziren hainbat lagunei esker. Diru hori biltzeko, gainera, biztanleak kontzientziatzeko kongresuak eta bestelakoak antolatu zituzten; alabaina, segituan ohartu ziren Diaspora txiki baten antolaketak dituen zailtasunez, ez baitzuten behar adina funtsik gatazka-egoeran zegoen eskualde batean lan egiteko. Horrenbestez, Sierra Leonan diharduen nazioarteko GKE handiago batekin elkartzen saiatu ziren. Saiakera horretan Concern International delakoa aurkitu zuten, eta hasiera batean AfC taldeak erakunde horri eman zizkion bere funtsak. AfCk argi utzi zion Concern International erakundeari funts horiek haurrei laguntzeko erabili behar zituela. Abiapuntu hori oinarri hartuta, AfC/Concern International elkarte asko hazi da; egun, Concern Internationalek aholkularitza, prestakuntza (adiskidetzeta eta birgaitze-gaitetan, batez ere), zuzendaritza estrategikoa eta laguntza logistikoa ematen dio AfCri eta azken horrek, berriz, “atzerrian bizi diren sierraleondarren onespenez sendoa ematen dio Concern Internationali, herrialde horretan egiten duten lanari dagokionez”.<sup>52</sup>

Esaterako, Sierra Leone War Trust for Children (SLWT, Sierra Leonako Gerrako Haurren aldeko Fundazioa; [www.slwt.org](http://www.slwt.org)) delakoa irabazi asmorik gabeko erakunde da, eta Erresuma Batuan du egoitza nagusia. Erresuma Batuan bizi diren Sierra Leonako diasporako zazpi kidek sortu zuten fundazio hori. SLWT erakundearen helburua gerraren ondorioak jasaten dituzten haurren ongizatea hobetzea da. SLWT-ren lehenengo proiektu garrantzitsuenetako bat Thuan Mathinki Community Rehabilitation Project (Thuan Mathinki Komunitatea Birgaitzeko Proiektua) da, eta beken eta dohainen bidez gauzatu dute. Proiektu horrek gerra-garaian erabat suntsituta geratu ziren sei herrialde birgaituko ditu, eta Lehen Hezkuntzaz gain, elikagaien hornikuntza bermatu eta autosufizientzia ekonomikoa bultzatuko dute nekazaritzaren bidez; horrez gain, gerrak eragindako traumak ere landuko dituzte ongizate psiko-sozialari buruzko programen bidez. SLWT fundazioa Sierra Leonako gobernuarekin koordinatzen da eta UNICEFekin ere aritu da elkarlanean; hala ere, erakunde horren funtsezko helburua komunitateekin lan egitea da, beharrak hautemateko, eta proiektuak eta estrategiak zehazteko.<sup>53</sup>

Somaliako Diasporako hainbat erakunde Erresuma Batuan dihardute lanean Somaliarako proiektu garrantzitsuak bultzatzen. Oxford House delakoan –Bethnal Green, Londres–, jasotako Diasporaren laguntza guztiak Hargeisan –Somaliland– ama-haurrentzako ospitale bat eraikitzeko erabili ziren.<sup>54</sup> Maila txikiagoan, Erresuma Batuan bizi diren kwamangdarrek –Ghanako Sekyere mendebaldeko

<sup>52</sup> AFFORD, “Connecting UK-based African organisations with mainstream NGOs,” data ezezaguna. Helbide honetan ikusgai: [www.afford-uk.org/partnerships/connections.html](http://www.afford-uk.org/partnerships/connections.html), 2004ko urtarrilak 6.

<sup>53</sup> Ikus <http://www.slwt.org>. 2004ko ekaina.

<sup>54</sup> Nicholas Van Hear, Frank Pieke eta Steven Vertovec, “The UK diaspora contribution to development and poverty reduction”, *Migrazio, Politika eta Gizarte Zentroaren Nazioarteko Garapenerako Sailarentzat (COMPAS) egindako ikerketa*, 2004ko martxoak 31, 6. or.

eskualdean- eraikuntza-materialak lortu zituzten Kwamangeko osasun-zentrorako laborategia amaitzeko.<sup>55</sup> COMPAS erakundeak jakinarazi duenez, Erresuma Batuko txinatarrek dirua bildu zuten Txinan maila txikiko ongintzako lanak egiteko. Gainera, uholdeen ondorioak jasan dituzten pertsonen laguntzeko dirua ere bildu dute, baita pobrezia arintzeko eta SARS epidemiari aurre egiteko ere.<sup>56</sup>

Atzerrian bizi diren hainbat hindu aberatsek ongintzako erakunde pribatuak sortu dituzte bakarka, eta herri-lanetarako proiektuak bultzatzen dituzte beren jaioterrietan, baita hezkuntza- edo osasun-proiektuak ere. Hala ere, horietako batzuk beren baliabideak elkartzen hasi dira, maila filantropiko handiago bati ekiteko asmoz. Esaterako, American-Indian Foundation (Hindu-amerikar Fundazioa) AEBetan bizi diren hainbat hinduk finantzatzen dute. Fundazio horren helburua "Indiako aldeketa ekonomikoa eta soziala bizkortzea da, AEBetako komunitateak eta baliabideak Indiarekin harremanetan jarri". AfC erakundearen bekak hezkuntza-proiektuak eta bizi-baliabideekin lotutako proiektuak bultzatzeko erabiltzen dituzte, Lehen Hezkuntza eta emakumeen sustapena lehenetsiz.<sup>57</sup> Erakunde horren programen artean Service Corps (Zerbitzu Taldea) delakoa dago, eta Diasporako hinduei Indiar boluntario modura joateko aukera ematen die. "Digital Equalizer" ("Berdintasun Digitala") programak, berriz, informazioaren teknologiak Indiako herrixketara helaraztea du helburu.

## Ondorioak

Diasporak jaioterriarekin duen konpromisoa askotarikoa da eta, beraz, ezin daiteke orokortu. Izan ere, hainbat eta hainbat ekintza bultzatzen ditu: hondamendi bateko kaltetuentzako laguntzatik merkataritza-garapeneraino, makineriaren esportaziotik ideien inportazioraino, gerrak bultzatetik bakegintzaraino... Edonola ere, Diasporako hainbat taldek eta pertsonen funtsezko eginkizuna dute beren jaioterrietan. Alde horretatik, honako galdera hau egin daiteke: ekintza horietatik guztietatik, zein izan daiteke pobrezia murrizteko aproposena?

Herrialde behartsuenak ezin dira baliatu hainbat merkataritza-inbertsioz; alabaina, teknologikoki sofistikatuagoak diren herrialdeetako ehunka milioi lagunek badute aukera Diasporaren inbertsioak dakarren efektu biderkatzaileaz baliatzeko. Hala ere, herrialde behartsuenek jasan dituzte gatazka armatu luzeen ondorioak, baita eraginik gabeko gobernu hutsalen eragina ere. Sierra Leonan, Liberian, Haitin eta Sudanen (besteak beste) behar gorrian bizi diren pertsonak bakea behar dute, batez ere. Bakea lortuz gero, errazagoa izango zaie egoera ekonomiko egokia sortzea, jaioterrian inbertsio ekonomikoak eta sozialak egiteko prest dauden emigranteek arrazoizko arrisku-maila izan dezaten. Diasporak zeresana izango luke bake-

<sup>55</sup> Ibidem, 11. or.

<sup>56</sup> Ibidem, 18. or.

<sup>57</sup> Ikus <http://www.aifoundation.org>, 2004ko martxoa.

eta berreraikuntza-prozesuetan, eta gobernu anfitrioiek serio aztertu beharko lukete eragile zintzo izan daitezkeen horien partaidetza pizteko aukera.

Gatazka-egoera bat edo eraginik gabeko gobernu bat atzean utzi berri duten herrialdeetatik datozen etorkinek zenbait abantaila dituzte inbertitzaile edo enpresari izan daitezkeen beste batzuen aurrean. Izan ere, jaioterriarekin duten loturari esker, merkataritza-aukerei buruzko informazioa eskuratu eta bazkide fidagarriak aurkitzeko eta kontratuak betearazteko baliabideak dituzte, baita lege zibila errespetaraztea zaila den inguruetan ere. Horrekin batera, etorkin horiek abantailak dituzte gizarte-beharrak hautemateko eta horiei aurre egiteko modua hobeto ulertzeko, bereziki gai korapilotsuei dagokienez: esaterako, nesken hezkuntza, sexu-osasuna edo komunitateen arteko harremanak.

Diasporako erakundeen interesak eta gaitasunak askotarikoak dira. Batzuek sare adituak eta boteretsuak osatzen dituzte; beste batzuek, berriz, eragin esanguratsua dute hiri edo herri jakin batean; beste zenbait erakunde oso maila mugatuan eta noizean behin aritzen dira, eta beste batzuen kasuan, berriz, erakundearen izena baino ez da ezagutzen. Erakunde gehienentzat garapenak edo pobrezia murrizketak ez dute lehentasuna. Oso behartsuak direnentzat, pobrezia –edo, behintzat, horren sintoma zapaltzaileenak– murrizteko ekintza zuzenak dira etorkizunik opa-roena duten bideak –hau da, azpiegitura fisikoarekin edo gizarte-azpiegiturarekin lotutako proiektuak, eta maila txikian diru-sartzeak sortzen dituzten proiektuak– Diasporaren ekintzei begira, garapena sustatzen duten eragile gehienentzat bezalaxe. Emailentzako erronka honako hau da: komunitate behartsuekin lan egiteko gaitasuna eta interesa duten erakundeak aurkitzea. Tamalez, gaitasuna eta interesa ez dira batera etortzen. Ikusi dugunez, migratzaileak ez dira beti gizarteko komunitate edo sektore behartsuenetatik etortzen.

Honako hauek dira emailentzako bi erronka nagusiak: batetik, behartsuen artean sortu diren Diasporako erakundeen gaitasuna sustatzea eta, bestetik, beste talde batzuekin lan egitea, komunitate pribilegiatu en interesa gaindi dezaten.

## **Europa eta immigrazioa: harreman gatazkatsua**

Joaquín Arango

*Madrilgo Unibertsitate Konplutensea*

Immigrazioaren egoerari begirada bat eginez gero, XXI. mendearen hasierako urteetan, Europar Batasunean kontrako bi joera izan dira. Batetik, kanpotik etorritakoen kopurua hazten ari da etengabe. Bestetik, Europar Batasuneko herrialde ia guztietan, immigrazio-politikak gero eta murriztaileagoak dira (Boeri eta Brücker, 2005); eta, gainera, joera horrek, dirudienez, txertatzeko eta naturalizatzeko politikan aldatzea eragiten ari da zenbait herrialdetan, pixkanaka-pixkanaka.

Lehenengoari dagokionez, Europar Batasuna, termino absolutuetan, herrialde hartzaileen artean lehenengo postuan dago; Ipar Amerika ere atzean utzi du. Orain gutxi Europan kide gehiago sartu izanak ere ez du eraginik izan horretan; kontua da fluxuak intentsitate handiagoa dutela orain (SOPEMI, 2004). Hala ere, ñabardura bat ere hartu behar da kontuan: immigrazio berriaren erdia baino gehiago hartzen dute Espainiak eta Italiak, bien artean. Edozein modutan ere, ez da inolaz ere arraroa Europar Batasuneko herrialde garatuek eta zahartuek fluxu nahiko ugariak jasotzea; izan ere, kontuan hartu behar da herrialde gehienetan –denetan ez bada– etorkinen beharra dutela, lanarekin edo demografiarekin zerikusia duten arrazoiengatik. Behar hori gero eta gehiago onartzen dute, baita agiri ofizialetan ere. Hala adierazi zuen 2000ko azaroko Batzordeak Kontseiluari egindako Komunikazio historikoan (Europar Batasuna, 2000), behintzat; horrekin, Tampereko gailurraren ondoren, immigrazio- eta asilo-politika bakarra bultzatu nahi izan zen Europan. Horregatik, kanpotik zetozenen kopurua izugarri handitu zela-eta, badirudi aipatutako behar horiek asetzeko helburua duten immigrazio-politiken ondorioz gertatu dela, bai eta behar haiek beteko dituztenak ongietorriak izango direlako ere. Alabaina, pentsa daiteke erlazio hori ez dela osorik egiazkoa, fluxuen zati bat baino ez baita funtsean horregatik gertatzen. Aldiz, arrazoi indartsuak daude pentsatzeko immigrazioaren gehiengoa ez dela hain ondo hartua.

## Giro nahasia

Bigarren joerari dagokionez, ez dago zalantzarik europar gizartean eta immigrazioaren arteko harremanak nahiko nahasiak izan direla XXI. mendeko lehenengo urteetan; beharbada, inoiz baino gehiago. Zenbait gertaera, batzuek orain dela ez hainbeste gertatutakoak, eta zenbait joerak, baieztapen hori frogatzen dute; hala ere, ez gara hemen hasiko zehaztasun handirik ematen. Gertaera horietatik larriena eta kezagarriena, ziurrenik, honako hau izango da: zenbait herrialdeetan, eskuin erradikaleko alderdi populista xenofoboak sendotzen ari direla, eta horiek immigrazioaren aurkako aldarrikapena bere egiten dutela. Mota horretako alderdiek sostengu handia jaso izan dute eta daukate gizartean eta hauteskundeetan; hala izan da, behintzat, Frantzia, Austria, Italia, Alemanian, Danimarkan, Suitzan eta Flandesen (Rydgren, Berggren). Horrelako alderdi batzuk beren herrialdeetako gobernuetan partaide izatera ere iritsi dira. 2006ko udaberrian, Erresuma Batuko tokiko hauteskundeetan, gorakada nabarmena izan zuen British National Party alderdi xenofoboak, oraindik indar handirik ez badu ere. Horrez gainera, kontuan hartu behar da iritzi publikoa ere; izan ere, hainbat inkesta fidagarritan behin eta berriro azaltzen denez –esaterako, Eurobarometroan–, herritar-kopuru handi batek immigrazioaren aurkako sentimenduak ditu, eta, batzuetan, etsaitasunezkoak ere bai.

Baina immigrazioerikiko giro nahasia ez dago soilik aipatutako alderdi-mota horiek gora egin duten herrialdeetan. Kasu adierazgarri bat azalduko dugu: Holandakoa. Aipatutako alderdi horiek bultzatzen dituzten politiken antzekoak ari dira agertzen Holandan. Dirudienez, Pim Fortuyn politikaria eta Theo Van Gogh zinemagilea hil zituztenetik, herrialdea egoera nahasi batean dago, krisi moral eta existenzial batean; gutxiengo etnikoen aurkako haserrea lehendik zetorren, ordea. Egile batek dioenez, politika horiek *etsigarriak* dira etorkinentzat (Van der Leun). 2006ko martxoan izan berri diren tokiko hauteskundeetan, gobernu-koalizioa osatzen duten alderdiek oso emaitza kaskarrak lortu dituzte; ondorioz, esan daiteke alderdi horien joerakoak asko izan arren, ez direla gehiengoa.

Migrazioaren auzia ikaragarri politizatuta dago: immigrazioa elkarri erasotzeko arma gisa erabiltzen dute alderdien arteko lehian, eta horrek ere eragina du lehen aipatutako giro horretan ere. Gertatu diren egoeren artean azkenetakoa, adibide gisa, Erresuma Batukoa; halaber, Alderdi Kontserbadoreak 2005eko hauteskunde-kanpainan migrazioen auzia gai nagusitzat hartu zuen, immigrazioaren aurkako sentimenduak zituztenen botoak bereganatzeko asmoarekin. Itxuraz, estrategia horrek ez zuen arrakastarik izan; Holandako kasuan bezala, horien mugetan egon daiteke arrazoia.

Immigrazioerikiko mesfidantza horren beste datu adierazgarri bat –bitxia, baina esanguratsua– izan zen 2005ean Europar Konstituzioari buruz Frantzia erreferenduma egin zutenean gertatutakoa; izan ere, harrigarria da *poloniar iturgina* deitu

zuten irudi metaforikoa zein ospetsua egin zen. Aurreiritzirik gabeko behatzaile batek pentsa dezake irudi hori Konstituzio proiektuaren aldeko argumentua dela, lan horretan aritzeko lanpostu ugari baitago hutsik Frantzian, eta poloniar iturgin daude, gainera. Alabaina, Konstituzioaren aurka mugitzeko erabili zen, Turkia Batasunean sartzeko aukerak eragindako beldurra nahikoa ez eta –sarrera hori balizkoa bezain urruna izan arren–.

Bestalde, 2005eko udazkenean, Parisen eta beste hiri batzuen inguruetako auzo pobree ugari astindu dituzte liskarrek denbora luzez; horrela, argi geratu da etorkinak hartzen dituzten Europako gizartearen ezinegona erreaktiboa dela eta, horregatik, sentimendu hori ez dutela soilik jatorriz bertakoak direnek; hain zuzen ere, sentimendu bera dute kanpotik etorritako hainbatek eta horien ondorengoek ere. Lerro hauetan azaltzen ari garen erlazio gorabeheratsuaren beste aurpegia da.

Bukatzeko, azken urteetan, gero eta gehiago agertu da joera berri bat: etorkinek hiritar-eskubidea edo, besterik ez bada, bizileku-baimena lortzeko, eskakizun berriak finkatu dira: testak, azterketak edo ikastaroak egin behar izaten dituzte; esaterako, hizkuntzaren ezagutza neurtzeko edo historiako zenbait elementurena, ordenamendu konstituzionalena edo herrialde hartzailearen beste ezaugarriren batena. Zenbaitetan, horrelako frogak ezin gainditzeaz gain, zigorrak jartzen zaizkie: adibidez, gizarte-baliabideak lortzea debekatu eta bizileku-baimena edo hiritar-eskubidea ukatu.

## Europaren berezitasuna

Arestian azaldu dugunak adierazten du, modu inpresionista batean, lerro hauen goiburukoa. Europar gizarte gehienek immigrazioarekin duten erlazioa zaila izan dela esan daiteke; zaila, deserosoa eta errezeloduna. Egia esan, ezaugarri horiek zalantzan jar daitezke, kontuan hartzen badugu erlazio hori inoiz ez dela erraza. Aniztasuna lekuan kokatzea inoiz ez da erraza izan, eta, ziur aski gizarte guztietan sortzen du ondoeza. Sortzez immigrazio-hartzaileak izan diren herrialdeetan ere gero eta gehiago gertatzen dira tentsioak eta gatazkak; esate baterako, Estatu Batuetan edo Australian, beren nazio izaeraren osagaitzat dituzte alderdi horiek, baina horrelako arazoak izaten dituzte. Horren adibide argia da, esaterako, AEBetan, *Minutemen* izeneko kasua. Horiek zibilak ziren, baina *zaintzaileen* tradizio zaharrari jarraituz, armatuta ibiltzen ziren, eta utzi egin zieten beren lana egiten; izan ere, Arizonak Mexikorekin duen muga zaintzeko ardura ezarri zieten beren buruei, eta, legez kanpo muga zeharkatzen saiatzen ziren etorkinen atzetik joaten ziren. Gainera, Diputatuen Ganbarak 2005eko abenduan onartu zuen Sensenbrenner Legea ere hor dugu; lege horren ondorioz, mugako zati handiagok gotortzeaz gain, irregular izatea delitu bihurtu da. Beste kasu batean, Australian, azken urteetan, oso jarrera gogorra erakutsi dute asilo-eskatzaile potentzialez betetako ontziekin; horrez gainera, zenbait gertakari xenofobo izan dira Sydneyko

hondartzetan, 2006aren hasieran. Bi herrialde horietan, tradizioz immigrazioaren aldeko jarrera zuten arren, giroa zailtzen ari da. Hala ere, zailtasun horiek ezin dira inondik inora alderatu Europan ikusten direnekin.

Europan dauden zailtasun berezien jatorria eta arrazoiak azaltzeko, bi elementuren arteko konbinazioa behar da; izan ere, bi elementu horien ezaugarriak, beste edozer arrazoik baino hobeto azaltzen dute Europar gizarteak immigrazioarekin duten erlazioa. Alde batetik, immigrazioarekiko erreparoa indartsua da eta zabaldua dago gizartean, politikarien artean eta kulturaren; horren ondorioz, onarpen-politika oso murriztaileak ezarri dira eta oztopo formalak eta informalak gainditu behar izaten dira gizartean eta politikan erabateko integrazioa lortzeko. Beste alde batetik, betebehar moralen eta politikoen aitorpena dago –gizarte demokratikoen ezaugarria delako–; bide horretatik, esaterako, eskubide hauen onarpena eskatzen da: familia berriz biltzeko eskubidea, babesa eta asiloa ematea, betirako bizileku-eskubidea edo nazionalitatea. Eskubide horietako batzuen bitartez, dagokion gizartean sartzeko bidea aurkitzen du etorkinak; batez ere, oso erabakigarriak dira familia biltzeko eta asiloa jasotzeko eskubideak. Gainera, kontuan hartu behar da zuzenbide-estatuaren berezko bermeak errespetatu nahi izanez gero, behintzat –gehiago edo gutxiago, kasuaren arabera–, migrazio-fluxuak arautzeak trabak dituela; gauza bera gertatzen da sarrerak eta egonaldiak kontrolatzeko *ultima ratio* horrekin ere –alegia, egoera irregularrean dauden atzerritarrek kanporatzeko gaitasunarekin–.

Aipatutako lehenengo elementu horrek –etorkinak onartzearen aurkako jarrerak– bereizten du Europa estatu demokratiko izena duten eta etorkin-hartzaile diren beste herrialde batzuetatik; alegia, tradizioz etorkinak hartu izan dituzten eta egun oraindik bizirik dauden herrialdeez ari gara: AEB, Kanada, Australia eta Zeelanda Berriaz. Lehenengo hiruretara, ohiko bideetatik, milak eta milaka etorkin iristen dira urtez urte, eta ia inori ez zaio burutik pasatzen fluxu horiek geldiarazi behar direnik. Kanadari dagokionez, estatu demokratikoen artean salbuespena dela dirudi; han, sarrera-fluxuei buruz sarri kritikatzeko den bakarra da botere publikoek ez dutela esandakoa betetzen: bertako biztanleen ehuneko batari dagokion etorkin-kopurua onartzea urtero. Hala ere, onartzen direnen zifra ez dago urrun kopuru horietatik. Lau herrialde haien kasuan etorkinak onartuak dira ohiko bide legaletatik, lehenengo egunetik ematen zaie betirako bizileku-baimena, eta gizartean eta politikan erabateko integrazioa lortzeko itzaropena izaten dute, gainera. Ez doa horren aurka Estatu Batuetan gertatzen dena: han, gero eta garrantzi handiagoa dute etorkin kualifikatuentzako aldi baterako egonaldi-bisak, eta hasiera batean bi urteko egonaldi-rako baimena ematen zaiela kontuan hartuta, Europan baino egonaldi luzeagoak baimentzen dira. Gainera, AEBetan aldi baterako ematen direnak mugarik gabe gelditzeko baimen bilakatzen dira. Horrez gainera, Europako herrialdeekin alderatuta, beste herrialde horietan immigrazioari buruz duten ikuskerak oso adierazgarria da; esate baterako, berritzeko aukera duten bi urteko bisa



horiek AEBetan duten izena, *non-immigrant visas*, ulergarria da, kontuan hartuz gero etorkinaren kontzeptua *settler* edo kolono esanahiarekin lotzen dela oraindik.

Alabaina, argudioak badaude esateko Europa ez dela immigrazio-politika murriztaileak ezartzen dituen bakarra. Beste herrialde demokratikoren batek ere –Japoniak, kasu– erabiltzen ditu, bai eta neurri gogorragoak ere. Egia esan, etorkinen sarrera kontrolatzeko kezka herrialde hartzaile guztiek dute (Cornelius et al., 2004; Hammar eta Brochmann, 1999). Horren froga nabarmena dira AEBetako mugako zati garrantzitsuetan dauden hesi garaiak, orain askozaz gehiago ere luzatu nahi dituztenak, eta, gainera, perimetro horretan izaki bizidunak hautemateko teknologia sofistikatuak erabili nahi dute (Cornelius); edo Australian jartzen dituzten kartelak, bertako faunako animalia beldurgarrienen irudiekin –marrazoak edota krokodiloak, esaterako–, modu irregularrean sartu nahi duten etorkinak iriziz aldarazteko.

Baina alderik handiena ez dago kontrolatzeko politika murriztaileetan; izan ere, horiek leku guztietan erabiltzen dituzte. Europaren jarrera desberdintzen dutena onarpen-politikak dira, lehen aipatutako herrialde haienak –immigrazio klasikokoak– baino askoz murriztaileagoak baitira. Ipar Amerikan, ohikoa da bereiztea aurreko atea –legea betez sartzeko erabiltzen dena– eta atzeko atea –modu irregularrean sartzeko erabiltzen dena–. Bada, desberdintasun nagusia da European aurreko atea erdi itxita dagoela, eta zirrikitu estuak baino ez dituela uzten; eta, hala dago, noski, ahalik eta gehien mugatu nahi duelako etorkinen sarrera.

Arestian aipatutako bigarren elementuak, betebeharrak politikoei eta moralei buruzkoak, Europako herrialdeak bereizten ditu azken hamarkadetan immigrazio-hartzaile bilakatu diren beste herrialde batzuetatik; batez ere, Pertsiar Golkoko eta Asia eta Ozeano Bare inguruko herrialdeetatik. Herrialde horietako erregimenen izaera autokratikoari esker, herrialde horiek muturreraino eramanez dezakete immigrazioaz duten ikuskera hertsia –alegia, horretaz etekina ateratzearena–. Herrialde horietan, aldi baterako langileei baino ez diete sartzeko baimena ematen; langile horiek, oro har, denboraldi laburrak egiten dituzte, errotazioz, eta lan-merkatuetan hutsik dauden lanpostuak hartu ohi dituzte. Batzuetan, herrialde horietan indarrean dagoen migrazio-erregimenari *kontratu-diktadura* izatea egotzi zaio; izan ere, agiri mota horretan langile etorkinen bizi-baldintzak eta lan-baldintzak ezartzen dira, baina barneko edo nazioarteko inongo konstituziori edo legeri jarraitu gabe. Horrek esan nahi du etorkinei ez zaizkiela onartzen hainbat eskubide: familia biltzekoa, asiloa eskatzekoa, epe luzerako egoitza eskatzekoa edo naturalizatzena; horrez gainera, zuzenbidezko estatu baten bermerik ez dute. Eztabaidarik sortzen bada, noren alde jo erabakitzeko ahalmena gobernu-agintariek dute, eta, azken buruan, Barne Ministroak. Hori dela eta, herrialde autokratiko hauek immigrazio-rekiko duten erlazioa ez da Europako herrialdetan bezain konplexua, eta arazo gutxiago sortzen dira.

## **Ekonomia eta demografia versus politika eta segurtasuna**

Etorkinak onartzeko Europako herrialde gehienek erreparoa dituzten bezala, lehen aipatutako herrialdeek etorkinen beharra gero eta handiagoa dute, demografia- edo lan-arrazoiengatik. Hori onartzeko, erabakigarria izan zen 2000. urtean argitaratu zen agiri ezaguna: Nazio Batuen Populazioaren Dibisioak egindako *Replacement Migration* izenekoa. Agiri horretan esatenenez, garai hartan Europar Batasuna osatzen zuten hamabost herrialdeen artean, 158 milioi etorkin beharko zituzten XXI. mendeko lehen erdian, aktiboen eta jubilatuen arteko *ratioa* XX. mendearen bukaerakoaren berdina izan zedin (Nazio Batuak). Egia esateko, Nazio Batuen agiria gehiago da ariketa burutsu bat gobernuei eta nazioarteko komunitateari ohartarazteko, demografiaren joerak ezin zuelako horrela jarraitu zenbait herrialdetan, eta ez etorkizuneko etorkin-beharren gutxi gorabeherako estimazio bat. Baina beharrak nahiko handiak direla zalantzarik ez dago; horretarako, aski da eginda dauden ikerketak aztertzea (Feld; Pierce).

Hala eta guztiz ere, etorkin-beharrak izatea ez da nahikoa immigrazioa onartzeko errezeloa gaindi dadin. Horren frogarria da Europar Batasunaren azken zabalkundea izan zenean gertatu zena, 2004ko maiatzean. Lan- eta demografia-beharrak modu arautuan eta ordenatuan asetzeko aukera egokitzat hartu beharrean, herrialde gehienek Europaren zabalkundea mehatxutzat hartu zuten; nahiz eta zabalkundeak izango zituen migrazio-ondorioei buruzko ikerketa prospektiboen emaitzak –hogeita hamar baino gehiago– beldurrak baztertzeko modukoak ziren, zabalkundearen ondorioz izango liratekeen fluxuei dagokienez (Arango, 2003). Beraz, Europar Batasuneko hamabost kideetatik hamabi herrialdek moratoria eskatu zuten, eta, ondorioz, Europar Batasuneko kide egitean herrialde horietako langileak askatasunez ibiltzeko aukera indarrean jartzea atzeratu zen; hain zuzen ere, hautagai ziren hamar herrialdeetatik zortziri –Europako erdialdekoak eta ekialdekoak– moratoria inposatu egin zitzaizkien. Baina moratoria horietatik libratu egin ziren Malta eta Zipre, horietatik etorkinak etortzea inondik ere espero ez zelako. Aurrez egindako negoziazioetan adostu ziren sartzeko baldintzak, eta horien artean bat bi urteko moratoria zen; gainera, moratoria hori bost edo zazpi urtera luza zitekeen. Lehendik kide ziren herrialdeetatik hiruk baino ez zuten onartu hasieratik Europar askatasunez ibiltzeko eskubidea –Erresuma Batuak, Irlandak eta Suediak; azken horrek ia halabeharrez–. Herrialde horietan, bi urtetan gertatutakoaren ebaluazioak oso positiboak dira, eta horrek aurrez egindako ikerketek adierazten zutena egiaztatzen du. Zabalkundearen ondorengo bi urteak bete zirenean, beste lau herrialdek –Espainiak, Portugalek, Greziak eta Finlandiak– bukatutzat eman zuten moratoria, baina beste zortzi herrialdetan indarrean jarraitzen du, batzuetan ñabardurekin (El País, La Vanguardia). Europaren zabalkundean gertatutakoak ezin hobeto azaltzen du, bate-tik, politikaren eta segurtasunaren logikaren, eta, bestetik, ekonomiaren eta demografiaren logikaren arteko sintonia falta klasikoa; harreman hori adierazi nahi izan zen aspaldi ‘merkatuak vs. estatuak’ espresioa erabiliz (Hollifield).

Europako gizarteak kanpoko langileei ateak irekitzeko dituen erreparoa honako beste adibide honetan ere adierazgarriak dira: Europar Batasunak lanera zetozenentzako zuzentaraua onartzeko ahalmen eza erakutsi zuen. Beste zuzentarau batzuek ez bezala, hori ez zen 2000-2005 urteen artean ere eztabaidatu; eta bost urte horiek jarri zituen Europar Batasunak immigrazioarako eta asilorako politika bakarraren oinarriak finkatzeko.

## Sustrai sakonak

Europar Batasuneko gizarteek immigraziorekiko zituzten errezeloak ez ziren berriak; aspalditik sustraituta zeuden. Ez da hau leku egokia horren arrazoiak aztertzeko, orain arte izan duen gogoeta baino sakonagoa merezi bailuke ziur aski. XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan ere agertu ziren erreparoa, orduan bihurtu baitzen Europa immigrazioaren hartzaile. Orduan hautatu zuten zenbait herrialdek *guestworker* izeneko immigrazio-eredua, eta beranduago beste herrialde batzuek ere bai. Eredu horrek baztertera uzten zuen ordura arte indarrean zegoen immigrazioaren ikuskera; hau da, immigrazioa bertan finkatzearekin eta gizartearen eta nazioaren erabat integratzearekin lotzen zuena. Egia esateko, *guestworker* edo langile gonbidatua, etorkin hitza ez erabiltzeko sortu zen eufemismoa izan zen, eta epe luzerako edo mugarik gabe geratzea eta gizartearen integratzea bezalako ñabardurak ere adierazten zituen (Trändhardt). Bestalde, *langile gonbidatua* hitzen bitartez argi zegoen zer adierazi nahi zuten: etortzen zirenak langileak eta aldi baterakoak zirela, gonbidatuak izan ohi diren bezala.

Baina, jakina denez, *guestworker* eredua harteak eman zituen itxaropenak ez ziren bete. Ez-ohiko espediente gisa jaio zena, ustez, aldi baterako eta egoera bate-tatik sortutako lan-beharrei erantzuteko, gizartea sakon eraldatu zuen. 70eko urteen lehen erdian, eta, batez ere, Yom Kippur-eko gerraren atzetik etorritako lehenengo petrolio-krisiaren ondoren, giro ekonomikoan –eta horrekin batera, gizartearen eta politikan– aldeko haizeak desagertu, eta, XX. mendeko hirugarren laurdenean, depresiozko eta ez-egonkortasunezko egoera bilakatu zen. Ordurako, *baby boom* izenekoan jaiotako belaunaldiak lan-merkatuan sartzeko adinera iritsi ziren (Werner, 1986), eta horrek etorkinen behar txikiagoa ekartzen zuen. Enplegu bete-aren garaia amaitua zegoen, betirako agian, eta egiturazko langabezia eta inflazioa ekonomiaren eta gizartearen ezaugarri iraunkor bihurtu ziren. Bata bestearen atzetik, Europako herrialde hartzaileetako gobernuek gehiago ez errekrutatze erabakia hartu zuten, bai eta atzerriko langileei mugak ixtekoa ere. Zenbait herrialdek langile gonbidatuak beren herrialdetara bueltatzeko programak sustatu zituzten, baina horrelako ekimenek oso arrakasta txikia izan zuten. Gizarte hartzaileek laster ulertu zuten, gonbidatuek geratzea erabaki zutela. Are gehiago, familiei deitzen zieten haiengana etor zitezten. Ondorioz, immigrazioari mugak ixteak ez zuen ekarri fluxuen amaiera. Familiak berriz biltzearen, etorkinen familien ugalkortasun handiagoaren, eta migrazioaren zikloaren lehenengo estadiotik hurrengoetara iga-

rotzearen ondorioz, etorkinen populazioak populazio orokorraren antza gero eta handiagoa zuen; era berean, etorkinak gero eta gehiago nabarmentzen ziren, industrian lan egitetik hirugarren sektorean lan egitera pasatzen ziren heinean. Ondorioz, etorkinen aktibitate-tasak bertakoena baino altuagoa izateari utzi zion. Hain zuzen, 1975 eta 1987 artean, langile etorkinen kopurua jaitsi egin zen; populazioa, aldiz, egonkortu egin zen, oro har (Soysal, 1994). Etorkinen familiek zerbitzu publikoen kontsumo handiagoak ere eragin zuen immigrazioaren balantze fiskala hain ona ez izatea gizarte hartzaileentzat. Laster sortu zen *bigarren belaunaldiaren arazoa*, familiak berriz biltzearen eta joera demografikoaren eraginez sortua (Werner, 1986). Gainera, jatorri ez-europarra zuten pertsonen proportzioa pixkanaka handituz joan zen, Europako hegoaldeko fluxuak urritzen ari ziren neurrian. Hori dela eta, gizarte hartzaileen giza paisaia pixkanaka eraldatuz joan zen. Kanpotik etorritakoen integrazioarako zailtasunak gutxiengo etnikoen sorrerarekin batera etorri ziren. 1980tik aurrera, etorkinen kontrako sentimenduak pilatu egin ziren, eta auzo batzuetako bizikidetzaz arazoek gizarte-gatazkak eragin zituzten Europako zenbait hiritan.

Aldi baterako immigrazioaren aukerak izan zuen porrotaren eraginez, immigrazio-hartzaileak *de facto* immigrazio-herrialde bihurtu ziren; eta ezaugarri hori ez zuten onartu, urtetan eta urtetan. Alemaniaren kasua, adibidez, oso adierazgarria da; izan ere, Europako herrialde hartzaileak handienak ez du onartu bere izaera XX. mendearen bukaera arte, nahiz eta oso nabarmena zen gainerakoentzat (Trändhardt). Immigrazio-gizarte bilakatzea beste helburu batzuk dituen politika baten ondorioa da, aurreikusi gabekoa; horrek, jakina, eragina izango zuen hartzaileak ziren gizartearen zati handi batengan, immigrazioa *nahi ez* izateraino. Sentimendu hori areagotzen joan da hurrengo urteetan; izan ere, etorkinen integrazioaren ebaluazio negatiboa egin izan da sarri, eta testuinguru horrek integrazioa oztopatzen zuen.

*Guestworker* izeneko aukerak porrot egin zuen, eta horren ondorioz, etorkinak onartzeko alde aurretik zeuden erreparoa areagotu egin ziren. Lehenengo ondorioa herrialdeetan sartzeko politika murriztaileak izan ziren; iraunkor egin direla ikusi da gero (Castles, Obituary). Aspaldi bataiatu zen horrek guztiak eragindako ikuspegia: *immigrazioa: zero*; horrek oso ondo laburbiltzen du 70eko hamarkadaren erdialdetik *guestworker* ereduaren orde nagusitu ziren immigrazio-politiken paradigma. Jakina, *immigrazioa: zero* adiera asintota baten moduan ulertu behar da, eta *zerok* "ahalik eta gutxienak" edo antzeko zerbait adierazten du.

### **Immigrazioa: zero ikuspegi biderazina**

Estatistikako datuei azaletik begiratzea besterik ez da behar oso murriztaileak diren politiken porrotaz ohartzeko; izan ere, immigrazio-fluxuak handituz joan dira eten-gabe, baina ez neurri berean herrialde gutzietan. Kopuruak fluxu-motetan zatituz gero, berehala ulertuko dugu zein izan den porrotaren arrazoi nagusia. Hain zuzen, bi talde garrantzitsuenak honako hauek dira: familiakoak, familia berriz bil-

tzearen ondorioz, eta asiloa eskatu dutenena edo errefuxiatuena. Immigrazioa sortzen da, batez ere, literaturan *entitlement* edo gaitzen duten eskubideak deitzen direnen ondorioz; horiek inongo gizarte demokratikoak ukatu ezin dituen eskubi-deetatik datoz. Mugak jartzea posible da, definizio murriztaileen bitartez, baina ezin da ukatu hor daudenik. Hain zuzen, egin dira saiakerak familia berriz elkartzeko eskubidea gehiago murrizteko, eta, horretarako, eskubide horren onuradunak mugatu edo baldintzak gogortu dira. Saiakera horiek ohikoak dira gaur egun. Horren adierazgarria da familiak berriz elkartzeko Europar Batasunaren Zuzentzarauak izan duen murrizte handia hasierako proiektutik azken emaitzaraino. Antzekoa esan daiteke, *mutatis mutandis*, asilo eskubideaz; zenbait autorek Europako asilo-erregimen berria ere aipatu dute, Genevako Konbentzioan jaiotakoa bezain ulerkorra eta eskuzabala ez dena inondik ere (Joly). Zenbaitek hain beneragarria den Konbentzioa baztertzeko ere proposatu dute; garrantzitsua da, adibidez, Britainia Handiko Alderdi Kontserbadoreak horren aldeko jarrera erakustea 2005eko hauteskundeetan.

Arestian aipatutako bi fluxu –senideena eta asiloa eskatzen dutenena– horiez gain, hirugarren bat gehitu behar dugu, *immigrazioa: zero* paradigma ere zalantzan jartzen duena. Jakina, immigrazio-fluxu irregularrei buruz ari gara, modalitate guztietan, herrialdearen arabera oso desberdinak, baina guztietan daudenak. Europako herrialde ez gutxitan, immigrazio irregularra handi samarra da, hazten ari da eta horrek kezka handia sortzen du.

Beraz, onarpen-politika murriztaileek ezin izan dute saihestu gutxi gorabehera etengabea izan den fluxua: senideena, errefuxiatuena, asilo-eskatzailena eta gaitzen duten beste eskubide batzuen jabeena; besteak beste, nabarmena da Alemaniak Berlingo harresia erori ondoren hartu dituen hiru milioi *Aussiedler* edo *aleman etnikoak*. Eta ezin izan dute ekidin hainbat eta hainbat jende baimenik gabe sartzea, gero eta gehiago. Ondorioz, lehen aipatutako irudi literario guzti horiek ezagututa, erraza da pentsatzea kanpoko jendearen ugaritzea ez dela etorkinak hartzeko bide normalizatuetatik gertatu gehienetan. Gehienak alboko ateetatik sartu dira; hain zuzen ere, gizarte demokratikoek –tartean europarrek– ukatu ezin dituzten eskubideak baliatuta. Ate horiek, beste edozein bezain legitimoak izango dira, baina ez dituzte eskumenak etorkinentzat *stricto sensu* ezarrita dauden ateak beste. Ate horiek Europar Batasunean sartzeko bi bide nagusi bilakatu dira: familia berriz elkartzeko fluxuena –familiar bizitzeko eskubidetik eratorria–, eta asilo-eskubidearena –Genevako Konbentzioak eta 1967ko New Yorkeko Protokoloak onartua–; azken horrek estatuk behartzen ditu jazarriak direla era sinesgarrian arrazoitzen duten etorkinak onartzera. Alboetako ate horietatik sartu direnez gain, fluxu irregularren artean atzeko atetik sartu direnak gehitu behar dira; aurreko atearen kopuruak, berriz, ez du garrantzirik, itsasoaz bestaldeko immigrazioa jaso ohi duten herrialdeen kopuruekin alderatuta.

Egoera horretan, Europako gizartearen zati handi batek immigrazioa *ez du nahi (unwanted)*, estatuaren borondatek eta kontroletik kanpo gertatuko balitz bezala. Bada adierazpen bat herrialde gehienei ondo dihoakiena, nolabait neurritz kanpokoia izan arren erabat desbideratua ez dagoena, eta honela dio: Europak baztertu ezin dituen etorkinak onartzen ditu.

Aurreko gutzia kontuan hartuta, zertarako balio izan du *immigrazioa: zero* famatuak edo, beste era batera esanda, duela hiru hamarkadatik Europako immigrazio-politikak agintzen dituen joera erabat murriztailea? Horren erantzuna aurkitzea ez da zaila: batetik, lehen aipatutako asilo-eskubidea eta familia berriz elkartzeko eskubidea mugatzeko saiakerak daude, eta, bestetik, legez kanpoko immigrazioaren aurkako borrokari emandako lehentasuna; alabaina, Europa bereizten duen ezaugarria, batez ere, lanera datozen etorkinentzako –langileentzako, bestela esanda– bide estuak dira. Ez da beharrezkoa esatea, bestalde, etorkinen kategoria ugariena hori izan dela eta dela oraindik ere.

### **Langileak sartzeko murrizketak**

Beraz, etorkinak onartzeko politika murriztailea European langileei sarrera izugarri murriztean datza, batez ere. Iraganean arau hori debeku izatera iritsi zen bezala, orain salbuespenak ere baditu, pixkanaka gero eta gehiago, hainbat herrialdetan; hala ere, herrialde horiek salbuespenak dira.

Azken urteetan, herrialde batzuk lan-arrazoiengatik onartzeko bideak irekiz joan dira; eskulan kualifikaturako, batez ere. Partzialki ireki dira, oro har, eta era diskretuan, ezkutuan izan ez bada.

Araua hausten duten salbuespenak ugariagoak dira Europako hegoaldeko herrialdeetan; Italian eta Espainian, batez ere. Izan ere, horietan, kanpoko langileen beharra bereziki handia da, eta iraganeko esperientziak erakutsitako joera murriztailea askoz txikiagoa. Edozein kasutan ere, salbuespen horien kopuruak, urteko kuotekin bideratuak, erlazio txikia dute ekonomiek duten eskulan-beharrarekin edo ofizialak ez diren bideetatik sartzeko den langile-kopuruarekin. Immigrazio-hartzaile izaten urte gehien daramaten herrialdeetan, ipar-ekialdekoetan, salbuespenak lanpostu kualifikatuetarako izaten dira: sendagileak, erizainak, informatikariak eta komunikazioaren industriako teknikariak, batez ere. Esaterako, Erresuma Batuan eta Irlandan, egitura ekonomikoak eta lan-merkatukoak Atlantikoaren beste aldekoen antza handiagoa dute, eta langileak hartzeko salbuespenezko bide horien alde gehien egin duten herrialdeak dira; nahi eta ez diren horiek, hain zuzen, hasieratik Zabalkundeko herrialdetan langileen zirkulazio askeari moratoria ez ezartzearen aldekoak. Baina horietan ere arauak hausten dituzten salbuespenak daude. Salbuespenezko bide horien adibide ezagunena eta paradigmaticoena *green card* edo bizileku-txartel famatua da; Alemaniako lehengo Kantziler Gerhard Schroeder-ek bultzatu zuen 2000. urtean, Alemaniako ekonomiak behar zituen informatikariak erakartzeko

–Indiakoak, bereziki–. Arreta neurrigabea erakarri zuen, bai eta kontrako jarrera ugari ere, eta emaitza kaskarrak izan zituen: orduetik, ez dira 15.000 izatera iritsi figura legal horren bitartez emandako lanerako baimenak.

Lan-beharretarako, salbuespenezko neurriez baliatzeaz batera,aldi baterako langileak hartzen dira; horrek iraganera eramaten gaitu nolabait, zalantza handiekin, gainera. Berdintasunaren ikuspegitik kritikagarria den beste estrategia bat ere erabili izan da; hau da, atzerriko ikasleak bultzatzea ikasketak egin dituzten herrialdean gera daitezen bukatzen dutenean, zenbait baldintzetan eta zenbait lanetarako.

### **Murrizte-politikaren kostuak eta etorkizunerako aukerak**

Errealismo eza hain nabarmena duen migrazio-erregimen baten eragozpenak asko dira. Europako gizartean egun handitzen ari diren lan-beharrei erantzuteko zailtasun nagusia da, ziur aski, maila ofizialean ere, bestalde, arreta handiena duena; batez ere, eskulan kualifikatuari dagokionez. Baina, horietaz gainera, badira garrantzi bera duten beste batzuk ere: esaterako, oso zabaldua dago Europako iritzi publikoan immigrazio gehiena ez dela maite; edo estatuak fluxuen kontrola galdu dutela, ofizialki onartu ez badute ere –oraindik sartzen baitira–; edo asilora-ko finkatutako bideak gainezka egin dutela, eta, ondorioz, asilo-eskatzaileak gaizto bezala ageri dira, ongizate-estatuaren bizkarrera bizi direlakoan eta haiengan konfiantza falta zabaltzen da; edo kontrol-politikei eta immigrazio-politiken polizia-dimentsioari eman zaien lehentasuna, bai eta horietan segurtasuna bilatzea ere; eta, gainera, herritarren artean giroa ez da egokiena integrazioarako.

Askotan aipatutako immigrazioarekiko errezeloak indartsuak izan dira, eta horregatik uler daiteke zergatik igaro behar izan duen hainbeste denbora Europar Batasunaren immigrazio-politiken ikuspegi murriztaileak porrot egin duela onartzeko. 1999 eta 2004 artean Europako Batzordeko Justizia eta Barne arloetako burua izanik, Antonio Vitorino komisarioa izan zen Europako lehenengo agintaria hori onartzen, modu ireki eta formalean, behinik behin; ohore hori izan zuen Batzordeak 2000ko azaroko Kontseiluari komunikazio famatua hura egin zionean. Orduko haize-bolada berritzaile haiek itxaropen handiarekin hartu ziren, baina emaitza eskasak izan dituzte. Tampereko gailurraren ondorengo bost urteen balantzea egitean, eta bere azken saioan, Vitorino Komisarioak berak onartu zuen kontrol-politikek dezente egin zutela aurrera –batez ere, hirugarren herrialdeekin berronarpenetarako hitzarmenak egiteari dagokionez, eta kontrol-zerbitzuak eta horrelakoak koordinatzeari dagokionez–; baina, haren hitzetan, oso gutxi egin zen immigrazio legala sustatzeari dagokionez. Lehen esan den bezala, laneko asmoekin joandako pertsonen buruzko Zuzentaraua eztabaidatu ere ez zen egin, nahiz eta beste Zuzentarau batzuk onartuak izan diren –ikasleak edo ikertzaileak onartzeari buruzkoak, edo epe luzerako bizileku-baimenei buruzkoak–. Horietako batzuk, ordea, hasierako proiektuetako asmoetara ez dira iritsi; esate baterako, fami-

lia berriz biltzeari buruzkoa. Gaur egun, Zuzentarau horren aurkako helegitea aurkeztu du Europako Parlamentuak Justizia Epaitegian, Europako kide diren zenbait herrialdetako batez besteko maila baino askoz beherago geratu delakoan, eta zenbait agindu oinarritzko eskubideen eta Europar Batasunaren aurkako printzipioen aurka doazela uste dutelako. Europako Batzordeak saiakerak egin ditu immigrazio- eta asilo-politika bateratuak eraikitzeko Europan, oraingoak baino oinarri ulerkorragoak, errealistagoak eta arrazionalagoak hartuta, baina ahaleginak hutsean geratu dira behin eta berriro, estatuen arrezifeetan hondoa joz. Zenbaitek arrezifeugaritasun handia erakutsi du.

Arestian esandako guztiak ondorio batetara eramaten gaitu: baldin eta helburua Europar Batasunaren migrazio-erregimena normalizatzea bada, edo, beste modu batera esanda, politika errealistagoak eta egokiagoak garatzea –handituz ari diren gizartearen lan- eta demografia-beharrak kontuan hartuta–, eta gaur egungoak baino ondorio kaltegarri gutxiago eragiten dituen politikak aurrera eramatea, horretarako, funtsezkoa izango da herritarrek immigrazioaren balorazio positiboak izatea, edo, behintzat, horren kontrako jarrerak moteltzea. Hori ezinbesteko baldintza da Tamperetik proposatzen ari diren politikak eta Hagako gobernuak sustatu nahi duen programa berriak arrakasta lor dezaten. Alabaina, taldeko jarrerak aldatzea ez da gauza erraza; izan ere, jarrerak oinarri kulturaletan sustraituta daude. Hala ere, dezentegin daiteke aldatzeko, positiboago bilakatzeko, edo etorkinen irudia hobetzeko. Adibide gisa, gobernuak, gizarteko erakundeak eta Europar Batasunak berak hartzeko moduko neurri-sorta aurkeztu berri du Sarah Spencerrek.

Norabide berean doan beste ekintza-ildo bat, lehentasunezkoa –berez eta taldeko jarrerei ere badagokiolako–, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borroka da. Ekintza-ildo horri arreta handiagoa eskaini zaio Europar Batasunean hartu diren politiketan, eta ikuskera ulerkorragoa eta proaktiboagoa erabili nahi izan da, giza eskubideetan oinarrituta; horrez gainera, gai honetan espezializatutako organismoak giza eskubideen aldeko borroka-organismo bihurtu nahi dira. Europako herrialde batzuetan, jadanik ari dira azken orientazio hori lantzen. Norabide horixe hartu du Vienako Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Behatokiak; izan ere, ikuskera-aldaketa gertatzen ari da, giza eskubideetan oinarrituta, eta hori erakundearen deitura berrian ere islatzen da. Ezinbestekoa den borroka horretan funtsezko eginkizuna izango du Europar Batasunak; eta indar handiagoa hartuko du Oinarritzko Eskubideen Gutuna Konstituzio Itunean txertatzen denean –egun, onespena jasotzeko zain dago–.

Beste ekintza-ildo batean ere egin behar da aurrera: hartzaile diren gizartetan etorkinen integrazioa bultzatzen eta errazten. Izan ere, garrantzitsua izateaz gain, era sinbolikoan lagun dezake immigrazioaz dugun pertzepzioa hobetzen. Esparru horretan, oso deigarria da herrialde batzuk nola dabilzan noraezean; izan ere, nazionalitatea edo bizileku-baimena lortzeko eskakizunak handitzen dituzte, baina neo-asimilazionismoan oinarritutako politikak sustatzen. Bestalde, Bruselatik keinu



itxaropentsuak baina zuhurrak iristen dira. Integraziorako Oinarrizko Printzipioak onartu berri dira, eta, oso orokorrak diren arren, Europaren testuinguruaren baitan, nahiko pozgarriak dira; gainera, lehenengo urrats beharrezkoa dira bertakoen eta kanpotik etorritakoen arteko harremanak hobetu nahi baldin badira. Halaber, aipagarria da, gero eta gehiago lantzen direla etorri berrientzako programak, harre-  
ra egiteko edo sartzeko, baita talde estrategikoenganako arreta ere –esaterako, gazteenganako–. Horrelako ekimenek balio sinbolikoa, behintzat, handia dute.

Arestian esandako guztiagatik ere, migrazio-erregimena errealistagoa izan eta Europako gizartearen beharretara hobeto egokitu dadin, funtsezkoa izango litzateke bideak irekitzea lan-immigrazioari edo enplegurako asmoa dutenei –komunitateko hizkuntzan esaten den moduan–. Horixe da, agian, Europaren immigrazio-politikaren hutsune nagusia. Badirudi, berriz ere, aldatzeko borondatea handiagoa dela Europako Batzordearengan, Europako kide diren estatuengan baino. Gaiari buruzko Zuzentarau-proposamenak porrot egin ondoren, Batzordeak Liburu Berdea atera zuen 2005ean, lan- eta ekonomia-arazoengatik immigrazioari buruzkoa; Liburu Berdea zirriborro bat da, eta gaiaren azterketarekin hastea beste helbururik ez du, horrelako gai polemikoari eta erabakigarriari buruzko eztabaida bultzatzeko.

Horrek ez du esan nahi aldaketa laster gertatuko denik. Liburu Berdean esaten denez, ez dute espero etorkizun hurbilean erabaki esanguratsuak hartuko direnik lan-immigrazioari dagokionez; horrekin, aldatetaren kontra gogorren egiten duten herrialdeak lasaitu nahi dira. Garrantzitsuagoa da, ordea, beste kontu bat: Europar Batasunera immigratzeari eta asiloa hartzeari buruzko gainerako erabakiak gehien-  
go kualifikatuak hartzen ditu 2005etik; gai batean, ordea, aho batez erabakitzea beharrezkoa da oraindik, zenbait herrialdek horrela ezarri dutelako. Gai hori langileak onartzeari buruzkoa da, hain zuzen. Erabaki hori hartzeko, zenbait herrialdek ahobatekotasanari eustea eskatu dutenez gero, pentsa daiteke oztopo handiak jarri-  
ko dizkiotela Zuzentarauari. Bestalde, gaur egun eztabaidan dagoen Europako Konstituzioan, immigrazioari buruzko artikulua kontu handiarekin idatzita daude, eta lan-immigrazioa estatu bakoitzaren arazoa izango dela azpimarratzen dute. Aurreikuspen txarrarekin jarraitzeko, gogorarazi behar dugu Europako zenbait herrialdetan langabezia-tasak handia izaten jarraitzen duela –batez ere, etorkinen artean–; eta ez da hori egungo immigrazio-politikak aldatzeko testuingururik egokiena.

Immigrazioa baztertzearen eta gizarte kultur anitzari ezinikusia izatearen ondorioz, feedbacka gertatu da. Jarrera horiek iritzi-giro batean sortzen dira, eta, ondorioz, lagundu egiten dute oso murriztaileak diren politikak erabakitzen eta etorkinen integrazioari oztopoak jartzen. Era berean, biztanleen zati batengan sentimendu negatiboak sortarazten ditu, eta, gainera, azkenean, bete egiten den iragarpen bila-  
katzen da. Dinamika hori hausteko, etorkinak onartzeko, integartzeko eta ez dis-  
kriminatzeko politikak behar dira, haien egoerak hobera egin dezan, bai eta haiek gizartearen duten irudia ere. Hala eta guztiz ere, European egun immigrazioarekiko dagoen giroak ez du errazten horrelako politikek aurrera egitea.





*Bigarren zatia. Zaurgarritasun handiko taldeak*



## **Asiloa Europan eta konbergentzia globala: errefuxiatuak, lehen heroi, orain paria**

Danièle Joly

*Warwick-eko Unibertsitatea*

### **Sarrera**

XX. mendearen hasieran aldaketa handiak izan ditu munduko asilo-erregimenak, eta errefuxiatuentzat hain eskuzabala ez den politika bat hartu da. Europar Batasunaren (EB) finkatzea, Gerra Hotzaren amaiera eta modelo neoliberalaren hedatzea gertatzen ziren bitartean aldatu da paradigma. Atal honetan ikusiko dugu EB eragile nagusi bilakatu dela asilo-erregimen berriaren formulazioan; formulazio berri horretan, bateratu egin dira munduaren eta Europaren joerak: politika integrala eta sarrera murriztuak –errefuxiatuak beren eskualdean/kokapenean gera daitezzen, eta denboraldi baterako bakarrik eta gizarte-eskubide murriztuekin egon daitezzen Europar Batasunean– eta, gainera, garrantzi handia eman zaio aberriratzeari.

### **Asilo-erregimena II. Mundu Gerraren ondoren**

Gaur egungo *asilo-erregimenak* nolakoak diren aztertzeko, nahitaez begiratu behar zaio historian zehar izan duten garapenari. II. Mundu Gerraren ostean, asilo-erregimena sortu zen: batez ere Europako errefuxiatuak kontuan hartzen zituen eta 1951ko Genevako Konbentzioak arautzen zuen. Erregimen horrek laster eboluzionatu zuen, eta sarrera-erregimen liberal bihurtu zen: erraza zen luzaroan egotea herrialde industrializatu gehienetan. Genevako Konbentzioa tresna unibertsal bilakatu zen (muga geografiko eta historikoak desagertzean), baina munduko herrialde batzuetan azpi-erregimenak sortu ziren. 1969an Afrikaren Batasunerako Erakundeak aztertu zuen kolonizazioaren osteko egoera eta arazoak, eta independentzia lortu berri zuten estatuak. Erregimen haren oinarriak elkarrekikotasuna eta elkarbanatzea ziren, eta definizioak zabalagoak ziren Genevako Konbentzioan baino: errefuxiatu oldeen sarrera onartzen zen, denboraldi labur edo luzerako babesa, eta ahal zenean aberriratzea (Suhrke, 1993). Asian, eskualdeko errefuxiatuentzako erregimena ezarri zen; han, elkarbanatzea zen ohitura (Suhrke eta Hans,

1995), Asia hegoaldean batez ere; Hego-ekialdeko Asian, ordea, AEBen porrotaren ondoren, jende-andana etorri zen Indotxinatik. Hala, aldi baterako babesa eman zitzaizen ondoko estatuetan, eta eskualdetik kanpoko estatu industrializatuak kokagune berriak ezartzeko koordinazio globala egin zen. Latinoamerikan, asilo-ohitura handia izan arren, eten egin zen 70eko hamarkadan: izan ere, militarren etengabeko diktadurak nagusitu ziren Hego Amerikako gobernuetan, eta hango jende ugari mundu osoan asiloa bilatzera behartu zuten. Erdialdeko Amerikan, 1984ko Cartagenako Deklarazioari esker, estatu batzuetan errefuxiatuak hartu ahal izan zituzten. Dirudienez, garai horretako ezaugarri nagusia, oro har, errefuxiatuen aldeko balio-sistema da, eskualde bakoitzak bere formula ezarri arren. Erdialdeko eta Ekialdeko Europan ez zen onartu Genevako Konbentzioa, eta erregimenetik kanpo geratu ziren; alabaina, eskuineko militar-diktaduren errefuxiatu ugari hartu zituzten (esaterako, Txilekoak 1973an).

ACNUR erakundearen esanetan, garai hura “erreaktiboa, erbestera bideratua eta errefuxiatuari lotua” zen (Joly eta Suhrke, 1997). Horixe berresten dute hainbat espezialistak, eta, gainera, erbesteratzearen aldeko joera zegoela diote (Chimmi, 1998). Mendebaldeko herrialdeetan, joera hori indartu egin zuen mundua bi bloketan zatituta egoteak, beti elkarri ekiteko prest. Giro horretan, errefuxiatuek balio ideologikoa hartu zuten mendebaldeko blokearentzat, eredu komunistaren izena zikintzearen; horretaz gain, giza eskubideei eta elkartasunari garrantzia eman zitzaizen, mundu liberalari legezketasuna emateko. Nazismoak egindako ankerkeriak eragindako erru-sentimenduak eta II. Mundu Gerrak ere garrantzi handia izan zuten. Chimmiren ustez (1998), horrek tradizio positibista ekarri zuen, eta errefuxiatuei buruzko diskurtso despolitizatuak (batez ere abokatuek eginak): nazioarteko zuzenbidea arau-sistema abstraktua zen, eta identifikatu, objektiboki interpretatu eta aplikatu ahal zen; hau da, hizkuntza neutrala, Sobiet Batasunaren hizkuntza politizatu ez bezalakoa. Gainera, garai horretako ekonomiak goraldi handi samarra izan zuen, industrializazioa hedatu, eta lurralde deskolonizatuak etorkizun hobearen itxaropena zuten. Oro har, egoera horrek asiloaren aldeko joerari bidea zabaldu zion.

II. Mundu Gerraren amaieran milioika errefuxiatu zeuden Europan, eta horrek asiloaren gaia jarri zuen nazioarteko politikarien agendan. Garai horretan hasi zen nik “antzinako erregimena” deitu dudana (ikus 16.1 taula). Erregimen hori hasi aurretik, egoera historikoaren bi alderdi hartu behar dira kontuan: II. Mundu Gerra eta Gerra Hotza. II. Mundu Gerrara eraman gintuzten gertaerek eta gerrateak berak errudun-sentimendua sortu zuten Europa osoan; izan ere, izugarriak jasan zituzten faxismoaren eta nazismoaren milioika biktimak, eta haietako askori ukatu egin zitzaizen Europako beste herrialde batzuetan sartzea eta asiloa lortzea. Ondorioz, garaiko gizartearen egoerak baldintzatzen zituen errefuxiatuak, nazien erregimenaren eta beste erregimen faxisten mende jazarriak (Hathaway, 1984). Horrez gain, Gerra Hotzaren hasierak argi utzi zuen

AEBen nagusitasuna mendebaldeko politikan, Varsoviako Ituna sinatu zuten herrialdeei aurre egiteko prest beti (Saloman, 1991).

Egoera horretatik sortu zen 1951n, errefuxiatuei buruzko Genevako Konbentzioa: “errefuxiatu politikoei” tratu berezia eman zitzaien eta gizabanakoari taldeari baino garrantzi handiagoa, definizio unibertsal baten bitartez. Beraz, estatu komunistetako errefuxiatuentzat ere sortu zen. Halere, errefuxiatuei buruzko nazioarteko legeek, une zehatz batean “munduaren kontzientzia” ez ezik, botere-oreka munduan eta garaiko klima politikoa ere islatu zuten. Beharrezkoa zen adostasuna, kontuan hartuta nazio bakoitzaren interesak, bai eta gizartearen indar berriak ere –langileen eta komunisten mugimenduak barne–; beraz, Genevako Konbentzioak indarrean jarri zituen zenbait kontzeptu: gizabanakoaren askatasuna, gizarte-eskubideak eta tratamendu-estandarrik. Asiloaren gaien, sarreraz gain jorratu ziren estatutua eta babesa ere. Gainera, garai horretantxe hedatu zen ekonomia eta nagusitu zen Europan migrazio-politika liberala, esku-lan eskasia betetzeko. Genevako Konbentzioa pixkanaka onartu zuten Europako herrialde guztiek: 16k 1960a baino lehen berretsi, eta 1967an Protokoloa berretsi zuten. 70eko hamarkadan, asilo legeetan nagusi zen joera liberala (Jaeger, 1992) eta kontuan hartzen ziren Konbentzioaren eta Protokoloaren oinarriak (Jaeger, 1992). 1995erako, 1951ko Konbentzioa eta 1967ko Protokoloa 127 estatuk sinatu zituzten mundu osoan<sup>1</sup>. (Joly, Kelly eta Nettleton, 1997).<sup>2</sup>

II Mundu Gerraren bukaeran Europan zegoen erregimena nagusi izan zen 70eko hamarkadaren bukaera arte, gutxi gorabehera. Zaila da gehiago zehaztea, ez zelako egun batetik bestera sortu edo desagertu. Denboran zehar eraiki eta desegin zen. Hemen definitutako ezaugarri nagusiak erregimen mota batekoak dira nolabait, eta ez dute azaltzen hainbat herrialdetako desberdintasunak.

## **Asiloa: sarrera eskuzabala**

1951ko Genevako Konbentzioa zen tresna nagusia Europan babesa behar zuen jendearentzat, eta eskatzaile gehienek lortzen zuten Konbentzioaren errefuxiatu-estatutua. 1967an, erantsitako Protokoloak Konbentzioaren muga historikoak eta geografikoak desagerrarazi zituen: nazioartea bihurtu zen, errefuxiatuaren jatorria zeinahi izanik ere. Konbentzioaren funtsezko ezaugarria, gainera, loteslea izatea da: estatu sinatzaileek errefuxiatu-estatutua eman behar diete Konbentzioko baldintzak betetzen dituztenei, eta horretaz ez dute ahalmenik (bai, ordea, bizilekubaimenez). Horrezaz gain, banaka ebaztea ohikoa bihurtu zen Europako estatue-

<sup>1</sup> Geografia eta denboraren mugak kendu egin dira Genevako Konbentzioaren atal guztietan (berriki 1998ko urtarrilaren 8an Hungarian egindakoan ere bai); salbuespenak dira Kongoko Errepublika Demokratikoa (Zaire), Madagaskar, Malta, Monako eta Turkia.

<sup>2</sup> Geografia eta denboraren mugak kendu egin dira Genevako Konbentzioaren atal guztietan (berriki 1998ko urtarrilaren 8an Hungarian egindakoan ere bai); salbuespenak dira Kongoko Errepublika Demokratikoa (Zaire), Madagaskar, Malta, Monako eta Turkia.

tan, nahiz eta hori gehiago zen inplizitua, Konbentzioan hitzartua baino (ACNUR, 1994). Hala ere, izan ziren salbuespenak: batzuetan, taldeentzat *prima facie* ebazpenak hartu ziren, aldeko presuntzioak (esate baterako, hungariarrentzat, txiletarrentzat eta vietnamdarrentzat).

Konbentzioak ordezkatu zituen II. Mundu Gerra hasi arteko irizpideak, nazionalitatean edo taldean oinarrituak (Hathaway, 1984). Konbentzioaren irizpideak zehatzak dira, eta aintzat hartzen ditu pertsona oro, beren aberritik edo ohiko bizilekutik kanpo babesa behar dutenak, arrazoiz beldur direlako jazarriko dituztela arraza, erlijio, nazionalitate edo gizarte-talde batekoa izateagatik, edo ideia politikoenagatik. Alabaina, errefuxiatuaren definizioak interpretazio liberala zuenez, erabat sartarazi zuen elementu subjektiboa (arrazoizko beldurra). Asiloa eskatzaileek zalantza zuten beren alde, eta haien esana egiazat hartzen zen, Konbentzioaren irizpideetara egokitzen ziren ala ez erabaki arte. Beraz, 1. artikulua –errefuxiatua definitzen duena– eta 33. artikulua –egoztea eta itzultzea debekatzen dituen askotan bat etortzen ziren edo hala egiten zutela uste zen. Behin errefuxiatu-estatutua lortuta, egonaldia iraunkorra zen (ez bazegoen amaiera-klausularik, eta ez zen horrelakorik aurreikusten etorkizun hurbilean).

Ez zegoen oztopo handirik harrerako herrialdeetan sartzeko edo prozeduretarako. Babesa lortzeko nazioarteko muga zeharkatu behar zen, baina ez zen bisarik eskatzen edo garraiolariak zigortzen. Errefuxiatu-estatutua lortzeko prozedurara iristea erraza zen, iristean edo iritsi ondoren, mugarik gabe. Eskaera hainbat europar herrialdeetan egin zitekeen, eta horrela, eskatzaileak asiloa lortzeko aukera handiagoa zen. Herrialde bakoitzean eskaera egiteko prozedura eta estatutu bakarra zegoen, hau da, errefuxiatu-kategoria bakarra zegoen.

### **Babesa: ikuspegi integratzailea**

Harrerako herrialdeen xedea, oro har, errefuxiatuak gehiengoaren gizartean biltzea eta integratzea zen. Konbentzioaren errefuxiatuek babes-estandar eskuzabala zuten Europaren mendebaldeko herrialdeetan; horrek esan nahi du errefuxiatuen gehiengoa erregimen haren baitan sartu zela. Oro har, gizarte-eskubideak zituzten eta lan egiteko eskubidea, harrerako herrialdeko biztanle guztiek bezala, eta familia batzeko eskubidea zuten. Bidaia- eta nortasun-agiriak ematen zitzaizkien, Europa osoan zehar bidaiatu ahal izateko bisarik gabe, herrialde gehienek sinatu baitzuten Estrasburgoko akordioa. Ustez egingo zena eta berez egiten zena bat zetozen: bizitzeko baimen iraunkorra ematen zen, eta horrekin batera, bizkor integratzeko programa eta erraztasunak (Joly, 1996). Gobernuen, hedabideen eta biztanleen jarrera errefuxiatuen aldekoa zen. Konbentzioaren definitziotik kanpoko errefuxiatuei emandako babesa Konbentzioko errefuxiatuenaren antzekoa zen. Asilo eskatzaileak etorkizuneko errefuxiatutzat hartu ohi ziren, aldeko presuntzioa zuten, eta, beraz, gizarte-eskubide nahiko onak zituzten (Guillén, 1992).



## Asilo-eredu berri bat

Testuinguru globala aldatu ahala, asilo-erregimen berriak agertu dira. Munduko hainbat eskualdetako erregimenak elkarreragin eta lotura handiagoa dute, eta, hortaz, erregimen bakarrerantz doaz: babesaren baina areago konponbidea bilatzen du, ACNURen ardurapeko pertsonen kategoriak ugaritu dira, giza eskubideetara baino gehiago dago bideratua gizabidera, ekimenak nazioartekoak dira, eta ondoren aztertuko ditugu ezaugarri gehiago ere bai. Diskurtso berri bat kontu handiz ari da aldatzen erregimen berriaren oinarri etiko eta ideologikoak. Azkenik, erregimenak badu askotan aipatzen ez den alderdi bat: errefuxiatuek –nahita edo nahigabe– nazioarteko esku-hartzea eta politika sustatzen dute; mende honen bukaerako politika-gai nagusietako bat da. Erregimen horren oinarriak herrialde industrializatuek jartzen dituzte, eta horiek elkarrekin koordinatzean munduaren agendari eragiten diote. Aditu batzuentzat, errefuxiatuei babesaren eta gizabidezko erantzunekin esperimentatzeak sortu da erregimena, eta hortik datoz planeatu gabeko esperimentuak, plan batek ez baizik krisiek eraginak (Newland, 1999). Bestelako metodoek huts eginda, 90eko hamarkadan nazioarteko zuzenbidea gero eta gutxiago betetzen da (Newland, 1999). Abokatu baten ustetan, errefuxiatuak babestea “mehatxaturik” dago (Goodwin Gill, 1996, 3. eta 5. or.), eta beste batek, berriz, “noiznahi babes-erregimena errotik deuseztatuko den” beldur da (Hathaway et al, 1996, 4. or.). Batzuen iritziz, erregimen berriaren modu anitzak bat datoz errefuxiatuei herrialde industrializatuetatik urrun eustean (Joly, 1999). ACNURek, ordea, baikorrago deskribatzen du: “proaktiboa, aberrira bideratua eta errefuxiatuari lotua” (Joly eta Suhrke, 1997). Adituen artean adostasun handia dago erregimen berriaren ezaugarri politikoei buruz. Chimmik (1998) jatorrizko herrialdean babes-atea aukeratzen du, prebentziozko babesaren, egoteko eskubidea, aldi baterako babesaren, lankidetzaren estuagoa Segurtasun Kontseiluarekin eta babesleku seguruak / segurtasun-eremuak. Mertusek (1998) azpimarratzen du estatuen ukoa asiloa emateari, eustea, aldi baterako babesaren, “bigarren mailako babes-estatu” izatea, aberri-ratzea; Robertsen ustez (1998), erregimen berriaren alderdi azpimarragarrienak dira prebentziozko ekintza (baita gerran dauden herrialdeetan ere), segurtasun-eremuak, NBURen Segurtasun Kontseiluak baimendutako esku-hartze militarra, aldi baterako babesaren, aberri-ratze boluntarioa/behartua, aberri-ratze kontrolatua, mende-baldeko herrialdeen uzurtasuna asiloa emateari.

Europan, zenbait faktorek asilo-erregimen berria sorrarazi du azken 20 urteetan. 70eko hamarkadaren bukaerarako, ekonomiaren hedapen-aldia bukaturik, atzeraldia hasi, eta, hamarkadaren erdialdean gertatu bezala, mugek itxita jarraitzen zuten. Bitartean, Mendebaldeko Europako asilo eskatzaileak ugaritu egin ziren; Europan asiloa lortzeko eskariak ia urtero hazi ziren 1983tik: urte horretako 73.7000 eskarieratik, kopuru handiena arte –692.685– 1992an (Idazkaritza, 1997). Bien bitartean, mugarik gabeko Europan ideia hasi zen sartzeko, orduan baitziren prestatetako Europako Agiri Bakuna egiteko, barne-mugarik gabeko Europan Batasunerantz.

Errefuxiatuen banaketa desberdina zenez, "iparraldeko" herrialdeak batu egin ziren politikak indartzeko, "beldur" baitziren asiloa eskatzaileak Europaren hegoaldetik sartuko zirela eta iparraldera emigratuko zutela (Joly, 1989). Une horretan, Frantziak eta Alemaniak jasotzen zuten asilo-eskariaren %80. Horren ondorioz, gobernuen arteko jarduna ikaragarri ugartu zen. Era berean, Europara iristen zen errefuxiatuen mugimendua aldatuz joan zen: gehienak "humanitarioak" ziren eta ezin ziren onartu, Genevako Konbentzioaren interpretazio zorrotza eginez.

80ko hamarkadaren bukaeran, gertaera garrantzitsuek astindu zuten Europa: Berlingo Harresia eraitsi eta erregimen komunistak desegin ziren. Gerra Hotza amaitu zen. Ekialdeko Europa mugak zabaldu, baina Mendebaldekoak itxi: izan ere, ikaragarri handitu zen ekialdeko asiloa eskatzaileen kopurua –errealak zein potentzialak–: eskariaren ehuneko 65,2 europarrenak ziren (Joly et al., 1997). Gainera ez zegoen etekin ideologikorik, Gerra Hotzaren ondoren. Gatazka etnikoen ondorioz errefuxiatuak barra-barra mugitu ziren Europan, II. Mundu Gerratik eta horren ondoren ezagutzen ez zen bezala; bien bitartean, indibidualismoa eta protekzionismoa zabaldu ziren harrerako herrialdeetan, elkartasun balioen ordeztu (Brochman, 1993). Konbergentzia eta harmonizazioa orokortu aurretik, mendebaldeko zenbait herrialdek iritsiera eta asilo-eskatzaileen onarpena kontrolatzeko neurriak hartu zituzten, beste batzuek kopiatzeko modukoak. Asilo-erregimen berria epe luze horretan joan zen landuz, baina balantza zein aldera eraman eta aldaketa kualitatiboa ekarri zuena aldi baterako babesaren izan zen. Orain, erregimenaren ezaugarri nagusiak argi definitu ditugunez, aztertzeraz goaz.

### **Ikuspegi errektibo integrala**

Behar bezalako politika integrala, osagai ugariak, ACNURrek onartu zuen ofizialki 1992an, Jugoslavia ohiko errefuxiatuak tratatzeko. Gaur egun mundu osoan aplikatzen da, herrialde industrializatuak hala eskatuta. Kritikoek argudiatu dute, ikuspegi horren helburua da mundu industrializaturaren iristen den errefuxiatu-kopurua ahalik eta txikiena izatea da. Prebentziozko ekintza, jatorrizko herrialdean esku-hartzea, jatorrizko herrialdean babestea, asiloa murrizteko neurriak, eskualdean eustea, aldi baterako babesaren, aberriatzea; politika hau hainbat forma eta tresnaren bitartez ezarri da, eta akordioaren konbinazioa aldatu egin da unean uneko krisia eta egoera geopolitikoa kontuan hartuz. Errefuxiatuei buruzko gaiak, berriak, politizatuak izan dira, Gerra Hotzaren amaiera katalizatzaile ezin hobea izan baitzen eta jatorrizko herrialdeetan esku-hartzeko aukera eman zuen. Subiranotasunaren printzipio sakratuak ez du jada indar bera, ACNURen iritziz.

Nazioarteko komunitatea gero eta gehiago kezkatzen da orain arte barne-erregimen hartzen ziren gaiekin: giza eskubideen urratzea, gutxiengoaren errepresioa, indarkeria eta jazarpena. Ezin pentsa liteke egoera horiek nazio eremura mugatzen direla: beste herrialde batzuek eragina dute, errefuxiatuen mugimenduengatik (ACNUR, Newlandek aipatua, 1999, 17.-18. or.).

Joera berri horren adibide dira jatorrizko zenbait herrialdetan egindako esku-hartzea: Irakeko iparraldean, Somalian, Haitin eta Kosovon. Erroko kausen kontzeptio berri bat formulatu eta aplikatu da: orain ez da arreta jarriko, 80ko hamarkadan bezala, estatuen eta nazioarteko sistemen barruko desberdintasun, opresio, arrazismo, autoritarismo eta totalitarismo estrukturalan (Joly eta Suhrke, 1997). “Ohartarazpen goiztiarraren” ideia suntsitu egin da. 90eko hamarkadan errefuxiatu-mugimenduen kausak aztertzen dira, horiek araberako politikak ezarriko baitira. Horregatik aukeratu dugu “integralizazioari” lotutako adjektibo errektiboa. Nahi gabe, errefuxiatuak funtsezko eragile bihurtu dira: esku-hartze eta nazioarteko politika garrantzitsuak motibatzen dituzte, beren kopurua eta mugimendua dela eta. Gizarte-zientzialarien arteko eztabaidak erakusten digu zein konplexuak den gaia eta zein zaila den inplikazio politikoak zehaztea (Joly eta Suhrke, 1997). Zenbait adituk ontzat eman dute ikuspegi integral hori: berradiskidetze politikoak eman dira, gobernuko eta gizarte zibileko instituzioak birgaitu, nazioartean hauteskondeak ikuskatu, eta ekonomiak berreraiki (Newland, 1999). Newlandek zenbait neurri “berritzaile” bereizten ditu: aldi baterako babesak, babesleku seguruak, mugaz harandiko laguntza, tropak bake-misioan bidaltzea eta laguntza humanitaria (Newland, 1999). Baina normalean kritikatu egiten da ikuspegi integrala: babesean kaltea egin dezake *inter alia* bidez, lehentasuna ematen dio errefuxiatuak jatorrizko herrialdetik ahalik eta gertuen edukitzeari eta lehenbailehen beren herrialdeetara bueltatzeari.

## Asilo mugatua

Ikuspegi hau jaio da estatuak gero eta uzkurrago direlako asiloa eskaintzeko (Newland, 1999; Roberts, 1998), kezka sortzen baitie karga ekonomikoak, eta arraza-, etnia- eta nazio-tentsioak areagotzeak; joera hau herrialde industrializatuek hasi eta indartu zuten, eta, beraz, eragina izan zuten munduko beste harrerako herrialde gehiagotan ere. Honela dio ACNURek: “nazioarteko hitzarmenetan ezarrita dauden egitekoak ez betetzea arau global bihurtzen ari da” (MacNamara, 1997:57, aipatzen du Suhrkek, 1998). Honela, Suhrkeren arabera (1998), 90eko urteetan errefuxiatuen panoramarik dramatikoena da asilo mugatua, eta hortik jaio da “ez sartzeko” *erregimena* (Chimmi, 1998). Europar Batasunak, hain zuzen ere, horri begira prestatu zituen konbentzioak eta hainbat tresna “bigun” (Joly, 1996). Sarritan aipatzen dira asilo eskatzaile “faltsuak”, asilo sistemaz abusatzen dutenak, muga horien aitzakia gisa. Herrialde ez industrializatuak ere irakatsi zaie gero eta sarrera gehiago baztertzeko: horixe justifikatzen omen du gainbehera doan ekonomiak, populazioaren presioak, eta errefuxiatu ugari kokatzearen kostu ekologikoak; gainera, hori areagotu egiten du estatu aberatsen ereduak (Joly eta Suhrke, 1997). Paradoxikoa bada ere, Genevako Konbentzioari atxikitako herrialdeak inoiz baino gehiago diren arren, gero eta gutxiago aplikatzen da. Konbentzioari hegoak moztu dizkiote hainbat eta hainbat neurrik, horien artean dagoelarik Europar Batasunaren ekintza bateratua errefuxiatuaren definizioaz, non baztertzeko diren

estatuaz besteko agente jazarleak (Joly, 1999). Bitartean, erregimen komunistak eraitsi eta Gerra Hotza amaitu ondoren, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeak Konbentzioa sinatuz doaz, baina, aldi berean, azkenak dira EBren *acquis communautaire* eta *asilo-erregimena* onartzen.

Europar Batasunak bere ekimenak eraman zituen Genevako Konbentziora, baina hau hondarreko tresna bihurtu da Europako errefuxiatuak erregulatzeko: Konbentzioaren estatutua eman zitzaion soilik European asiloa eskatu zuen %10i 1995ean eta 1996an (Idazkaritza, 1995, 418-19. or.). Nazioen eta European mailan hartu diren neurrien ondorioz, asilo eskatzaileentzat gero eta zailagoa da Genevako Konbentzioaren baldintzak betetzea. Baldintzen interpretazioa gero eta zurrunagoa eta hertsia da: jazarpen probaren estandarra, jazarlea, barne-hegal-diak (EB, "Errefuxiatu" hitzaren aplikazio harmonizatuari buruzko Jarrera Bateratua Genevako Konbentzioaren 1. Atalean). Kontseiluaren Zuzendaritzak (2004/83/EK 2004ko apirilaren 29koak, gutxienezko arauak ezartzen ditu hirugarren herrialde batekoak edo aberriagabeak errefuxiatutzat hartzeaz edo nazioartearen babes beharra duten pertsonatzat, eta eman beharreko babesaz) dio ez dela adieraziko eska-tzaileek "nazioartearen babes behar dutenik, baldin eta" ez badute jazarpen edo min larrien arriskurik "beren jatorriko lekuren batean" eta "leku horretan geratze-ko perspektiba arrazoizkoak baldin badituzte" (8. atala), eta horrela baztertzen da estatutua, barne-hegaldien aukeran oinarrituz. Nolanahi ere, ez-egozte/itzultzea (*non refoulement*) oraindik ere nazioarteko eskubide da, zeinahi izanik ere Genevako Konbentzioaren irizpideak, eta horrek esan nahi du, nolabait ere, Konbentzioaren 1. eta 33. atalak ez datozela beti bat. Ondorioz, errefuxiatu gehie-nen estatutuak ez dira Konbentziokoa bezalakoak. Zentzugabeak dira eta ez dago uniformetasunik (adibidez, tolerantzia-baimena edo *Duldung*, Geratzeko Baimen Berezia, Lurralde Asiloa). Aldi baterako babes beharra da europar herrialdeetan ezarri den kontzeptu berri bat.

Zenbait tresnak babes motaren bat ematen dute, zuzenean edo zeharka: ACNURreko dokumentuen gida-lerroak, Europak Konbentzioa Giza Eskubideez eta Oinarritzko Askatasunez (ECHR), Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Umiliagarrien kontrako Konbentzioa, zenbait barne gida-lerro (adi-bidez, Suedian, desertoreei eta gerra-erresistenteei babes beharra ematen dietenak). European, bai Schengengo eta bai Dublingo dokumentuek aipatzen dituzten "ahal-men" klausulek posible egiten diete gobernuei babes ematea "arrazoi humanita-rioengatik" (Dublingo Konbentzioa, 9. Artikulua) edo nazio bakoitzaren legeenga-tik (Schengengo Akordioa, 1990, 7. Atala). ECHRak aipatzen dira, halaber, Europar Batasunaren ebazpen eta ondorioetan (Joly, 1994). Bi tresna zehatz daude aldi baterako babes beharra European: Jugoslavia ohiko gatazkagatik desplazatutako pertso-nen Konklusioa (Londres, 1992ko azaroak 30), eta Jugoslavia ohiko pertsona bul-neragarriak onartzeko gida-lerro batzuei buruzko Ebazpena (Kopenhage, 1993ko ekainaren 1-2). Tresna hauen ezaugarri garrantzitsu bat da ez dutela Genevako

Konbentzioaren indarrak, ez baitira lotesleak: gida-lerro soilak dira. Berdin gertatzen da aldi bateko babesari buruzko EBko testu berritzaileekin ere, non Europa mailako gomendio argiak ematen diren, babes emateaz errefuxiatu talde batzuei.

Garrantzi handiko aldaketa ari da gertatzen estatutu baten eskubidea edukitzeaz. Tresna berri horietan berriro ari da ezartzen talde-ebazpena, era negatiboan eta positiboan: EBren Ondorioetan –normalean jazarpen-arriskurik ez duten herrialdeei buruz– zerrendaturik agertzen dira asilo eskaeren aurrean ezezko presuntzioa duten herrialdeak; aldiz, eta era positiboan, aldi bateko babesak talde-ebazpena aipatzen du. Babes emateko irizpideak sarritan ilunak edo zeharkakoak dira, hala nola ECHR-en 3. eta 8. Ataletan edo Torturaren kontrako 3. Ataletan; aldiz, aldi bateko babesak irizpide zehatzak aipatzen ditu, Konbentziokoak ez diren irizpideetan oinarrituz: mugaturik daude denboran eta lekuan, Konbentzioaren izaera unibert-sala ez bezala, eta, beraz, askoz murriztagoak dira.

ACNURek gomendatu zuen honelako pertsonak jaso dezaketela aldi bateko babes:

- Gatazka- edo indarkeria-guneetatik ihesi joandakoak.
- Giza eskubideak urratu edo urratze dituztenek (baita jazarpen etniko eta erlijioso sistematikoak ere).
- Beren egoera pertsonalagatik ustez babes beharra dutenak (ACNUR 1994b).

ACNUR-en irizpideetatik (1994) hurbil daude EBkoak, eta aipatzen dituzte, oro har, “Jugoslavia ohiko herritarrak, barne-mugetako gatazka-guneetatik datozenak, eta etxera itzuli ezin direnak, zuzenean gatazkagatik eta giza eskubideen urraketatik” eta, zehatzago, “pertsona bulneragarriak” direla eta:

- gerra-gatibuen kanpamendu batean atxiki dituztenak eta salbatu ezin direnak heriotza-mehatxutik edo bestelako mutilazio batetik;
- zauriturik edo larri gaixo daudenak, dauden lekuan ezin zaielarik eman tratamendu medikorik;
- heriotza- edo mutilazio-arriskuan daudenak, beste edonola babestu ezin direla;
- sexu-abusuak jasan dituztenak, ez badago behar bezala lagunduko dien bitartekorik beren etxetik hurbil eta leku seguruan.

Aldi bateko babesaren helburu nagusia jatorrizko herrialdera itzultzea da (Joly 1998).

Harrerako herrialdeek oztupoak jarri dituzte Konbentzioko estatutua oztopatzeko. Lehenik, sarrera fisikoa zaildu da garraioleariei isunak jarritz (Schengen eta Dublingo

Konbentzioak), eta sarrera- eta igarotze-bisak. Behin harrerako herrialdean sarturik, ez da bermatzen asilo eskaera aztertuko denik, agian bidean pasatu duen “hirugarren ostatu-herrialde” batera bidalia izan baitaiteke. Hori posible da EBren Ebazpen bat dagoelako, ikuspegi harmonizatua duena, hirugarren ostatu-herrialdeez, eta berriz hartzeko akordioak daudelako jatorri-herrialdeekin eta igarotako herrialdeekin. (EBko estatu baten eta hirugarren herrialde baten artean berriz hartzeko akordio baten testu marko baten gaineko Gomendioa, 94.11.30 eta 94.12.1). Aldi bateko babesari buruzko EBren ebazpenek diote, halaber, onuradunek zuzenean etorri behar dutela “gatazka-guneetatik”. Oztopo gehiagok ere zailtzen dute prozedura osora iristea, eta asilo eskatzaile asko bideratzen dira prozedura labur edo “bide labur” batera, oinarri hartuz prozedura-arrazoioak edo arrazoi substantzialak: batere oinarririk ez duen asilo-eskaerari buruzko Ebazpena (Londres, 1992ko azaroak 30 – abenduak 1), eta normalean jazarpen-arrisku larririk ez duten herrialdeei buruzko Ebazpenak. Oro har, aldi bateko babesaren dutenek ezin dute lortu Konbentzioaren estatutua.

Beste bi aldaketa esanguratsu ere izan dira babes tramiteetan: batzuetan, prozedura daiteke harrerako herrialdeetik kanpo, jatorrizko herrialdean edo igarotzen ari den herrialdean (hau da, ALDI BATEKO BABESA duten batzuentzat), eta ezinezkoa bihurtu da eskaerak egitea EBko herrialde batean baino gehiagotan (Dublingo eta Schengengo Konbentzioak).

### **Babesaren errealitate berria**

Babesa esanahi berriak ari da hartzen. Robertsek (1998) dikotomia bat egiten du: batetik babes legala (hau da, estatuaren babesaren eta errefuxiatu-estatutua) eta, bestetik, babes fisikoa. Lehenagoko *asilo-erregimenean* ez ziren desberdintzen. Babesak hiru konponbide posible bilatzen zituen: erbestean betiko kokatzea (horixe zen ohikoa herrialde industrializatuetan), iragaitzako herrialdean bolada batean egon ondoren birkokatzea, edo handik jatorrizko herrialdera eramatea. Antzina nazioarteko muga bat zeharkatzea konponbide iraunkorra zen, baina orain aldatu egin da, eta tartean dago, baita ere, jatorrizko herrialdean bertan babestea, eta mugaren bat zeharkatu bada aberriratzea. Mundu industrializatuan, aditu batzuek aipatu dute ez-integratzeko programa bat dagoela (Joly, 1996). Asilo-politikak murriztu egin dira, eta harrera/birkokatze politikak ez dira hain eskuzabalak. Oro har, betiko birkokatze kupoak osoa mugatuak dira: hamar estatuk jasotzen dituzte 30.000 eta 50.000 artean urtero (Suhrke, 1998), eta vietnamdar errefuxiatuak denen artean betiko birkokatze kupoak egin ziren eskaintzen ordean, orain, bosniar eta kosovoarren kasuan, aldi bateko babesaren egon da kopuru mugatu batentzat. Formula asko landu dira jendea *in situ* babestu nahian (garrantzi berezia ematen zaie jatorrizko herrialdean desplazatuari), edo, harrerako herrialdeetan, Genevako Konbentziokoak ez diren beste estatutu batzuk eman zaizkie, eta erabili da, Europar aurreneko aldiz, aldi bateko babesaren. Agentzietan eta adituen idazkietan

oso pixkanaka ari da agertzen emakume errefuxiatuen arazoa, nahiz eta ikaragarrri dauden eta egoera latzak dauden.

Nolanahi ere, indar berezia jarri da aberriratzean: lehen baino begi hobez ikusten dute politika-diseinatzaileek eta GKEek, hori delakoan errefuxiatuentzako konponbiderik onena, eta erbestearen trauma saihesteko bidea. Horregatik, gobernuek eta agentziek gehiago aipatzen dituzte soluzioak, babesa baino. Aberriratzea da kontzeptu nagusia: 10 milioi pertsona itzuli ziren beren aberrira 1991ko urtarrilaren eta 1997ko hasiera artean (Roberts, 1998). Erdialdeko Amerikan, nazioarteko ordezkaritza zuen eskualdeko bake-prozesu batean, errefuxiatuak itzultzeko plan bat zegoen; eskualdean errefuxiatuek partehartze zuzena izaten jarraitu zuten bake-prozesuan, aukeran baitzituzten harrerako herrialdeak. Horrekin batera, AEBek mugetan segurtasun-neurri zorrotzagoak hartu zituzten, akordio multilateralak eta bilateralak eginez (bi lege 1996an) atzerritarrek hirugarren herrialdeetara itzultzeko; Guatemalako, berriz, bost eta zortzi urte arteko espetxe-zigorra jarri zuen indarrean, atzerritar agirigabeei laguntzen zietenentzat (Nezer, 1999). Itzulera bortxatu asko izan dira munduan: Irandik Afganistanera eta Azerbaijanera, Bangladeshetik Birmaniara, Thailandiatik Birmania eta Kanbodiara, Tanzania eta Kongotik Ruandara, Alemaniatik Bosniara, AEBetatik Haiti eta Kubara. Zenbaitetan nazioarteko agentziek –tartean ACNURek– kontrolatu dituzte itzulerak, eta baliteke etorkizunean hori ere garapen-laguntzen artean ere sartzea, gatazka jasandako eskualdeak berreraikitze (adibidez, Bosnia). Herrialde industrializatu batzuek (esaterako Norvegiak) eskaini dituzte, halaber, beren lurraldean kokatuta dauden errefuxiatuak itzultzeko programak.

Europan, jarrera nabarmen aldatu dute gobernuek, hedabideek eta herritarrek: orain muzin egiten zaie errefuxiatuei eta asilo eskatzaileei; arrazakeria eta xenofobia indartu egin dira. Argi ikusten da hori politikarien adierazpenetan, bozen emaitzetan eta errefuxiatuen kontrako krimenetan (Joly, Nettleton eta Poultonekin, 1992). Erresuma Batuan, 2000ko otsailean eta martxoan, errefuxiatuen gaia zakar tratatu zuten egunkari, telebista eta irratiek. Edonolako errefuxiatuak izanik ere. Gainera, *de jure* eta *de facto* errefuxiatu mota desberdinak daudenez, eta diskriminaturik daudenez, prozesu sozial baztertzailen helburu dira. Harrerako baldintzak, askotan, iritsierarik edo eskaririk egon ez dadin diseinatu dira: besteak beste, atxilotzea, mugitzeko askatasuna mugatzea, eskubide sozialak murriztea edo deuseztatzea, eta ikasteko edo lan egiteko eskubidea mugatzea. Herrialde guztiak ari dira zein baino zein, “disuasioa” erabiliz asilo-eskari gehiegi ez “erakartzeko”.

Asilo-eskatzaileek presuntzio negatiboa jasaten dute. Ia esan liteke errudun direla errugabe direla frogatzen ez duten arte, eta hori egin behar dutela. Ez-integratze-ko programa inplizitu bat dago, halaber, Konbentzioaren erregimenean sartzeko ez diren errefuxiatuei aplikatzen zaizkien neurrietan Europako herrialde gehienetan.

Ez dago programarik edo instalaziorik haiek bizkor integratzeko, beren egonaldi-baimena denbora mugaturako da, eta normalean ez dituzte bertakoen eskubide sozial berdinak: lan egiteko eskubidea eta familia elkartzeko eskubidea. Babesa kaskarragoa da. Beren kabuz moldatu behar dute, eta bertan kokatzeko baimena lortzen badute, baliteke izatea ostatu-gizartearen gogoz kontra. Gainera, lortzen badute ere, ez zaizkie beti ematen nortasun/bidaia agiriak. Horrela talde marjina-tu bat sortzen da, egoera erdi legalean.

Aldi bateko babesaren errefuxiatuengan ikusten dira ongi gehiengoaren gizarte-integratzea baztertzeko programak; aldi bateko babesak ez du berarekin integrazio-neurririk; aldiz, harrerako instalazioek batzuetan integrazioa galarazteko politikak dituzte: Danimarkan, aldi baterako babestuak kanpamendu batean ipini, ez zitzaion danierarik irakatsi, eta sorterriko curriculumak irakatsi zitzaion haurrei (Brochman, 1995). Aldi bateko babesak, oro har, ez du ematen Konbentzioko errefuxiatuen eskubide-maila berdina: ez familia elkartzeko eskubidea, ez nortasun-agiririk. Hasieran, ACNURek ere Konbentzioko errefuxiatuena baino askoz tratamendu murriztagoa eskatu zuen (ACNUR, 1992). Gainera, egonaldiaren epea mugaturik dago, aldi bateko babesaren helburu nagusia eta konponbide iraunkorra aberrira itzultzea baita. Horrela, talde horiek indarra galtzen dute, zaila zaie ezer eskaintzea harrerako gizartei, eta areagotzen da gizarteko gehiengoaren etsaitasuna.

Eskubideen murrizketa hori baieztatzen dute Kontseiluaren bi arauk. Konbentzioaren errefuxiatu direnak hiru urtez gera daitezke, baina babes subsidiarioa dutenak urtebetez soilik (Kontseiluaren Araua, 2004/83/EK, arautzen duena zer baldintza bete behar dituzten hirugarren herrialdekoek edo aberrigabeek errefuxiatutzat hartzeko, edo nazioartearen babesaren behar duten pertsonatzat, eta zer babes emango zaien; 24. atala). Oso bestelakoa zen 80ko urteak arte: Konbentzioko errefuxiatuen egonaldi-baimena mugagabea zen, Genevako Konbentzioaren amaiera-klausula aplikatu arte. Gainera, aspalditik egoiliar diren hirugarren herrialdekoek buruzko arauaren arabera, Konbentzioaren errefuxiatu direnek eta babes subsidiarioa dutenek ezingo dute EBko ezein herrialdean zirkulatu edo lan egin 5 urte igaro arte harrerako herrialdean (Kontseiluaren Araua, 2003/109/EK, 2003ko abenduaren 25ekoa, aspalditik egoiliar diren hirugarren herrialdekoen estatutuaz).

Ez-integrazioaz gain, itzulera da modako beste hitza errefuxiatuen gain. Zirkulu ofizialetan, jatorrizko herrialdean berrintegratzea aipatzen da konponbiderik onena gisa, errefuxiatuei traumarik txikiena eragiten diena eta, batzuetan, itzulera-pakeak eskaintzen dira. Aldi bateko babesaren Jugoslavia ohiko pertsonen kasuan, itzulera hartzen da emaitza bakartzat. Politikaren beste alderdi batzuek ere argi erakusten dute txarrerako jarrera errefuxiatuekiko: batetik, Europar Batasuna eztabaidan ari da “karga elkarbanatzeaz” (esaera argigarria), oraingoz alferrik; bestal-



de, asilo-eskaera ukatu zaienei argi esaten zaie joateko (EBren Ebazpenak egozteaz, Londres 1992.11.30 eta 1992.12.1.1, eta Kopenhage 1993.6.1 eta 2).

## Eragile instituzionalak

Prozesu honen eragile liderrak mundu industrializatuko gobernuak dira (gobernu-arteke organismoak eta hitzarmen supranazionalak). Europar Batasunak zeresan handia dauka, eta baita Europaren, Ipar Amerikaren eta Australiaren Asilo-, Errefuxiatu- eta Migrazio-Politikei buruzko Gobernu-arteke Kontsultak (barruan daude herrialde industrializatu nagusiak eta ACNUR). Gainera, nazioarteko gobernu-kanpoko erakundeak eta GKEak ere eragina izaten saiatzen dira; esan beharra dago GKEen kolektiboak, gaur egun, Hegoaldeko herrialdeei baliabide gehiago eskaintzen dizkietela Mundu Bankuak baino (Mertus, 1998). Laguntza eskatzen zaio Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari; NATOk bere gain hartu ditu interbenzio militarrik, baina laguntza humanitarioa ere banatzen du.

ACNURek polemikak izan ditu eta kritika gogorrek jaso ditu gobernu eta herrialde emaleekin duen harremanagatik. Zenbaitetan goraiatu egin dute kezkatzen hasi delako jende mota berriekin, eta errefuxiatu-erakundea izatetik pasatu delako oinarri handiko errefuxiatu-agentzia humanitarioa izatera. Adibidez, ACNURek barne-desplazatuak eta sorterrira itzuli direnen kontrola egitea positibotzat hartu da, aldaketa berritzailetzat, bermea eta segurtasuna ematen duena (Roberts, 1998). Kontrako iritzi batek dio ACNUR ahuldu egin dela bere laguntza esparrua zabaltzean (Rudge, 1998) eta, areago, bere ardura humanitarioak eta babesa eman beharra bateraezinak direla (Goodwin-Gill, 1999). ACNURi leporatu zaio, era berean, legitimatu eta sustatu egin dituela estatu industrializatuak helburuak, lehenetsiz sorterrian bertan babestea, geratzeko baimena edo aberrirratzea (Chimmi, 1998). ACNURen kezka berrien baitan jende asko dago (13 M), errefuxiatuak ez baizik barne-desplazatuak, itzuli direnak, Jugoslavia ohiko gerran kaltetuak, Errusiar Federazioko birkokatuak, eta aberrigabeak (Roberts, 1998). “Deserrotu”, “desplazatu”, “nahigabeko immigrante” hitz berriekin ordezkatu ohi da “errefuxiatu” kontzeptua (Joly eta Suhrke, 1997)

Europan, erabaki politikoak aurkeztu eta bideratzen dira gobernu-arteke akordio bidez (Schengen eta Dublin), eta baita EBko ebazpen eta ondorio ugarien bidez ere. Erregimenaren formulatzaile nagusia EB da: ereduak ezartzeaz gain, bere ildora dakartza EBkoak ez diren europar herrialdeak. Neurri horiek egon arren, eta agian neurri horiek egoteari esker, gobernu bakoitzak ahalmen handiagoa du estatutua zehazteko, malguago joka dezake Genevako Konbentzioarekin. Politikak harmonizatzeko joera dago. EBan koordinazio handia ari da ematen, eta informazioa elkarbanatzen ari da. Nolanahi ere, harmonizazio prozesu hau ez zaie aplikatzen asiloarekin eta errefuxiatuekin zerikusia duten esparru guztiei; orain arte ia ez da ukitu ere egin Konbentzioaren estatutua ez duten errefuxiatuen gaia, eta ezta erre-

fuxiatuen kokapena ere. Neure ustez, orain arteko harmonizazio-neurri horien helburua izan da hegoak moztea Genevako Konbentzioari EBan, eta gobernuetako eta gobernu-arteak ahalmenak berrezartzea, errefuxiatuak onartzeaz.

Hala eta guztiz ere, agenda hori eztabaidatzen eta jorratzen ari dira beste eragile batzuk. Handitu egin da ACNURek Europan duen garrantzia, baina arriskua dago ez ote den sartuko EBak lideraturiko agenda berrian. Beste organismo batzuk, eragin txikiagokoak izan arren, parte zuzena ari dira hartzen errefuxiatuen gaian: Europar Legebiltzarra, Europar Batzordea, Segurtasunaren eta Kooperazioaren Europar Konferentzia, Europar Kontseilua, Errefuxiatuen eta Erbesteratuen Europar Kontseilua, eta beste GKE batzuk. Azkenik, honek guztiak zuzenean eragiten die Europan Erdialdeko eta Ekialdeko herrialde guztiei, asiloaren gaian *acquis communautaire* delakori atxikitzeko gogoz baitaude.

## Ondorioa

Paradigmaren aldaketa honek hainbat eragile izan ditzake. Aipatu da Gerra Hotza amaitzek murriztu egin duela errefuxiatuen balio ideologiko intrintsekoa, denentzako asiloa errazten zuena (Joly, 1996). Erregimen berria, batzuek “Gerra Hotzaren osteko” izendatua (Mertus, 1998), nazio ikuspegi mugatuetan oinarrituta dagoela dirudi. Kontuan hartu, gainera, unibertsalismoaren eta elkartasunaren balioak atzera egin dutela (Rudge, 1998), batetik, nagusitu den ekonomia-eredu neoliberalaren eraginez; eredu horrek merkatuaren indarrak askatu ditu. Herrialde industrializatueta nazioaren barne-interesa da nagusi, eta uste da errefuxiatuek mehatxatu egin dutela erregimen politikoa, kultur nortasuna, ordena sozio-ekonomikoa eta ingurumenaren eta nazioaren segurtasuna (Weiner, 1996).

Honek guztiak ez du esan nahi asiloa erabat amaitu denik Europan; izan ere, modelo berriak asilo-eskatzailak harrerako estatuen esku uzten ditu ia erabat. Asilo-politikak harmonizatzearen ondorioz, Genevako Konbentzioa murriztea lortu da Europar Batasunean. Europako estatuen helburu nagusia mugen kontrola berreskuratzea zen, eta erabaki ahal izatea zein errefuxiatu hartu, zenbat denboran eta zein baldintzatan. Aukeratu duten asilo-erregimena selektiboa da, aldi baterako bakarrik eta txandakakoa, eta, gainera, gizarte-eskubideak murriztuta daude.

Gero eta gehiago bat egiten du dagoeneko aurreikusitako immigrazio-politika berriekin. Demografia-kurba alarmistak eta eraberritutako ekonomiak eskatzen dute etorkinen eskulan gehiago inportatzeko. Diskurtso nagusi bihurtu da EBko zenbait herrialdetan –esaterako Frantzia eta Italia–, eta hango politikariek, ezkerreko zein eskuinekoek azpimarratzen dute immigrazio-programa berri baten beharra. Erresuma Batuan ere argi eta garbi aurreikusten da jarrera antzekoa. Europako joera dirudi, eta modelo berriari buruzko zantzuak esaten digute immigrazio-sistema selektiboa, txandakakoa eta aldi baterako dela, eta urrun

dagoela epe luzerako finkatze edo gizarteratzetik. Nola jarriko da praktikan? Historiak diosku oso zaila dela erabat selektiboa den eredu bati eustea, eta ia ezinezkoa dela etorkinak aldi baterako izatetik epe luzekoak izatera igarotzea, gehienak bederen.

## **Bibliografia**

Arnold, Mrs (1996): "Beren herrialdetik ihes egitera behartuta dauden pertsonen aldi baterako babesari buruzko txostenaren aurre-zirriborroa", Europako Kontseiluaren Legebiltzar-batzarra, Estrasburgo: irailak 18.

Brochman, Grete (1995): "Bosnian Refugees in the Nordic Countries. Three Routes to Protection", Oslo: martxoan.

Brochman, Grete (1993): "Immigration Control, the Welfare State and Xenophobia Towards an Integrated Europe", *in* Migration, 18, 5-25.

Callamard, Agnès (1995): *Populations under fire, Populations under stress* (doktor-tesia), New York: New School for Social Research.

Chimmi, B.S. (1998): 'The geopolitics of refugee studies: a view from the South' *in* Journal of Refugee Studies, 11. lib., 4. zk., 1998ko abendua, 350-375.

Edminster, Steven (1999): "Recklessly risking lives: restrictive interpretation of 'agents of persecution' in Germany and France" *in* World Refugee Survey 1999, U.S. Committee for Refugees, 30-39.

Frelick, Bill (1999): "Down the rabbit hole: the strange logic of internal flight alternatives" *in* World Refugee Survey 1999, 27-29.

Guillon, Claude (1992): *Evolution des dispositifs d'aide aux demandeurs d'asile et aux réfugiés Actes du Colloque. Les réfugiés en France et en Europe Quarante ans d'application de la Convention de Genève 1952-1992*, 1992ko ekainak 11-13, Paris: OFPRA, 279-292.

Gibney, Mark (1991): "US foreign policy and the creation of refugee flows" *in* Adelman, H. (ed.): *Refugee policy: Canada and the United States*, Toronto: York Lanes Press, 81-114.

Goodwin-Gill, Guy (1996): *Refugee identity and the fading prospect of international protection*, "Refugees Rights and Realities" gaiari buruzko konferentzia, Nottingham, azaroak 30.

Goodwin-Gill, Guy (1999): "Refugee identity and protection's fading prospect", *in* Frances Nicholson eta Patrick Twomey: *Refugee rights and realities: evolving international concepts and regimes*, Cambridge: CUP, 220-252.

Hathaway, James et al. (1996): *Towards the reformulation of international refugee law. A model for collectivised and solution-oriented protection*, Kontsulta-tailerrak Londresen eta Washingtonen, urriak 4 eta 11.

Hathaway, James (1984): "The evolution of refugee status in international law: 1920-1950", *33 International and Comparative Law Quarterly*, 348-80.

Jaeger, Gilbert (1992): "Comparative asylum and refugee jurisprudence and practice in Europe and North America", in Jacqueline Bhabha eta Geoffrey Coll (eds.), *Asylum Law and Practice in Europe and North America*, Washington, Federal Publications Inc, 1-8.

Joly, Danièle (1989): "Le droit d'asile dans la Communauté européenne", in *International Journal of Refugee Law*, 365-79.

Joly, Danièle et al. (1992): *Refugees: Asylum in Europe?*, Londres: MRG, 1992, Westview-k ere argitaratua, USA, 1992.

Joly, Danièle (1994): 'The porous dam: European harmonisation and asylum in the nineties', in *International Journal of Refugee Law*, 6. lib., 1994, 159-193.

Joly, Danièle (1996): *Haven or Hell: Asylum policies and refugees in Europe*, Basingstoke: Macmillan.

Joly, Danièle con Lynnette Kelly eta Clive Nettleton, (1997): *Refugees in Europe: The Hostile New Agenda*, Minority Rights Group, Londres, 13.

Joly, Danièle eta Astri Suhrke (1997): "Asylum: changing concepts and practices", Populazioaren Azterketa Zientifikorako Nazioarteko Batasuneko (IUSSP) Hego-IPar Nazioarteko Migrazioari buruzko Batzorderako prestatutako agiria, Bartzelona, maiatzak 7-10.

Joly, Danièle (1998): "Temporary Protection within the framework of a new European asylum regime", in *International Journal of Human Rights*, 2. lib., 3. zk., udazkena, 49-76.

Joly, Danièle (1999): "A new asylum regime in Europe" in Frances Nicholson eta Patrick Twomey: *Refugee rights and realities*, Cambridge: CUP, 336-357.

Joly, Danièle (laster kalean): *Blacks and Britannity: Young African Caribbeans in Britain*, Aldershot: Avebury.

Kälin, Walter (1996): *Towards a concept of temporary protection*, ACNURek eskatutako ikerketa, Berna: azaroak 12.

Landgren, Karin (1995): "Safety zones and international protection: a dark grey area", in *IJRL*, 8. lib., 3. zk., 416-432.

Mertus, Julie (1998): "The state and the post-Cold War refugee regime: new models, new questions", in *IJRL*, 10. lib., 3. zk., 321-349.

Newland, Kathleen (1999): "The decade in review", *in* World Refugee Survey 1999, U.S. Committee for Refugees, 14-21.

Nezer, Melanie (1999): "The Pueblor process: U.S. migration controls move south of the border", *in* World Refugee Survey, U.S. Committee for Refugees, 40-45.

Roberts, Adam (1998): "More refugees, less asylum: a regime in transformation", *in* Journal of Refugees Studies, 11. lib., 4. zk., 1998ko abendua, 375-396.

Rudge, Philip (1998): "Reconciling state interests with international responsibilities: asylum in North America and Western Europe", *in* IJRL, 10. lib., 1/2, 1998ko urtarila-apirila, 7-21.

Salomon, Kim (1991): *Refugees in the Cold War*, Lund University Press.

Gobernuen arteko kontsultarako idazkaritza, Europako, Ipar Amerikako eta Australiako asiloari, errefuxiatuei eta migrazioari buruz (1994): Jatorrizko eskualdean egindako harrerari buruzko lan-agiria. Geneva: iraila.

Gobernuen arteko kontsultarako idazkaritza, Europako, Ipar Amerikako eta Australiako asiloari, errefuxiatuei eta migrazioari buruz (1995): Europako, Ipar Amerikako eta Australiako estatuetan egiten den aldi baterako babesari buruzko txostena. Geneva: abuztua.

Suhrke, Astri (1993): *Safeguarding the right to asylum*, Populazioaren eta migrazioaren banaketari buruzko adituen bilerak. Santa Cruz, Bolivia, urtarrilak 18-22.

Suhrke, Astri (1998): "Burden-sharing during refugee emergencies: the logic of collective versus national action" *in* Journal of Refugees Studies, 11. lib., 4. zk., 1998ko abendua, 375-415.

Suhrke, Astri and Asha Hans (1995): *Study in action No.4 'responsibility sharing'*, Toronto, maiatzak 1 eta 18-21. Eztabaidarako agiria.

UNHCR/ACNUR (1992): *Comprehensive Response to the Humanitarian Crisis in the former Yugoslavia*, Geneva: 1992ko uztaia.

UNHCR/ACNUR (1994): *Background note: Informal Meeting of Government Experts on Temporary Protection*, Geneva: 1994ko martxoak 23.

(Joaquindoc14-25 )

Weiner, Myron (1996): *The global migration crisis*, New York: Harper Collins.



## **Lau arrazoi legez kanpoko immigrazioari buruzko gogoeta egiteko**

Antonio Izquierdo Escribano  
*A Coruña*ko unibertsitatea

*Chonen amarentzat, zainduak izateko premia izanik  
beste hiritan bizi diren alaba langileek zaindutako  
Espainiako adinekoen DOKUMENTURIK GABEKO  
migrazio-garaian hil zen harentzat.*

### **Zergatik aztertu behar du soziologiak Legez Kanpoko Immigrazioa?**

Lau arrazoi ditugu, gutxienez, legez kanpoko immigrazioari buruzko azterketari denbora eta indarra eskaintzeko. Lehen arrazoiak agerian uzten digu behar adina dokumenturik gabeko immigrazioak gorakada nabarmena izan duela. Bigarren arrazoiak, berriz, etorkin horiek Espainian luzaroan egoten direla azpimarratzen du. Hirugarren arrazoiak gizarte-errealitate horrek gizarte hartzailaren giro demokratiko-kulturalean duen eraginaz hitz egiten digu. Dokumenturik gabeko etorkinei buruzko hausnarketaren aldeko laugarren arrazoiak, azkenik, luzaroan irauten duen babesgabetasun-egoera horrek etorkinen eguneroko bizitzan duen eragina ekartzen digu gogora. Horiek guztiak arrazoi sendoak dira eta hainbat eta hainbat gizarte-ondorio dakarte berekin. Azken finean, arrazoi horiek nahikoak dira “lekuz kanpo” bizi ez diren soziologoak lanean hastera bultzatzeko.

Lau arrazoi horiek barrukoak dira, eta gizarte hartzailak atzerritar babesgabeen-  
kiko agertzen dituen jokabideekin eta haiekiko sentitzen dituen sentsazioekin dute  
zerikusia, batez ere: horiek onartzeko eta tratatzeko moduarekin, alegia. Bertakoen  
sentsazio eta jokabide horiek “auzoka” sailka daitezke, nolabait. Izan ere, horiek  
ez dira berdinak Espainia guztian. Adinak eta generoak ere eragin handia dute

etorkinak hartzeko moduan, “paperik gabeko” etorkinekiko irudia eta aurreiritziak azaltzen laguntzen duten jarrera-, sinesmen- eta esperientzia-multzo zabal batekin batera. Zalantzarik gabe, hezkuntzak eta kultur inguruneak ere zerikusi handia dute, horren arabera zabalagoa edo urriagoa izaten baita desberdinak direnekiko informazioa. Horrela, bidaiatzea atsegin duten gazte dirudunek bakartuta eta beste kulturekiko harremanik gabe bizi izan diren adinekoek baino hurbilago sentitzen dituzte atzeritarrak. Bestalde, lehiakide gisa ikusten dituzten etorkin-taldeek baztertu egiten dituzte gainerako etorkinak; haien lanarekin onura ekonomikoa lorzen dutenek, berriz, ez dute kexurik adierazten.

Espainiako gizartea asko aldatu da XX. mendeko 60ko hamarkadako kanpo- nahiz barne-migrazioak gertatu zirenetik. Egungo gizartea ia ezagutezina da duela berrogei urte gazte zirenentzat. Horrenbestez, gizarteak eraldaketa handiak bizi izan dituela esan dezakegu, bai kanpora irekitzeari dagokionez, bai demokraziaren (tokikoa eta autonomikoa) jardunari dagokionez; horrekin batera, ordea, “kanpotik etorritako pertsonetikiko” eguneroko edo noizbehinkako harremanak ere aldatuta handiak eragin ditu gizartean. Duela hogeitun urtetik hona, etorkinak hainbat auzotan eta herritan bildu dira eta horrek ere nahasi edo baieztatu egin ditu, nolabait, haiek etorri aurretiko iritziak eta jarrerak. Orain, sentsazio horiek gauzatu egiten dira eguneroko bizitzan –eskoletan, tabernetan, plazetan eta azoketan– eta harreman berri horiek beste modu batean eratzen dituzte hasierako ikuspegiak.

Horrenbestez, Espainiako eskualde jakin batzuetako emigrazioaren historia oraingo immigrazioarekin eta gobernu autonomoekin gurutzatzen denean, “etorkin-giro” berezia sortzen da udalerriri eta hiri bakoitzean. Bazterketaz eta bizikidetzaz osatutako gizarte-giroa da hori, nahiz eta leku bakoitzean osagai bakoitzaren kopurua desberdina izan. Horrek guztiak zehatzago aztertu beharreko hainbat ondorio dakartza berekin. Edonola ere, lan hori beste baterako utzi eta honako hau baino ez du esango oraingoan: legez kanpoko immigrazioaren eragina aztertzeko orduan, sentimentaltasuna alde batera utzi eta sentiberatasunari eustea komeni zaigula.

Alabaina, migrazio babesgabeena aztertzeko orduan, badira kontuan hartzeko beste kanpo-arrazoi batzuk ere: esaterako, jatorrizko eta helburuko Estatuarte-ko harremana, igarotze-herrialdeekiko hitzarmenak ahaztu gabe. Nazioarteko elkarlana eta dokumenturik gabeko etorkinak berriz onartzeko akordioak ez dira gutxietsi behar globalizazio ekonomikoa eta nazionalismoak nagusitzen ari diren egungo fasean.

Hasieran adierazitako lau arrazoiez gain, badira immigrazio-politikaren beste arlo batzuei eta, zehazki, fluxuen erregularizazioari eragiten dieten beste arrazoi batzuk ere. Arlo horri dagokionez, honako galdera hau mahaigaineratu behar dugu: legez kanpo etorri diren pertsonen pilaketak gogogabetu ala adoretu egiten al ditu beste etorkin batzuk? Bestalde, legez kanpoko etorkinen kopurua hain altua den egoe-



ra horretan, posible al da aldaketarik gertatzea etortzera ausartzen diren jatorriaren, generoaren, adinaren edo gizarte-baldintzaren osaketan? Beste modu batera esanda, migrazio-fluxuen eta migrazio-aniztasunaren aurkakoa al da erregulartzazioa? Etorkin gehiago erakartzen al ditu haien egoera legezkatzen dituen herrialdeak?

Kezka nagusia, zalantzarik gabe, zeharkaldi horretan hiltzen diren pertsonak dira. Espainiako herritarrek oroimena badute, segituan gogoratuko dute nolakoak ziren duela mende bat Galiziako portuetatik Argentinarentz ateratzen ziren itsasontziak. Itsasontzi haiek sendoak eta seguruak ziren, XXI. mende hasierako “txalupa eta patera” hauskor horiek ez bezala. Azken finean, ikus dezakegunez, asko dira “dokumenturik gabeko immigrazioaren” errealitatearekin lotutako arrazoiak eta aztergaiak. Edonola ere, dokumentu honetan horietako lau baino ez ditugu aztertuko.

1. Dokumenturik gabeko etorkinen gehiegizko kopurua, sartzen diren etorkinen eta “legearen barruan” lanean aritzeko bide estuen eta burokratikoaren arteko desoreka dela-eta.
2. Legez kanpoko egoeraren iraupen luzea, etorkinak ez direlako aldi baterako etortzen, bertan geratzeko baizik. Ondorioz, etorkinak onartu gabeko herri-tarrak dira, seme-alabak ekarri eta bertan etxebizitza erosten duten arren.
3. Demokraziaren pixkanakako eta etengabeko pobretzea eta kutsadura: etorkinekiko mespretxua areagotu eta entzungor egiten die haien eskubideei.
4. Azkenik, etorkinak esplotatu eta bakartu egiten dituzte legez kanpo bizi behar duten epealdian.

Alabaina, ez gaitezen arinegi joan eta eman ditzagun pauso guztiak banan-banan, arrazoiak datuekin lotuz.

### **Ateak itxi egiten dira, baina etorkin-kopuruak gora egiten du**

Hasteko, Espainian babesgabetasun-mailarik altuenean bizi diren pertsonen kopuruak azken hogeitun urteotan izan duen gorakada aztertuko dut. Ondoko datuetan ikusten denez, legezko etorkinen eta dokumenturik gabeko etorkinen arteko tarte zabaldu egin da XXI. mendeko lehen bosturtekoan zehar. 1999. urtean etorkin guztien eta bizileku-baimena zuten etorkinen arteko aldea oso txikia zen (30.000 lagun eskas); 2003an, berriz, erroldatutako atzerritarren kopuruak bikoiztu egin zuen bizileku-baimenen kopurua eta, bien artean, 1.300.000 lagunetako aldea aurkitzen dugu.

2005eko urtarilaren 1ean Espainiako udalerrietan erroldatutako etorkinen kopurua 3.700.000 lagunetik gorakoa zen; bizileku-baimenen kopurua, berriz, ez zen bi milioietara heltzen. Biztanleen Udal Erroldatik ateratako datu hori ontzat emateko,

irregularitasunaren neurri fidagarri gisa hartu behar dugu Erroldako datu horien eta indarrean dauden bizileku-baimenen arteko kontrastea. Horixe egin du gobernu sozialistak, 2005ean beren lan-egoera “normalizatu” lezaketen atzerritar kopurua kalkulatzeko. Utz ditzagun orain zenbakiak alde batera, eta jarrai diezaiozun argudioari.

Kontuan hartzekoa da immigrazio-fluxuek gora egiten duten bitartean baimenak lortzeko ateak itxi egiten direla. Beste modu batera esanda, egungo onarpen-politikak ez dira batere egokiak gero eta handiagoak diren immigrazio-korronteei aurre egiteko. Horren azken ondorioa dokumenturik gabeko etorkinen gorakada izugarria da. Eta alboko ondorio gisa, porrota eta ezintasuna nagusitzen dira fluxuak arautuko eta mugatuko dituzten neurriak diseinatzeko orduan. Politikak, itsuturik, irtenbiderik aurkitzen ez duenean, orduan hormak eraikitzen dira. Hesien altuera, ordea, herrialde hartzaileak irtenbide politikoak hartzeko orduan agertzen duen gaitasunik ezaren parekoa da.

1. taula. Biztanleriaren bilakaera, etorkinaren egoeraren eta nazionalitatearen arabera.								
	BIZT. GUZT.	ESPAIN. BIZT.	ETORKINAK		ATZERRITARRAK		Bizileku-baimenak	
	(a)	(b)	(c)	%(c/a)	(d)	%(d/a)	e)	%(e/a)
1981	37.689.662	37.456.676	629.397	1,7	232.986	0,6	183.422	0,5
1986	38.437.362	38.171.321	697.187	1,8	266.041	0,7	241.971	0,6
1991	38.858.680	38.508.618	840.594	2,2	350.062	0,9	278.796	0,7
1996	39.617.477	39.089.944	1.051.582	2,7	527.532	1,3	499.773	1,3
1998	39.852.651	39.215.572	1.173.767	2,9	637.079	1,6	609.813	1,5
1999	40.202.160	39.453.207	1.259.054	3,1	748.953	1,9	719.647	1,8
2000	40.499.791	39.575.912	1.472.458	3,6	923.879	2,3	801.329	2,0
2001	41.116.842	39.746.185	1.969.270	4,8	1.370.657	3,3	895.720	2,2
2002	41.837.894	39.859.948	2.594.052	6,2	1.977.946	4,7	1.109.060	2,7
2003	42.717.064	40.052.896	3.302.440	7,7	2.664.168	6,2	1.324.001	3,1
2004	43.197.684	40.163.358	3.693.806	8,6	3.034.326	7,0	1.647.011	3,8
2005	44.108.530	40.377.920	4.391.484	10,0	3.730.610	8,5	1.977.291	4,5

Iturriak: a) Biztanleria, guztira = zuzenbidezko biztanleria. EIN. Biztanleriaren Erroldak.

b) Etorkinak = atzerrian jaiotako biztanle erroldatuak. EIN. Biztanleriaren Erroldak.

c) Atzerritarrak = atzerritar nazionalitatea duten biztanle erroldatuak. EIN. Biztanleriaren Errolda.

d) Bizileku-baimenak. Indarrean dauden administrazio-baimenak, guztira. Barne Ministerioa eta, 2003. urteaz geroztik, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

1981. urtetik 1996ra erroldatutako biztanleak (a, b eta c zutabeak) urtarilaren 1era errolda arteko hazkunde-tasekin.

Jarrai dezagun erregularizazioen emaitzak aztertzen, legez kanpoko egoeran dauden etorkinen gorakadarekin lotutako argudioari beste bide batetik euste aldera. Aztertuko dugun epealdia 1986. urtetik 2005era bitartekoa da, etorkinen errealitatea Espainiako atzerritarren eskubideei eta askatasunei buruzko Legea aldarrikatu

zenetik –1985. urtetik– aztertzen hasi zelako. Lege horren aldi baterako xedapena-ekin lehen erregularizazioa egin zen hurrengo urtean eta, horren ondorioz, 14.638 langileren egoera legezatu zen. Kopuru hori handia zen garai hartarako, 1986. urtean 53.822 atzerritarrek lan-baimena lortu baitzuten (Izquierdo A, 1.991).

Horiexek izan ziren Espainiak “immigrazioaren herrialde” gisa emandako lehen pausoak. Urte haietan, alderdi politikoez ez zituzten sumatu ere egiten nazioarte-ko immigrazioaren gizarte-eragin sakonak: immigrazioak gizartearen energian izango zuen eragin osasungarria eta gizartearen zatiketan eta desberdintasunen (izatezkoak eta zuzenbidezkoak) areagotzean izango zituen ondorioak, hain zuzen. Hainbat eta hainbat lerro idatzi dira immigrazioak gizarte-bazterketaren areagotzean duen eraginari buruz. Nik ere norabide berari jarraitu nahi diot: hirieta-ko zatiketak (bertan bizi dira atzerritar gehienak) lausotu egiten du “klase-aurkaritza” eta gutxitu egiten du gizarte-desberdintasunei buruzko ikuspegia, horiek “itxura desberdina dutenekin” nahastuz. Horra hor hautemandako aniztasunaren eta ezkutuko desberdintasunaren arteko norgehiagoka.

Hori dela-eta, lege-ekimenek nahiago izaten dute Europako arlo juridikoarekin bat egitea gizarte hartzaile gisa gureak diren berariazko baldintzak behar bezala ulertzen saiatzea baino. Nire ustez, Espainiako emigrazioari buruzko informazio zehatza falta zen arau-homogeneotasuna behartzeko asmo horretan. Espainiak 1960. urtetik 1985era bitartean emigrazio-politiketan izan duen esperientziari dagokionez, estalketa ideologikoak nagusitu dira behar bezalako azterketen gainetik. Izan ere, 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera Espainiak Alemaniarekiko, Frantziarekiko edo Belgikarekiko (besteak beste) emigrazio-politikan izan duen esperientzia zorrotzasunez aztertu izan balitz, aurrerapauso gehiago emango liritekeen esku-lanarekin eta eskola-integrazioarekin (gizarte bizikidetzaren bi oinarri hartzeagatik) lotutako politikak diseinatzeko orduan. Bertan gertatutakoa eta bertako historia aztertu beharrean, migrazio-esperientzia desberdina duten Europako beste herrialde batzuetako legea aplikatu zen Espainian: lege hori, jakina, ez zen inolaz ere bateragarria Espainiako errealitate sozio-kulturalarekin.

Ondoren, 1990. urtean, gobernu sozialistaren Barne Ministerioa egoeraz jabetu eta ekintzarako oinarri batzuk finkatzea erabaki zuen “Atzerritarrei buruzko Espainiako Politikaren Oinarriko Ildoak” izeneko legez besteko Proposamenaren bidez. Testu hori ahalegin politiko garrantzitsua izan zen Espainian 90eko hamarkadaren erdialdean gertatu behar zuenari aurrea hartzeko eta Administrazioa eta gizartea aurretik prestatzeko, garai hartan atzerritarren gizartean zuten pisu txikia ikusirik. Politika horrek immigrazioa legezko bihurtzeko lehenbiziko pausoa 1991ko erregularizazioa izan zen, hutsetik abiatzeko asmoz: alabaina, neurri hori ezinezkoa zen erabat, are eta gehiago une haietan, alderdi sozialistaren eskutik ekonomiaren modernizazioa eta gizarte-babeserako zerbitzuen areagotzea nagusi zirenean eta Espainia EBko kide bihurtu zenean.

Une hartan abiadura egokian hazten ari zen ekonomia formalak eta, batez ere, ekonomia ezkutuarekin lotutako jarduerak –ez zituen bere ahultasunak jendaurrean agertu nahi– ez zeuden prest garaiko zorroztasun- eta gabezia-baldintzetara moldatzeko. Ekoizpen-sektoreen eta merkatuen nahiz kontratazioen malgutasuna ziren politika ekonomikoaren jarraibideak. Kostazainak eta muga-postuetako zaindariak ere ez zeuden behar bezala prestatuta kontentzio-lan horiek zehatz-mehatz betetzeko. Legez kanpoko lan-jarduerak ikuskaritzen bidez kontrolatzea eta Estatuaren botere hertsatzailea gauzatzea –horren ardura da mugetan jendea atzetea eta kanporatzea– ez dira lan errazak. Pertsonak (ikuskeriak), bitarteko materialak eta bitarteko teknikoak falta ziren horren lan zaila behar bezala bete ahal izateko. Jarduera ekonomikoen malgutasuna zorroztasun administratiboa baino hurbilago dago eguneroko bizitzatik eta, horrenbestez, immigrazio politika gainditu eta beharrezkoa zena baino esku-lan gehiago erakarri zuen.

Horrela, 1991ko 128 mila eskatzaileek 1990. urte bukaeran Espainian bizi ziren atzerritarren %45 osatzen zuten, baita Europako Erkidegotik kanpoko atzerritarren %90 ere. 2000. urtean, berriz, baimena eskatu zuten 247 mila lagunek Espainian bizi ziren %31 osatzen zuten, baita Erkidegotik kanpoko atzerritarren %64 ere. 2001ean, “errotzeagatiko erregularizazioa” eskatzen zuten 350 mila lagunek guztizkoaren %32 eta Erkidegotik kanpoko atzerritarren %73 osatzen zuten. Azkenik, 2005. urtean, beren egoera normalizatu nahi zuten 690 mila etorkinek Espainian bizi ziren atzerritarren %35 osatzen zuten, baita Erregimen Orokorrean bizi diren atzerritarren %52 ere. Erregularizazioa eskatzen duten etorkinen pisua are eta handiagoa da langileen multzoarekin lotzen dugunean; izan ere, erregularizazioa eskatzen duten etorkin gehienak legez kanpo lanean dihardutenak izaten dira.

## **Dokumenturik gabekoen iraunkortasuna eta zirkulazioa**

Esamesa ugari entzuten da “korridore espainiarra” delakoari buruz. Politikari arduragabe batzuek ideia hori mahaigaineratzen dute etorkinen fluxua iritzi publikoak (IP) nahi duen mailatik gora agertzen denean. Beraz, egokia eta komenigarria denean, etorkinak aldi baterako etortzen direla azpimarratzen da; ez direla betirako geratzeko etortzen, alegia. Ikuspegi horretatik, Iberiar Penintsula korridore bihurtu da Europar Batasuneko muinera iritsi nahi duten etorkinentzat. Ahots faltsu horien esaten dutenez, Espainia joan-etorrietarako herrialdea da, eta ez helburuko herrialdea. Hori erabat zuzena izango balitz, nahikoa izango litzateke atsedenguneak eraikitzearekin, beste herrialde batzuetara doazen etorkinei bidea errazago egitearren. Horixe bera gertatzen da uda- eta jai-garaietan, afrikarrek (marokorrek, bereziki) Espainia iparretik hegoaldera zeharkatu eta iraganbideetan pilatzen direnean, “ferryetan” sartu eta Gibraltarreko Itsasartearen gurutzatzeko zain.

Alabaina, Espainia harrera-eremua, komuna, sukaldea, korridorea, logela eta jantokia da. Horretarako behar bezala prestatuta ez egon arren, MIGRAZIO-ETXE

ETA MIGRAZIOTARAKO LEKU bihurtu da. Hala, etorkinak Espainiara etortzen dira bizitzera eta bertan beste garai eta leku batzuetako migrazioak nahasten dira. Izan ere, barruko migratzaileek eta dagoeneko alde egindako etorkinek beren arrastoa utzi dute. Jaioterrira itzultakoen eta haien ondorengoen aztarnak nabaritzen dira Espainian, baita Europako beste herrialde batzuetatik kultur hurbiltasun bila etorri zirenen aztarnak ere. Alabaina, hiriak eta muga-eremuak ere eraikitzen dira bidegurutzeetan eta horiek, berriz, Estatu bihurtzen dira batzuetan.

Herrialde jakin bat egun batetik bestera immigrazio-gune izatetik iraganbide izatera bihurtzen dela esatea bezalako sinplifikazioen haritik, honako ideia nabari hau ekarri nahiko nuke gogora: migrazioen analisisian alde batera utzi behar direla norabide bakarreko arazoibide sinple guztiak. Eta hori arlo guztietan aplikatu behar da, bai datuak biltzeko, bai migrazio-politikak abian jartzeko. Ekintza bakar bat ez da nahikoa hain nahasia eta gorabeheratsua den mugimendua –nazioarteko migrazioak– azaltzeko. Horretarako, deskribapen konplexuak eta argudio metagarriak erabili behar dira. Migrazio-politikak ebaluatzeko eta aztertzeko hitz egokiena ez da “edo” juntagailua, gehitzen duen “eta” juntagailua baizik. Migrazio singularrak ez du behar bezala eta behar adina xehetasunez deskribatzen egoera-multzo guttia. Adierazle garbien eta urteko batezbestekoen kalkulua ere ez dira biderik egokienak.

Jakina denez, hainbat etorkinek Espainia zeharkatzen dute Europako beste herrialde batzuetara joateko; beste batzuk, berriz, Europako beste herrialde batzuetatik etortzen dira Espainiara. Latinoamerikar batzuk Alemaniara, Herbehereetara edo Frantziara iristen dira bertatik Espainiara joateko. Eta Ekialdeko europarrek EBko hainbat estatu gurutzatu behar izaten dituzte Iberiar Penintsulara heldu aurretik. Azken batean, oso herrialde gutxi dira iraganbide edo helburu baino ez direnak. Neurri handiagoan ala txikiagoan, nabariago ala ezkutuago, denbora erritmo bertsuekin edo desberdinekin, egia esan gaur egungo migrazio-korronteek norabide bat baino gehiago dute, baita helmuga bat baino gehiago ere. XXI. mendearen atarian, immigranteek ez dute behin betiko noranzkorik. Nazioarteko migrazioa eremu artean mugitzen da eta, horrenbestez, errealitate hori bideratzeko bultzatu behar diren ekintzen zati bat baino ez dira politika nazionalak. Argi dago, beraz, nazioarteko mugimenduei nazioz haraindiko tratamendu politikoa eman behar zaiela, baita beste maila batzuetan oinarritutako tratamendua ere.

Azken finean, Espainian bizi diren dokumenturik gabeko edo legez kanpoko etorkinak beste herrialde batzuetatik igaro dira aurretik, batez ere Frantziatik eta Holandatik, baita, neurri txikiago batean, Alemaniatik, Italiatik, Marokotik eta Latinoamerikako zenbait herrialdeetatik ere –Hegoamerikatik datozenen kasua da–. Banaketa horri erreparatuz, sartzeko aukeraz gain herrialde horiek aukerak ere eskaintzen dituztela pentsa genezake. Ez ziren soilik “korridore-herrialde” izan, epealdi batez etorkinentzako bizileku baizik. Beste kasu batzuetan, berriz, etorki-

nak dirua biltzeko asmoz geratzen dira herrialde horietan epe jakin baterako, baita helburu duten Europako herrialdera heltzeko bidai luzean atsedean hartzeko ere. Gainera, urruneko herrialdetatik datozen afrikarren kasuan, sarritan atera ezinik geratzen dira “iraganbide” horietan eta bertan geratzeko beste aukerarik ez dute izaten, Espainiara heltzeko oztopoak handiegiak direlako. Horrela, legez kanpoko hainbat etorkinei Espainiara etorri aurretik zer herrialdetan egon diren galdetu zaienean, Europako honako herrialde hauek aipatu dituzte gehien: Frantzia, Alemanian eta Italia. Beste urertzetatik datozenen kasuan, berriz, Maroko eta Afrikako nahiz Latinoamerikako beste herrialde batzuk aipatzen dituzte.

Arrazoi berbera dela-eta, hainbat etorkinen kasuan Espainia ez da bidaiaren azken helmuga, jaioterrira eta beste helmuga batzuetara ere bidaiatzen baitute: dokumenturik gabeko lau etorkinetatik batek horixe egin duela adierazi du. Eta horien %20k, gainera, nolabaiteko maiztasunez gainera, Espainiatik gutxienez bost aldiz atera direla azaldu baitute. Joan-etorri horien arrazoi nagusiak bi dira: jaioterrira oporretan joatea eta familiarteko arazoak konpontzeko beharra. Alabaina, datuen arabera, etorkin horiek oso bidaia gutxi egiten dituzte beste herrialde batzuetan lan egiteko, bisarekin lotutako arazoak konpontzeko edo izapideak egiteko. Honako hau da funtsezko galdera: dokumenturik gabekoa izateak asko murrizten al du etorkinaren mugikortasun geografikoa eta soziala? Galdera horrek izugarritzko garrantzia du, mugikortasuna baita etorkinen ezaugarririk baliotsuena. Horixe izango da, hain zuzen, lan honen azken atalaren aztergaia.

2. taula. “Espainiara etorri zenetik herrialdetik atera behar izateko arrazoi nagusia”				
	Maiztasuna	%	% baliagarria	% metatua
Oporrak	355	10,8	46,3	46,3
Familiarteko arazoak	170	5,5	23,5	69,8
Aldi baterako lana beste herrialde batean	70	2,3	9,7	79,5
Bisarekin lotutako arazoak konpontzea	56	1,8	7,7	87,2
Aldi baterako lana jaioterrian	26	0,8	3,6	90,8
Beste batzuk	41	1,3	5,7	96,5
Ez du erantzun	26	0,8	3,5	100,0
Guztira	724	23,3	100,0	
Sistema	2.378	76,7		
Guztira	3.102	100,0		

Iturria: Izquierdo, A. (2000) Erregularizazioari buruzko galdeketa. 2000


Alabaina, dokumenturik gabeko etorkin gehienak iragaitzakoak edo sasoikakoak ez direla adieraztea da orain garrantzitsuena. Izan ere, etorkin gehienek herrialdean geratzeko eta beren egoera legezatzeko asmoa dute. Erregularizazioa eskatu dutenen artean egindako galdeketen arabera, hamar etorkinetik zortzik Espainia aukeratu zuten helmuga-herrialde gisa. Horrez gain, datu horien arabera, gainera-

ko etorkinen %20k Frantziara eta Alemaniara joango liratekeela aipatu zuten, aukera izanez gero. Herrialde horien atzetik Holanda, Britainia Handia eta AEBak aipatu zituzten. Ikus dezakegunez, beste herrialde batzuetako politika murriztaileen ondorioz dokumenturik gabeko etorkinen %20 “behartuta” sentitu ziren Espainiara etortzera. Erabaki hori hartzera zerk bultzatu zituen galdetzean, honako arrazoi hauek aipatu zituzten etorkinek: Espainian lana aurki daitekeela, prestakuntza hobetzeko aukera ere badutela, bertan senitartekoak bizi direla eta askatasun handiagoa dutela. Jakina da Espainian lan-bazterketa eta arrazismoa badirela baina, hala ere, etorkin gehienek ez dute uste bazterketa hori handiegia denik.

“Erregularizazioa eskatu zutenei 2000n egindako galdeketa” arabera, horien laurdenak lau urte baino gehiago zeraman Espainian bizitzen; hau da, galdetutako etorkinen laurdena XX. mendeko laurogeita hamarrek hamarkadaren erdian heldu zen Espainiara. Erdiak baino gehiagok senitartekoren bat du Espainian eta laurdena bikotekidearekin bizi da bertan. Lau etorkinetik hiru hiri barruko pisu batean bizi dira. Horrenbestez, etorkinek Espainian sortu dituzten lotura horiek ikusirik (lana, afektibotasuna, denbora, bizilekua), ez da harriztekoa horien herenak “Espainian betirako bizitzen geratzea” erabaki izana; bestalde, etorkinen %8ak beren egonaldia hamar urteraino luzatuko dela erabaki dute. Beste heren batek ez daki zenbat luzatuko den bere egonaldia Espainian, baina galdeketa horiek beste herrialde batzuetan izan dituzten emaitzekin konparatuz eta Espainiako emigrazioak Europan eta Amerikan izandako esperientzia kontuan harturik, zalantzan dauden horietako asko betirako geratuko direla esan dezakegu.

Ondorio nagusi gisa, dokumenturik gabeko etorkinak ez direla sasoikakoak esan genezake, bertan bizileku egonkorra izatearekin lotutako eskubide guztiak lortu nahi dituzten herritarrak baizik. Eta ondorio horrek izan behar du funtsezko oinarria legeztatze-prozedura etengabea gauzatzeko: etengabeko erregularizazio-bidea, hain zuzen, dagoeneko Espainian bizi diren etorkinek bertan geratzeko duten asmoen eta sartzeko dokumentazio-mekanismoen arteko orekarik eza aldiro egokitu daitezten.

Bestalde, aurkeztutako guztia nahikoa izango ez balitz ere, 2001. urtetik hasi eta 2005eko normalizaziorainoko fluxuen gorakadak argi uzten du erregularizazioa eskatu zuten 690 mila lagunehuneko altu bat hainbat urte zerratela Espainian legez kanpo bizitzen. Labur esanda, fluxuak hiru, lau eta bost bider ugari dira 1999. urtetik 2005era bitartean, 127 mila lagunetik 700 mila lagunera iritsi arte. Eta hona hemen zenbakiak beste garrantzia duen datua: kopuruagatik nagusi diren etorkinen jatorriari erreparatuz, Afrikako iparraldeko etorkinak direla ugarienak. Haien atzetik latinoamerikarrak eta, azkenik, europarrak datoz. Hasieran marokotarrak nagusi ziren; gero, ekuadortarrak eta kolonbiarrak eta, ondoren, berriz, errumaniarrak, marokotarrak eta boliviarrak.



Iturria: Izquierdo, A. (2000) Erregularizazioari buruzko galdeketa. 2000.

## **Etorkinen eragina harrerako gizarte demokratikoan**

Espainian “isilpean” sartzen saiatzen diren etorkinei buruz argitaratzen diren berriei erreparatu, bi ideia datozkit burua. Lehenak fluxu horien maiztasunarekin du zerikusia eta bigarrenak, berriz, osaketa sozio-demografikoaren aldaketarekin. Espainiarrek errealitate horri buruz jasotzen duten informazio gehientsuena irudi horiekin lotuta dagoela esan daiteke, hanka sartzeko inolako beldurrik gabe.

“Legez kanpokoan” profil sozio-demografikoa da haien kulturarekiko eta jaioterriarekiko bazterketa eragiten duen osagai nagusietako bat. Zenbat eta nazionalistagoa izan gizarte-testuingurua, orduan eta nabariagoa izango da mespretxu hori. Talde nazionalistek nazioartekotasunaren aldekoek baino jarrera itxiagoa izango dute etorkin atzerritar jakin batzuen aurrean. Eta ez dugu ahaztu behar, azken finean, etorkinek bertakoekiko duten ikuspegia haiek agertzen duten jarrerarekiko erantzuna izango dela. Hala ere, bertakoak eta etorkinak ez dira inolaz ere talde homogeenak eta, horrenbestez, ezin daitezke ideiak orokortu. Alabaina, litekeena da nortasunez aldatu direnek edo zalantzazko nortasuna dutenek beren baloreekin lasai eta seguru sentitzen direnek baino gehiago gutxietsiko dituztela atzerritarrak. Etorkinen talde bakoitzarekiko jarrerari dagokienez, eremu egokia aurki dezakegu Espainiako nazionalismoa herrialde barruko beste nazionalismo batzue-



3. taula. Atzerritik etorritako etorkinen fluxuaren bilakaera, jatorrizko herrialdearen eta nazionalitatearen arabera. 1998-2004							
	1990	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Errumania	503	1.773	17.435	23.276	48.292	54.998	89.487
Maroko	10.534	14.843	38.178	39.256	39.930	40.865	58.839
Erresuma Batua	4.514	7.932	11.007	16.233	25.632	32.148	44.315
Bolivia	147	500	3.318	4.835	10.562	18.119	35.339
Argentina	1.291	2.163	7.401	18.086	40.628	24.759	23.237
Bulgaria	—	—	—	11.761	15.842	13.648	17.898
Kolonia	2.298	7.451	45.868	71.014	34.042	10.888	16.610
Txina	1.012	1.622	4.745	5.146	5.606	7.293	14.400
Brasil	879	1.598	4.113	4.283	4.582	7.349	13.017
Peru	2.054	2.898	5.893	7.057	7.884	13.310	12.968
Ekuador	1.954	8.973	91.120	82.571	88.732	72.581	11.936
Alemania	7.233	9.500	10.456	10.912	11.348	11.114	11.789
Ukrainia	—	—	—	10.857	10.799	9.065	10.277
Venezuela	921	1.618	3.587	4.257	5.789	10.401	10.208
Uruguay	221	399	1.350	3.062	7.002	9.266	9.845
Frantzia	2.663	3.426	4.285	4.928	5.464	5.994	8.023
Dominikar Err.	2.145	2.868	5.552	5.383	5.458	6.558	8.167
Portugal	1.364	2.015	2.968	3.080	3.634	5.050	8.000
Italia	1.652	2.073	2.924	3.800	4.579	5.366	6.637
Gainerako herrialdeak	15.810	27.470	70.681	64.251	67.280	70.752	234.852
<b>Atz., Guztira</b>	<b>57.195</b>	<b>99.122</b>	<b>330.881</b>	<b>394.048</b>	<b>443.085</b>	<b>429.524</b>	<b>645.844</b>
Espainia	24.032	28.243	31.587	20.724	40.175	40.486	38.717
<b>Guztira</b>	<b>81.227</b>	<b>127.365</b>	<b>362.468</b>	<b>414.772</b>	<b>483.260</b>	<b>470.010</b>	<b>684.561</b>

Iturria: Bizileku Aldaketei buruzko Estatistikak. Estatistikako Institutu Nazionala.

kiko zenbateraino finkatuta dagoen jakiteko. Nazionalismoaz gain, jakina, laneko eta gizarteko egonkortasunik ezak ere xenofobia piztu eta bertan behera uzten ditu demokraziaren oinarriak, beste nazionalitate batzuetako pertsonak ez baititu herritartzat eta parekotzat hartzen.

Aipatutako irudi horien maiztasunaren ondorioz, herritar ugarik honako iritzi hau osatu dute: legez kanpoko etorkin gehienak afrikarrak direla eta itsasontziz –“pateretan”, zehazki– heltzen direla Espainiara. Datu enpirikoek, ordea, ez dute orokortasun hori bermatzen, ez etorkinen jatorriari dagokionez, ezta sartzeko erabiltzen duten ibilgailuari dagokionez ere. Berehala ikusiko dugu hori guztia.

Une honetan honako hau da interesatzen zaigun auzia: afrikarrei eta horiek Espainian sartzeko erabiltzen dituzten moduei buruzko ikuspegiak bermatu egiten duela nolabait haien aurkako indarkeriazko errepresioa; gainera, legez kanpoko etorkin horiek kanporatzeko eta beren herrialdeetara bidaltzeko prozesuak ez du gehienetan inolako berme juridikorik izaten. Iritzi publikoak ere badu bere erantzukizuna Afrikako herrialdeekiko aldebiko akordioetan Zuzenbide Estatua des-

agertzen bada eta gobernu demokratikoaren printzipioak mugetan ikusezin bihurtzen badira, ez baitu gai horrekin lotutako berariazko zentsurarik agertzen. Izan ere, herritarrek zigortu egin behar dute bozen bidez Espainian sartzeko saiakeran etorkinen aurka erabiltzen den indarkeria, eta horien kanporatze bidegabea ere juridikoki zigortu behar da: halakorik egin ezean, litekeena da gutxiespen arrazistak gora egitea eta askatasunak murriztea.

Azter dezagun orain immigrazio latinoamerikarra eta Europako Ekialdekoa, legez kanpoko etorkin gehienak lurralde horietakoak baitira, nahiz eta Afrikako atzerritarrak baino gutxiago nabarmendu. Jatorri horietako etorkin gehienak XXI. mendearen lehen bost urtetan zehar iritsi dira, baina ez eraikinen sotoetatik, ezkuntuan, bisita-bisa baten bidez baizik. Atzerritar horiek behar baino gehiago luzatzen dute bisa hori, inolako baimenik gabe. Aireportu bidez edo lurreko mugen bidez sartzeko dira turista edo ikasle gisa, nahiz eta horien benetako asmoa lana aurkitzea eta bertan geratzea izan. Herritarrek errezelo gutxiago agertzen dute, oro har, etorkin horiekiko eta harrera hobeago izaten dute. Izan ere, latinoamerikarrek eta Europako Ekialdeko etorkinek afrikarrek baino bazterketa xenofobo gutxiago eragiten dute eta ez dira hainbeste baztertzen; hala ere, horrek ez du esan nahi etorkin horiek lanean gutxiago esplotatzen direnik. Adierazgarria da afrikarren aurkako arrazismoa murrizteagatik latinoamerikarren lan-esplotazioak gora egiten duela. Kostu baxuko legez kanpoko etorkinak tolerantzia-maila handiago baten truke.

Honako hau da XXI. mendearen hasieran gertatutako profil-aldaketarik deigarriena (latinoamerikarren eta europarren gorakadaz gain): legez kanpoko bideetatik gero eta emakume eta haur gehiago sartzeko ari direla. Badirudi emakumezkoak eta haurrak ugaitzen ari direla dokumenturik gabeko etorkinen profilean. Egoera horrek legez kanpoko etorkin ugaitzen isilpeko onarpena dakar berekin. Izan ere, iritzi publikoak ez du hain nabarmen adierazten egoera horrekiko egonezina, bakarrik dauden gizonezkoak emakumezkoak eta haurrak baino gehiago baztertzen baitira.

Alabaina, adingabeekiko eta emakumeekiko errukiak ere baditu bere mugak eta arazoak. Hori azaltzeko, errealitatearen eta aurreiritziaren artean mugitzen diren bi ideia aipatuko ditugu: batetik, sarritan aipatzen da prostituzioak gora egin duela eta joera hori "emakume atzerritarren" gorakadarekin lotzen da, batzuen ustez adeitsuagoak, otzanagoak eta exotikoagoak direlako. Aurreiritzi horien muturrean, zenbaitek uste dute emakume atzerritarrak "promiskuoagoak" direla, kultur arazoak edo izaera-arazoak direla medio. Bakardadea, behar ekonomikoa edo behartutako esplotazioa ez dira sarritan kontuan hartzen.

Adingabe atzerritarrei ere auzoetako eta hiri handietako lapurreten eta indarkeriaren gorakada leporatzen zaie, inolako bereizketarik egin gabe. Ez da, ordea, gazte horien familiari buruzko informaziorik eskatzen. Egia da hainbat ikerketek eta datuk bermatu egiten dutela iritzi horien atzean dagoen errealitatea, eta jakina da

gazte horietako batzuek delitu-jardueretan aritzen direla eta gizarteratze-arazoak dituztela. Baina herrialde “aurreratu” guzti-guztietan daude gizarretik kanporatutako gazte bortitzak. Honako hau da, ordea, demokraziaren hedapena benetan kolokan jartzen duena: orokortasunak eta aurreiritziak gizarre-arrazoen analisiari aurrea hartzea eta, horietaz baliatuz, botere publikoek gizarre-kohesioaren aldeko politikak bultzatzeko duen erantzukizuna alde batera uztea.

Legez kanpoko immigrazioak kalte handiak eragiten dizkio kalitate demokratikolari eta lan-merkatuen kalitateari. Ekoizpenaren aurrerabidea oztopatzeaz gain, segurtasunik eza eta gizarre-bazterketa ere eragiten du immigrazio-mota horrek. Ez da, beraz, formula egokia –are gutxiago etorkin-kopurua gehiegizkoa denean–, eskrupulorik gabeko enplegu-emaila gutxi batzuentzat, alderdi politiko arrazistentzat eta demokraziaren eta ongizate Estatuaren arerioentzat izan ezik. Legez kanpoko immigrazioak zikindu egiten du historia, garai, leku eta egoera jakin bateko migrazio-korronteen aniztasuna eta xenofobiaren pozoia sartzen du jarretan eta informazioetan. Bizilagunen arteko harremanetan ere gizalegea desagertu eta apartheidia nagusitzen da eskoletan. (Ruth Rubio, 2002) eta (Bi aldeko Txostena USA-Mexiko, 1997).

Dokumenturik gabeko etorkinak iraina dira gizarre demokratikoentzat eta egunetik egunera sarriago erabiltzen dira “bide gabeko merkataritza” gisa nazioarteko harremanetan. Etorkin horiek bizitza demokratikorik gabeko “demoak” dira, gutxieneko eskubideak dituzten pertsonak. Demokrazia lurralde jakin bateko pertsonen duten jokabidea ere bada, eta ez zainetatik iragaten den fluido edo oinordetzan hartutako ondasun askaezina.

Adierazgarria da benetan Espainiako emigratzaileen bilobek beren bozka testuinguruz kanpo –nolabait esatearren– ematea. Izan ere, ez dute benetako harremanik ezagutzen ez duten herrialde harekin, ez baitira bertan jaio eta ez baitira bertan bizi. Jakina, emigratzaileen bilobek ez dute parte hartzen Espainiako eguneroko arazoetan edo eztabaidetan. Horien presentzia eta ordezkari-tza-bideak oso meheak eta urrunekoak dira. Gauzak horrelakoak izan arren, emigratzaileen bilobek Espainiako parlamentuko ordezkariak aukeratzen dituzte: gurasoek edo aitona-amonek erregimen politikoa berdintasun-logikan oinarritzen ez zenean utzi behar izan zuten herrialde horretako ordezkariak, hain zuzen. Emigratzaileen ondorengoen, beraz, beste gizarre-mota batetik eta lekuz kanpo egonik bozkatzen dute.

Zenbait ondorengo urrutitik bertakotzen dira. Espainian bizi eta kotizatzen duten etorkinek, ordea, ez dute herrialdearen eraikuntzan parte hartzeko aukerarik. Berdin dio bertan jaiotako seme-alabak badituzte edo horiek eskola publikora joaten badira, eta egoera ez da aldatzen horietako etorkin batzuek enpresak sortzen badituzte edo gazteenek bertakoekin aisialdia partekatzen badute. Batzuek, beraz, “nazionalitatea oinordetzan” hartzeko aukera dute eta, horrekin bera, eskubide demokratikoak ere bai. Beste batzuek, berriz, uko egin behar diote hainbat gau-

zari herritar izatea lortzeko eta, hori lortuta ere, behartu egiten dituzte zenbait “nortasun” alde batera uztera. Ez da nahikoa herrialde batean “egotearekin”, bizitzearekin edo lan egitearekin eta nortasunak gehitzeagatik baino “izateari uzteagatik” ematen zaie etorkinei herritar izateko merezimendua.

## **Egoera horren eragina legez kanpoko etorkinen bizitzan**

Atal honetan Espainian legez kanpo bizitzen egoteak “paperik gabeko” etorkinen bizitzan eta migrazio-proiektuan duen eragina aztertuko dugu: hau da, mugikortasunaren murrizketa eta familiarengandiko banantzea.

Legez kanpoko egoerak dakartzan bi alderdi negatibo horiek aztertzen hasi aurretik, erregularizazioaren kontrako jarreraren atzean dagoen ideia bat gezurtatu nahiko nuke, batez ere erregularizazio guztiak baztertzen direnean, horien arteko bereizketarik egin gabe. Hona hemen aipatutako ideia: “erregularizazio guztiak antzeko eraginak dituzte harrera-gizartean, eta bertan behera uzten dute immigrazioaren legezko erregularizatorako politikak abian jartzeko edozein saiakera”. Ideia hori egia izango balitz, baztertu egin beharko liriteke erregularizazio guztiak, edozein izanda ere lekua edo garaia.

Dagoeneko aski frogatuta dago etorkin gehienak Espainian turista gisa sartu eta urtetan legez kanpo bizitzen direla. Errealitate horren ondorioz, erregularizazio-prozesuak abiarazi dira behin eta berriz. EBko testuinguruan, Espainiak oso esperientzia laburra du immigrazio-herrialde gisa; hala ere, Espainia da dokumenturik gabeko immigrazioari eta erregularizazio-prozesuen askotariko eraginei buruz irakasten handienak ema ditzakeen herrialdea ELGAN. Izan ere, atzerritarrek legez-tatzeko “ohiz kanpoko” sei prozesu masibori buruzko datu ofizialak ditugu (kontingenteak edo operazio txikiagoak kontuan hartu gabe), gutxienez, eta hori guztia hogeitau urtetan gertatu da gainera. Bi hamarkada horietako immigrazio-politika eskasa izan da, alderdi negatiboak (dokumenturik gabeko immigrazioaren gorakada) etengabekoak izan direlako eta salbuespenezko egoerak (amnistia edo erregularizazioa) ohitura edo ia beharra bihurtu direlako.

Gizarte-laguntzei, prozedurei eta sarbideei buruzko datu horiek poliziaren erregistroetan bildu dira, baita erregularizazio-prozesuekin batera egindako hainbat galdeketa ere. 1991ko, 1996ko eta 2000ko hiru galdeketa izango dira ondorengo ideien oinarria. Zalantzarik gabe, legez-tatze-neurri guztiei izen desberdina eman zaie, garaian garaiko gobernuaren arabera. Ezin dezakegu ukatu neurri horiek badituztela antzeko ezaugarri batzuk. Hala ere, ez da onargarria ERREGULARIZAZIO guztiak legez-tatutako etorkinen bizitzan ondorio berberak dituztela esatea. Halaber, ez da egokia erregularizazio bakoitzak gizartean eragin berdintsua izan duela pentsatzea. Gizartearekiko ondorioek legez-tatutako etorkinen kopuruarekin eta kontzentrazio geografikoarekin zerikusia badute ere, legez-tatutako horien osaketa sozio-kulturalak are eta eragin handiagoa izango du, zalantzarik gabe.

Edonola ere, Espainiako gizartearen unean uneko egoera ekonomikoa eta politikoa eta horren gizarte-kohesioa dira faktorerik erabakigarrienak.

Agerikoa da Espainiako gizarteak erregularizazio bakoitzaren emaitzak modu desberdinetan bizi izan dituela unean uneko koiuntura ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren arabera. Nahikoa da egindako galdeketak aztertzearekin horretaz ohartzeko. Barruko koiuntura islatzeaz gain, hurbileneko europar herrialdeetako giroa ere islatzen zuen espainiarren gogoak. Beraz, ez da batere zaila barruko nahiz kanpoko egoera ekonomikoak eta politikoak duen eragin handia frogatzea, bai legeztatutako etorkinen kopuruan, bai horien gizarte-profilean eta jatorrian, baita kokatze- edo berremigratze-planetan ere. Horrela erraza da ulertzea azken lau urteotan Latinoamerikatik Espainiarantz izandako etorkin-fluxu batzuen gorakada. Bultzada hori –bat-batekoa, kasu batzuetan– AEBetako mugetan iragarritako eta gauzatutako zainketa zorrotzaren ustekabeko ondorioetako bat izan da.

Hala ere, nabaritasun enpirikoak hauteskunde-liskarrekin eta xenofobiaren areagotzearekin kutsatu dira. Ondorioz, etorkinen aurkakoak baina eskubiderik gabeko langileen aldekoak diren ideologikoen ordezkatu egin dituzte gertakari frogatuak. Labur esateko eta Espainian bultzatutako 2005eko azken NORMALIZAZIORA mugatzeko, honako hau adieraz dezakegu: Europako zenbait herrialdek erregularizazioa zikintzeko plazaratu zituzten abisuak eta presioak ez zirela iturri fidagarrietan oinarritzen, egokitasun politikoetan baizik, analisi zorrotza aurreiritziekin ordezkatuz. Alde horretatik, hemen dauden etorkinak legeztatze politikari buruz hitz egiteko orduan, ulertzekoa da zenbaitek immigrazio iraunkorarekin eta langileak biltzearekin ia zerikusirik ez duten gertakariak –terrorismoa edo indarkeria etniko-erlijiosoa– mahai-gaineratzeko agertzen duten interesa.

Espainiako ziklo ekonomikoa eta politikoa ez dator bat beti gure inguruko beste herrialde batzuenekin. Segurtasunik ezaren sentazioa ere desberdina da Espainian eta beste herrialde batzuetan. Horrela, Espainiaren kasuan, erregularizazioak hazkunde ekonomikoarekin batera etortzen dira (1986, 1991, 1996, 2000, 2001 eta 2005); alabaina, immigrazioari eta egoera ekonomikoari buruzko iritziak ez ziren berdinak data horietan guztietan. Hori dela-eta, erregularizazio-baldintzak aldatu egin dira koiuntura batetik bestera eta, horiekin batera, egoera horien ondorioak gehien bizitzen dituzten etorkinen motibazioak, ibilbideak eta jatorriak ere bai. Hori guztia esanda, une egokia da honako hau gogorarazteko: luzaroko irregulartasunak bi modutara eragiten duela etorkinen bizitzan: mugikortasunean eta familian, hain zuzen. Horixe zen bukatzeaz dagoen dokumentu honen laugarren arrazoa.

Azkenean, politika murriztaileek eta horiei buruz hautesleen barruko kontsumorako egindako publizitateak eragin handia dute bertakoen jokabideetan eta dokumenturik gabeko portaeran. Etorkinek aldatu egiten dute jaioterria joateko modua eta maiztasuna eta lotuago geratzen dira helmuga-herrialdean. Horrez gain, jaioterrian gertatutako aldaketen aztarna galdu egiten dute eta, horrekin batera, murriz-

tu egiten da bertara itzultzeko proiektua. “Irregularitasun hertsia” hori luzatzen doan heinean, gero eta txikiagoak dira une egokia heltzean jaioterrira itzultzeko aukerak. Izan ere, luzaroko irregularitasunaren ondorio nagusia migrazio-proiektuaren aldaketa da. Jaioterrira itzuli beharrean, etorkinak helmuga-herrialdean geratzen dira eta lehentasun berria familia bertara ekartzea da.

Errotazioak eta joan-etorriak murriztu egiten dira eta sasoiaren arabera leku batean edo bestean bizitzen zirenak helmuga-herrialdean geratzen dira. Halaber, lan desberdinak uztartzea eta batean eta bestean ikasitakoa aplikatuz gizarte-mugikortasuna bilatzea gero eta zailagoa da etorkinentzat. Mugetako kontrolak zorrotzen doazen neurrian, gehiago galduko dira nazioarteko mugimendu horiek. Espainiaren kasuan, egoera horrek gehiago eragiten die marokoarrei eta afrikarrei errumaniarrek eta Ekialdeko Europako etorkinei baino. Marokoarrek eta afrikarrek Kanpo Zaintzarako Sistema Integratuarekin (SIVE), Gibraltarreko Itsasarteko uretan patruilatzen duten itsasontziekin edo Ceutako eta Melillako arba metalikoekin egiten dute topo; euro-par etorkinek, berriz, autobus-txartel batekin zeharkatzen dute Europa.

Alabaina, nazioarteko mugikortasunaren beherakada hori Espainiako barrualdean ere nabaritzen da. Nekazaritza-lanetan jarduten duten gizonezkoak ezkutuan bizi dira hirigunetik kanpo dauden etxeetan eta emakumeak etxeetan gordetzen dira barneko neskame gisa. Ez dira herrialdetik ateratzen senitartekoak ikusteko. Murriztu egiten dituzte kanporako irtenaldiak. Gutxiago bidaiatzen dute Espainiatik kanpo. Horrenbestez, etorkin horiek galdu egiten dute baliabiderik baliotsuena: balio handiko ondasuna, inondik ere, pertsonen lekualdatzea globalizatzerara ausartzen ez den mundu honetan. Eta mugikortasun geografikoaren murrizketak lanbide-aukeren murrizketa dakar berekin. Beste sektoretan edo adarretan lana aurkitzeko pausoak ere gutxitu egiten dira. Horrenbestez, etorkinek lan-baldintza eskasagoak onartu behar dituzte, baita derrigorrezko langabezia-aldiak eta lanaldi amai-gabeak ere. Mugikortasunik gabeko etorkinak porrot egiten du.

Bigarren ondorioak mugimendu-askatasun horren galderarekin du zerikusia. Izan ere, dokumenturik gabeko etorkinak gero eta gehiago ixten dira eta gutxiago ikusten dituzte senitartekoak. Sarritan, denbora eta sufrimendu luzeak behar izaten dituzte familia berriz elkartzeko. Familiek denbora gehiago igarotzen dute banandurik. Eta, batzuetan, familia bereko hainbat kidek igarotzen dituzte hainbat urte dokumenturik gabe. Gero eta ohikoagoa da familia osoen “ezkutuko” immigrazioa. Bizileku-baimenik ezak eragiten duen isolamenduak ondorio nagusi bat dakar berekin: familia berriz elkartzeko baimena eta bidea erabiltzeko ezintasuna. Etorkinen gabezia afektibo nagusia familia urrun izatea da.

Etorkinei gehien falta zaienari buruz galdetzen zaienean, familia da erantzunik ohikoena, hizkuntzaren, erlijioaren eta jaioterriko janariaren aurretik. Galdetutako etorkinen %80k asko nabaritzen du senitartekoen hutsunea. Familiagandik oso urrun geratzen bada ere, auzoko adiskideen falta ere aipatzen dute etorkinek

(%45). Jaiotteriko jaiak eta ohiturak ere leku garrantzitsua dute (%37). Aitzitik, etorkinen %13k soilik sumatzen dute bere ama-hizkuntzan mintzatzen entzutearen falta; %23ak berriz, erlijioa praktikatzeko falta aipatzen dute eta herenak, berriz, beren herrialdeko jana. Maitasuna ematen duten pertsonen hutsunea asko nabaritzen da. Kultur erreferentzien falta ere aipatzekoa da, nahiz eta familiakoarena baino askoz ere txikiagoa izan.

Horrez gain, kanporatuak izateko arriskua etorkinak lanean eta auzoan baztertzeko tresna gisa erabiltzen da. Izan ere, etorkin horiek kexatzen dira gehien kaleetan, tabernetan edo etxeak alokatzeko orduan bizi duten bazterketari dagokionez eta lantokian gaizki tratatzen dituztela adierazten dute sarritan. Erregularizazioa eskatzen duten etorkinen %12 eraso arrazisten biktima izan dira. Horra hor legez kanpo bizi diren etorkinek egunero bizi behar dituzten ondorio penagarri batzuk.

### **Halakorik nahi ez badugu ere, goerak bere horretan jarraituko du**

Hementxe utziko dugu, oraingoz, Espainian legez kanpo bizi diren etorkinen bila-kaerari, hedapenari eta horiek bizitzen dituzten ondorioei buruzko hausnarketa. Hasieran adierazi ditugu beste zenbait arrazoi ere, eta aurrerago helduko diegu horiei.

### **Aipatutako bibliografia**

Arango J. "Los dilemas de las políticas de inmigración en Europa" Cuenta y Razón aldizkaria. 1992ko azaroa-abendua. 46.-54. or.

Godenau, D eta Zapata V, (Koord.) La inmigración irregular. Una aproximación multidisciplinar. Ed.: Tenerife Uharteko Kabildoa, Garapen Ekonomikoko Saila, 2005eko azaroa.

Izquierdo A, "La inmigración ilegal en España" Economía y Sociología del Trabajo aldizkariko 11. alean argitaratua, 1991ko martxoan 18.-39. or.

Izquierdo A, "La política hacia dentro o el sistema de inmigración irregular en España" Saskia Sassenen ¿Perdiendo el Control? liburuen epilogo. Bellaterra Ed., Bartzelona, 2001.

Izquierdo A, "El Greco suspende un parcial. Balance de la inmigración en España 2000-2003" V. Navaroren (Koord.) El Estado de Bienestar liburuan. Tecnos Ed., Madril, 2004 121.-161. or.

Rubio R, "El reto democrático de la inmigración ilegal (a la luz del debate actual en España)" Anales de la cátedra Francisco Suárez aldizkariko 36. alean argitaratua. Granadako Unibertsitatea, 2002. 173.-197. or.

Izquierdo A, "Encuesta de Regularización 2000". Azken Txostena. Barne Ministerioa. Madril, 2001.

O.E.C.D "Trends in International Migration". Annual Report. SOPEMI- 1.999, 2002 and 2004.

O.E.C.D (2000) "Combating the illegal Employment of Foreign Workers".

Report of the Binational Study on Migration. Migration between México & the United States Bi naziotako azterketa, USA- Mexiko. 1997



## **Pertsonen salerosketa kontzeptua eta migrazio-agendan duen lekua: Andeetako herrialdeen kasua**

Dolores Cortés Toro

2005eko maiatzean aurkeztutako bortxazko lanari buruzko LANEren txostenak<sup>i</sup> dioenez, munduan 2,4 milioi pertsona salerosketen biktima dira. GKE-ek<sup>ii</sup> ere berretsi zuten datu hori, antzeko kopurua eman baitzuten –bi milioi–. Nazio Batuen Biztanleria Fondoa (UNFPA) haratago doa, kopurua lau milioiraino irits litekeela baitio<sup>iii</sup>. AEBetako Estatu Departamentuak aurkeztutako adierazleak<sup>iv</sup> kontserbadoreagoak dira: urtero 600.000 eta 800.000 pertsona artean erortzen dira nazioarteko pertsona-salerosketaren sareetan. Bestalde, Europar Batasunak dio urtero 200.000 eta 500.000 emakume artean ekartzen dituztela Mendebaldeko Europara, esplotatzeko; gainera, atxikita egoten dira eta gogoz kontra lan egitera behartzen dituzte, prostituzioan batik bat.

Aurreko kopuru horiek handiak dira, eta hala dira salerosketa-negozioaren bolumenari buruzkoak ere. Pertsonen komertzioa da dirua legez kontra irabazteko modurik onenetakoa, armen eta drogen trafikoa ere batera. Pertsonen salerosketak 8 eta 10 mila milioi dolar artean mugitzen ditu urtero, Drogen eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Erakundearen –ONUDD– arabera<sup>v</sup>.

Dena den, estatistikak arretaz aztertu behar dira beti. Pertsonen salerosketari buruzko kopurua jakitea zaila da. Izan ere, fenomeno kriminala da, salaketa gutxi

---

<sup>i</sup> OIT, Una Alianza global contre el trabajo forzado, 2005eko maiatza.

<sup>ii</sup> Oneworld.net, Perspectives. Bringing the World Home: Human Trafficking, Issue 1, 2005eko apirila.

<sup>iii</sup> <http://www.unfpa.org/gender/trafficking.htm>, Trafficking in Human Misery, UNFPA: United Nations Population Fund.

<sup>iv</sup> Trafficking in Persons Report, 2004ko ekaina.

<sup>v</sup> OEAKo aditu den Laura Lanberg-en aurkezpena. Emakumeen, Nerabeen eta Haurren Salerosketari buruzko mintegia. Bolivia 2005eko uztaila.

egoten dira eta ez dago neurtzeko mekanismo sistematizaturik. Gainera, azterketa kualitatiboak –baina azterketa kuantitatiborik ez– egin dituzten eskualde edo herrialde gehienetan ez dago datu espezifikorik. Hala ere, fenomeno aztertzeko ardura gero eta handiagoa da, eta ekintzak antolatzen dira lesa humanitateko delitu horri aurre egiteko. Nahikoa denbora-tarte laburrean, kontzeptua sostengatzen eta arautzen duen araudia, **Pertsonen salerosketa –emakumezkoena eta haurrena, batik bat– prebenitzeko, erreprimitzeko eta zigortzeko protokoloa**, alegia, 2000. urtean promulgatu zutenetik, pertsonen salerosketa migrazio-agenda nazionaletan eta nazioartekoetan agertzen hasi da, bai eta herrialdeen migrazio-politiken kudeaketan bertan ere.

Lorpen handiak egin dira arazoa ulertzeari dagokionez, eta bide luzea egin da salerosketa kontzeptua zer den bateratzeko, zer-nola adierazten den eta nola bereiz daitekeen antzeko delitu-tipoetatik –proxenetismoa eta bahiketa, besteak beste–. Nazioarteko protokolo batetik sortutako kontzeptuak oso konplexuak dira; horren adierazle ditugu protokoloa osatzen duten aldagai ugariak eta protokoloaren definizioaren interpretazioak onartutako delitu-egoera tipifikagarrien aniztasuna. Protokolo horri Palermoko Protokoloa ere deitzen zaio, Italiako hiri horretan izenpetu baitzuten.

**Pertsonen salerosketa –emakumezkoena eta haurrena batik bat– prebenitzeko, erreprimitzeko eta zigortzeko protokoloan** salerosketaz ematen den definizioa, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren osagarri:

- a) *“Pertsonen salerosketatzat” hartuko da pertsonak erakartzea, bate-tik bestera eramatea, jasotzea edo hartzea, mehatxuen bidez, indarra edo behartzeko beste modu batzuk erabiliz, bahiketaren, iruzurraren edo gezurraren bidez, nagusikeriaren bidez edo ahultasun-egoera batez baliatuz, edo ordainketak eginez edo irabaziak jaso, pertsona batengan aginpidea duen pertsonaren baimena lortzeko eta, hartara, esplotatu ahal izateko. Esplotazioak barne hartuko ditu, gutxienez, besteren prostituzioa edo bestelako sexu-esplotazioak, bortxazko lanak edo zerbitzuak, esklabotza edo antzeko jarduerak, morrontza eta organo-ateratzeak.*

Definizioa behin irakurritz gero, pertsonen salerosketari buruzko ideia orokor bat izango dugu. Ondoren, arretaz eta poliki-poliki irakurritz gero, kontzeptua konplexua dela konturatuko gara, eta alderdi asko barne hartzen dituela. Dokumentu honen helburua Protokoloak pertsonen salerosketari buruz emandako definizioa diseinatzeko da, oinarritzko elementuak ateraz, errazago ulertzeko. Lortu nahi den beste helburu bat salerosketaren auzia nazioarteko agendan kokatzea da, eta migrazio-politikak egitean horrek duen garrantzia aintzat hartzea. Azkenik, labur-labur berrikusiko da Andeetako herrialdeetako pertsona-salerosketaren auzia.

## Zer da pertsonen salerosketa?

Jarraian, salerosketa-kasuen bost testigantza ageri dira. Horietako bakoitzean, elementu bereizgarriak ateratzeko buru-ariketa egitea eskatzen zaio irakurleari, kontzeptua hobeto barneratzeko. Kasuak hautatzean, salerosketa-modurik ezagunenaz gain –emakumezkoen sexu-esplotazio komertziala–, Palermoko Protokoloaren araberako tipifika daitezkeen beste zenbait kategoria ere aintzat hartu dira.

### *Testigantzak<sup>vi</sup>*

#### *Honela erori nintzen prostituzio-sare batean*

*“Espainiara etorri nintzen, seme bat dudalako eta dirua behar nuelako hura hazteko. Banekien bazegoela paperak prestatzen zituen jendea, nire lehengusinari prestatu zizkioten-eta. Lehen mailako hotel batean lan egiten zuela esan zidan, eta eskupeko asko jasotzen zituela. Iritsitako gau berean konturatu nintzen gezurra zela; beste birekin batera bizi zen eta gizonezkoak igotzen ziren. Pasaporteak kendu zidaten eta gezur handiaren munduan sartu nintzela konturatu nintzen. Orduz geroztik, oso egia gutxi entzun ditut; iraindu egiten zaituzte, zutaz barre egiten dute. Irteten ahalegindu naiz, baina honek ez du irtenbiderik; batzuetan uste dut hau amesgaizto bat besterik ez dela. Egin nahi ez ditudan gauzak egitera behartuta nago”.*

#### *Tulita eta etxeko lanak*

*“Tulita dut izena eta mendian bizi naiz gurasoekin. Hirian lan egiteko aukera dudala entzun dut, eta, horrela, nire familiari laguntzeko aukera izango dut. Izeba bat hirian bizi da, eta zin egin zion amari lana lortuko zuela niretzat, neskame. Leku ederra izango da, hemen baino gauza gehiago izango ditut eta etorkizuna izan dezaket. Hirira noa. Izebaren bila nabil, jasoko ninduela agindu zuen. Hau izugarria da, jendea batetik bestera dabil presaka. Izebak alde egin zuenean, nire logela erakutsi zidaten; estua eta iluna zen. Janari gutxi ematen didate; ia beti, sobera geratzen dena. Gose naiz. Edozergatik garrasi egiten didate eta egun osoa garbitzen, txukuntzen, besteek utzitakoa jasotzen eta sukaldean lanean ematen dut. Nekatuta nago eta bart jauna mozkortuta iritsi zen, nire logelan sartu eta ni ukitzen hasi zen; ezin nintzen mugitu, gizon horrek pisu handia baitu. Izebari dei egin nahi diot, nire familiak ez daki ezer gertatzen ari zaidanari buruz. Nork lagun diezadake?”*

#### *Ulises eta kotoi-saila*

*“2001. urtearen hasieran, Pueblo Cañako bi agentek Ulises aurkitu zuten, 25 urtekoa, Monte Arroyo finkako –mila hektarea baino gehiagoko laborantza-*

<sup>vi</sup> Lekukotasun horiek Limako (Peru) Movimiento El Pozo GKEaren dokumentazio-zentrotik lortu dira. Dokumentazio-zentro hori salerosketa-gaietan espezializatuta dago.

*saila, kotoia landatzen espezializatua– kamioietako baten xasisaren azpian. Beldur zen eta finkara itzuliz gero hura eta ama zaharra akabatuko zituztela zioen. Belaunaldiz belaunaldi, ondasun handi horren oinordekoek baldintza negargarritan izan zituzten 30 familia eta haien ondorengoak, ezohizko 150 langile immigranterekin batera.*

*Ulises bortxaketa baten ondorioz jaio zen, eta txiki-txikitik ohitu zen modu horretan bizitzera. Neska mulato eder batez maitemindu eta harengana hurbiltzea debekatu ziotenean konturatu zen zer egoeratan bizi zen. Zigorrak, elikagaiak eta ura kontrolatzea, lanean ordu gehiegi ematea eta sexu-harremanak debekatzea egoera normalak ez zirela ulertu zuen.”*

### **Juanchito eta armak**

*“ Juanchito dut izena eta finka batean bizi naiz, gurasoekin eta bi anai-arrebarekin. Denbora dudanean beste umeekin jolastera joaten naiz. Egun batean, kautxuzko botak, armak eta gerrikoan bala asko zituzten gizon batzuk iritsi ziren. Handiena niregana hurbildu eta armak gustuko nituen galdetu zidan. Defendatzeko zirela esan zidan eta haiekin eramango nindutela; berea bezalako arma bat emango zidatela, bai eta uniformeak eta kautxuzko botak ere. Gainera, ni haiekin nengoen artean gurasoei dirua emango zietela agindu zidaten. Gurasoak, anai-arrebak eta lagunak utzi nituen. Hasieran, gerran jolastea bezala izan zen, baina gero, oinetako mina nuen eta kautxuzko botak zirela-eta babak atera zitzaizkidan. Gaur zutik lo egiteko esan didate, zuhaitz baten aurka. Gose naiz, ez dut ezer jan egun osoan. Zenbait haur atera ginen herritik eta ni bakarrik geratzen naiz; batzuk gaixotu egin ziren eta gainerakoak borrokan zauritu zituzten. Beldur naiz, ez nuen hauekin etorri behar.”*

### **Poncho argiketaria**

*“Bost urtean argiketari-lanetan aritu ondoren, Poncho, la Bolina kokalekukoa, kaleratu egin zuten, beste 200 langilerekin batera, inolako kalte-ordainik gabe. Ponchok mailegu-emaile batengana jo zuen. Hark kontaktu bat zuela ziurtatu zion eta kontaktuaren bidez ordenagailuen piezak egiten zituen enpresa eza-gun batean lanean hasiko zela, argiketari aditu, zona frankoan. Ostataua eta elikagaiak ere eskaini zizkioten. Negozioa erraza zen: bidaia eta hegazkin-txartelaren ordaina soldatetik kenduko zioten. Esan ez ziotena zen 12 orduz egingo zuela lan, lau orduz baino ez zuela lo egingo, egunean behin jango zuela, ateratzerik ez zuela izango eta familiarekin harremanetan jartzeko aukerarik ere ez zuela izango. Ez zioten azaldu zorra kitatzeko “paseak” emango zizkiotela, egindako ordenagailu-piezen arabera. Ez eta indarkeriaz tratatuko zutenik ere, haien helburuak lortzeko.”*

## **Chucho eta hiria**

*“Nazkatuta nago gurasoak borrokan ikusteaz... esan nion nire lagun Pablori. Etxetik alde egin behar genuela esan zidan. Pablok bazuen dirua aurreztuta, hirirako autobusa hartzeko. Hurrengo goizean autobusa hartu genuen eta akabo dirua. Autobus-terminalean jende pila bat zebilen batetik bestera, zakuak eta maletak hartuta, eta nire ondotik pasatu eta nirekin estropezu eta guzti egiten zuten, fardel bat banintz bezala. Aurreko gauetik ez nuen ezer jan, gose nintzen. Autobus-terminaletik ateratzean, gizon bat hurbildu zitzaidan eta galduta al nenbilen galdetu zidan. Jateko zerbaite emango zidala eta lotarako lekua bilatuko zidala agindu zidan, bai eta elkarrekin lan egiteko aukerarik bazegoela ere. Arrantxo batera iritsi ginen, eta zenbait ume zeuden lurrean lotan. Bertan geratzeko esan zidan. Gose nintzela esan nionean, substantzia hori bat zuen botila bat eman zidan:*


*“usaindu, gosea kenduko dizu...”. Gizonak alde egin zuenean, bultzatu eta joateko esan zidaten, dagoeneko asko zirela-eta. Antoniok goizaldera esnatu eta gaizto-aurpegia zuen gizon lodi batengana eraman gintuen. Lodiak dirua eman zion eta billeteak kontatuz alde egin zuen. Lodiak azoketan banaketa-lanak egiteko moduko ibilgailu batean sartu gintuen. Kale batean utzi gintuen, semaforo baten ondoan, eta hau esan zuen: “Gosez akabatutakoen moduko aurpegia jarri, aberats okitu horiek hunkitzeko; horrela, dirua botako dizuete”. Autoetako leihatilak jaitsi eta txanpon bat edo beste ematen digute. Baina lodia adi dago eta guztia kentzen digu. Ogi-zati bat baino ez dit eman. Nori eskatuko diot laguntza?”*

## **Pertsonen salerosketa definitzen duten oinarrizko elementuak**


Testigantzak irakurri ondoren, zenbait hitz datozkigu burura: iruzurra, indarkeria, dirua, migrazioa eta beste batzuk. Izan ere, horiek guztiak ageri dira biktimen adierazpenetan, eta aipagarriak dira. Dena den, identifikatzeko mekanismo egokiak izateko –kasu jakin bat salerosketa-kasua den jakiteko–, oinarrizko hiru elementu atera dira.

Beheko koadroan ageri diren elementuak, absolutuak ez izan arren, salerosketa-kasuetan hauteman daitezkeen oinarrizko hiru egoerak direla eta egoera horiek kasuak bereizteko balio dutela adierazi dute adituek<sup>vii</sup>; hauek dira: lekualdatzea, askatasun-gabetzea eta esplotazioa.

<sup>vii</sup> Monica Peruffo-ren aurkezpena, “Colaboración entre la Misión de Colombia de la Organización Internacional para las Migraciones y el Gobierno de Colombia en el Programa de Prevención, Asistencia y Reintegración para Víctimas de la Trata de Personas”. Pertsonen salerosketari eta migratzaileen legez kanpoko trafikoari aurre egiteko gaikuntzari buruzko mintegia, 2005eko urtarrilaren 27-28, Caracas, Venezuela.



Hurrengo koadroaren bidez, oinarrizko elementuak Palermoko protokoloko definizioan azaldutako terminoekin lotu nahi dira. Lekualdatzea arrosa-kolorez adieraziko dugu, eta protokoloan horrekin lotutako aldagaiak arrosaz azpimarratuko ditugu. Bigarren elementuaren, askatasun-gabetzearen, laukitxoan laranja-kolorekoa da, eta protokoloan horrekin lotutako elementuak obalo laranja baten barruan ageri dira. Hirugarren elementuak, esplotazioak, kolore grisa du, eta horrekin lotutako egoerak kolore bereko kaxetan ageri dira. Azkenik, mutur batetik sortu eta aldagai polemikoetara begira dauden lerro berdeak marraztu dira. Izan ere, hasieran biktima asko prest egoten dira lekualdatuak izateko.



Salerosketak biktimaren lekualdatzea barne hartzen du. Protokoloan “erakartzea, batetik bestera eramatea, harrera egitea edo hartzea” adierazten da, baina ez da esaten delitu izateko mugak zeharkatu behar diren edo distantzia bat egin behar den. Bestalde, indarra edo mehatxuak erabiltzea ere barne hartzen du, biktima derrigortzeko eta askatasuna ukatzeko, “mehatxuen bidez, indarra edo behartzeko beste modu batzuk erabiliz, bahiketaren bidez”. Oinarritzko hirugarren elementua “besteren prostituzioa edo bestelako sexu-esplotazioak, bortxazko lanak edo zerbitzuak” dioen zatian ageri da; hitzez hitz aipatzen dira “esklabotza edo antzeko jarduerak” eta “morrontza”. Protokoloko definizioaren azken zatian organo-ateratzea aipatzen da, nolabaiteko harridura eragiten duen delitua, zaila baita praktika hori interpretatzea deskribatutako hiru aldagaien baitan. Agian, organo-ateratzearen auzia aipatzeko arrazoia izan daiteke zenbait kasutan biktima erakarri, lekualdatu eta gatibu edukitzen dela, haren organoak salduz esplotatzeko.

Adierazi den moduan, iruzurra, gezurra eta nagusikeria seinalatzen dituzten gezi berdeek zenbait egoera agertzen dituzte; egoera horiek kasuak identifikatzean eztabaida eta zalantza gehien eragiten dituen auzi batera garamatzate, biktimaren borondatearen edo haren baiezkorearen auzira, hain zuzen ere. Alderdi hori protokoloaren definizio b) atalean ageri da.

Protokoloaren helburuetarako (3. artikulua)

**Salerosketaren definizioa**

b) *Artikulu honetako a) atalean deskribatutako nahitako ustiapen-mota guztiei biktimak baiezkoa eman izana ez da aintzat hartuko, atal horretan adierazitako edozein baliabide erabili bada;*

Sarritan, zenbait biktimak beren borondatez onartzen dute lekualdatzea, lanpostuaren eskaintzak erakarrita. Gainera, kasu askotan, sexualki esplotatuak izateko salerosketaren biktima diren emakumezko batzuek badakite edo susmatzen dute prostituzioarekin lotutako jardueretan arituko direla. Hala ere, iristen direnean, benetako baldintzen eta adostutakoen artean alde handia dagoela konturatzen dira. Dokumentuak kentzen dizkiete (nortasun-agiria, pasaporte, visa), gatibualdia ezartzen zaie eta nahi ez duten lana egitera behartu.

Protokoloak ezartzen du biktimaren hasierako baiezkoa baliorik gabe uzten dela, biktima bortxatu, mehatxatu edo esplotatu egiten badute.

Beste atal batzuk –c) eta d), protokoloaren argigarriak– haurrei eta 18 urtetik beherrako nerabeei buruzkoak. Kasu honetan, baiezkorearen alderdia alde batera uzten da, bai eta lekualdatzearen figura ere.

Protokoloaren helburuetarako (3. artikulua)

**Salerosketaren definizioa**

- c) *Haur bat esplotatzeko erakartzea, batetik bestera eramatea, jasotzea edo hartzea “personen salerosketatzat” joko da, bai eta artikulu honetako a) atalean adierazitako bitartekoak erabiltzen ez badira ere;*
- d) *“Haurtzat” 18 urtetik beherako pertsona guztiak hartuko dira.*

**Salerosketa-moduak edo -kategoriak**

Adierazi den moduan, salerosketa-modurik ezagunenean biktima bere borondatearen aurka derrigortzen dute sexu-lanak egitera; hori da, hain zuzen ere, besteren prostituzioaren esplotazioa. “Emakumezkoen salerosketa” deitzen zaio, baina adiera hori okerra eta gaur egun ez da erabiltzen.

Prostituzioaren esplotazioa genero-esplotazioarekin lotuta dago, ia biktima guztiak emakumezkoak baitira. Dena den, gizonezkoak ere izan daitezke, eta, azken finean, ez da salerosketa-moduen beste adierazpen bat baino. Palermoko Protokoloaren definizioaren arabera, salerosketa-kasuak egon daitezke sexu-esplotazioaren beste kategoria batzuetan: derrigortutako lanetan eta etxeko lanetan, esate baterako. Gainera, protokoloan esklabotza, morrontza eta organo-trafikoak ere ageri dira.

Ez da esaten sektore bateko egoera guztiak salerosketa-kasuak direnik, baizik eta salerosketa-sektorean gerta daitekeela, zenbait kasutan. Adibide bat sexu-turismoarena da; sexu-turismo guztia ez da salerosketa, baina salerosketa sexu-turismoko egoeretan gerta daiteke, biktimak atxiki eta beren borondatearen aurka sexu-jardueran ari izatera behartzen dituztenean. Gauza bera gertatzen da koadroan ageri diren beste sektore hauetan ere<sup>viii</sup>:

<sup>viii</sup> Kolonbiako Migrazioen Nazioarteko Erakundeak talde-lanean egindako sailkapena, Fanny Polania-k bere aurkezpen honetan aurkeztua: “La Trata de Personas: Un fenómeno antiguo que cobra visos de actualidad”, Liman, 2004ko abuztuaren pertsonaren salerosketaren aurka egindako mintegian.



Salerosketa-mekanismoak, -motak edo -moduak	Sektoreak
Sexu-esplotaziorako salerosketa	Pornografia Pedofilia Sexu-turismoa Mirabe-ekontza
Lan-esplotaziorako salerosketa	Lantegiak Adreilu-fabrikak Minak Nekazaritza-lanak, landaketak, Itsaspeko arrantza, itsas zabalekoa
Esplotazio militarreko salerosketa	Soldadu gatibuak Haur soldaduak
Morrontzarako esplotazioa	Eskekotasuna Erljio- eta kultura-jardukizunak
Esklabotza-jarduerak	Etxe lanak Behartutako haurdunaldiak Alokairuzko sabelak
Esklabotza klasikoa	Pertsona baten estatusa edo egoera; pertsona horrengan jabetza-eskubidearen botere guztiak edo batzuk erabiltzen dira

Ikus daiteke behartutako prostituzioaren koadroa sexu-esplotaziorako salerosketa-mota bat baino ez dela. Hona hemen beste mota batzuetako sexu-esplotazioak: pornografia, pedofilia, sexu-turismoa eta mirabe-ekontzak. Badirudi jarduera horiek areagotzen ari direla, herrialde behartsuetan batik bat, eta neurri handi batean globalizazioaren baldintzengatik ari da zabaltzen; esate baterako, garraioak merkatzea eta telekomunikazioak zabaltzea, Internet bereziki.

Beste salerosketa-modu batzuk lan-esplotazioarekin daude lotuta. Produkzio-kateetan, esklabotzan edo erdiesklabotzan lan egitera bultzatutako edo behartutako pertsonen kasua; esate baterako, Poncho argiketariarena. Leku batetik bestera eramaten dituzte, dokumentuak atxikitzen dizkiete, ordu gehiegi ematen dituzte lanean, pilatuta edukitzen dituzte, gaizki elikatuta eta etekinik lortu gabe lan egitera behartuta egoten dira, egindako zorra kitatzeko, askotan. Gainera, azpimarratu beharra dago, Ponchoren kasuan bezala, ordainketa “jenerotan” egin daitekeela dirutan egin ordez. Ponchori ordenagailu-piezak ematen zizkieten soldatatzat.

Zenbait morrontza-moduren atzean, eskekotasuna barne, salerosketa-moduak ezkuta daitezke. Hori gertatzen da, hain zuzen ere, biktima eskean ibiltzera behartzen dutenean, hirugarren baten mesederako. Chuchoren testigantza kasu horri buruzkoa da, esate baterako. Haur bat hirira iritsi zen etxea utzi ondoren, eta berehala bereganatu zuten autobus-geltokian, eskean ibiltzera behartzeko. Testigantzan krudeltasunez adierazten den moduan, salerosketak gizabanakoaren oinarrizko eskubideak zapaltzea dakar; besteak beste, arriskuen, presio psikologikoen eta sozialen eraginpean dauden pertsonen osasunari erasotzen zaio. Chuchoren kasuan bezala, haurra droga-mendetasunean erortzera bultzatu daiteke.

Protokoloaren arabera ezar daitekeen beste egoera-multzo bat esklabotza-jarduerena da; horien artean, etxeko lanen esplotazioa azpimarra daiteke. Tullitaren kontakizuna egoera horrekin lotzeko modukoa da. Etxeko lanak egitera joandako emakumea atxiki egin zuten, preso hartu, giltzaperatu, ateratzeko edo etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko askatasunik gabe utzi, eta ordainik gabe. Ohikoa da, testigantzan ageri den moduan, “enplegatzaileek” emakume horiei sexu-abusuak eragitea.

Azkenik, eta Palermoko Protokoloari jarraituz, behartutako haurdunaldiak, alokairuzko sabelak eta legez kontrako adopzioak ageri dira, salerosketaren adierazpen-tzat. Organoen trafikoa esplizituki aipatzen da, Krimen Antolatu Transnazionalaren Konbentzioaren osagarri den pertsonen salerosketaren protokoloan.

Salerosketa-moduak asko direnez, badirudi kategoriak planetaren leku jakin batzuetan gerta daitezkeela eta beste batzuetan ez. Andeetako herrialdeetan, barruko eta nazioarteko salerosketa-moduak edo -modalitateak ageri dira, sexu-esplotazioarekin, minetako eta nekazaritzako bortxazko lanarekin, morrontzarekin eta eskekotasunarekin lotuta. Ustiapen militarerako salerosketa –Juanchitoren testigantza, esate baterako– ere gertatzen da Andeetako eskualdean, bereziki gerrillarien mugimenduak dauden herrialdeetan. Leku horietan, pertsonak behartuta erreklutatzen dituzte; askotan, haurrak eta nerabeak. Dena den, dokumentuaren hasieran adierazi zen moduan, herrialdeetako estatistikarik eta kalkulurik ez dagoenez, ezin da zehaztasunez adierazi jarduera horietako bakoitza zenbaterainokoa den.

Egia da balio handiko diagnostiko kualitatiboak egin direla. Esate baterako, Perun *Trata de Mujeres para Fines de Explotación Sexual Comercial* izenburupean Migrazioen Nazioarteko Erakundeak (OIM) argitaratu berri duena, bertako GKE batek parte hartu duela. Kolonbian ere ebaluazio ugari egin dira; herrialde horretako salerosketa-arazoa oso gogorra da eta ekintza asko implementatu dira, arazoari aurre egiteko. Bolivian egin berri diren azterketak ere aipagarriak dira. Dena dela, literatura horietan guztietan ez da ageri gaiaren gai horri buruzko kopuru-kalkulurik.

Aurrekoa esanda, eta laburbilduz, salerosketa honako hau dela esan dezakegu...

... pertsonak batetik bestera eramatea, lanak egitera behartzeko beste batzuen mesedetan...


- iruzurra eta behartzea barne hartzen du
- esplotazio-egoera bat da eta irabazia dakar.

Esaldi batean laburbildu daiteke:

- pertsonen salerosketa
- pertsonen komertzioa da.

Argazkiak ezin hobeto erakusten du zer den salerosketa. Bi esku daude kontra-  
rrita: saldu behar duten emakumeari heltzen ari den eskua eta emakume horren  
truke eman beharreko billete-sortari eusten dion eskua. Beste modu batean esan-  
da, salerosketa gizakiak saldu eta erostea da.

Ezkerreko testuan ikus daitekeen moduan, “leku batetik bestera eramatea” aipa-  
tzen da. Beraz, salerosketa-kasuetako lekualdatzeak ez dira mugak zeharkatuta  
egiten direnak bakarrik; herrialde baten barruan ere gerta daitezke. Protokoloa ez  
da inoiz herrialdeez ari, eta krimen hori mugak zeharkatzearekin lotzen bada ere  
–seguru asko, Palermoko Protokoloa krimen transnazionalari aurre egiteko kon-  
bentzio baten osagarri gisa sortu zelako–, salerosketatzat hartzeko ez da nahitaez-  
koa beste herrialde batean sartzea. Are gehiago, jatorrizko herrialdeetan egindako  
azterketen arabera, badirudi kasu gehienak barne-salerosketari dagozkiola.



### Pertsonen salerosketari buruzko hitzarmenak

Palermoko Protokoloak eta salerosketaren arazoari ekiteak erreferente argiak ditu  
aurretiko nazioarteko hitzarmenetan. Behean, kategoriarik garrantzitsuenak adiera-  
zi dira, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen  
Konbentzioaren esparru historikoa aurkezteko. Konbentzio horrek Pertsonen  
Salerosketaren Protokoloa eta Migratzaileen Legez Kontrako Trafikoaren  
Protokoloa barne hartzen ditu.

<b>1. Esklabotza</b>	a) Esklabotzari buruzko Konbentzioa, 1926 b) Esklabotzari buruzko Konbentzio Osagarria, 1926 c) Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna (Esklabotzaren debekua)
<b>2. Sexu-esplotazioa</b>	a) Emakumezkoen Salerosketa Zigorrezko Nazioarteko Hitzarmena b) Emakumezkoen eta Haurren Trafikoa Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa, 1921 c) Pertsonen Salerosketa eta Besteren Prostituzioaren Esplotazioa Zigorrezko Nazioarteko Konbentzioa, 1949 d) Adin Txikikoen Nazioarteko Trafikoari buruzko Konbentzio Interamerikarra, 1996
<b>3. Bortxazko lana</b>	a) LANEren 29. hitzarmena, Bortxazko Lanari buruzkoa b) LANEren 105. hitzarmena, Bortxazko Lanak Indargabetzeari buruzkoa, 1957 c) LANEren 182. hitzarmena, Haurren Lanaren Modu Okerrenei buruzkoa, 1999

4. Emakumearen diskriminazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak Ezabatzeko Konbentzioa, 1979</li> <li>b) Emakumearen aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigorretako eta Ezabatzeko Konbentzio Inter-amerikarra, 1996</li> </ul>
5. Haurren eta nerabeen babesa	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Adin Txikikoen Nazioarteko Trafikoari buruzko Konbentzio Inter-amerikarra, 1994</li> <li>b) Haurren Salmentari, Haurren Prostituzioari eta Pornografian Haurrak Erabiltzeari dagokienez, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboa, 2000</li> </ul>
6. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ginebrako 1949ko lau Hitzarmenteko 3. artikulua komunean babestutako biztanleriari tratu gizatiarra emateko obligazioa</li> <li>b) II. protokoloa</li> </ul>
7. Erromako estatutua	<ul style="list-style-type: none"> <li>a) 7 (1) (C) (2) (C) artikulua. Esklabotza eta salerosketa lesa humanitateko delituak dira (jakinaren gainean egindako eraso orokorra)</li> <li>b) 8 (2) artikulua. Gerra-krimena (plangintza edo politika)</li> </ul>

Zerrenda juridiko horren<sup>ix</sup> bidez ikus daitekeen moduan, historiaren uneren batean nazioarteko araudien bidez babestutako giza eskubideen aurkako delituekin eta bortxaketekin lotuta dago salerosketa. Salerosketak lotura estua du langileen esku-bideak bortxatzearekin, sexu-esplotazio komertzialarekin, genero-diskriminazioarekin eta migrazio-mugimenduekin, besteak beste.

## Migratzaileen Legez Kontrako Trafikoa

Pertsonen salerosketari buruz hitz egitean, ezin da aipatu gabe utzi migratzaileen legez kontrako trafikoa. Azken delitu hori ere nazioarteko protokolo batean definituta dago, eta protokolo hori, aldi berean, Nazio Batuen Krimen Antolatu Transnazionalaren Konbentzioaren osagarri da. Askotan, hitzak ez dira behar bezala erabiltzen, eta trafikoa aipatzen da salerosketa-egoerak deskribatzeko; hau da, lotuta egon arren desberdinak diren bi delitu nahasten dira.

Ikusi dugunez, salerosketak gizakiak erosi eta saltzea esan nahi du; beraz, gizabakoaren oinarriko giza eskubideen bortxaketak dira. Bestalde, migratzaileen legez kontrako trafikoa beste herrialde batean modu irregularrean sartzeko esan nahi du. Hau da, herrialde subirano batek bere lurraldean sartzeko ezarritako baldintzak bortxatzea esan nahi du. Nazio Batuen Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren Konbentzioaren osagarri den **Lehor, itsaso eta aireko Migratzaileen Legez Kontrako Trafikoaren aurkako Protokoloa** honela definitzen da.

<sup>ix</sup> Roberto Vidal irakasleak bildua, bere aurkezpen honetan: "Lucha contra la Trata de Personas. Una lectura Colombiana de la Convención de Palermo y su Protocolo sobre Trata", foro honetan aurkeztua: Foro Nacional contra la Trata de Personas y el Tráfico de Migrantes, Quito, Ecuador, 2004ko urriaren 21-22.


**Trafikoaren definizioa (3. artikulua):**

- a) *“Migratzaileen legez kontrako trafikotzat” hartuko da pertsona bati Estatu Kide batean legez kontra sartzen laguntzea, pertsona hori tokikoa edo bertakoa ez bada eta zuzenean edo zeharka finantza-irabaziak edo bestelako irabaziren bat lortzeko;*
- b) *“Legez kontrako sarreratzat” hartuko da muga zeharkatzea, Estatuan legez sartzeko beharrezko baldintzak bete gabe;*
- c) *“Nortasun- edo bidaia-dokumentu faltsutzat” hartuko da dokumentu hauetako edozein:*
  - i) *Modu faltsuan edo materialki aldatuta egindakoak, Estatuaren izenean bidaia- edo nortasun-dokumentuak egiteko legeak baimendutako pertsonak edo erakundeak ez direnek; edo*
  - ii) *Adierazpen faltsu bidez, ustelkeriaz, indarkeriaz edo legez kontrako beste edozein modutara egindakoak edo lortutakoak; edo*
  - iii) *Legezko titularra ez den pertsona batek erabilitakoak;*

Migratzaileen trafikoaren protokolotik trafikoak *“pertsona bati Estatu Kide batean legez kontra sartzen laguntzea”* dela ondorioztatzen da. Migratzailea nahi izandako herrialdera iristean amaitzen da zerbitzua. Pertsonen salerosketan ez bezala, migratzaileak baiezkoa ematen du, eta mugak modu irregularrean zeharkatzea dakar, ezinbestean.

Bestalde, salerosketatzat hartzeko ez da ezinbestekoa mugak zeharkatzea, eta mugak zeharkatzen direnean, legalki edo legez kontra egin daiteke, legezko dokumentuekin edo modu irregularrean. Izan ere, ohikoa da biktimek legalki bidaiatzea. Hala ere, badago loturarik trafikoaren eta salerosketaren artean. Biek sare transnazional antolatutak ezkututzen dituzte, eta ohikoa da trafiko-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak –hau da, mafien bidez pasaporte eta bisa faltsuak lortzen dituztenak, migrazio-araudia bortxatuz beste herrialde batean sartzeko– salerosleen mende geratzea. Beste era batean esanda, nahiko erraz eror daitezke pertsonen salerosketa-sareetan, eta askotan, sare horiek trafiko-sareak berak dira.

Pertsonen salerosketa eta migratzaileen legez kontrako trafikoak bereizteko modu erraz bat honetaz jabetzea da: salerosketa pertsonaren giza eskubideen aurkako delitua da, eta migratzaileen legez kontrako trafikoak, berriz, Estatuaren aurkako delitua.



## Salerosketa migrazio-agendan

Salerosketa eta trafikoa aztertuta, biak lotzen dituen oinarritzko aldagaia lortzen da; hau da: migrazioa. Salerosketa- eta trafiko-egoeretan migrazio-mugimenduak oinarritzko elementuak dira –migraziotzat hartzen da pertsona edo talde bat geografia-unitate batetik beste batera lekualdatzea, mugarik zeharkatu gabe–. Borondatezkoa izan daiteke –migratzaileen trafikoan, esate baterako– edo bortxa bidezkoa –esate baterako, pertsonen salerosketan, engainatutako pertsonen kasuak izan ezik–. Nazioarteko migrazioaren kasuan, bitarteko legalak erabil daitezke –salerosketen biktima askok modu legalean bidaiatzen dute–, edota legez kontrakoak –trafikoaren kasuan–.

Alde horretatik, salerosketaren eta trafikoaren aurkako borroka migrazio-agendak egitean eta politikak diseinatzean gero eta elementu saihestezinoak direla ikusten da. Gaur egungo nazioarteko migrazioaren joerak berrikustean, ikus daiteke salerosketa eta migratzaileen giza eskubideen errespetua joera horien oinarritzko osagaiak direla.

Beheko zerrendan ageri diren ezaugarriak gaur egungo nazioarteko migrazioaren joeratzat<sup>8</sup> hartzen dira, Migrazioen Nazioarteko Erakundearen (OIM) 2004ko txostenaren arabera. Ikus daitekeenez, migrazio-agenda definitzen duten joeretakoa bat pertsonen salerosketa eta trafikoa (migrazio irregularraren gorakadarekin lotua) da.

- Migratzailearen profil dibertsifikatua
- Migrazioaren feminizazioa
- Pertsona oso kualifikatuen migrazioa: garun-ihesa
- Fluxuak ez dira bi aldekoak bakarrik, zirkuitu asko sortzen dira
- Jatorriaren eta helmugaren artean txandaka ibiltzea, behin betiko finkatzeko edo itzultzeko erabakirik hartu gabe
- Jatorri, igaroleku eta helmuga diren herrialdeen kategorizazioa lausotu egiten da
- Lotura kolonialek eta historikoek garrantzia galtzen dute migrazioarako
- Migratzailearen **giza eskubideen** defentsa

<sup>8</sup> World Migration Report 2003, Managing Migration. Challenges and responses for people on the move. International Organization for Migration 2003, pg.25.

- Migrazio irregularra zabaldu eta **pertsonen trafikoaren eta salerosketaren** nazioarteko sareak sortzen dira
- Migrazioaren eta jatorrizko herrialdeen garapenaren arteko lotura
- Gizarte-kohesioari buruzko auziak sortzen dira helmuga diren herrialdeetan
- Migrazioa, Europako eta Japoniako jaiotza-tasa txikia orekatzeko
- Segurtasun-erronka berriak irailaren 11ren ondoren
- Mugen kontrola

Latinoamerikako migrazio-fluxuek ezaugarri horiek dituzte. Eskualde horretako migratzaileek ez dute profil jakin bat; hiritar kualifikatuak nahiz ikasketarik gabekoak joaten dira mugakideak ez diren herrialdeetara. Helmuga diren herrialde gus-tukoena eskualdetik kanpo daude, nagusiki AEBetan, Europako herrialdeetan eta Japonian. Aldi berean, mugaz haraindiko migrazio-fluxuak gutxitzen ari dira eta beste herrialde bateko egonaldia aldakorra izan daiteke, hil batzuk eta urte batzuk artekoa, eta ziklikoa.

Alde horretatik, migrazio irregularra eta pertsonen trafikoa eta salerosketa handitu egin dira<sup>x</sup>. Gainera, emakumezkoa migrazioaren elementu independente bihurtu da, gaur egungo migratzaileen erdiak emakumezkoak baitira. Migrazioaren femini-zazioa deitu zaio horri, eta emakumezkoen burujabetza adierazten duen arren, pobrezia feminizazioa deitutakoarekin ere lotuta dago, genero-urrakortasuna dela-eta. Horren ondorioz da, hain zuzen ere, salerosketaren biktima nagusia.

## **Migrazioa kudeatzeko politiketan pertsonen salerosketari aurre egitearen garrantzia**

Migrazioaren aldaketei heldu eta horien kudeaketa egokiari ekiteko, migrazio-politikak behin eta berriz pentsatzen eta diseinatzen dira. Adela Pellegrinok Migrazioen Nazioarteko Erakundearentzat berriki egindako txosten batean, nazioarteko migrazioaren kudeaketari atxikitako sei erronka nagusi ageri dira. Erronka horiei politikariek eta gobernuetako funtzionarioek egin behar diete aurre. Besteak beste, pertsonen salerosketari aurre egin beharra da erronka horietako bat.

1. Jatorrizko herrialdeen eta helmuga diren arteko lotura historikoak, kausa eta ondorio sozialak, ekonomikoak eta kulturalak aintzat hartuko dituen ikuspegiaren beharra
2. Migratzaileen giza eskubideen errespetua bermatzeko beharra, edozein migrazio-estatus dutela ere, langile migratzailearen eta haren familiaren giza eskubideak barne

<sup>x</sup> Adela Pellegrino, "Migration from Latin America to Europe: trends and Policy Challenges", IOM Migration Research Series, 2004ko maiatza.

3. Migrazio irregularrari eta migratzaileen **trafikoari eta salerosketari** aurre egitea
4. Migrazio-fluxuak behar bezala kudeatzeko moduak aztertzea, migrazio irregularra barne
5. Jatorrizko herrialdeetara dirua bidaltzearen garrantzia aintzat hartuta, diru-transferentziak erraztea
6. Migratzaileek jatorrizko eta helmuga diren herrialdeetako garapen ekonomikoan eta sozialean eta bizitza kulturean laguntzen dutela onartzea

Nabaria da erronka horiek garrantzitsuak direla eta politika konplexu eta sofistika-tuak behar direla, behar bezala kudeatzeko. Migrazio-gobernagarritasun berri bat behar da, migrazio-egoera berriak eta zaharrak elkarrekin bizitzeko eta estatuek, erronka horiei nork bere aldetik ezin dietela ekin aintzat hartuta, aldaketei aurre egiteko. Estatuaren migrazio-gobernagarritasunaren krisia gainditzeko, bi aldeko edo alde askoko akordioak bilatu behar dira. Akordio horiek garapen handia izan dute azken 10 urteetan; batik bat, alderdi hauei dagokienez: migratzaile irregularren deportazioa erraztea, mugak zeharkatzean kontrol handiagoa ezartzea eta dagoe-neko kokatuta dauden langile migratzaileen fluxua modu selektiboan antolatzea.

Pertsonen salerosketari aurre egiteko, gobernuen arteko akordioak ezinbestekoak dira. Izan ere, beste migrazio-erronka batzuetan bezala, estatuak ezin diote oldar horri nork bere aldetik aurre egin. Azken 50 urteetan, migrazioaren kudeaketaren bi aldeko adostasunaren helburuak honako hauek izan dira:

- Migrazio-mugimendua txikitzea
- Langile migratzaileen egoera legezztatzea
- Migrazioa bultzatzea
- Aske mugitzeko guneak ezartzea
- Itzulera erraztea
- **Migratzailearen giza eskubideak** babestea (**hortik salerosketa eta trafiko**)

Bestalde, alde anitzeko akordio asko azpieskualdeko integrazio-prozesuei lotuta daude; esate baterako, Comunidad Andina de Naciones izenekoari (lan-migrazio-rako Andeetako herrialdeen tresna), eta MERCOSUR eta NAFTA direlakoei. Prozesu horietan kontuan hartu dira honako hauek ordenatzera bideratutako atalak: pertsonen igarotzea eta fluxua, migratzaileen eskubideak errespetatzea eta pertsonen salerosketari eta migratzaileen legez kontrako trafikoari aurre egitea.

Pertsonen salerosketaz arduratutako beste plataforma bat Kontsulta Prozesuen tes-tuinguruetan ikusten da. Horiek, derrigortzen ez duten arren, ideiak trukatzeko foro gisa erabiltzen dira, bai eta ekintza-lehentasunak ezartzeko ere, migrazioaren kudeaketan. Latinoamerikan, Proceso de la Puebla izeneko eta Andeetako herrial-



deak hartzen dituen Conferencia Sudamericana de Migraciones izeneko nabarmentzen dira.

Conferencia Sudamericana de Migraciones<sup>xii</sup> delakoaren lan-programan salerosketari buruzko kezka nabaria da. Konferentzia horren helburu orokorra migrazioarekin lotutako eskualdeko estrategiak eta programak definitzea eta koordinatzea da. Honako helburu espezifiko hauek ditu –pertsonen salerosketari eta trafikoari aurre egitea nabarmentzen da–:

- Migratzaileen giza eskubideak bultzatzea, **gizakien legez kontrako trafikoa eta salerosketa** barne
- Eskualdeko migrazio-fluxuen gobernagarritasuna sendotzea
- Migrazioa erregulatzeko programa nazionalak eta bi nazioenak garatzea, pertsona eta familia migratzaileentzat
- Kanpoan dauden nazionalekin eta beren jatorrizko herrialdeekin lotura izatea, eta itzuli nahi dutenei laguntza ematea

Berriro ere, migrazio-politikak kudeatzeari eta definitzeari buruzko foroetan auzi horri zenbateko garrantzia ematen zaion ikus daiteke. Antzeko zerbait gertatzen da bi eskualderen arteko akordioetan; esate baterako, Europar Batasunaren eta Latinoamerikaren arteko Elkarrizketan<sup>xiii</sup>. 2004-2006 programaren barruan, honako hau ezarri zuten: asilo-gaiekin, politiken garapenean migrazio-gobernagarritasuna sendotzearekin eta diru-bidalketen auziarekin batera, pertsonen salerosketaren aurkako borroka migrazio-lankidetzan oinarritzko alderdia dela.

## **Salerosketa Andeetako eskualdean**

Latinoamerikan, salerosketa-kasu gehienak Kolonbian, Brasilen eta Dominikar Errepublikan gertatu dira. Herrialde horietako gobernuak horretaz konturatu eta berariazko erantzun asko prestatu dituzte: pertsonen salerosketaren delitua tipifikatzeko eta zigortzeko legeak egin eta aldarrikatu dituzte, prebentzio-kanpainak inplementatu eta biktimei arreta emateko estrategiak prestatu dituzte, besteak beste.

Salerosketari aurre egiteko ekintzak garatzearen ondorioz, antolatutako sare batzuk legedi bigunagoak dituzten aldameneko beste herrialde batzuetan finkatu dira. Badirudi arrazoi horri eta beste batzuei esker Andeetako beste herrialde batzuetan fenomenoak gora egin duela. Esate baterako, Ekuadorren, Bolivian eta Perun. Badirudi, herrialde horietan, krimen hori gero eta ugariagoa dela.

<sup>xii</sup> Objetivos del Plan de Acción de la Conferencia Sudamericana, <http://www.oimlima.org.pe/LimaConfeSudame.htm>

<sup>xiii</sup> Document de stratégie por l'assistance financière et technique en faveur des pays tiers dans le domaine de la migration et de l'asile, 2004.

Migrazioaren joeretan bezala, Andeetako eskualdeko herrialdeak jatorrizkoak, igarotzekoak edo helmugakoak dira. Eskualdetik kanpo, AEB, Japonia eta Europa –Espainia, Italia, Alemania eta Herbehereak, batik bat– dira helmugarik ohikoena. Dena den, eskualde horretako salerosketa-motarik ugariena mugak zeharkatu gabe egiten dena da; hau da, barneko salerosketa. Protokoloari mugatuz gero, herrialde horietan pertsonen salerosketa-kasu asko daudela ikus daiteke: lan-esplotazioa lantegietan, nekazaritza-lanetan, minetan eta eskean. Etxeko lanetan aritzen diren zenbait emakumeren kasuak ere salerosketatzat har daitezke. Antzinatek datorren fenomeno da, horri buruz hitz egiten duela gutxi hasi arren. Kontzeptua ez da behar beste ezagutzen, eta gizartea oso tolerantia da horrekiko.

Nazioarteko salerosketari dagokionez, kezka sumatzen da helmuga diren herrialdeetan –batik bat, AEBetan, Europako herrialdeetan edo Japonian–, sexu-merkataritza herrialde horietara iristen ari dela ikusten baitute. Helburu sexual-komertzialeko nazioarteko salerosketa da, krimen transnazionalaren sare antolatuekin lotua, sarritan.

Besteren prostituzioa esplotatzeari dagokion salerosketan, eskualdeko ezaugarria Andeetako emakumezkoa egoera oso zaugarrian dagoela da. Herrialde horietako askotan, eskolara joaten diren neskatuen kopurua mutikoena baino askoz ere txikiagoa da.<sup>xiv</sup> Gainera, Andeetako eskualdeko emakumezko asko egoera oso ezegonkorretan bizi izateak ere badu bere eragina; izan ere, familiei lagundu ahal izateko lan-eskaintza faltsuen bidez erakartzen dituzte. Peruren kasuan, familien %20an<sup>xv</sup> familia-ko burua emakumezkoa da, gehienetan, gurasoek abandonatutako amak.

Kezka gero eta handiagoa da eta helmuga diren herrialdeen presioei esker, lege-proiektuak eta legegintza-ekimenak garatzen ari dira, eta bereziki kode penalak aldatzen, lege-hutsunea betetzeko asmoz. Salerosketa ez dago behar bezala tipifikatuta Andeetako herrialdeetan, eta barne-legediak eta nazioarteko protokoloak harmonizatzeak zailtasun ugari ematen ditu. Alde horretatik, amaieran adieraziko den moduan, badirudi salerosketa eskualde-mailan kudeatuko dela aurrerantzean. Hau da, estatuak akordioak lortzeko joera hartu dute krimen horri aurre egiteko.

AEBetako Estatu-departamentuak txosten bat argitaratzen du urtero, salerosketaren aurkako borrokan gobernuek eta herrialdeek aurrera eramaten dituzten ekintzei buruz. 1 (TIER 1) eta 3 (TIER 3) arteko puntuazioa ezartzen da: delitu horren aurkako borrokan ekintzak garatzen dituzten herrialdeei 1 zenbakia egokitzen die, eta behar beste neurri ezartzen ez dituztenei, 3 zenbakia. Hurrengo zerrendan, 2005eko ekainean argitaratutako txostenean<sup>xvi</sup> Andeetako herrialdeak zer-nola kokatuta zeuden ageri da.

---

<sup>xiv</sup> Monitoring Human Development, Human Development Index 2004,pg. 217-237.

<sup>xv</sup> Trata de Mujeres para fines sexuales comerciales en el Perú, Organización Internacional para las Migraciones y Movimiento El Pozo, Lima, Perú, 2005, pg. 41.

<sup>xvi</sup> Andeetako eskualdeko herrialdeen sailkapena, AEBetako Estatu-departamentuak munduko pertsona-salerosketari buruz egindako txostenean, 2004ko ekaina. [www.state.gov/g/tip/rls/tiprpt/2004/33187](http://www.state.gov/g/tip/rls/tiprpt/2004/33187)

- Bolivia - TIER 3
- Kolonbia - TIER 1
- Ekuador - TIER 3
- Peru - TIER 2
- Venezuela - TIER 3

Beraz, AEBetako txostenaren arabera, Venezuela, Ekuador eta Bolivia ez dira behar beste egiten ari, krimen horren aurkako borrokan. Peru behaketa-kategorian zegoen 2004. urtean, eta hartutako neurriei esker, 2. kategorian koka zezatela lortu zuen. Boliviari aurkakoa gertatu zitzaion: herrialdeko agintariek ezer egin ez zutenez, 3. kategoriara jaitsi zen. Kategoria horretako herrialdeei (TIER 3) betoa jar diezaiekete AEBek, nazioarteko maileguak eskatzen dituztenean, eta, gainera, AEBek ematen dien garapenerako laguntza galtzeko arriskua dute<sup>xvii</sup>.

Dena den, puntuazio hori alde batera utzita, bistakoa da inguru hartako gobernuak gero eta interes handiagoa dutela pertsonen salerosketaren aurkako plangintza nazionalak egiteko. Ia herrialde guztiek laneko mahaia edo taldeak osatu dituzte gobernu barruan, eta foku-puntuak izendatu dituzte, ekimenak koordinatzeaz ardura daitezzen.

## Ondorioak

Pertsonen salerosketa antzinatek datorren arren, gaur egungo ikuskera berria da, 2000. urtean Palermoko Protokoloa promulgatu zenetik. Protokoloan, salerosketaren definizioan espazioa uzten da, gaur egun arte beste kategoria batzuetan sartzen ziren hainbat tipo penal sartzeko; esate baterako, bortxazko lanak, bahiketa eta proxenetismoa. Garatzen ari den kontzeptua da eta beharrezkoa da legeak egokitzea, barne-legediak nazioartekoari moldatzeko.

Badira munduan salerosketen biktima direnen kopuruari buruzko kalkulu orokorrrak, zenbait iturrik emanak, baina, orain arte, ez dago eskualdekako datu espezifikorik. Gainera, kontzeptua nolabait ere berria denez, ez dago ia salaketarik, biktimak beldur direlako edo ez dakitelako biktimak direnik ere.

Pertsonen salerosketa migratzaileen legez kontrako trafikorekin lotuta dago, sare antolatu transnazionalen laguntzaz muga legez kontra zeharkatzen duten pertsonak errazago eror daitezkeelako salerosketa-egoeretan, gaizkile-talde berberen esku. Dena den, bi delitu-egoera horiek oso desberdinak dira. Salerosketa gizabakoaren aurkako krimena da, lesa humanitateko delitua, eta trafikoa, berriz, migrazio-lege bat haustea, estatuaren aurkako krimena, alegia.

<sup>xvii</sup> AEBen Boliviako lan-agregatua eta OEAKo aditua den Alexis Ludwig-en aurkezpena. Emakumeen, Nerabeen eta Haurren Salerosketari buruzko mintegia. Bolivia 2005eko uztaila.

Migrazio irregularra gero eta handiagoa izateak berekin ekarri du pertsonen salerosketa eta trafikoa areagotzea ere, eta horren ondorioz, delitu horiek esplizituki agertzen dira migrazio-agendak eta -politikak egitean. Salerosketa da gaur egungo migrazio-kudeaketaren erronketako bat; jatorri, igaroleku eta helmuga diren herrialdeek modu koordinatuan bere gain hartu beharreko erronka.

Azkenik, Andeetako eskualdea nazioarteko salerosketaren jatorrizko gune bat da, eta helmuga AEB, Japonia eta Europa izaten dira; European, Espainia, Alemania eta Herbehereak izaten dira helmuga nagusiak. Eskualde horretako gobernuak eta gizarte zibila delitu horren aurkako borroka-ekintzak prestatzen hasi dira. Baina borroka ez da eraginkorra izango, ez badira ahaleginak batzen eta koordinatzen XXI. mendeko esklabotza deitu zaionari aurre egiteko.



*Hirugarren zatia. Migrazio-modu berriak*



## **Lehia orokorra langile kualifikatuak lortzeko**

**Manolo Abella**

Azken bi edo hiru hamarkadetan, herrialde industrializatuetan, enplegua zerbitzuen sektorean hazi da, nagusiki; batez ere, “ezagutzaren industria” deritzonetan. Hazkundera oso nabarmena izan da hainbat arlotan: besteak beste, osasunean, mediku-zerbitzuetan, finantza-zerbitzuetan, hoteletan, turismoan, IKTetako ingeniarietan eta infografian. Garapen ekonomiko handiko herrialdeetan, eskulanaren hazkunde-tasa geldoak edo negatiboak, biztanleria gero eta zaharragoa izateak eta lan-merkatuaren zurruntasunak atzerriko langile kualifikatuen eta adimentsuen eskaera handiagoa izatea eragin dute. Askok dago jokoan guztiontzat. Atzerriko langile kualifikatuak eta adimentsuak bereganatzen porrot egiten duten herrialdeek arriskua dute produktu berriak eta zerbitzu adimendunak lortzeko lehia orokorrean atzean gelditzeko, bai eta biztanleentzat ohitura diren bizi-baldintzak okertzeko ere.

Prestakuntza handiko eskulana lortzeko egun dagoen lehiaren ondorioz, logikoa denez, alarma piztu da; izan ere, uste denez, fenomeno horren ondorioz, garapen-bidean dauden herrialdeek arazo handiagoak izango dituzte nekazaritzan eta industrian ekoizpena handitzeko behar dituzten langile teknikoez eta profesionalez osatutako masa kritiko bat sortzeko, politika publikoak kudeatzeko eta eraginkortasun handiagoz gobernatzeko, bai eta hezkuntzako inbertsio gero eta handiagoetarako behar den pertsonalaren betekizunak betetzeko ere. Esperientziak argi eta garbi erakutsi digu kapital-injekzioak, berez, ez direla nahikoak azpigarapena gainditzeko. Aurrerapenerako, ezinbestekoa da prestakuntza nahikoa duten bertako elementuen masa kritikoa egotea, ezagutza berria sortzeko edo inportatutako ezagutza produkzio-teknologia bideragarri bihurtze-

ko, produktu eta zerbitzu berriak diseinatzeko eta sortzeko, eta horiek munduko merkatuan lehiakorrak izatea lortzeko. Garapen-bidean dauden herrialde askok giza kapital hori garatzeko egin dituzten inbertsio handiak arriskuan daude gaur egun, beste herrialde batzuek gero eta eskaera hobek egiten baitituzte mota horretako langileak lortzeko, eta, ikuspuntu ekonomikotik, konpentsazio handiagoak eskaintzen dituzte.


ELGAko herrialde askok immigrazio-politikan eta legedian berriki egindako aldaketek adierazten dutenez, lehen baino gehiago onartzen da immigrazioa erabiltzeko premia dagoela, bai helburu ekonomikoak lortzeko, bai gizarte zahartuen premiak asetzeko. Garai batean politika murriztaileak hautatu baziren ere –bertako langileak lekuz aldatu ahal izateak eragindako beldurra arintzeko–, orain gero eta liberalagoak diren immigrazio-planak iritsi zaizkigu, enplegatzaileen premietara egokituak, industrien lehiakortasunari eutsi ahal izateko hainbat alorretan atzeritiki ekarri behar diren zuzendariak eta espezialistak erakartzeko –batez ere, herrialdearen lehiakortasunari eusteko, herrialde hori munduko merkatuetan “buru” den industria-sektoreetan–, eta ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko. Gobernu askok neurriak hartu dituzte, immigrazio-eskaerak prozesatzeko traba burokratikoak murrizteko; etorkinak onartzeko irizpide gardenak hartu dituzte, eta eskulanaren jatorrizko herrialde nagusietan pertsonak errekrutatzeke programa aktiboak egiten ari dira.

## **Prestakuntza handiko eskulanaren migrazioaren joerak**

Prestakuntza handiko eskulanaren eta prestakuntza txikiko eskulanaren arteko emigrazioen diferentzia-tasez egin berri diren kalkuluen arabera, mugak zeharkatzen dituen prestakuntza handiko eskulanaren kopurua gero eta handiagoa da. Esate baterako, Docquier-ek eta Rapoport-ek (2004) honako hau kalkulatu zuten: prestakuntza txikiko eskulanaren munduko emigrazioaren batez besteko tasa %0,94 zen, tarteko prestakuntzako eskulanarena %1,64, eta prestakuntza handiko langileena %5,47. Kalkuluen arabera, 1990etik 2000ra, prestakuntza handiko munduko emigrazioaren batez bestekoa %0,75 handitu zen, prestakuntza txikiarena %0,06 eta tarteko prestakuntzarena %0,41.


1. irudian ikusten denez, 90eko hamarkadan, immigrazio-tradizio handiko herrialdeetan (Australian, Kanadan, Zeelanda Berria eta AEBetan) onartutako prestakuntza handiko langileen kopurua oso azkar handitu zen, bai eta Suedian eta Erresuma Batuan ere. Hamarkada horretan, AEBetan onartutako langile-kopurua 14,6 aldiz handiagoa izan zen, eta Erresuma Batuan 10 aldiz handiagoa. Hala ere, sei herrialde horietatik, Ipar Amerikako herrialdeak nabarmendu ziren (Kanada eta AEB), herrialde horietan hartu baitzituzten prestakuntza handiko langile etorkinen %70.





Pixkanaka, herrialdeetan onartutako immigrazioan prestakuntza handiko langileak gero eta gehiago zirela ikusten zen; adibidez, 2001ean, erdia baino gehiago izan ziren Australian, Kanadan eta Zeelanda Berrian. Hori 2. irudian ikusten da; bertan, herrialdeetan onartutako prestakuntza handiko etorkinek onartutako etorkin guztiekiko duten ehunekoa ikusten da. AEBetan onartutako prestakuntza handiko langileen ehunekoa ez da handitu, kopuruan asko handitu den arren, oro har onartutakoen kopurua ere asko handitu baita. Izan ere, aldi bateko programen araberrako onarpenen hazkundea ikaragarria izan da; batez ere, “H-1B” izeneko bisena. 2000. urtean, AEBek sei herrialdeetan aldi bateko programen arabera onartutako eskulanaren %56 zuten.

Itxuraz gero eta handiagoak diren biztanle-mugimenduen kopuruen eta norabideen adierazleak dira horiek. Hala ere, jakina da gure adierazleak ez direla oraindik oso egokiak, ez baitago mugimendu horietako askori buruzko informazio egokirik, eskualde askotan mugimenduak kontrolatu ere ez baitira egiten. NBERen Biztanle Dibisioa saiatzen da aldiro migrazioaren irudi “orokorra” egiten, baina, hori egiteko, aldiro egiten diren biztanle-errolak izan behar ditu oinarri. Erroldek



une jakin bateko biztanle-kopurua zein den bakarrik adierazten dute (stockari buruzko datuak), eta ez denboran jendeak egindako mugimendua (fluxuei buruzko datuak); horren ondorioz, faktore horietan oinarritutako kalkuluek mugez gaindi gertatzen diren benetako mugimenduen zantzu bat baino ez dute ematen. Berez, jendearen mugimenduari buruzko kalkuluak egiteko aukera egon beharko luke, immigrazio-agintari gehienek aldi guztietan herrialdetik atera eta herrialdera sartzen den jendeari buruzko informazioa jasotzen baitute, baina, eskualdeko edo munduko migrazio-mugimendua zenbatekoa den kalkulatzeko, nazio bateko estatistikak egokitzeak koherentzia- eta interpretazio-arazo handiak sortzen ditu oraindik.

Zer dira eskualde pobreenak, prestakuntza handiko eskulanaren jasotzaileak edo igorleak?, Eskura ditugun frogak, zatikakoak direla onartu behar den arren, iradokitzen dute eskulanaren mugimendua salgaien edo kapitalen mugimendua baino hedatuago dagoela. Prestakuntza handiko eskulan-migrazioaren jatorrien artean, gutxien garatutako herrialde asko daude. Horrek kezka handia sortu du “persona adimentsuen ihesaz”, eta horrek eztabaida ireki du gutxien garatutako herrialdeek besteen mailan jartzeko ahalmenaren ondorioei buruz.

ELGAK duela gutxi jakinarazi ditu atzerrian jaio eta ELGako 29 herrialdeetan bizi diren pertsonen hezkuntza izandako emaitzei buruzko datu osatuenak eta eguneratuenak, 2000ko erroldan oinarrituta (Dumont eta Lemaitre, 2004). ELGako 29 herrialdeetan, gutxi gorabehera 36,3 milioi lagun (atzerrian jaiotako pertsonen %46) ELGako beste herrialde batetik iritsi ziren. 6,4 milioi inguruk (hau da, %17,6k) unibertsitateko ikasketak zituzten, nahiz eta ehunekoetan alde handiak dauden herrialdetik herrialdera.

Espero zitekeenez, prestakuntza handiko eskulanaren iturri nagusi batzuk herrialde aberatsak dira. Erresuma Batuak 3,3 milioi pertsona ditu ELGAko beste herrialde batzuetan, eta horietatik 1,26 milioik (%41ek) goi-mailako ikasketak dituzte. Alemaniak 2,93 milioi lagun ditu atzerrian, eta horietatik 865.255ek (%30,4) unibertsitateko ikasketak dituzte. AEBek pertsona gutxiago dituzte atzerrian, 809.540, hain zuzen ere, eta erdiek dituzte unibertsitateko ikasketak. Beste herrialde haue-tatik ere unibertsitate-ikasketak dituzten pertsona-kopuru handiak joan dira ELGAko beste herrialde batzuetara bizitzera: Kanadatik (417.750), Mexikotik (472.784), Frantziatik (348.432), Poloniatik (328.058), Italiatik (300.631) eta Japoniatik (281.664).

Atzerrian jaio eta ELGAko herrialdeetan bizi direnen kopuruei begiratuta, ikusten da 47 milioi lagun inguru ELGAtik kanpoko herrialdeetan jaio direla. Jatorrizko herrialde horien artean, garai bateko SESBeko eta Jugoslaviako herrialdeak, India, Filipinak, Txina, Vietnam, Maroko eta Puerto Rico daude. ELGaren azterketaren arabera, goi-mailako ikasketak eduki eta erbestean bizi direnen kopuru handiena garai bateko SESBek du (gutxi gorabehera 1,3 milioi), eta, atzetik, India dago, milioi bat duela.

Beste azterketa eta adierazle batzuek frogatzen dute gehiago ematen dizkigute prestakuntza handiko eskulanaren mugimenduz. Esate baterako, enpresa-barneko leku-aldatzeen %80 ELGAko herrialdeen barruan gertatzen dira. Bruselan 2001ean egindako Prestakuntza Handiko Eskulanaren Migrazioari buruzko Mahai Inguruan (*Trans-Atlantic Round Table on High Skilled Migration*) esan zenez, 83.000 zientzialari eta ingeniari Europatik AEBetara joan ziren, 90eko hamarkadan. Beste azterketa baten arabera, Kanadan, atzerrian trebatutako fisikarrietatik %32 Erresuma Batukoak ziren, eta, Australian, %39.

Prestakuntza handiko eskulanaren *hegoalde* mugimenduei dagokienez, estatistika gutxi daude, nahiz eta, ustez, sarritan fluxuak ugariak izan; batez ere, laneko helburuetarako zirkulazio libreko hitzarmenak dauden eskualdeetan. Kariben, CARICOM hitzarmenaren baitan, laneko helburuetarako unibertsitateko graduatuen zirkulazio librerako aukera ematen da. Zirkulazio librerako irizpide berdintsuak dituzte Andeetako herrialdeen arteko eskualdeko lankidetzak-hitzarmenarako protokoloak (MERCOSUR) eta Afrikako mendebaldekoak (ECOWAS). Frogek adierazten dutenez, *hegoalde iparralde* mugimenduak ere badaude, nahiz eta txikiak izan –adibidez, Afrikako medikuen eta erizainen fluxuak–, eta horrek *hegoalde hegoalde* bigarren mailako fluxuak eragin ditu, beste herrialde batzuetatik larrialdiei aurre egitera joaten baitira (esate baterako, Kubako medikuak Hegoafrikara).

## **Prestakuntza handiko eskulana lortzeko ikuspegiak**

Herrialdeak ahalik eta politika onenak konbinatzen ari dira, prestakuntza handiko eskulan-hornikuntzaren gabezia gainditzeko. Batzuek “enplegatzailearen premien

araberako” programen aldeko apustua egin dute, immigrazioak industriaren premiei erantzun diezaien; beste batzuek, oro har eskulana indartzea proposatu dute, erraz gizarteratzeko ezaugarriak dituzten egoiliar iraunkorren bidez. Kontuan hartuta prestakuntza handiko atzerriko giza baliabideek bertako eskulana aberastuz herrialde hartzaileei kanpotik egindako ekarpena zenbatekoa izaten den, politikak diseinatzen dituztenek auzi bat dute: immigrazio hori bultzatzeko, dirulaguntzak eman ala ez eman.

Jarraian, labur-labur, prestakuntza handiko eskulana erakartzeko estatuek gaur egun dituzten ikuspegiak aztertuko ditugu. Prestakuntza handiko atzerriko eskulana erakartzeko herrialdeek hartutako ikuspegiak argi eta garbi bereizten dira helburuen arabera.

*Giza kapitalaren* ikuspegia immigrazio-tradizio handiko herrialdeei lotuta dago; batez ere, Kanadari. Helburua herrialdeko prestakuntza handiko giza baliabideak ugaritzea da, epe luzera. Gehienetan, egoitza iraunkorra lortzeko aukera eskaintzen du pizgarritzat, lan-merkatuan erabat libre mugitzeko eskubideaz gain; eta, azkenik, naturalizazioa edo bertakotzea ere eskaintzen du, horren bidez herritarrek dituzten eskubide sozial eta politikoak eskuratzeko. Herrialde guztiek ez dute modu berean aplikatzen ikuspegi hori etorkinak onartzeko politika edo programa zehatzetan, edo etorkinak onartu edo ez erabakitzeko erabiltzen diren irizpideetan. Batzuek irizpide gardenak aukeratzen dituzte, giza kapitaleko ezaugarri batzuei puntu zehatzak egokitzen baitizkiete; beste batzuek, berriz, alor batzuetarako “aparteko gaitasunak” dituzten hautagaien premia dagoela adierazten dute; eta, azkenik, beste batzuek immigrazio-agintarien ahalmen administratiboaren esku uzten dute gaia.

*Lan-merkatuaren premien* ikuspegia. Hori da ikuspegi nagusia. Eskatutako esperientzia eta titulazioa dituzten atzerriko langileak aldi baterako onartu eta lan-merkatuan dagoen prestakuntza-etzaren arazoa konpontzea da helburua. Herrialdeen arteko desberdintasuna honetan datza: egoitzaren iraupena zehazteko, herrialde batzuetan premiak eta eskaini beharreko malgutasuna enplegatzaileek erabakitzen dituzte, eta beste batzuetan, berriz, gobernuak. Ikuspegi horren elementu komuna denbora-muga izaten da, ez baitu aurreikusten langilea eta langilearen familia bertan bizitzen gelditzea. Gobernuak eskulan-gabezia ziklikoa dela ulertzeko joera dute; horretan oinarrituta, politikaren helburua desoreka gutxitzea da, eta malgutasuna dute, egoera ekonomikoak okerrera egiten duenean atzerriko langileak jatorrizko herrialdera bidaltzeko.

*Negozio-pizgarrien* ikuspegiaren helburua atzerriko merkataritza eta inbertsioak bultzatzea da, inbertitzaileei, exekutiboiei eta zuzendariiei aukera emanez familiarekin batera herrialdera sartzeko eta bertan egoteko. Herrialde batzuek aukera ematen diete inbertitzaileei egoitza-estatutua izateko, gutxieneko kapital-kopuru bat jarri eta langile-kopuru jakin bati enplegua ematen badiote, baina herrialde gehienetan, erraztasunak etorkinak aldi baterako onartzeko baino ez dira.

*Ate akademikoaren* ikuspegiaren helburua bertako hezkuntza-erakundeetan graduatu diren atzerriko ikasle adimentsuak erakartzea da, lanerako edo ikerketarako gera daitezen bultzatuz. Ofizialki, oso gutxitan onartzen da politika hori, baina zenbait herrialdetan –batez ere, Amerikako Estatu Batuetan–, arrakasta handia lortu dute hautatutako pertsona adimentsu horiek baliatzen. Gehienek unibertsitateko ikasketak jatorrizko herrialdeetan egiten dituzte, eta, gero, doktoretza egiteko, AEBetako unibertsitateetara joaten dira.

Ikuspegi horiek ez dute elkar baztertzen, herrialde askok politika bat baino gehiago baitituzte, baina desberdintasuna ikuspegi bakoitzari ematen zaion garrantzian datza. Immigrazio-tradizioa duten herrialdeek (batez ere, Kanadak eta Australiak) giza baliabideari balio esplizitua ematen dioten lehentasunezko programak hautatu dituzte, baina, azken hamarkadan, finantza-inbertsioak erakartzeko ere erabili dute immigrazioa.

Politika onenak zein diren jakiteko, estatuek ugaritu nahi dituzten onurak hartu behar dira kontuan. Helburua *lan-merkatuaren premiak asetzea* bada, lanbide jakin batean desplazamendua edo langabezia gutxituko duen mailaraino mugatu beharko litzateke onartu beharreko immigrazioa. Kasu horietan ere oztupoak daude; izan ere, eskulan-falta, ia beti, eskualde batzuetan bakarrik izaten da, eta gerta liteke herrialde bereko beste eskualde batean soberakinak izatea, bertako langile gutxi erabakitzen baitute herrialdeko beste toki batera joatea han lan egitera. Beste alde batetik, gero eta zailagoa da zenbait irizpide erabiltzea; esate baterako, soldataren egonkortasunaren irizpidea erabiltzea, zenbat etorkin onartu jakiteko. Helburua giza kapitalaren erreserbak handitzea bada, ez dago erabat argi mugak jarri beharko lirakeen, ez eta muga horiek zein izan beharko luketen ere.

## **Murriztapenetatik erraztasunetara**

Prestakuntza handiko eskulana lortzeko lehia gero eta handiagoa da, eta, horren ondorioz, berriro planteatu behar izan da atzerriko langileei buruzko politikak administratzeko modua. Dirudenez, aldaketa nagusia hau da: murrizketak gutxitzeko politiketatik urruntzea (hau da, erraztasunak ematen dituzte) eta pizgarriak emateko politiketara hurbiltzea (adibidez, errentaren gaineko zergak jaisten dira). Hasieran, herrialde gehienek neurri murrizgarriak hartu zituzten: kupoak (sektoreka, lanbideka edo enpresaka), denbora gutxirako lan-baimenak, lan-merkatuaren ziurtapena, gutxieneko soldatak, enplegatzailez aldatzeko murriztapenak, ezkontideentzako enplegu-murriztapenak, baimenak zabaltzeko mugak, estatutu-aldaketaren aurretik jatorrizko herrialdera itzultzeko beharra, hizkuntz gaitasunak... Hori dela-eta, erreformarako lehenengo urratsa murrizketak ezabatzea da. Gaur egun, gero eta herrialde gehiagok salbuesten dute prestakuntza handiko eskulana murrizketa horiek betetzetik. Neurri herrikoi bat galdetegi neketsuak bete behar ez izatea edo lan-merkatuari buruzko ziurtapenak ezabatzea eta politika enplegatza-

leen esku uztea da. Beste neurri bat prestakuntza handiko langileen ezkontideek lan-merkatura sartzeko zituzten murrizketak kentzea da.

Industriaren presioari erantzuteko, 1998ko amaieran, AEBetako Kongresuak *American Competitiveness and Work Force Improvement Act* onartu zuen (Amerikako Konkurrentzia eta Eskulana Hobetzeko Legea); lege horren bidez, 1999an eta 2000n H-1B bisak 65.000 izatetik 115.000 izatera pasa ziren. H-1B bisak erabat *eramangarri* bihurtu zituzten, eta, horren ondorioz, beste nagusi batek INSan eskaera egin bezain laster, nagusi horrentzat lan egiteko aukera zuten langileek (aurreko legearen arabera, beste nagusi batentzat lan egiteko, eskaera onartu egin behar zen). Lege berriaren ondorioz, H-1B bisa zuten langileek herrialdean 6 urte baino gehiago geratzeko aukera zuten, baldin eta egoitza lortzeko egindako eskaerak onartzen bazitzaizkien eta izapideetan gutxienez urtebete bazeramaten. Urtebeteko luzapenak eman zitezkeen, enplegu-bisa onartu eta estatutu-aldaketa behin betikoa izan arte. Horrez gain, enplegatzailearen trebakuntza-kuota 500 \$-etik 1.000 \$-era garestitu zen. Kuota hori DOLen (*Department of Labour*) eta NSFren (*Nacional Science Foundation*) programetara joaten da: herrialdean jaiotako ikasleei eta langileei hezkuntzan eta prestakuntzan laguntzeko programetara, hain zuzen ere.

1998an, lan-merkatuari buruzko azterketa batean oinarrituta, Alemaniak erreforma batzuk egin zituen immigrazioari buruzko legedian, Alemanian jarduten zuten multinazionalerako lanean ari ziren atzerriko zuzendariei eta espezialistei (EBtik kanpokoei) zerga-salbuespenak jartzeko. 2000n, Alemaniak *Egoitza Baimenaren Programa* abian jarri zuen; programa horretan sartzeko, betekizun hauek egiaztatu behar ziren: goi-mailako hezkuntza izatea, baimenak, eta gutxienez 100.000 DMko edo gehiagoko soldata-eskaintza jaso izana. Programak ez zuen nahi adina eskatzaile izan, eta, orduz geroztik, porrot handizat hartu da. Urte berean, Frantziak lege bat onartu zuen, “bisa zientifikoa” eta “egoiliar zientzialaria” kategoria berriak ezartzen zituena. Legearen arabera, eskatzaileek Frantziako izen handiko erakunde baten “harrera-protokoloa” lortu behar dute, egonaldian erakundeak eskatzailearen gizarte-segurantza bere gain hartuko duela bermatzeko. Protokoloa lortu ondoren, bisa lortzeko prozesu formala mediku-azterketa egitea besterik ez da.

Kanadako gobernuak langile-beharrak zuten zazpi alor definitu zituen, eta lan-ziurtagiria inolako mugarik gabe eman zien betekizunak betetzen zituzten guztiei. Horrez gain, langile “estrategikoen” ezkontideei lan-ziurtagiririk gabe lan egiteko aukera eman zien. AEBetarako emigrazioaren ondorioz Kanadak prestakuntza handiko herritar asko galdu zituenez, politika berri bat egitea erabaki zen, pertsona horiek Kanadara itzultzeko, eta, horretarako, errentaren gaineko zerga hiru urtez ez ordaintzea eskaini zitzaizen. Hala ere, salbuespen hori kendu egin dute; izan ere, susmatzen zen benetan beste zerbaite lortzen zela: langileek bolada batean mugaz hegoaldera lan egiten zuten, zerga-salbuespenaren onurak eskuratzeko.

## Pizgarriak eta errekrutatze aktiboa

Geroago, zenbait estatutan, prestakuntza handiko atzerritarren gaineko murriztapenak gutxitzeaz gain, pizgarriak eskaintzen ere hasi dira. Politika-aldaketa horrek adimen handiko eta aparteko gaitasuneko eskulana lortzeko herrialdeen artean dagoen lehia gero eta handiagoa dela islatzen du. 2002an, Norvegiak programa berri bat jarri zuen abian, atzerriko espezialistei eta prestakuntza handiko langileei hiru hilabetetan “enplegua bilatzeko baimena” eskaintzeko; hau da, Norvegiara lan bila joateko. Gaur egun, Quebec probintziak (Kanada) errentaren gaineko zerga-oporraldiak eskaintzen ditu bost urtez, osasun-zientzietako atzerriko akademikoak erakartzeko, probintziako unibertsitateetan eskolak eman ditzaten. Eskandinaviako zenbait herrialdetan, ongizateko sistemen finantziazioa errenten gaineko tasa altuen bidez lortzen bada ere, atzerriko espezialistei errentaren gaineko tasa murriztuak eskaintzen dizkiete.

Nazioarteko errekrutatze aktiboa ere, batez ere estatuko erakundeek egiten dutena, elementu garrantzitsua da prestakuntza handiko atzerriko langileen jario egonkorra lortzeko estrategien barruan. 2000ko azaroan, Erresuma Batuak eta Espainiak gobernuarteko hitzarmen bat sinatu zuten, erizain espainiarrak kontratatzeko, eta, geroago, hitzarmena zabaldu egin zen, medikuntza orokorreko medikuak eta espezialista laguntzaileak ere sartzeko. Erresuma Batuen programa, errekrutatzea helburu izanik, herrialde jakin batzuetara bideratu da, eta gobernuarteko antzeko hitzarmenak egin dira Suitzarekin, Greziarekin, Bulgariarekin eta Indiarekin.

Herrialdeek prestakuntza handiko langileak erakartzeko eskaintako beste pizgarri bat herrialdean gizarteratzeko laguntzak ematea da: haien lan-prestakuntza onartzea, langileei eta haien senideei hizkuntza ikasteko banakako laguntza ematea, eta familiei gizarteratzearekin lotutako beste gai batzuetan laguntza ematea. Esate baterako, Frantzia, *Fondation National Alfred Kastler* fundazioak eguneroko bizitzara ohitzen laguntzen die zientzialariei.

Gobernuek oraindik gai hau dute eztabaidagai: zer-nolako politiken konbinazioa behar da, giza kapitala immigrazioaren bidez sendotzeko? Prestakuntza handia eta goi-mailako hezkuntza dituzten etorkinak onartzeak onura handiagoa ekartzen badio gizarteratzearekin, langile horiek eramaten duten errenta baino (beste hitz batzuetan esateko, “kanporatze” positiboak badira), zerk zehaztu beharko luke zein den immigrazio-maila egokia?

Gai horiek forma zehatza hartzen dute programetan gauzatzen direnean. Adibidez, Singapurrek proiektu bat du, herrialdea lehentasunezko industrien garapenaren bidez XXI. mendera eramateko. Arazo hau du, ordea: bere eskulanaren %40k Bigarren Hezkuntza baino hezkuntza-maila baxuagoa du. Gobernuak helburu hau zehaztu du: egungo 10.000 langileko zientzialari- eta ingeniari-ratioa handitzea (kalkuluen arabera, 66 da), beste herrialde batzuen mailara iristeko (adibidez, Japonian 98 da, eta AEBetan 74). Zientzia biologikoetarako, gobernuak 60 milioi

Singapurreko dolar gorde ditu: *Life Sciences Manpower Development Fund* funtsa. Gobernuak atzerriko zientzialari ikertzaileak Singapurrera erakartzea espero du.

### **Atzerriko pertsona adimentsuentzako ate akademikoak**

Zenbait herrialdek (batez ere, AEBek, Erresuma Batuak eta Frantziak) beren ikas-tetxeen eta ikerketa-zentroen izen ona erabili dute, munduko pertsona onenak eta argienak erakartzeko. Estrategia horren alde onak agerian daude. Lehenengo eta behin, eskulan-merkatura sartzeko kostua txikiagoa da. Atzerriko ikasleak eta jakintsuak prestakuntza handiko emigratzaileak dira, bai gaur egun, bai etorkizun-nera begira, eta auto-hautatuak izaten dira. Kolektibo horrek eskolak jasotzeko moduko hizkuntz gaitasunak ditu. Bigarrenik, atzerriko ikasle graduatuak –bertako ikasle graduatuak ez bezala, azken horiek lan-aukera hobeak baitituzte– ikerketarako laguntzaileen hornikuntza ekonomikoa dira, jada lanerako prest daudenak. Eta, horren guztiaren gainetik, Ipar Amerikan eta Pazifikokoan, ikasle askori hezkuntzaren kostu osoa ordainarazten diete, eta, beraz, finantza-iturri osagarria dira unibertsitateentzat. Hala ere, herrialde batzuek beste batzuek baino arrakasta handiagoa dute, zenbait faktore alde baitituzte; adibidez, hizkuntza. ELGAko herrialdeetako atzerriko ikasleen %80 bost herrialdetan daudela kalkulatzen da (AEBetan, Erresuma Batuan, Alemanian, Frantzian eta Australian).

Herrialdeak baliabide guztiak erabiltzen ari dira atzerriar tituludun onenak beren herrialdeetan gera daitezen, ikasle-bisari buruzko legedian aldaketak eginez. Gaur egun, ikasleek ikasle-bisen ordean lan-baimenatarako bisak lor ditzakete hainbat herrialdetan; adibidez, Australian (eskaera Internet bidez ere egin dezakete), Kanadan, Frantzian, Irlandan, Japonian, Korean (gehienez hiru urtez), Zeelanda Berrian (titulazioa Zeelanda Berrian lortu dutenek puntu gehigarriak dituzte), Txekiar Errepublikan, Suitzan eta AEBetan. Herrialde batzuek kredituak eta dirulaguntzak eskaini dituzte, etorkizun onena duten hautagaien lizentziaturak finantzatzeko. Ikusten denez, atzerrian ikastea migrazioa bultzatzen ari da. AEBetan, National Science Foundation-ek jakinarazi zuen doktorego-mota bat lortu zuten txinatarren %80k AEBetan jarraitzen zutela, graduatu eta bost urtera. Hala ere, desberdintasun handi samarrak ikus daitezke. Doktore-titulazioa lortu zuten korearren %11k bakarrik jarraitzen zuten AEBetan, graduatu eta bost urtera.

### **Prestakuntza erakartzea, politikak formulatzean**

Batzuetan, immigrazio-politikak beste estatu batzuekin hitzartutako eskualde-integratzioko hitzarmenek baldintzatzen dituzte (esate baterako, EB, NAFTA edo CARICOM), bai eta alde ugari tratatuekiko konpromisoek ere. Europar Batasunean, estatuak oraindik ere aske dira hirugarren herrialdeetako herritarrak hartzean nahi duten politikak aukeratzeko (esate baterako, Alemanian, “egoitza-baimeneko” programa dute), nahiz eta EBko gainerako estatu etako herritarrek EBko lurraldeetan zirkulazio librea izateko konpromisoa hartuta eduki. Gainera, horrez gain, alde



ugariko erregimen bat izan dezakete sinatuta; adibidez, Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATS, *General Agreement on Trade in Services*). Akordio horren helburua zerbitzu-hornitzaile guztien zirkulazioa liberalizatzea da, akordioa sinatu duten estatu guztietako profesionalen zirkulazioa barne.

Gaur egun, zenbait eskualde-hitzarmeni esker, izugarri murrizten dira eskulanaren (batez ere, prestakuntza handiko eskulanaren) nazioarteko zirkulazio librearen aurkako oztopoak. Eskulanaren zirkulazioaren gaia lantzeko hartu diren ikuspegiak mota askotakoak dira. Eskulanaren zirkulazio libreari dagokionez, garatuenak hauek dira: Europar Batasunekoak eta, nahiz eta oso ezagunak ez izan, ANZCERTArenak (*Australia New Zealand Closer Economic Relations Trade Agreement*; hau da, Australiaren eta Zeelanda Berriaren arteko merkataritza-harremanak hobetzeko Merkataritza Akordioa). Estatuak behartuta daudenez tratatuen konpromisoei jarraitzea eta haiek betetzera, eskualde-tratatu horietako batzuek, ez guztiek, estatuek dituzten eskubideei eragiten diete, bai pertsonak sartzera eta bertan geratzea arautzeko eskubideei, bai tratatuan parte hartzen duten beste herrialdeetako herritarrak hartzeko eta tratatzeko politikak alde bakarretik aldatzeko eskubideei. Hala ere, hau da egoera ohikoena: tratatuek askatasun handia ematen diete estatuei enplegua eta enplegu-baldintzak arautzeko.

### **Zerbitzu Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATS)**

Uruguaiako Errondaren GATS akordioa da zerbitzuen nazioarteko merkataritzan legez aplika daitekeen alde ugariko lehen akordioa. Helburu nagusia zerbitzuen merkataritzaren pixkanakako liberalizazioa da; izan ere, garapen-bidean dauden herrialde askoren ustez, hori etorkizun oneko bidea da, besteen aldean abantailaren bat duten alorretan esportazioak handitzeko. Batez ere, 4. Modua dute buruan, pertsona “fisikoen” –hau da, langileen– mugimenduaren bidezko zerbitzu-horniketari buruzkoa.

Testu hau idatzi arte, herrialdeek GATSen 4. Moduarekiko hartutako konpromisotan ez da alde handirik sumatu aurretik zeuden baldintzekiko; alegia, exekutibo eta zuzendarien, espezialisten, ingeniarien eta prestakuntza handiko beste zerbitzu-hornitzaile batzuen zirkulazioa errazteko programetan eskainitako baldintzekiko. Jatorrizko herrialdeetara itzuliko ez liratekeen atzerriko langileak sartuko ziren beldur, herrialde industrializatuak mesfidati agertu dira GATS akordioaren bidezko zerbitzu-hornitzaileen sarrera liberalizatzeke –prestakuntza handikoena izan ezik–. Jatorrizko herrialdeetara itzultzeko asmorik ez zuten atzerriko langileak sartuko ziren beldur, Konpromisoak lortzeko borondate handiagoa izan dute, GATSen beste modu batzuetan; hain zuzen ere, kasu hauetan: (1) mugez gaindiko hornikuntzan, (2) hornitzailearen lurraldean egiten den kontsumoan, eta (3) atzerriko merkataritza-presentzian. Adibidez, zerbitzuak liberalizatzeke, Australiak eta Kanadak askoz konpromiso gehiago dituzte merkataritza-presentziaren bidez, pertsonen zirkulazioaren bidez baino. Bestalde, garapen-bidean dauden herrialde-


ek konpromiso gehiago hartu dituzte zerbitzuak atzerrian emateko, “4. Moduan” definitzen denez. Laburbilduz, GATS eremuak bermerik gabeko sarbidea ematen die “4. Modua” aukeratzen duten hornitzaileei. Herrialdeek, oraindik, aukera dute atzerriko langileentzako murrizketei eusteko edo murrizketak ezartzeko. Prestakuntza handiko langileak onartzeari buruz herrialdeek gaur egun dituzten politikak alde ugari konpromiso bihurtzean datza horren balioa.

### **Jatorrizko herrialdeetako prestakuntza handiko langileen galera kalkulaten**

Hezkuntza-maila eta prestakuntza onenak dituzten langileek garapen-bidean dauden herrialdeetatik alde egiteak kezka handia sortu du munduko toki askotan; batez ere, Afrikan, horrelako jende gutxi baitago eta medikuntzako profesionalen emigrazioak ahuldu egin baitu GIB/HIESaren aurkako borroka. Arazoa oso larria zenez, Commonwealtheko estatuak kontratazioari buruzko Kode Etiko bat egitera behartuta egon ziren, prestakuntza-mota horretako profesional gutxi zituzten herrialdeek galerarik izan ez zezaten. “Pertsona adimentsuen ihesaren” ondorioak ebaluatzeko, NDFk azterketa bat egin zuen, ELGAko herrialdeetara joaten ziren etorkinen hezkuntza-lorpenei buruz. Azterketa AEBetara joandako etorkinen hezkuntza-profilari buruzkoa zen; jatorrizko herrialdeen arabera zegoen egina, eta profil hori bera erabilgarritzat jo zuten herrialde horietatik ELGAko beste herrialdeetara joandako etorkinei buruzko datuak ondorioztatzeko. 1. taula (ikus behe-rago), azterketa horretan oinarrituta dago, eta bertan ikusten da jatorrizko herrialdeetan hezkuntza-kategoria bakoitzeko zer biztanle-motak emigratu duen AEBetara. Nahiz eta, itxura batean, Asiako herrialdeek unibertsitateko hezkuntza duten herritar asko galdu duten (AEBetara eta ELGAko beste herrialde batzuetara joanak), beren herrialdeetako unibertsitateko ehuneko txikia dira. Bestalde, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko uharteetako herrialde txikiek (adibidez, Trinidad eta Tobagok) emigrazio handia dute, eta, dirudienez, hezkuntza-maila oneko biztanleen ehuneko handia galdu dute ELGAko herrialdeen mesedetan. “Pertsona adimentsuen ihesaren” arazoa Afrikako herrialde pobreetan ere oso larria da; esate baterako, Sierra Leonan, Gambian eta Senegalen.

1. taulan ikusten denez, AEBak dira prestakuntza handiko migrazioaren helmuga-ko herrialde kutunena. Datuekin zenbait arazo badaude ere, eredu orokorrak nahiko argi uzten du prestakuntza handiko etorkin asko AEBetara joaten direla, beste herrialde edo eskualde batzuetara joan ordez. Bi salbuespen daude: Turkia eta Senegal, bertako etorkinek Alemaniara eta Frantziara joateko joera baitute.

Herrialde gehienak emigrazioa eta immigrazioa herrialdeak dira, eta, horren ondorioz, biztanle-galera beste herrialde batzuetako etorkinen etorrerarekin orekatzen da. ELGAko azterketa baten datuek (ikus 3. taula) argi erakusten dute zernolakoak izan diren osasun-profesionalen mugaz gaindiko mugimenduak Hegoafrikan, 1998tik 2000ra.



Iturria: OCDE

1995 arte, Hegoafrika zen osasun-profesionalak hartzen zituen herrialde garrantzitsuenetakoa; batez ere, medikuen migrazioa zela-eta. Baina, orduz geroztik, aldaketa handia gertatu da; izan ere, medikuntzako profesional guztien artean gehiago izan dira herrialdeetik atera direnak herrialdera sartu direnak baino. Hori ulertzeko, kontuan hartu behar da herrialdeak pairatzen duen GIB/HIESaren krisia eta horren testuingurua.

## Ondorioak

Arrazoi asko direla-eta -horietako asko, teknologiaren garapen azkarrak eraginak, eta beste asko, aldaketa demografikoak eraginak-, prestakuntza handiko etorkinen eskaera gero eta handiagoa da. Etorkizunean, joera horrek jarraitu ez ezik indarra ere hartuko du. Prestakuntza profesionalak eta teknikoak garatzeko denbora eta baliabideak behar direnez, ia beti bata zein bestea falta izaten dira leku guztietan. Herrialde aurreratuek immigrazio-politiketan eta programetan egindako aldaketek agerian uzten dute herrialdeek lehia handia dutela immigrazio-mota hori bereganatzeko, prestakuntzarik gabeko immigrazioa erakartzeko ez bezala. Ikusten dugu-

nez, herrialdeak garai bateko eredu murriztaileetatik beste politika batzuetara pasa dira, hezkuntza eta prestakuntza egokia dituen jendea erakartzeko politiketara, hain zuzen (bai eta lan-eskaintzarik gabe erakartzeko ere); horretarako, etorkin horiek onartzea errazten da, atzerrian bizi diren bertako herritarrak itzultzera animatzen dituzte, eta laguntza ematen zaie bertan bizitzen hasteko. Herrialde garatu eta garapen-bidean daudenen arteko soldatetan alde handiak daudenez –eta aldeak handitzen ari dira–, prestakuntza handiko langileen emigrazioa ere handitu egingo da hurrengo urteetan, eta garapen-bidean dauden herrialdeek ezer gutxi egin ahal izango dute. Arazo horrek nazioarteko komunitatearen arreta merezi du; izan ere, herrialde pobreak gainerako herrialdeen maila berean jartzeko ahalegin guztiek porrot egingo dute –kanpo-zorra kentzea barne–, baldin eta herrialde pobreek ez badute lortzen giza kapitaleko baliabideei eustea eta haiek ugaritzea.

### **Erreferentziak**

Adams, R.H. Jr. (2003) “International Migration, Remittances and the Brain Drain: a Study of 24 Labor-Exporting Countries”, *World Bank Policy Research Working Paper* 3 069, Washington, D.C.

Beine, Michel, Frederic Docquier, eta Hillel Rapoport (1999) “Brain Drain and Economic Growth: Theory and Evidence,” Seminar par l’Axe Ethique et development durable du Centre d’Economie et d’Ethique pour l’Environnement et le Developpement, Universite de Versailles St Quentin en Yvelines

([http://www.cybercable.tm.fr/~jarmah/public\\_html/Hrapoport11.htm](http://www.cybercable.tm.fr/~jarmah/public_html/Hrapoport11.htm)).

Bertelsman Foundation, 2000. *Migration in the New Millennium: Recommendations of the Transatlantic Learning Community*, Gutersloh: Bertelsman Foundation Publishers.

Carrington, William J. eta Enrica Detragiache, 1998. “How Big is the Brain Drain?” A Working Paper of the International Monetary Fund. Washington, D.C.

Christian Bryan Paul “Facilitating High-Skilled Migration to Advanced Industrial Countries: Comparative Policies” Institute for the Study of International Migration, Georgetown University, 2000ko martxoaren 13a.

Docquier, F. y H. Rapoport (2004) “Skilled migration: the perspective of developing countries” Discussion Paper, Department of Economics, Bar-Ilan University, 2004ko ekaina.

Dumont, J.Cristophe and Lemaitre, Georges (2004) “Counting immigrants and expatriates in OECD countries: A New Perspective” OCDE DELSA, Paris.

Findlay, Allan M., 2001a. “From Brain Exchange to Brain Gain: Policy Implications for the UK of Recent Trends in Skilled Migration from Developing Countries,” University of Dundee.

\_\_\_\_\_ 2001b. "Policy Proposals Relating to the Impacts on Developing Countries of GATS Negotiations over the Temporary Movement of Natural Persons," University of Dundee.

International Labor Organization (Lanaren Nazioarteko Erakundea) (1997) *Protecting the Most Vulnerable of Today's Migrant Workers: Tripartite Meeting of Experts on Future ILO Activities in the Field of Migration*, ILO: Geneva,

<http://www.ilo.org/public/english/90travai/migrant/papers/protvul/index.htm>.

Lowell, Lindsay(2001a). "Policy Responses to the International Mobility of High Skilled Labor," Georgetown University.

\_\_\_\_\_ (2001b). "Some Developmental Effects of the International Migration of the Highly Skilled," Georgetown University.

Martin, Philip (1990). "Labor Migration and Economic Development," 647.-664. orrialdeak, Commission for the Study of International Migration and Cooperative Economic Development, 1990. *Unauthorized Migration: Addressing the Root Causes. Research Addendum, Volume II*. Washington, D.C.

Mountford, A. (1997). "Can a Brain Drain be Good for Growth in the Source Economy?" *Journal of Development Economics*, 53(2), 287-303.

Nielson, J. "Current regimes for temporary movement of service providers: Labour mobility in regional trade agreements", documento presentado en el Joint WTO-World Bank Symposium on Movement of Natural Persons (Mode IV) under the GATS, Geneva, 2002ko apirila.

OCDE, (2001) *Trends in International Migration, 2001*. Paris: ELGA.

OCDE (2002) *International Migration of Physicians and Nurses: Causes, Consequences and Health Policy Implications*, DELSA/ELSA/WP1/WKF (2002)3  
Salt, John y Allan Findlay, 1989. "International Migration of Highly-Skilled Manpower: Theoretical and Developmental Issues," 159.-180. orrialdeak, Reginald Appleyard (ed.), *The Impact of International Migration on Developing Countries*, Paris: ELGA argitalpenak.

Stalker, P. (2000). *Workers Without Frontiers: The Impact of Globalization on International Development*, Geneva: International Labor Office/Lanaren Nazioarteko Bulegoa.

Staubhaar, Thomas(2000). "International Mobility of the Highly Skilled: Brain Gain, Brain Drain or Brain Exchange," HWWA Discussion Paper No. 88, Hanburgo, ISSN 1432-4458.

\_\_\_\_\_ eta A. Wolter (1997). "Globalization, Internal Labour Markets and the Migration of the Highly Skilled." *Intereconomics*, 32(4): 174.-180.

1. taula - Migrazio-tasa, lorpen akademikoen arabera (garapen-bidean dauden herrialdeetatik ELGAko herrialdeetara) 1990					
Jatorrizko herrialdea	Guztira	Eskolatzte-maila			AEB, ELGAko guztizko ehunekoa
		Lehen Hezkuntza edo gutxiago	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitateara	
Bangladesh	0,1		0,2-0,2	2,5-2,6	25,9
Txina	0,1		0,2-0,2	3,0-3,1	51,5
Fiji	3,6	0,4	6,6-7,1	21,3-27,1	100,0
India	0,2		0,3-0,3	2,6-2,7	44,1
Indonesia			0,1-0,1	1,5-1,690,5	
Iran	1,5		2,0-2,1	25,6-34,4	51,3
Korea	4,2	0,5	3,3-3,4	14,9-17,6	36,0
Malaysia	1,2		1,2-1,2	22,7-29,4	18,2
Pakistan	0,3		0,5-0,5	6,9-7,4	35,2
Papua Ginea Berria			0,1-0,1	2,2-2,3	100,0
Filipinak	3,1	0,1	6,0-6,4	9,0-9,9	71,6
Sri Lanka	0,8		0,5-0,5	23,6-31,0	14,1
Siria	0,7	0,1	2,3-2,3	3,0-3,1	100,0
Taiwan	1,6	0,1	0,8-0,8	8,4-9,2	100,0
Thailandia	0,2		1,7-1,8	1,5-1,6	87,6
Turkia	8,5	0,7	26,9-36,9	46,2-86,0	1,9
Aljeria	6,3	0,1	19,7-24,6	55,0-122,1	0,6
Benin			0,1-0,1	0,100,0	
Kamerun			0,1-0,1	3,2-3,400,0	
Afrika Erdiko Errepublika			0,1-0,1	1,7-1,8	100,0
Kongo			100,0	0,5-0,6	
Egipto	0,5		0,8-0,8	5,0-5,3	50,6
Gambia	0,2		0,6-0,6	61,4-159,3	100,0
Ghana	0,4		0,7-0,7	25,7-34,6	53,3
Kenya	0,1		0,3-0,3	10,0-11,1	100,0
Lesotho				100,0 2,9-3,0	
Malawi			0,1-0,1	2,100,0	
Mali			0,1-0,1	0,100,0	
Maurizio	0,2		0,1-0,1	7,2-7,7	100,0
Mozambike			0,5-0,5	8,6-9,4	100,0
Ruanda			100,0	2,2-2,3	
Senegal	2,4		14,5-17,0	47,7-91,3	2,0
Sierra Leona	0,3		1,2-1,3	24,3-32,1	100,0
Hegoafrika	0,4		0,4-0,4	7,9-8,5	32,4
Sudan			0,1-0,1	1,100,0	
Togo			...-0,1	1,100,0	
Tunisia	8,6	0,2	20,2-25,3	63,3-172,2	1,1
Uganda	0,1		0,6-0,6	15,5-18,4	100,0
Zambia	0,1		0,1-0,1	5,0-5,3	100,0
Zimbabwe	0,1		0,3-0,3	4,7-4,9	100,0
Costa Rica	2,4	0,1-0,1	10,1-11,2	7,1-7,7	100,0

Jatorrizko herrialdea	Guztira	Eskolatzte-maila			AEB, ELGAko guztizko ehunekoa
		Lehen Hezkuntza edo gutxiago	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitateara	
Dominikar Errepublika	6,5	0,6-0,6	30,5-43,8	14,7-17,2	96,7
El Salvador	11,3	1,6-1,6	66,6-199,3	26,1-35,4	100,0
Guatemala	3,4	0,4-0,4	29,1-41,1	13,5-15,6	100,0
Honduras	3,0	0,2-0,2	15,7-18,7	15,7-18,6	100,0
Jamaika	20,3	0,7-0,7	33,3-50,0	77,4-341,8	61,0
Mexiko	7,7	1,6-1,7	20,9-26,4	10,3-11,5	100,0
Nikaragua	4,7	0,3-0,3	33,3-50,0	18,8-23,2	100,0
Panama	6,7	0,1-0,1	9,4-10,4	19,6-24,4	100,0
Trinidad eta Tobago	9,5	0,3-0,3	16,0-18,9	57,8-136,9	100,0
Argentina	0,6		1,0-1,0	2,7-2,8	72,3
Bolivia	0,7		2,2-2,2	4,2-4,4	100,0
Brasil	0,2		1,6-1,6	1,4-1,4	44,0
Txile	1,1		1,9-1,9	6,0-6,4	54,3
Kolonia	1,1	...-0,1	3,8-3,9	5,8-6,1	96,9
Ekuaador	1,9	0,1-0,1	11,4-12,9	3,8-4,0	100,0
Guyana	14,5	0,9-0,9	23,7-31,1	77,5-345,3	100,0
Paraguai	0,2		0,7-0,8	2,0-2,0	100,0
Peru	1,0		2,7-2,7	3,4-3,6	87,1
Uruguai	1,1		2,3-2,4	3,8-3,9	100,0
Venezuela	0,4		0,8-0,8	2,1-2,2	77,4

Iturria: J. Carrington eta Enrica Detragiace (1998) "How big is the brain drain?" IMF Working Paper WP/98/102, Washington, D.C. Kalkuluak egiteko, egileek AEBetako 1990eko erroldaren datuak, ELGAko Migrazioari buruzko Informazio Jarraituko Sistema, NBERen Biztanle Urtekaria eta hezkuntza-lorpenei buruzko Barro-Lee datuak erabili dituzte. Heinaren goiko balioari dagokionez, Barro-Lee zifretan migratzaileak ere biztanleen barnean sartuta daudela jotzen da; heinaren beheko balioari dagokionez, berriz, sartu gabe daudela jotzen da. Lehen Hezkuntza edo gutxiago, eskolatzeko 0-8 urteei dagokie; Bigarren Hezkuntza, 9-12 urte arteko; eta unibertsitatea, 12 urtetik gorakoei. Kalkuluetan, AEB ez beste ELGAko herrialdeetarako migratzaileek AEBetarako migratzaileen hezkuntza-maila bera lortzen dutela jotzen da. Migratzaileak kanpoan jaio eta Australian, Kanadan eta AEBetan bizi direnak dira. ELGAko gainerako herrialdeetan, migratzaileak herrialdean bizi diren atzeritarrek dira (...) %0,1 baino gutxiago dira.





## **Emakumeen migrazio-fluxuen garrantzia**

Trinidad L. Vicente

*Deustuko Unibertsitatea*

Laburpena: gaur egun, emakumeak munduko etorkinen erdiak dira. Nolanahi ere, duela gutxi arte emakumeak ikusezin bihurtu dituztenez, askoz hobeto ezagutzen ditugu gizonen immigrazioari buruzko faktoreak eta dinamikak emakumeen immigrazioari buruzkoak baino. Hori dela eta, artikulu honetan, emakumeen immigrazioari bakarrik erreparatuko diogu, eta, hainbat faktore azaltzeko (haien mugimenduen jarraibideak, kokatzeko jarraibideak, migrazio-proiektuak eta faktore horiek guztiek emakumeengan eta haien familia- eta gizarte-inguruan dituzten ondorioak), lagungarri diren arrazoi batzuk aztertuko ditugu, bai gizarte igortzaileetan oinarrituta, bai gizarte hartzaileetan oinarrituta.

Gako hitzak: nazioarteko migrazioak, emakumeen migrazioak, emakumeen migrazioa azaltzen duten faktoreak, jatorrizko herrialdeak, herrialde hartzaileak.

### **Migrazio-mugimenduen feminizazioa: elementu berria edo jarraipena?**

Gaur egun, gure gizartean, duela bi hamarkada, Espainiako Estatuko lehenengo Atzeritartasun Legea onartu zenean, nazioarteko immigrazioak pentsaezina zen interesa hartu du. Garai hartan, Espainiako biztanleek bazekiten gure inguruko Europako herrialdeetan beste herrialde batzuetatik iritsitako etorkin ugari zeudela, baina, gure testuinguruan, interes eta kezka handiagoa sortzen zuten gure mugetatik kanpo bizi ziren jatorri espainiarreko emigratzaileak eta haien egoerak, bai eta hamarkada batzuk lehenago hasitako barne-migrazioko mugimenduek ere. Dena dela, egoera asko aldatu da azken urteotan, eta nazioarteko immigrazioak

gero eta gaurkotasun handiagoa hartu du, eta, gaur egun, oso presente dago, ia egunero, bai hedabideetan, bai herritarren arteko eguneroko elkarrizketetan, egungo kezka nagusietako bat baita guretzat.

Izan ere, Espainiatik kanpo bizi diren emigratzaile ugari badaude ere, Espainiako Estatua etorkizun hobearen bila datozen gero eta pertsona gehiagoren helmuga da, globalizatuz doan munduan. Horrenbestez, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, 2004an, atzerrian jaiotako 3.693.806 biztanle zeuden Espainian bizitzen; hau da, biztanle guztien %8,5. 2000n, atzerriko biztanleak %3,6 bakarrik ziren; horrek esan nahi du Espainian azken lau urteetan %150 handitu dela immigrazioa. Izan ere, gaur egun, Espainiako Estatua da Europar Batasuneko herrialdeen artean etorkin gehien jasotzen ari den herrialdea, migrazio-saldoek argi eta garbi adierazten dutenez: 2003an, Espainiako Estatuak biztanleak Europar Batasuneko biztanleen %11 ziren, eta Espainiako Estatuak EBren migrazio garbiaren %23 zuen. Urteko saldoaren arabera sailkapenean, Italia zen bigarrena (%21), eta, haren atzetik, Alemania (%16), Erresuma Batua (%10), Portugal eta Frantzia (%6 bakoitzak), besteak beste (CES, 2004:16).

Espainiako Estatuan bizi diren atzeritarren kopurua handitu egin da, eta haien jatorrizko herrialdeak ugari: 2004an, 50 kolektibo baino gehiagok zituzten 5.000 lagunetik gora, eta, duela lau urte bakarrik, 2000n, pertsona-kopuru horretara 26 herrialde bakarrik iristen ziren. Azken batean, Espainiarako migrazio-fluxuak gure hurbileko herrialde europarrek dituzten ezaugarri berak hartuz joan dira; hori bai, horietako askok immigrazio-historia luzeagoa dute, adibidez, Frantziak, Alemaniak eta Britainia Handiak.

Egungo migrazio-mugimenduen ezaugarrien artean, artikulu honetan hizpide izan-gogon dugun beste faktore bat nabarmentzen da: migrazio-mugimenduen feminizazioa. Espainiako Estatuan, emakume etorkinak 2004an errolatuta zeuden atzeritarren ia erdiak ziren (%47, hain zuzen ere); hau da, munduan emakume atzeritarrek zuten ehunekoa baino pixka bat txikiagoa (%48), Nazio Batuek 2000rako emandako datuen arabera (Zlotnik, 2003<sup>1</sup>). Iturri horren arabera, emakumeen ehunekoa handiagoa da herrialde garatuetan, migratzaileen erdiak baino gehiago izatera iristen baitira (Kelson eta DeLaet, 1999). Testuinguru horretan, Espainiako Estatuan gaur egun dauden emakume etorkinen kopuruak antz handiagoa du garapen bidean dauden herrialdeetako kopuruekin gure inguruko Mendebaldeko herrialde europarren kopuruekin baino (garapen bidean daudenek ehuneko txikiagoa baitute, %46 ingurukoa).

Hala ere, emakume etorkinen presentzia ez da gauza berria, ez Espainiako Estatuan, ez nazioarteko migrazio-fluxuetan, oro har hartzen baditugu. 60ko

---

<sup>1</sup> Gaur egun, munduan, emakumeak migratzaileen ia erdiak dira, 85 milioi, hain zuzen ere, eta gizonak 90 milioi dira.

hamarkadan, emakume etorkinak munduko etorkinen %47 ziren (Nazio Batuak, 2002); beraz, hortik ondorioztatzen da azken urteotan emakumeek migrazio-fluxuetan parte-hartze handiagoa izan dutela, eta hori kopuru absolutuetan islatzen da (gizonen migrazioarekin gertatu den bezala), nahiz eta kopuru erlatiboetan, itxuraz, askorik ez den handitu (%2 besterik ez). Espainiako Estatuan, emakumeen immigrazioa gizonezkoenaren gainetik zegoen aurreko hamarkadaren hasieran (INE, 2005), eta, hala ere, duela gutxi arte, ez da hasi arreta jartzen modu espezifikoan emakume migratzaileengan, nahiz eta lehen baino ehuneko txikiagoa izan.

Horrez gain, kontuan hartzen badugu immigrazio-tradizio handia duten herrialdeetan (adibidez, Britainia Handian edo AEBetan) beste toki batzuetatik joandako emakumeak gizonezkoak baino gehiago izan zirela, bai eta 60ko hamarkadatik lehenagoko hamarkadetan ere (Houston, Kramer eta Barren, 2004), kolektibo horretaz izandako interes eskasa ez da, askotan esaten denez, gutxi izatearen ondorio, baizik eta beste arrazoi batzuen ondorio; besteak beste, emakumeen jarduera ekonomikoari emandako balio eskasaren ondorio, emakumeak ez baitira hartu eragile nagusizat. Gainera, egoera hori sendotu egin da; izan ere, duela denbora gutxi arte, emakumeek ez dute izan tokirik espazio publikoan, batez ere, beheragoko status bateko pertsonatzat hartu direlako eta eremu pribatu-ugaltzaileko funtzioak egokitu dizkietelako, eta hori ez da orain dela gutxi arte aldatzen hasi, gizartearen zati handi batek nahi lukeen baino askoz erritmo geldoagoan, gainera. Halaber, egoera hori dela eta, duela gutxi arte, interes txiki-egia egon da migrazio-mugimenduen gaineko informazioa sexuen arabera banatuta erregistratzeko, bai makro-mailan, bai mikro-mailan; beraz, gaur egun askoz hobeto ezagutzen dira gizonen immigrazioari buruzko faktoreak emakumeen immigrazioari buruzkoak baino (Nazio Batuak, 1994).

## **Gizonen migrazioaren eragina emakumeengan**

Are gehiago, emakumeek ez dute interes handirik sortu ez migrazio-fenomenoen protagonista izateagatik, ez eta, erabakiak hartzean duten funtzio aktiboa edo ez hain aktiboaren ondorioz, familiako beste kide batzuen emigrazioa esperimenteratzeagatik, egoera horrek maila pertsonalean, familiarrean eta sozialean eragiten dituen aldaketak esanguratsuak badira ere. Aldaketak mota askotakoak izan daitezke, hainbat faktoreren arabera eta jatorrizko herrialdeetako berdintasun-eraketak sortutako baldintzen arabera. Horrenbestez, atzean geratu diren familiako emakumeengan (emazteak, amak, arrebak edo alabak) gizonen emigrazioak duen eragina are gehiago sakondu beharreko gaia da, horri buruz egindako azterketak oso gutxi baitira (Brown, 1983; Sutcliffe, 1998; Sadiqi eta Ennaji, 2004). Hala ere, azterketa horiei esker, agerian geratu da gizonen migrazioak emakumeengan inpaktu negatiboa edo positiboa izan dezakeela, bai eta, aldi berean, negatiboa eta positiboa ere, gizartearen, gizarte-taldearen eta familia-nukleoaren ezaugarrien arabera.

Efektu negatiboen artean, migrazio-prozesuek familiaren eremuan eta komunitate askoren gizarte-sarean duten inpaktu desorekatzailea nabarmentzen da; migrazioek, gehienetan, funtzioak eta ohiturak aldatzea eragiten baitute. Jatorrizko gizartean geratutako emakumeengan gizonen migrazioak duen inpaktu negatiboa atzean geratutako emakumeen bizi-baldintza orokorren arabera da. Izan ere, gehiegitan, emakumeek uko egin behar izaten diote izandako autonomia eskasari, etxea utzi behar baitute, senarraren familiarekin egoteko; edo, bestetik, erantzukizun gehiago hartu behar dituzte beren gain, familia-unitatea aurrera ateratzeko zeregin gehiagoz arduratu behar baitute, eta horrek, askotan, oso bizi-baldintza gogorretan bizitzea dakar<sup>2</sup>.

Gainera, gero eta gehiagotan esaten denez, pobrezia emakume-aurpegia du, eta, nagusiki, emakumea buru duten guraso bakarreko familia-nukleoetan eragiten du, emakumearen egoera zibila edozein delarik ere. Migrazio-arrazoiengatik guraso bakarra duten familia-nukleoak gero eta gehiago badira, eta, horrez gain, emigratu duten gizonen gizarte hartzailean lanik aurkitzen ez badute edo lan ezegonkorra eta gaizki ordaindua lortzen badute (gero eta gehiago gertatzen da hori), jatorrizko gizartean geratzen diren senideek jasan beharreko efektu negatiboak are larriagoak izango dira; egoera horrek ekonomian ondorioak eragiteaz gain (fami-liaren egoera ekonomikoa hobetzeko, diru gutxiago bidaliko du gizonak), familia-egituran aldaketak eragiten dituelako, horrek eragina baitu emakumearengan, gainerako senideengan bezala.

Horrenbestez, landa-gizarte askotan, senarrak alde egin duenez, maila sozio-ekonomiko baxuetako emakumeak behartuta daude familiaren jabetzako soroetan lan egitera (emakumeei jabe izatea edota lanaldi osoko nekazari izatea onartzen ez dieten arren). Gainera, emakumeen eskulan-premia handiagoa da, emigrazio-gizarte askotan semeen heziketak alabek baino iraupen luzeagoa baitu; beraz, neskek lehenago utziko diote ikasteari, familia-unitatearen alde lan egiteko, batez ere, familiaren premia ekonomikoek hori egitera behartzen dituztenean. Sadiqik Marokori buruz adierazten duenez (2003), emakumeen ekarpen ekonomikoa funtsezkoa da familia-nukleoak iraun dezan, nahiz eta emakumeen lana generoaren arabera funtzio-banaketa sozialarekin uztartu behar den.

Baina gizonen emigrazioak jatorrizko gizartean geratzen diren emakumeengan ere izan ditzake efektu positiboak, eta, egiatan, izan baditu. Izan ere, emakume horiek, nahiz eta askotan zeregin gehiagori aurre egin behar dieten –batez ere, alargunak badira eta nebek emigratu egiten badute edo emigratzaileen emazteak badira, batik bat, amak baldin badira– independentzia handiagoa izango dute familia-

<sup>2</sup> Bob Sutcliffe-k (1988) adibide oso egokiak erabiltzen ditu hori adierazteko, Pakistaneko emakume askoren kasuak, langile emigratzaileen emazteak, jasotzen baititu: emakume horiek buruko estresa dute, egoera zailei aurre egin behar baiti-te, eta, patologia hori askotan agertzen denez, izena ere jarri diote; "Dubai sindromea", hain zuzen ere, senar gehienak Persiako Golkoko herrialde horretara joaten baitira.

ren baliabideak eta etxeko ekonomia administratzeko, eta, migrazioaren ondorioz, ordura arte gizonentzat bakarrik zen eremu publikoan presentzia handiago izango dute, eta, horren ondorioz, gizarte-botere eta autoestimua handiago izango dute jatorrizko gizarteetan.

Seme-alabarik gabeko emazte ezkonberriak, aldiz, senarraren familiarekin bizitzera joaten dira sarritan, familia horrek kontrolatzen baitu emigratzaileak bidalitakoa. Hala ere, emakume horiek gizarte-botere handiagoa lortuko dute seme-alabak iristean, eta, gehienbat, emakumeak dira gizarte hartzailean senarrekin biltzen direnak.

Bestalde, emigratzaileak familiarentzat edota jatorrizko gizartearen garapen orokorrerako egindako bidalketak ekarpen ekonomiko garrantzitsuak dira, eta hori, zalantzarik gabe, migrazioaren ondorio positiboa da. Herrialde askotan, emigratzaileek bidalitako dirua herrialdearen diru-iturri garrantzitsuenetakoa da, eta, horren ondorioz, emigratzaileek jatorrizko gizarteetan inbertitzea sustatzen ari dira herrialde asko.

Nolanahi ere, bidalketak egitea eta bidalitakoari esker familiaren egoera ekonomikoak hobera egitea dira atzean geratutako emakumeengan gizonen emigratioak eragiten dituen ondorio positiboenetakoak. Hala ere, bidalitako diruaren zenbatekoa eta maiztasuna ez dira beti berak izaten, faktore hauek baldintzatzen baitituzte: migrazio-proiektuaren aldiak, emigratzailea familiarekin ez joateak eta familiarekiko loturaren sendotasunak. Esate baterako, Marokoko gizartearen argi dute Europara emigratutako senar, seme edo neba bat izatea diru-iturri garrantzitsua dela. Izan ere, emigratzaileen familien esku dauden baliabideak emigratzaileek gabeko familienak baino hobeak izaten dira, batez ere, emigratzaileak haiei bidalitakoagatik; aldiz, atzerrian seniderik ez duten familietan, diru-iturri nagusia lanaren ondorioz lortutakoa da (Chattou, 1998).

Horrez gain, familiako gizon jakin batzuek emigratzaileak familia horretako emakumeen eskolaldia murriztea eragiten du, familia-unitatea aurrera ateratzeko haren ekarpena beharrezkoa baita, baina askotan alderantzizkoa ere gertatu izan da, bai Indian (Sutcliffe, 1998), bai Marokon (Sadiqi eta Ennaji, 2004): gizonen emigratioak emakumeen eskolaldia luzatzea ekarri du, gizonen munduaren gaineko ikuspegi berria eta balio berri modernoak bereganatu baitituzte. Beste alde batetik, ikasleen ama askok ere bere egiten dute ikuspegi berria, hezkuntza-maila ona duten alabek lana aurkitzeko aukera hobeak dituztela onartzen baitute; beraz, egoera ekonomikoak eta haienganako gizarte-kontrolak horretarako aukera ematen badie, jarrera irekiagoa izango dute semeek zein alabek hezkuntza-sisteman jarraitzeko.

## **Emakume emigratzaileak eta familiaren bateratzea: migratzeko arrazoia edo sarbidea?**

Lehenago nabarmendutako datuen arabera, emakumeak beti egon dira migrazio-mugimenduetan (Ravenstein, 1885), nahiz eta orain dela gutxi arte emakumeak ez diren nahikoa interesgarriak izan nazioarteko migrazioko fenomenoaren gaineko azterketen helburu nagusi izateko (80ko hamarkadan Europako testuinguruan, eta are beranduago, 90eko hamarkadan, Espainiako testuinguruari buruzko azterketetan).

Emakumeak ikusezin izan dira migrazio-teorian, ia 70eko hamarkadan hasitako aldia arte, petrolioaren krisiaren hastapena arte. Garai hartan, mundu garatuaren atzeraldi ekonomikoaren eta langabezia-tasaren igoeraren ondorioz, mugak ixteko aldiari ekin zitzaion, gizarte hartzailean lan egiteko asmoz beste herrialde batzuetatik iritsitako jendea geldiarazteko. Horrenbestez, etorkinaren profila –hari buruzko irudiaren arabera, langilea, gizonetako, bakarrik etorria eta gizarte hartzailean aldi baterako bakarrik iritsia– aldatu egingo da: hortik aurrera, gizarte hartzailean familiarekin denbora luzerako geratzeko asmoa zuen langilea izan zen, mugak igarotzeko zailtasunak handiagoak zirelako eta jatorrizko gizarteetako baldintza ekonomikoak okerrera egin zutelako. Horrez guztiaz gain, aldi horretan, jatorrizko herrialdera itzultzeko politika berria jarri zen abian, hara joan nahi zuten etorkinei pizgarriak eskainiz, behin betiko itzul zitezen sustatzeko.

Gainera, testuinguru horretan, gizarteratze-politikek aparteko interesa hartu zuten. Izan ere, atzerriko biztanleek gizarte hartzailean denbora luzeagoz, bai eta betiko ere, geratu behar zuten, Europako gizarteek egokitzen jo zuten kolektibo hori integratzeko eta haiei eskubide berriak onartzeko lanari ekitea, gizarte-justiziako irizpideengatik, eta, gehienbat, bertakoen eta etorkinen arteko bizikidetzaren hobetzeko<sup>3</sup>. Horrenbestez, testuinguru horretan, mugak ixteko eta itzultzea sustatzeko politikekin batera, beste politika batzuk sortu ziren, gizarte hartzailean bizi ziren etorkinen familiak haiekin bizitzera joan zitezen sustatzeko; izan ere, neurri hori funtsezkotzat hartzen zen behin betiko bizitzeko geratzeko prozesuan, eta, horren ondorioz, emakumeek protagonismo handiagoa izan zuten migrazio-mugimenduetan, aldi horren amaieran.

Ordura arte etorkinen kolektiboa gizonetako langileek osatzen zutela ulertzen zen, gizarte hartzaileetara haiek bakarrik iristen baitziren, eta familiaren bateratzeak aukera eman zien, nagusiki, emazteei eta seme-alabei gizarte hartzaileetara iristeko (emigratutako gizonen emazterik eta seme-alabarik bazuten, behintzat). Hori dela eta, migrazio-aldi horren azken boladaren ezaugarri nagusietako bat migrazio-fluxuak gero eta gehiago feminizatzea izan zen; dena dela, gero eta gehiago zirela onartzeak ez zuen ekarri biztanle-sektore horren bizi-baldintzak ezagutzeko

---

<sup>3</sup> Horren adibide egokia artikulua hau idatzi bitartean Frantzia gertatzen ari dena da; izan ere, duela egun batzuetatik, kalendariorako gogorrak gertatzen ari dira Frantziako hiri batzuetan, baldintza kaskarretan bizi diren biztanleak gehiago diren zenbait auzotegitan. Gehienak frantziar naziotasuna dute, baina jatorriz atzeritarak dira (hau da, bigarren eta hirugarren belaunaldiko etorkinak), eta, horren ondorioz, lan-munduan eta gizartearen aukerak mugatuta dituzte.

interes akademiko handiagorik. Izan ere, soilik familiaren bateratzearen bidez iritsi eta aurretik migrazio-proiektuari bakarrik ekin zion senarrarekin edo aitarekin gizarte hartzailean bizitzen hastera etorri zirenez, emakumeak subjektu pasibotzat eta beste baten mendekotzat jotzen ziren (ikuspuntu ekonomikotik nahiz soziale-tik), haien mugimendu-dinamikak, kokatzeko jarraibideak, migrazio-proiektuak eta bizi-baldintzak senarrak edo aitak baldintzatzen baitzituen, eta, horren ondorioz, ikergai nagusia gizonen immigrazioa zen. Emakumeek beren kabuz emigratzen dutela onartzen denean ere (oso gutxitan), emigratzeko arrazoiak eta iristen diren baldintzak gizonen berberak direla esaten da; beraz, ez da beharrezkotzat jotzen emakumeak ikergai nagusi diren proiektuak abian jartzea.

Emakumeen migrazio-mugimenduak gai nagusitzat dituzten gero eta ikerketa gehiago daude, eta, haietatik ondorioztatzen denez, emakumeek ez dute emigratzen familiarekin bateratzeko bakarrik, beste arrazoi asko baitituzte jatorrizko tokia uzteko eta gizarte berri batean behin betiko edo denbora luzean bizitzen hasteko. Hona hemen arrazoi horietako batzuk: emakumeen eta haien familien egoera ekonomikoa hobetzea, haientzat edo seme-alabentzat hezkuntza edo lan-munduan aukera hobekia bilatzea, independentzia pertsonal, familiar edo sozial handiagoa izateko gogoia, aldatzeko gogoia edo beste errealitate batzuk ezagutzeko desioa, esperientzia berriak bilatzea, maitasuna, indarkeriako egoera jakin batzuetatik (etxeko indarkeria, indarkeria politikoa edo genero-arrazoiengatik indarkeria) ihes egiteko premia...

Hala ere, horrek ez du esan nahi familiaren bateratzea ez denik erabiltzen kasu askotan gero eta zorrotzagoak diren kontrolak gaintzeko, kontuan hartu behar baita immigrazio-herrialdeen immigrazio-politikak gero eta murriztaileagoak direla, nahiz eta benetako migrazio-arrazoiak zerikusirik ez duen sartzeko bide horrekin.

### **Emakumeen migrazioa baldintzatzen duten faktoreak**

Emakumeen migrazioaren garrantzia aldatu egiten da jatorrizko herrialdeen arabera, eta, horrez gain, ez du joera bera herrialde hartzaile guztietan. Gainera, alde handiak daude familia-talde bakoitzeko gizon- eta emakume-kopuruei erreparatuta, eta hori ere garrantzitsua da immigrazioak emakumeengan duen inpaktua eta emakumearen gizarteratze-dinamikak aztertzean.

Hori guztia faktore batzuen ondorio da: horietako batzuk baliagarriak dira emakumeek migrazio-mugimenduetan duten presentzia azaltzeko; beste batzuek, berriz, emakumeak bertan ez egotea justifikatzen dute. Jakina denez, faktore horiek mota askotakoak dira, ez dute garai eta toki guztietan garrantzi bera, eta elkarri lotuta daude; baina, zalantzarik gabe, baliagarriak dira azaltzeko zergatik emigratzen duten emakume batzuek eta ez beste batzuek, zenbait emakume jatorrizko herrialdeetan geratzen baitira, nahiz eta, itxuraz, alde egindakoak eta bertan geratutakoak egoera berean egon.

Jatorrizko gizarteetako baldintzei dagokienez, migrazio-mugimenduetan emakumeak egotea eragiten duen faktore bat, zalantzarik gabe, emakumeek herrialde horietan duten gizarte-posizioa da. Horrenbestez, izaera patriarkalak, patrilinealak, piramidalak eta endogamikoak antolaketa sozio-familiarra baldintzatzen duten komunitate tradizionalenetan, adibidez, gizarte arabiarretan (Martín Muñoz, 2003: 56-59), emakumeek zailtasun handiagoak dituzte espazio publikoan tokia izateko, bai eta migrazio-esperientzian sartzeko ere, eta aukera bakarra familiaren bateratzea da, gizon emigratzaileen emazte edo alaba direla baliatuta.

Beste gizarte batzuetan, berriz, espazio publikoan emakume gehiago egoteak, bai eta seme-alabak zaintzeko eta mantentzeko erantzukizun handiagoa bereganatzeko ere, emakumeen migrazioa bultzatzen du. Hori Latinoamerikako gizarteetan gertatzen da, emakumeak buru diren guraso bakarreko familia ugari baitaude, bereizketengatik, dibortzioengatik, alarguna izateagatik edo amatasunari bakarrik aurre egiteagatik. Egoera horietan, migrazio-esperientziak aukera ematen die emakumei familiari eusteko, maila sozio-ekonomikoa hobetzeko edo seme-alabei hezkuntza hobea emateko; beraz, emazte, ama edo/eta ahizpa zahar asko migrazio-prozesuaren aitzindari izaten dira, eta seme-alabak familiako beste emakume batzuen esku uzten dituzte.

Nolanahi ere, emakumeenganako kontrol handia duten gizarteetan ere, aldaketa handiak gertatzen ari dira, eta aldaketa horiek, askotan, migrazio-mugimenduetan emakumeak modu autonomoan egotea eragiten dute. Aldaketa horien artean bat nabarmentzekotan, gizarte horiek modernizatzeko eta urbanizatzeko eta bertako balioak aldatzeko prozesua nabarmentzen da. Prozesu hori faktore ugari baldintzatu dute: herrialde horietan bizi den aldaketa politikoko eta ekonomikoko prozesuak; emakumeek hezkuntzan sartzeko, soldatapeko lanean hasteko eta jaiotza-kontrola egiteko aukera gehiago izateak; globalizazio-prozesuak edo migrazio-mugimenduen aitzindari izan ziren gizonak jatorrizko gizarteetara itzultzeak, nahiz eta oportetarako bakarrik izan, gizarte hartzailean bereganatutako balio berriein itzultzen baitira;...

Eta, gainera, aldaketa horiek emakumeek nahi bezain azkarrak ez direnez, gero eta emakume gehiagok erabakitzen dute migrazio-prozesuei ekitea, familia- eta gizarte-egitura zurrunetatik ihes egin nahian. Hori gertatzen zaie, adibidez, dibortziatuak edo ama ezkongabeak izateagatik jatorrizko gizarteetan balioespen negatibok jasaten dituzten emakumei, edo, generoaren gizarte-eraikuntzaren ondorioz, giza eskubideak urratzen dizkieten egoeretatik ihesi doazen emakumei; besteak beste, emakumeen borondatearen aurka hitzartutako ezkontzen kasuetan...

Ildo horretan, nabarmentzekoa da aurten Espainiako Estatuak emandako aurrerapausoa; izan ere, Europan eta hemen lehenengo aldiz, behartuta ezkonduetako Persiako Golkotik etorritako emakume bati errefuxiatuaren estatutua onartu zaio.



Emakume horrek senarrak eta haren familiak denbora luzean tratatu txarrak eman zizkiotela frogatu zuen, hango agintariak eta justiziako estamentuek ezer egiten ez zuten bitartean<sup>4</sup>. Gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik jazarpenera argudiatuta, Espainiako gobernuak erabaki zuen emakume horren kasuak 1951ko Genevako Konbentzioan Errefuxiatuen Estatutuan zehaztutakoa betetzen zuela; horrek garrantzi handia du, kasu berriak kontuan hartzeko eta onartzeko jurisprudentzia ezartzen baitu. Izan ere, zalantzarik gabe, giza eskubideak urrututa dituzten emakumeei nazioartean onarpen eta babes handiagoa emateak emakume gehiago bultzatuko lituzke horrelako egoerak salatzera, nahiz eta horretarako, nahitaez, migrazio-prozesu bati ekin behar izan, kasu horretan bezala.

Emakumeen migrazio-mugimenduak azaltzean kontuan hartu behar den beste faktore bat migrazio-politiken bilakaera da, bai herrialde igoeretan, bai herrialde hartzaileetan, hautapen- eta debeku-prozesuen bidez gizonak eta emakumeak emigratzeko dituzten aukerak baldintzatzen baitira.

Ildo horretan, gizarte igoerretara hedabideen bidez iritsitako albisteek emakumeen emigrazioa baldintzatu dute, albiste horiek gizarte hartzaileetan emakumeak jasan-dako gehiegikeriei eta erasoei buruzkoak baitziren. Hori hainbat herrialdetan geratu da; adibidez, Filipinetan, Indian, Pakistanen, Tailandian edo Bangladeshen. Izan ere, lan hobeak bila herrialde horietatik Persiako Golkoko herrialdeetara joandako emakumeen salaketa ugari iritsi dira. Asiako herrialde horietako batzuek, gehiegikeria horien albisteengatik eta emakumeak babesteko asmoz (beren kabuz emigratzeagatik erasotzen errazagoak direla pentsatzen dutenez), lan-arrazoiengatik emakumeen migrazioa debekatzen edo, behintzat, murrizten saiatu dira (Constable, 1997). Neurri horiek, zalantzarik gabe, herrialde horietatik nazioarteko migrazioaren bolumena eta hautapena baldintzatu dute.

Dena dela, emakume migratzaile askok lan-esplotazioa edo, are larriagoa, pertsonen salerosketa (lan- edo sexu-arrazoiengatik edo bestelako arrazoi batzuegatik) pairatzen dute, eta, hori eskura ditugun baliabide guztiekin salatu eta borrokatu behar denez –nola ez!–, ez da ulertu behar arazo horiek herrialde batetik beste herrialde batera joaten diren emakumeei bakarrik dagozkien arazoak direla, bi fenomenoak herrialde batzuen barruan ere gertatzen baitira, eta gizon heldu eta haur askori ere eragiten diete. Eta, beste alde batetik, arazo larri horri irtenbideak aurkitzeko, ez dira biktimen (benetakoen edo balizkoen) giza eskubideak ukatu behar, emigratzeko eskubidea ukatuz egiten den bezala (1948ko Deklarazio Unibertsalaren 13.2 artikulua). Izan ere, neurri hori babesteko asmoz egin bada ere, ezinbestekoa da giza eskubideen zatiezintasuna gogoratzea eta aldarrikatzea, giza eskubide guztiak baliagarriak eta galdagarriak baitira, eta ezin dira baztertu, eta are gutxiago zapaldu, beste eskubide batzuk sustatzeko.

<sup>4</sup> 2005eko ekainaren 1ean Espainiako prentsan agertutako albistea.

Egoera horren aurrean, askoz egokiagoa dirudi emakumeen ahulezia generoaren gizarte-eraikuntzaren ondorio dela onartzea; izan ere, gizarte gehienetan emakumeak bigarren mailan jartzen direnez, baliabideak eskuratzeko aukera murrizten zaie, eta, horren ondorioz, maila eta prestigio baxuenak dituzte. Horren adibide egokia Txinan dugu: munduan biztanle gehien dituen herrialdea da (1.300 milioi biztanle ditu), bai eta hazkunde ekonomiko handienetakoa duena ere.

Herrialde horretan, familiek seme-alaba bakarra izatera behartzen duen estatuko familia-plangintzak 25 urte bete ondoren, desoreka demografiko izugarria gertatu da, neska baino milioika mutil gehiago jaiotzen baitira, eta horrek ondorio sozial, familiar eta pertsonal garrantzitsuak ekarri ditu. Gaur egun, Txinan, hogeitaz gizon daude emakume bakoitzeko<sup>5</sup>, bi arrazoiengatik: batetik, jaiotza-kontrolerako politikarengatik, eta, bestetik, mutilak emakumeak baino hobeto ikusita daudenez, familiek mutilak nahiago izaten dituztelako, batez ere landa-tokietan (gizonek beren gain hartzen dituzte soroetako lana eta gurasoen mantenua, haiek zahartzarora iristen direnean). Egoera horren ondorioz, haur bakarra neska izatea hondamendi sozial eta familiartzat hartzen da, eta, horren ondorioz, emakumeei bizitzeko eskubidea murrizten zaie. Abortatuta<sup>6</sup> batzuetan, hilda beste batzuetan; Txinako umezurtegi ugarietako batean, janik gabe edo erditutakoan abandonatuta eta hiltzera behartuta, herrialde horretan neskak baino nahiago dituzte mutilak, eta, horren ondorioz, gizonezkoen nagusitasun demografiko kezkarria sortzen da. Arazo hori larriagoa da landan, baina hirietan ere eragina du.

Hain zuzen, txinatar asko (80 milioi inguru) herrialdeko hiri nagusietara joan dira, lan eta emazte bila (Txinako gizartean, gaur egun, ezkontzea lortu beharreko lehentasuna baita), eta hori munduko migrazio-fluxurik handiena da. Baina hiriguneetan ere ez da erraza ezkontzeko emakumeak aurkitzea. Hori, gehienbat, desoreka demografikoaren ondorioz gertatzen da, baina beste arrazoi bat ere badago: emakumeak, garai batean baino pentsaera liberalagoa dutenez, hezkuntza-maila eta autonomia ekonomiko handiagoa lortzen ari dira, lan-merkatura gero eta emakume gehiago sartu baitira. Horren ondorioz, emakume ugari ohiko senar-emazteen funtzio-banaketari eta giltzaperatuta bezala bizitzeari utzi diote, askatasunik gabe bizitzera eta erantzukizun handiagoak hartzera behartzen baitituzte; izan ere,

<sup>5</sup> Joera horrek jarraituz gero, 2025erako, emakumeak baino 40 milioi gizon gehiago egongo dira Txinan.

<sup>6</sup> Ekografien bidez fetuaren sexua jakiteko aukera izateak nesken abortuen kopurua handitu du, nahiz eta hori debekatuta egon Txinan, amaren bizitza arriskuan egoteagatik medikuek gomendioa ematen duten kasuetan izan ezik. Neskak ez abortatzeko, hiltzeko edo erditutakoan abandonatuta ez uzteko, Txinako gobernuak haurdunaldi guztiak erregistratzeko beharra ezarri du (hori kontrolatzea zaila bada ere; batez ere, landa-eremuetan), eta alaba duten familiei aukera ematen diete bigarren haurra izateko baimena lortzeko. Horrez gain, nesken gaineko iritzia hobetzeko eta nesken aurretik mutilak lehenesten dituen milaka urtetako tradizioa aldatzeko, bi alaba dituzten familiei pizgarri ekonomikoak (dirulaguntzak eta pentsioak) eta eskola-laguntzak emateko kanpainak jarri dituzte abian, beharrezkoa baita nesken etorkizuneko aukerak hobetzea, orain neskak garrantzitsuak diren aldetik.

etxeko lanez eta mantenuaz aparte, emakume horiek senarraren familian sartzen dira, eta senide haiek ere zaindu behar izaten dituzte, zahartzarora iristean.

Gizarte-testuinguru horretan, Txina modernoan emaztea bilatzeak emakumeen duintasunaren aurkako jarduerak eragin ditu; adibidez, pertsonen salerosketa, batez ere, landa-tokietako emakumeena, emakume horiek bahitu egiten baitituzte, gero eta gehiago diren gizon ezkongabeei saltzeko edo prostituzioan jarduteko. Egoera horri aurre egiteko, Txinako gobernuak dio jarduera horiek amaitzeko neurri egokiak hartu dituela. Neurri horiei publizitate handia eman zaie, eta, publizitate horren bidez, ekintza horiengatik errudun deklaraturako pertsoneri heriotza-zigorra ere ezarri zaiela jakinarazten da. Neurri horiei esker, Txinako gobernuak dio 20.000 emakume baino gehiago aurkitu, berreskuratu eta askatu dituela, bai eta egoera kontrolpean duela ere, baina, zantzu guztien arabera, hori guztia goraka doan eta zehazten zaila den merkatu baten zati txiki bat besterik ez da, jarduera horiek landa-tokietan zenbateko eragina duten jakea zaila baita.

Baina egoera horiek (bahituta edota bortxatuta izatea, prostituzioan jardun behar izatea, diru truke gizonen emazte izatera behartzea edota tratu txarrak jasotea) jasan dituzten emakume askorentzat, aske geratzea ez da sufrimenduen amaiera. Izan ere, bitzako esperientziak utzitako ondorioei beste faktore bat ere gehitu behar zaie: lehen, emakume eta etorkizuneko ama gisa balio segurutzat hartzen ziren, baina, orain, ez dituzte emaztetzat hartu nahi izaten, haien ohorea, eta hedaturaz familiarena, zikinduta baitago, edo, beste modu batean esanda, herri-hizkeran, "erabilitako salgaia" direlako; horren ondorioz, biktimatzat baino, gertatutakorearen erruduntzat hartzen dituzte.

Egoera horretan, zalantzarik gabe, emakumeen kolektiboak bizi duen esplotazio-eta bazterketa-egoeren aurkako neurri egokia, eskubideak mugatzea baino, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren defentsa litzateke, bai eta sexu-arrazoietan oinarritutako diskriminazio-mota ororen aurkako borroka eta horren aurkako berriazko debekua ere; hori hainbat arau juridikotan<sup>7</sup> jasota dago, baina oraindik benetan gauzatzetik urrun gaude.

Emakumeen hezkuntza-eskubidea oraindik hezkuntzatik kanpo geratzen diren emakume ugari bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duen eskubidea da; baina, horrez gain, emakumeen nazioarteko emigrazioa azaltzeko aldagai bat da. Izan ere, eskolatzea eta eskolatzeko-maila handitzea, pertsona guztiak izan beharko luketen eskubidea izatez gain, edozein sexu eta gizarte-egoera dutelarik ere, migrazio-mugimenduak azaltzeko aldagai bat da. Hezkuntzan sartzeko pertsonak libreago-

<sup>7</sup> Emakumea diskriminatzeke modu guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioa NBEren Batzar Orokorrek 1979ko abenduan onartu zen, eta gizonen eta emakumeen berdintasun-printzipioa aldarrikatzeaz gain konpromisoa hartu zuen "legez edo beste baliabide egoki batzuen bidez printzipio hori praktikan bete dadin" ziurtatzeko.

ak izatea dakar, eta horrek, lanpostu bat aurkitzeko aukera handiagoa izatearekin eta ikasketa-maila altuagoak dakarren balio-aldaketarekin batera, gero eta emakume gehiago bultzatuko ditu migrazio-proiektuak modu autonomoan egitera; hezkuntza-maila baxua duten emakumeak, berriz, jatorrizko gizartean geratuko dira, edo, emigratzen dutenean, familiaren bateratzearen bidez egingo dute, gehienbat. Hori gertatzen da Espainiako Estatuan (CES, 2004) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (Vicente, 2005), lurralde horietan atzerritarren ikasketa-maila bertakoen parekoa baita, bai eta pixka bat altuagoa ere herrialde jakin batzuetatik etortitako biztanle-taldeetan (gehienetan, emakume etorkinen presentzia handiagoa duten taldeak izan ohi dira; adibidez, Latinoamerikako herrialdeetakoak); dena dela, Afrikako herrialdeetatik etortitakoen artean ez da hori gertatzen (horiek dute emakumeen presentzia handiena, eta emakume gehienak familiaren bateratzearekin lotuta daude; esate baterako, senegaldarrak edo magrebiarrak).

Beste alde batetik, herrialde hartzaileen migrazio-politikek ere bultzatzen dute, jakina, nazioarteko migrazioaren sexu-hautaketa. Horrenbestez, gaur egun, politika horiek, gero eta murriztaileagoak direnez, atzerritarrek bi bide nagusi dituzte bertan gelditu ahal izateko: lana izatea eta familia bateratzea.

Lana izatearen ondoriozko sarbideari dagokionez, nabarmendu behar da aukera hori lan-baimena duten migratzaileek bakarrik balia dezaketela, eta, horretarako, ezinbestekoa da gizarte hartzailean lan-kontratu edo -eskaintza bat izatea. Tradizioz, aukera hori gizonak sartzeko eta gizonak migratzeko arrazoi nagusitzat hartu izan da; ez, ordea, emakumeak sartzeko, nahiz eta emakumeek ere Europar Batasuneko herrialdeetarako immigrazio ekonomikoan parte-hartze handia duten. Hori adierazten da ELGak edo gure herrialdean argitaratutako urteko txostenetan<sup>8</sup>, ezinbestekoa bada ere kontuan hartzea emakumeen lan-immigrazioa lotuta dagoela ezkutuko ekonomia handia duten sektoreekin, ezkutuko ekonomia oso hedatuta baitago Espainian (Solé eta Parella, 2001; Cachón, 2004; CES, 2004) eta Mediterranioko ondoko herrialdeetan (Italian, Portugalen eta Grezian) (Reyneri, 1999; Baganha eta Reyneri 2001; Charalampopoulou, 2004).

Gaur egun arte, bertako emakumeek ez dugu lortu lan-merkatuan gizonen baldintza beretan sartzea, baina egoera hori askoz okerragoa da emakume etorkinentzat, lan-mailaketaren azken tokian baitaude<sup>9</sup>, gainera bertako bi kolektiboak –gizonak eta emakumeak– eta gizon etorkinen kolektiboa baitituzte, horrek dituen ondorio sozioekonomikoekin eta legezko ondorioekin. Emakume etorkinek enplegurako aukera gutxi dituzte oraindik, enpleguak “emakumeentzako lanak” izaten baitira,

<sup>8</sup> Espainiako Estatuan, bertan bizitzeko baimena duten atzerriko emakumeen erdiak baino gehiagok lan-baimena ere badute eta Gizarte Segurantzaren laneko alta emanda dute. Hau da, Gizarte Segurantzaren laneko alta duten langile atzerritarretatik %36 emakumeak dira. Datu horretaz gain kontuan hartzen badugu emakumeek ezkutuko ekonomian lan egiten dutela, agerian geratzen da enpleguak emakumeen artean duen garrantzia handia dela, eta, gainera, iritzi nagusiari jarraiki, Espainiako Estatuan emakumeentzat errazagoa da lan bat lortzea gizonentzat baino, nahiz eta, egungo egoera kontuan hartuta, lana ez izan aukeratutako sektorekoa edo lan-baldintza onekoa. Izan ere, emakumeek 35 urte dituzte batez beste, eta horrek haurrak izateko garaian daudela pentsatzera eramane gaitzake, bai eta lanerako adin egokian daudela pentsatzera ere.

ezegonkortasun handikoak (lanaldi luzeak, gaizki ordainduak, segurtasun- eta higiene-baldintza eskasak, prestigio eta babes sozial txikia, kontratuaren baldintzak betetzeko kontrol gutxiago, aldi baterako lanak...), eta horrek gizarteak emakumez duen iritzia baldintzatzen du, bai eta emakumeen diru-sarrerak ere; are gehiago, lurralde jakin batean legez egon ahal izateko behar den dokumentazioa lortzeko aukera ere horren mende dago.

Prestakuntza gutxiko enplegu horiek (garbitzaileak, etxeko langileak, etxez etxeko laguntzaileak, umezainak, dendariak, sukalde-laguntzaileak, supermerkatuetako apalbetetzaileak, zerbitzariak...), sarritan inolako lan-kontraturik gabeak eta ikasketa-maila altuko emakume atzerritarrek eskatuak –ordaindutako lanen merkatuan egon nahi dutelako–, ez diote ikasketa-mailari erantzuten, baizik eta gizarte hartzaileak emakume atzerritarrei uzten dizkieten lan-txokoetara egokitzeko estrategiari. Alegia, emakume atzerritarrek bertako langileek genero-diskriminazioaren adierazgarri izateagatik hartu nahi ez dituzten enpleguak eskatzen dituzte, eta ez beren ikasketa-mailari dagozkienak, horiek eskuratzea ezinezkoa baitzaie. Dena dela, horren bidez, emakume atzerritarren kolektiboaren gaineko estereotipoak indartzen dira (adibidez, analfabetoak direla edo ikasketa-maila baxukoak direla); horren ondorioz, ez dute ordaindutako beste lanik lortzerik, eta horrek lan-etorkizuna mugatzen die.

Emakume atzerritarren lan-baldintzak, beraz, urrun daude oso onak izatetik, baina gizarte hauek emakume etorkinei jatorrizko herrialdeetan baino bizi-itxaropen edo enplegu eta soldata hobek –haientzat edo haien familientzat– eskaintzen dizkietenez (nahiz eta estereotipatutako lanpostuetan izan), beti izango dute bizi-aukeren artean migrazio-prozesu bati ekitea. Hala ere, lan-txoko horiek ez dira beti legezko statusa aldatzeko lagungarri, zaila baita lan horien bidez baimenak lortzea edo berritzea, eta, horren ondorioz, emakume asko gizarte-esplotazioko eta -bazterketako egoeran geratzen dira.

Etxeko langileen edo zaharren edo haurren zaindarien lan-sektoreetan, adibidez, gero eta gehiago dira Europako Hegoaldeko herrialdeetako emakumeak (bertako emakumeak duela gutxi sartu direlako lan-merkatuan, eta sektore horietako zereginetan gizonak eta Estatuak parte-hartze eskasa dutelako), eta hor ezkutuko enplegua da nagusi. Baina hori gertatzen ez denean ere, idatzizko kontratua ez da derrigorrezkoa indarrean dauden legedi guztietan, Espainiakoan adibidez, eta, horren ondorioz, oso zaila da sektore horietan lanean diharduten pertsona atzerritarrak –gehienak emakumeak– legezkatzea, bai eta lan-eskubideak onartzea eta edukitzea ere, lan-baldintza gehienak (ordutegiak, presentzia-denbora, soldatak eta ostatua eta mantenua izateagatik deskontatutako soldataren ehunekoa...) aldean autonomiaren esku geratzen baitira<sup>10</sup>.

<sup>10</sup> Hori beheranzko gizarte-mugikortasuneko prozesua da emakume horientzat, ezin baitute jatorrizko herrialdeetan zuten edo prestatu zuten lan-mota bera lortu, baizik eta prestakuntza txikiagoak.

Sexuaren industria eta, bereziki, prostituzioa emakume etorkin askorentzako lan-txoko bihurtzen ari dira; batez ere, herrialde jakin batzuetako emakumeentzat, sarritan sexu-lanei lotuta agertzen baitira. Horregatik, Espainiako Estatuan dauden 300.000 inguru prostitutak hedabideetan ordezkatuta agertzen direnean, emakume atzerritarrek agertu ohi dira; izan ere, jarduera hori klandestino denez, legez kanpoko immigrazioari eta pertsonen salerosketari eta trafikoari lotuta egoten dira maiz. Hori dela eta, biktima gisa agertzen dira, borondatez lekualdatu ordez horretara behartzen baitituzte, eta, horregatik, babes behar izaten dute –nahiz eta, benetan, babes hori ez duten lortzen egoera guztietan, baizik eta enplegatzaileak salatzen dituztenean bakarrik–.

Azterketa askok (Agustín, 2004; Garaizabal, 2003; Souyris, 2003; Juliano, 2002; Bonelli eta Ulloa, 2001), berriz, agerian utzi dute sexu-industrian Europan diharduten emakume ugari migrazio-proiektuen eragile aktiboak direla; hau da, baze-kitela lortuko zuten lanak sexuarekin zerikusia izango zuela edo, zuzenean, prostituzioan ariko zirela, eta hori aukeratu zuten, eskura zituzten lan-aukerak kontuan hartuta. Horregatik, emakume atzerritarrentzako enplegu-aukerak zabaltzeko eskaera handituz doa<sup>11</sup>, bai eta irabazizko sexu-sektore horretako protagonistek lan-eskubideak onartuta izateko aldarrikapena ere; eskubide horiek onartuta lan-baldintzak hobetuko lirakeelako. Ildo horretan, gainera, ohartarazi behar da jarduera batek toki edo une batean edo bestean duen iritzi morala eta laborala desberdinak direla. Horrenbestez, Europako herrialde askotan prostituzioa legez kanpoko jarduera da, jazarri beharrekoa, emakumeen duintasunaren aurkakoa baita; beste herrialde batzuetan, berriz (Alemanian, adibidez), prostituzioa legezkoa da duela bi urtetatik, eta, hori dela eta, lan-arloko legediaren erreformaren ondorioz

<sup>10</sup> Espainiako Estatuan, etxeko zerbitzua abuztuaren 1eko 1424/85 Errege Dekretuak eta gutxieneko soldadari buruzko Errege Dekretuak arautzen dute, eta, haien arabera, idatzizko kontratua ez da beharrezkoa, eta, egiten bada, ez dago edukiaren gaineko araurik. Lanaldi osorako pertsona bati dagokion soldata lanbide arteko gutxieneko soldataren berdina da, baldin eta ez bada soldata hobea hitzartzen, lan-kategoriarik gabe. Soldata horretatik, mantenua eta ostatua ematearen truke %45eraino deskonta daiteke, xehetasunak zehaztu beharrik gabe; izan ere, soldata legeak zehaztutakoa baino txikiagoa bada, aldean artean adierazi gabeko hitzarmen bat dagoela ondorioztatzen da. Lanaldia 40 ordukoa da, benetako lan-denbora kontuan hartuta, eta bi muga ditu, presentzia-orduez gain: lanaldien arteko atsedendialdiak (8 ordu barneko langileentzat eta 10 ordu kanpokoentzat) eta atsedenerako asteko 36 orduak, zatigarriak: 24 ordu jarraian eta gainerakoak aldeek adostu bezala. Presentzia-denbora (ahalegin txikiko zereginak egiteko denbora; esate baterako, atez edo telefonoaz arduratzea) eguneko 8 ordukoa izan daiteke gehienez, kontrolik edo ordaintzeko beharrik gabe. Aparteko orduak ohiko orduen balio bera dute, eta muga urteko 80 ordu dira. Enplegatzaileak etxeko zerbitzuen kontratua bertan behera utzeko eskubidea du, 7 edo 20 egun aurretik jakinarazita, antzintasunaren arabera (urte betetik gorakoa edo beheakoa); libreki atzera egiteagatik kontratua amaitzen bada, kalte-ordaina ordaindu behar da, lanean jardun duen urte bakoitzeko 7 eguneko soldataren parekoa, eta 20 eguneko, bidegabeko irazpena izan bada. Enplegatzailea hiltzen bada, kalte-ordainerako egunak 30 dira. Gainera, etxeko lanak Gizarte Segurantzaren erregimen berezia du; horren arabera, enplegatzaileak betebeharrak du: Gizarte Segurantzaren alta ematekoa eta, enplegatzaile gutxienez egun erdiz etxean lan egiten badu, enplegatuaren kotizazioen gutxienez %50 ordaintzekoa. Gizarte Segurantzaren erregimen horren arabera, langileak ez du langabezia-eskubiderik, ez eta lan-istripuak onartzeko eskubiderik ere, eta oso zail izango du erretiro- edo baliaiezintasun-pentsioak kobratzea; lortuta ere, pentsio horiek ez lirakeke lanbide arteko gutxieneko soldatara ere iritsiko.

<sup>11</sup> Pertsonen salerosketaren edo trafikoaren biktima izatearen esperientzia sexuaren industrian lanean dabiltzan emakume askok pairatu dute, nahiz eta hori ez den sektore horretan bakarrik gertatzen; jarduera horiek kontrolatu nahi baditugu, lehen esan bezala, ezinbestekoa da emakumeak baztertzan dituzten hainbat egoera kontuan hartzea, egoera horien ondorioz pertsonekin trafikatzeko sarean edo pertsonen salerosketa-sarean esku uzten baitira emakumeak. Jakina, sare horien aurka ere eskura ditugun baliabide guztiez borrokatu beharko genuke.

(erreformaren arabera, langabezian urte bete baino gehiagoan dauden pertsonak edozein enplegu onartzera behartuta daude), kasu hau gertatu zen: “sexu-zerbitzuak” barne hartzen zituen lan bat onartu ezean, prestazio soziala izateko eskubidea kendu behar zioten emakume bati<sup>12</sup>.

Beste alde batetik, herrialde hartzaileen migrazio-politikek beste aukera bat ematen die etorkinei; familiaren bateratzea, hain zuzen ere. Aukera hori oso garrantzitsua izan da nazioarteko migrazio-mugimenduetan emakumeen presentzia ikusgai jartzeko, lehen adierazi bezala. Izan ere, azken hamarkadetan, emakume ugari baliatu dute aukera hori, mugetan gero eta oztopo gehiago jartzen zizkietelako, nahiz eta migratzeko arrazoia lanarekin lotuta egon. Ezinbestekoa da migrazio-proiektua eta sartzeko bidea ez nahastea, eta hori nahiko argi izaten dugu migrazio-prozesuari emakumeak ekiten dionean eta senarra familiaren bateratze-prozesuaren bidez iristen denean.

Familiaren bateratzearen bidez sartzeko aukerari esker, emakumeak etorkin pasibo gisa aurkezten dira, beste pertsona baten atzetik etorriak balira bezala, hala bertako herritar baten atzetik, nola egoitza-baimena duen etorkin baten atzetik –gehienetan gizona–, aitzindaria ekonomikoki aktiboa delako<sup>13</sup> eta, haren egoera ekonomikoari esker, gizarte hartzailean senideak bilduta edukitzeko gaitasuna duelako. Horretan, are garrantzitsuagoa da beste faktore hau: familian bateratutako emakumeek bateratzailearen mendeko egoera juridikoa eta ekonomikoa izango dute; beraz, ez dira izango eskubide osoko egoiliarak, gutxienez urte batzuez.

Egoera horrek hainbat ondorio eragiten ditu, familiarekin bateratutako emakumeen bizitzaren arlo garrantzitsuetan. Horrenbestez, senarraren baimenaren mende daudenez, emakume askok ezin dute ezkontza-lotura hautsi, egoitza-baimena eta lan independente bat lortu arte, nahiz eta hori egiteko gogoia izan; izan ere, bestela, ezkutuko ekonomiako lanetara bakarrik jo dezaketenez eta baliabide ekonomikorik ez dutenez, herrialdean geratzeko eskubidea galtzeko arriskua dute, eta kanporatu egin ditzakete. Familiaren bateratzeak jarritako baldintzak oso zailak dira familiarekin berriro bat egin duten emakumeentzat, baldin eta senarrarekin harreman gatazkatsua badute edo etxeko indarkeria pairatzen badute, baina egoera horrek okerrera egin dezake emakumeak, legez kanpo egoteaz gain, familia barruan genero-indarkeriaren biktima badira (Amnesty International, 2003), salaketak migrazio-egoeran izan ditzakeen ondorioengatik. Horregatik, ezinbestekoa da lehenbailehen berriro familiarekin bat egindako emakume etorkinen egoitza-eta lan-eskubidea onartzea, senarraren loturatik kanpo.

Gainera, familiaren bateratzerako eskubidea egikaritzeko emakumeek zailtasun ugari dituztela nabarmendu behar da, lan-baimena edota -kontratua lortzeko eta

<sup>12</sup> “Lan-eskubideak galdu ditu prostituta-lana ez onartzeagatik”, *La voz de Galicia*, 2005eko otsailaren 3an.

<sup>13</sup> Hori zehazten du Langile Migratzaileen Eskubideei buruzko Europako Kartak 17. artikuluan, langile etorkinek (gizonek) “amaztea” eta seme-alabak ekartzeko duten eskubideaz ari denean.

horretarako bete behar diren baldintzak betetzeko zailtasun gehiago baitituzte, diru-sarrerak, lan-egonkortasuna, etxebizitza duina eta abar lortzeko. Beraz, diskriminazio hirukoitza pairatzen dute, atzerritarak izateagatik, emakumeak izateagatik eta langileak izateagatik.

Bestalde, emakume etorkinek nozitzen dituzte gehien herrialde hartzaileetan immigrazioaren aurka dauden aurreiritzi ideologikoak. Izan ere, beste toki batzuetatik iritsi direnez, eta immigrazioa nagusiki eskulan-premiagatik justifikatzen duten gizarteetan sozialki eta ekonomikoki ez-aktibotzat hartzen dituztenez<sup>14</sup> eta giza kapitala mespretxatzen dutenez, emakume horiek, sarritan, komunitate hartzaileen paternalismoaren eta gutxiespenaren artean bizi dira, biktimatza hartu eta aurkezten baitituzte (pertsonek trafikoaren, prostituzioaren, lan-baldintza penagarrien eta abarren biktimatza), bai eta balio kultural eta sozial atzeratuak dituzten pertsonatza ere<sup>15</sup> (beloaren erabilera, emakumezkoen sexu-organoen erauzpena, eremu pribatuaren giltzaperatuta egotea...); balio horiek, gainera, gure gizarte hartzaileen zuzentasunaren aurkako mehatxutza hartzen ditugu<sup>16</sup>. Baina aintzakotzat hartu behar da balio kulturalak ez direla genetikoki heredatzen, baizik eta ikasiak eta aldagarriak direla eta errealtatea sortzeko balio dutela; beraz, zalantzarik gabe, emakumeek informazio gehiago, parte-hartze handiagoa eta hautatzeko aukera gehiago izatea dira neurririk onenak, gizartean beharrezko eta ezinbesteko aldatketak bultzatzeko, eta, gainera, gizarte-aldaketa horietara etorkinek ez ezik bertakoek ere egokitu beharko dute.

LABURBILDUZ, nazioarteko migrazio-mugimenduetan emakumeak egotea ez da fenomeno berria, baina azken bi hamarkadetan emakumeen presentziak sortu duen interes akademikoa, neurri batean, berria da. Izan ere, hasieran, beste baten mendeko subjektutzat aurkezten ziren –hau da, familiako gizonen migrazio-proiektuen jarraitzailetza–, eta emakume etorkinek ez zuten izan protagonismorik biztanle-mugimenduen gaineko azterketetan, 80ko hamarkadaren erdia arte; beraz,

<sup>14</sup> Agian, horregatik deitzen diogu “emigratzaile” (aktibo izatearekin lotua) atzerritik etorri eta herrialde batean bizitzen hasiten direnei, eta ez “emigratu” (pasibotasunarekin lotua), nahiz eta jakin badakigun haietako asko gizarte hartzailean denbora luzean geratuko direla, behin betiko ez bada.

<sup>15</sup> Ildo horretan, Shirin Ebadik, Bakearen Nobel saria lortu duen lehenengo emakumeak eta islamen emakumearen eskubideen defendatzaileak, dio emakumeak sistema patriarkalaren biktimak izateaz gain matxismoaren hedadura-zikloaren barruan ere badaudela, kultura hori seme-alabei helarazten baitiote. Horregatik, Ebadiren arabera, garrantzitsuenak kultura hori ondo ezagutzea eta nola funtzionatzen duen jakitea da, gero, heziketaren bidez, horren aurka borrokatzeko (*El País Semanal* aldizkarian egindako elkarrizketa, 2004ko martxoaren 21ean).

<sup>16</sup> Horrek ez du esan nahi, horien inpaktua murrizteko, gizarte hartzaileek eskura ditugun neurriak hartzen ditugunik, baina egia da zenbait arlotan norabide horretan doazen urrats batzuk eman direla. Ildo horretan, adibide gisa, Espainiako Estatuan eta Europako testuinguruan lehenengo aldiz, familia-barruan indarkeria jasandako emakume biktima bati erre-fuxiatu-estatutua onartu izana dago; edo, duela bi urte, Espainiako Kode Zibilaren 107. artikuluan egindako erreforma, bereizketa eta dibortzioa salaketa aurkeztean ezkontideen lege nazional komunaren arabera zela ezartzeko. Artikulu zahararen arabera, Espainian bizi den emakume marokoar batek ez zuen espainiarren adinako eskubiderik bereizten zenean; izan ere, haren jarduerak jatorrizko herrialdearen ordenamendu juridikoaren mende zegoenez, Espainiako ordenamendu juridikorako baztertzailak ziren egoerak sortzeko arriskua zegoen. Zorionez, egoera hori irailaren 29ko 11/2003 lege-ari esker aldatu da, lege horrek Kode Zibileko 107. artikulua aldatu baitzuen; horren arabera, bereizketan edo dibortzioan, herrialde bateko legeak bereizketa edo dibortzioa onartzen ez bada edo baztertzaila edo ordena publikoaren aurkako bada, lurraldetasun-printzipioa ezartzen da. Horren ondorioz, bereizi edo dibortziatu nahi duen emaku.



gaur egun askoz hobeto ezagutzen ditugu gizonen immigrazioaren arrazoiak eta faktoreak emakumeen immigrazioarenak baino. Oraindik ere azterketa asko daude egiteko, baina, egungo gizartean emakumeak, gehienbat familiaren bateratze-prozesuen bidez iritsitako etorkintzat hartzen badira ere, gero eta gehiago onartzen da emakume etorkinak mota askotakoak direla, bai ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, bai migrazio-arrazoiei dagokienez, bai eta sartzeko bideei eta gizarte hartzaileetan dituzten baldintzei dagokienez ere.

Desberdinak emakumeen migrazioa azaltzen duten faktoreak dira. Batzuk jatorrizko gizartean zituzten ezaugarriei eta egoerei lotuta daude, eta beste batzuk, gizarte hartzaileekin lotutakoei; batzuk egungo egoerarekin lotuta, eta beste batzuk etorkizuneko itxaropenekin; guztiak elkarri lotuta, gutxi edo asko. Faktoreek ez dute beti garrantzi bera, eta ez dira egoera guztietan agertzen; are gehiago, ez dute eragin bera pertsona guztietan, baina osotasuna hartu behar da kontuan, egungo migrazio-fluxuetan emakumeen egoera zein den ulertu ahal izateko.

## Bibliografia

ACKERS, L. (1998). *Shifting spaces. Women, citizenship and migration within the European Union*, Bristol: The Policy Press.

AGUSTÍN, M<sup>a</sup> L. (2004). *Trabajar en la industria del sexo, y otros tópicos migratorios*, Donostia: Gakoa.

AIXELÀ, Y. (2000). *Mujeres en Marruecos. Un análisis desde el parentesco y el género*, Bartzelona: Edicions Bellaterra.

ALARCÓN, A.; GIBERT, F.; PARELLA, S. eta RIBAS, N. (koord.). «Políticas de formación para mujeres inmigrantes. El caso de la ciudad de Barcelona», *Papers*, 60. zenbakia, 365-379 orr.

AMNESTY INTERNATIONAL (2003). “Mujeres invisibles, abusos impunes”, argitaratu gabeko txostena.

ANDERSON, B. (2000). *Doing the dirty work? The global politics of domestic labour*, Londres: Zed Books.

ANTHIAS, F. (2001). «Gendering migration: the case of Southern Europe», S. Ghatak and A.S. Sasoon (arg.). *Migrations and Mobility. The European Context*, Basingstoke: Palgrave, 146-167. orr.

ANTHIAS, F. eta LAZARIDIS, G. (arg.) (2000). *Gender and migration in Southern Europe: Women on the move*, Oxford: Berg.

AUBARELL, G. (2000). «Una propuesta de recorrido bibliográfico por las migraciones femeninas en España», *Papers*, 60. zenbakia, 391-413. orr.

- BAGANHA, M. eta REYNERI, E. (2001). «La inmigración en los países del sur de Europa y su inserción en la economía informal», C. Solé (koord.). *El impacto de la inmigración en la economía y en la sociedad receptora*, Barcelona: Anthropos.
- BALL, R. (2004). «Divergent development, racialised rights: globalized labour markets and the trade of nurses: the case of the Philippines», *Women's Studies International Forum*, 27. liburukia, 2., 119-234. orr.
- BONELLI, E. eta ULLOA, M. (koord.) (2001). *Tráfico e inmigración de mujeres en España: Colombianas y ecuatorianas en los servicios domésticos y sexuales*, Madrid: ACSUR-Las Segovias.
- BOYD, M. eta GRIEGO, E. (2003). «Women and migration: Incorporating gender into international migration theory», Washington, D.C.: Migration Policy Institute (<http://www.migrationinformation.org>).
- BOYLE, P. eta HALFACREE, K. (arg.) (1999). *Migration and gender in the developed world*, Londres: Routledge.
- BROWN, B. (1983). «The impact of male labour migration on women in Botswana», *African affairs*, 82. zenbakia, 367-388. orr.
- CACHÓN RODRÍGUEZ, L. (2004). «Integración de los inmigrantes a través del trabajo», *Documentación Social*, 132. zenbakia, 97-120. orr.
- CAMARERO, L.A. eta GARCÍA, I. (2004). «Los paisajes familiares de la inmigración», *Revista española de sociología*, 4. zenbakia, 173-198. orr.
- CAMPANI, G. (1995). «Women migrants: from marginal subjects to social actors», R. Cohen (arg.). *The Cambridge survey of world migration*, Cambridge: Cambridge University Press, 546-550. orr.
- CASAL, M. eta MESTRE, R. (2002). «Migraciones femeninas», J. de Lucas eta F. Torres (arg.). *Inmigrantes: ¿Cómo los tenemos? Algunos desafíos y (malas) respuestas*, Madrid: Talasa, 120-167. orr.
- CASTLES, S. eta MILLER, M. (1998). *The age of migration*. New York: McMillan.
- CATARINO, C. eta OSO, L. (2000). «La inmigración femenina en Madrid y Lisboa: hacia una etnización del servicio doméstico y de las empresas de limpieza», *Papers*, 60. zenbakia, 183-207. orr.
- CES (2004). *La inmigración y el mercado de trabajo en España*, Madrid: Consejo Económico y Social.
- COLECTIVO IOÉ (2001). *Mujer, inmigración y trabajo*, Madrid: Migrations eta Gizarte Gaien Institutua.
- CONSTABLE, N. (1997). *Maid to order in Hong Kong. Stories of filipina workers*, Ithaca: Cornell University Press.

- CHARALAMPOPOULOU, D. (2004). «Gender and migration in Greece: The position and status of Albanian women migrants in Patras», *Finisterra*, XXXIX. liburukia, 77. zenbakia, 77-104. orr.
- CHATTOU, Z. (1998). *Migrations marocaines en Europe. Les paradoxes des itinéraires*, Paris: L'Harmattan.
- DIETZ, G. (2002). «Mujeres musulmanas en Granada: discursos de formación de comunidad, exclusión de género y discriminación etnoreligiosa», F. García eta C. Muriel (arg.). *La inmigración en España: contextos y alternativas*, Granada: Kulturarteko Ikasketen Laborategia, 381-394. orr.
- EHRENREICH, B. eta HOCHSCHILD, A. (arg.). (2003). *Global woman. Nannies, maids and sex workers in the new economy*, New York: Metropolitan Books.
- ESPÍN, O. (1999). *Women crossing boundaries*, New York: Routledge.
- EZQUERRA, J.J. (1997). «El derecho a vivir en familia de los extranjeros en España: ensayo de valoración de la normativa aplicable», *Migraciones*, 1. zenbakia, 177-215. orr.
- FOURON, G. eta SCHILLER, N.G. (2001). «All in the family: gender, transnational migration and the nation-state», *Identities*, 7. liburukia, 4. zenbakia, 539-582. orr.
- FREEDMAN, J. (2003). *Gender and insecurity. Migrant women in Europe*, Aldershot: Ashgate.
- GARAIZABAL, C. (2003). «Derechos laborales para las trabajadoras del sexo», *Mugak*, 23. zenbakia, 17-24. orr.
- GARCÍA-MINA, A. eta CARRASCO, M.J. (arg.)(2002). *Cuestiones de género en el fenómeno de las migraciones*, Madril: Universidad Pontificia de Comillas.
- GÓMEZ CRESPO, P. (2000). «La aplicación de la normativa de "reagrupación familiar": ¿flexibilidad o arbitrariedad?», *Ofrim suplementos*, 7. zenbakia, 85-101. orr.
- GREENWOOD, M.J. eta McDOWELL, J.M. (1999). *Legal US Immigration. Influences on gender, age and skill composition*, Michigan: W.E. Upjohn Institute for employment research.
- GREGORIO, C. (1998). *Migración femenina: Su impacto en las relaciones de género*, Madril: Narcea.
- HARZIG, C. (2001). «Women migrants as global and local agents. New research strategies on gender and migration», P. Sharpe (arg.). *Women, gender and labour migration*, Londres: Routledge, 15-28. orr.
- HONDAGNEU-SOTELO, P. (2001). *Doméstica. Immigrant workers clearing and caring in the shadows of affluence*, Berkeley: University of Carolina Press.

HOUSTON, M.F.; KRAMER, R.G. eta BARREN, J.M. (1984). «Female predominance of immigration to the United States since 1930: A First Look», *International migration review*, 18. liburukia, 4. zenbakia, 908-963. orr.

JULIANO, D. (2002). *La prostitución: el espejo oscuro*, Bartzelona: Icaria – Institut Catalá d'Antropologia.

KELSON, G.A. eta DELAET, D.L. (1999). *Gender and immigration*, New York: New York University Press.

KING, R. eta BLACK, R. (eds.) (1997). *Southern Europe and the new immigrants*, Brighton: Sussex Academic Press.

KING, R. eta ZONTINI, E. (2000). «The role of gender in the South European immigration model», *Papers*, 60. zenbakia, 35-52. orr.

KOFMAN, E. (2004). «Gendered global migrations: diversity and stratification», *International Feminist Journal of Politics*, 6. liburukia, 4. zenbakia, 643-665. orr.

KOFMAN, E. (et.al.) (2000). *Gender and international migration in Europe: Employment, welfare and politics*. Londres: Routledge.

KOFMAN, E. (1999). «Female 'birds of passage' a decade later: gender and immigration in the European Union», *International migration review*, 33. liburukia, 2. zenbakia, 269-299. orr.

LAMELA, C. (1999). «Relaciones y desigualdades de género como mecanismo de selección en los procesos migratorios», *Migraciones*, 6. zenbakia, 105-127. orr.

LUTZ, H. (2002). «At your service madam! The globalization of domestic service», *Feminist review*, 70. zenbakia, 89-104. orr.

LUTZ, H. (1997). «The limits of European-ness: Immigrant women in fortress Europe», *Feminist review*, 57. zenbakia, 93-111. orr.

MAHLER, S.J. eta PESSAR, P.R. (2001). «Gendered geographies of power: Analyzing gender across transnational spaces», *Identities*, 7. liburukia, 4. zenbakia, 441-459. orr.

MAN, G. (1995). «The experience of woman in recent middle-class chinese immigrant women from Hong Kong: an inquiry into institutional and organizations processes», *Asian and pacific migration journal*, 4. liburukia, 2-3. zenbakiak, 303-26. orr.

MARTÍN MUÑOZ, G. eta LÓPEZ SALA, A. (2003). *Mujeres musulmanas en España. El caso de la inmigración femenina marroquí*, Madril: Instituto de la mujer.

MESTRE, R. (2001). «Inmigración, exclusión y género», N. Fernández eta M. Calvo García (coord.) *Inmigración y derechos*, Huesca: Mira Editores, 97-109. orr.

MOROKVASIC, M. (1991). «Fortress Europe and migrant women», *Feminist review*, 39. zenbakia, 69-84. orr.

MOROKVASIC, M. (1984). «Birds of Passage are also Women...», *International migration review*, 18. liburukia, 68. zenbakia, 886-907. orr.

NAZIO BATUAK (2002). *International migration report: 2002*. New York: Department for economic and social information and policy analysis population division.

NAZIO BATUAK (1995). *International migration policies and the status of female migrants. Proceedings of the United Nations expert group meeting on international policies and the status of female migrants*, New York: Department for economic and social information and policy analysis population division.

NAZIO BATUAK (1994). *The migration of women. Methodological issues in the measurement and analysis of internal and international migration*. Santo Domingo: INSTRAW.

OSO, L. (2003). «Estrategias migratorias de las mujeres ecuatorianas y colombianas en situación irregular: Servicio doméstico y prostitución en Galicia, Madrid y Pamplona», *Mugak*, 23. zenbakia, 25-37. orr.

OSO, L. (1998). *La inmigración hacia España de mujeres jefas de hogar*, Madril: Lan eta Gizarte Gaien Ministerioa.

PARELLA, S. (2003). *Mujer, inmigrante y trabajadora: la triple discriminación*, Bartzelona: Anthropos.

PEDRAZA, S. (1991). «Women and migration: The social consequences of gender», *Annual review of sociology*, 17. zenbakia, 303-325. orr.

PESSAR, P. (1999). «Engendering migration studies. The case of new immigrants in the United States», *American behavioral scientist*, 42. liburukia, 4. zenbakia, 577-600. orr.

PHIZACKLEA, A. (2000). *Trans-nationalism and the politics of belonging*, Londres: Routledge.

RAMÍREZ, Á. (1998). *Migraciones, género e islam. Mujeres marroquíes en España*, Madril: Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzia.

RAVENSTEIN, E.G. (1885). «The laws of migration», *Journal of the royal statistical society*, 48. liburukia, 2. zenbakia, 167-235. orr.

REYNERI, E. (1999). «Immigration and the underground economy in the new receiving south european countries: manifold perverse effects, manifold deeprooted causes», argitaratu gabea.

RIBAS, N. (1999). *Las presencias de la inmigración femenina*, Bartzelona: Icaria.

RIBAS, N., ALMEDA, E. eta BODELÓN, E. (2002). «La criminalización femenina de la inmigración: resultados de una investigación», F.J. García eta C. Muriel (arg.). *La*

*inmigración en España: contextos y alternativas*, Granada: Kulturarteko Ikasketen Laborategia –Granadako Unibertsitatea, 111-123. orr.

ROQUE, M.À. (zuz.) (2000). *Mujer y migración en el Mediterráneo occidental*, Bartzelona: Icaria.

RYAN, J. (2002). «Chinese women as transnational migrants: gender and class in global migration narratives», *International migration*, 40. liburukia, 2. zenbakia, 93-116. orr.

SADIQI, f. (2003). *Women, gender and language*, Leiden: Brill Academic Publishers.

SADIQI, F. eta ENNAJI, M. (2004). «The impact of male migration from Morocco to Europe on women: a gender approach», *Finisterra*, XXXIX. liburukia, 77. zenbakia, 59-76. orr.

SALIH, R. (2001). «Moroccan migrant women: Transnationalism, nation-states and gender», *Journal of ethnic and migration studies*, 27.liburukia, 4. zenbakia, 655-671. orr.

SALIH, R. (2000). «Shifting boundaries of self and other. Moroccan migrant women in Italy», *The european journal of women's studies*, 7.liburukia, 3. zenbakia, 321-335. orr.

SANTAMARÍA, E. (1997). «Inmigración no comunitaria: relativismo cultural y construcción de género», *Revue européenne des migrations internationales*, 13. liburukia, 3. zenbakia, 71-83. orr.

SARRIBLE, G. (1997-98). «Migraciones y género: la feminización de la población activa migrante», *Perspectiva social*, 40. zenbakia, 159-184. orr.

SHARPE, P. (ed.) (2001). *Women, gender and labour migrations: Historical and global perspectives*, Londres: Routledge.

SIMON, R.J. (2001). *Immigrant women*, Londres: Transaction Publishers.

SIMON, R.J. eta BRETTELL, C.B. (arg.) (1986). *International migration: the female experience*, New Jersey: Rowman eta Allanheld Publishers.

SIPI, R. (2002). *Inmigración y género. El caso de Guinea Ecuatorial*, Donostia: Gakoa.

SOLÉ, C. eta PARELLA, S. (2001). «La inserción de los inmigrantes en el mercado de trabajo. El caso español», C. Solé (koord.). *El impacto de la inmigración en la economía y en la sociedad receptora*, Bartzelona: Anthropos, 11-51. orr.

SOLÉ, C. (1994). *La mujer inmigrante*, Madril: Emakumearen Institutua.

SOUYRIS, A. (2003). «Prostitutas y mujeres con velo: las víctimas son las otras», *Mugak*, 23. zenbakia, 38-39. orr.

- STANTON, S. (1995). «Policy dimensions of female migration to the Arab countries of Western Asia», *International migration policies and the status of female migrants*, New York: Nazio Batuak, 253-266. orr.
- SUTCLIFFE, B. (1998). *Nacido en otra parte*, Bilbao: Hegoa.
- ULLOA, M. (koord.) (2001). *Entre el Magreb y España. Voces y miradas de mujeres*, Madril: ACSUR-Las Segovias.
- VICENTE, T.L. (2003). «España: País de inmigración femenina», *Letras de Deusto*, 33. liburukia, 99. zenbakia, 137-172. orr.
- VICENTE, T.L. (2005). «La inmigración extranjera en la Comunidad Autónoma del País Vasco», en V. Pereda y otros (coord.). *Educación intercultural*, Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 18-32. orr.
- YAGO, T. (2002). «Inmigrantes y además mujeres», Bake Azterketen Seminarioa, Pignatelli Zentroa (arg.). *La inmigración, una realidad en España*, Zaragoza: Kultura eta Turismo Saila, 443-461. orr.
- ZLOTNIK, H. (2003). «The global dimensions of female migration», *Migration information source*, Washington, D.C.: Migration Policy Institute ([www.migrationinformation.org](http://www.migrationinformation.org)).
- ZLOTNIK, H. (1999). «Trends of international migration since 1965: What existing data reveal», *International migration*, 37. liburukia, 1. zenbakia, 21-61. orr.
- ZLOTNIK, H. (1995). «The south-to-north migration of women», *International migration review*, 29. liburukia, 1. zenbakia, 229-254. orr.







*Laugarren zatia. Migrazioaren errealitatea kudeatzeko ereduak eta ekimenak*



## **Immigrazioa eta herritartasuna, Britainia Handian**

**John Rex**

*John Rex Warwick-eko Unibertsitateko irakasle emerituak idatzitako dokumentua. Migrazio Ikerketen Zentroari emana, Blaise Pascal Unibertsitatea (Clermont Ferrand), 2005eko maiatzean.*

Dokumentu honen bidez, Britainia Handian etorkinekin zerikusia duten arazo batzuk azaldu nahi nizkieke irakurle ez britainiarrei.

Gaur egun, askotan erabiltzen da migrazio-fluxuak kudeatzearen kontzeptua. Dirudienez, kontzeptu hori bi joera hauen artean dago: immigrazioari bere bidea egiten utzi behar zaiola uste dutenen eta mugak jarri behar zaizkiola deritzotenen artean. Izan ere, batetik, migrazio-fluxuek beren ibilbide naturala jarraitu behar luketela uste dute batzuek, nazioetako gobernuen inolako kudeaketarik izan gabe (Hayter, 2000 eta Harris, 2002). Bestetik, immigrazioa printzipioz txarra dela eta mugatu egin behar litzatekeela pentsatzen dute beste batzuek. Azken horien arabera, etorkin gutxi batzuei bakarrik utzi behar litzaieke sartzeko, gizarte hartzailean inork bete ezin dituen postuak bete ditzaten, eta gainera, etorkinaren kulturak ez luke gatazkarik sortu behar gizarte hartzailearen kulturarekin (Migrationwatch, 2002; Coleman, 1999; Goodhart, 2004). Hala ere, ez litzateke balorerik gabeko jarraitzea hartu behar. Badira beste aukera batzuk ere.

### **Migrazio-kontrolari buruz aurrez izandako eztabaidak Commonwealth-eko immigrazioaren kontrola**

Migrazio-fluxuei buruz hitz egiteko moda agertu aurretik, 1945etik edo lehenago-tik ere bazen eztabaida garrantzitsu bat Britainia Handian. Commonwealth-eko etorkinek Britainia Handian sartzeko askatasuna zuten 1945ean oraindik ere –bereizi egiten zituzten atzerritarrengandik (azken horien sarrera kontrolatu egiten zuten 1905eko Atzerritarren Legea indarrean jarri zenetik). Berrogeita hamarreko hamarkadan, beste eztabaida bat sortu zen Parlamentuan. Alderdi Kontserba-

doreko Sir Cyril Osborne-k sustatu zuen Commonwealth-etik zetorren immigrazioaren aurkako asaldura. Argi utzi zuen kolorearen eta arrazaren auziak kezkatzen zutela. 1958an azaldu zuenez, “bada garaia norbaitek gizon zuriaren alde hitz egin dezan, eta nik horixe egiteko asmoa dut”. Bestetik, Fenner Brockway parlamentari laboristak arrazagatiko bazterketaren aurkako legeria exijitu zuen. Horretarako, 1955. urtetik hasita, lege-proposamenak aurkeztu zituen bederatzi urtez jarraian. Baina, bien bitartean, oinarriko asaldura politikoa sortzen ari ziren, Midlands eskualdean batez ere, immigrazioa kontrolatzearen aldeko erakundeak sortuz.

1962. urtea izan zen data erabakigarria. Data hori baino lehen, Commonwealth-eko etorkinak askatasun osoz sar zitezkeen Erresuma Batuan; beste herrialdeetako edonork, berriz, murrizketa zorrotzak jasan behar izaten zituen. Commonwealth-etik etorritako etorkin gehienak Karibetik, Indiatik eta Afrikako ekialdetik eta mendebaldetik etortzen ziren, eta, Mediterraneoari zegokionez, Zipretik eta Maltatik. Hala ere, “zuri ez ziren” etorkinen kopuru ikaragarria bihurtu zen eztabaidaren muina. Gertaera esanguratsua izan zen, 1951n, Karibeko etorkinez beteta zegoen *Empire Windrush* itsasontzia iristea. 50eko eta 60ko hamarkadako Antilletako immigrazioaren hasiera izan zen. Berrogeita hamarrek hamar-kadaren amaieran, Indiako eta Pakistaneko etorkinen kopuruak gora egin zuen. Ondorioz, Commonwealth-eko immigrazioa kontrolatzeko eskatu zuten, eta Alderdi Kontserbadoreko kide Butler Barne ministroak ahalbidetu zuen hori, gogoz kontra. Urte horretako Immigrazio Kontrolari buruzko Legeari jarraiki, Commonwealth-eko etorkinen sarrera mugatu zuten (mendeko lurraldeetako ez gain): 7.000 etorkin sar zitezkeen. Horiek, gainera, lanpostu bat eduki behar zuten, edota gaitasun bereziak izan; hau da, lanerako libre zeuden britainiarrek ez zituzten abileziak. 1962ko Legean, beste mota batzuetako etorkin gutxi batzuei ere sartzeko utziko zieten esan zuten; horiek Gobernuaren nahierara hautatuko ziren. Hugh Gaitskell Alderdi Laboristako buruak esan zuen bere alderdiak legea balio-gabetuko zuela, Ceri Peach (1967) geografoaren frogak erabilita. Froga horiek baieztatzen zuten, immigrazio-kontrolaren prozesu natural bat zegoen eta horren eraginez sakabanatzen omen ziren Antilletako etorkinak; libre zeuden lanpostuen araberak aldatzen omen zen joera hori. Alabaina, 1964an Alderdi Laboristak boterea lortu zuenean, 1962ko Legearen oinarria onartu ez ezik, indartu ere egin zuen, Gobernuak bere nahierara zenbait immigranteri sartzeko aukera indargabetu baitzuten.

## **Laboristek Arrazaren araberako Immigrazio Kontrol Selektiboa onartzea**

Laboristen Gobernuan asko eztabaidatzen zen immigrazio-kontrolaren printzipioari buruz. Richard Crossman Etxebizitza eta Tokiko Gobernuaren ministroak adierazi zuen, hautesleak immigrazio-kontrolaren alde zeudenez, Gobernuak berehala

heldu behar liokeela otsoari belarrietatik, eta kontrol hori onartu (Crossman, 1979). Roy Hattersley, berriz, Alderdi Laboristaren erruduntasun-sentimenduari irtenbidea aurkitzen saiatu zen, “kontrolrik gabe, gizarteratzea ezinezkoa dela” baina “gizarteratzerik gabe, kontrola moralki defendaezina dela” argudiatuz (Rex and Tomlinson, 1979). Hattersley eta Crossman ohartu ziren, elkarri ezer garbirik esan gabe, “zuri ez zirenen” immigrazioa zela arazoa.

Hattersley-ren formula argi eta garbi azaldu zen termino instituzionalen bidez: Commonwealth-eko Etorkinentzako Batzorde Nazionala (*National Committee for Commonwealth Immigrants*, NCCI) sortuta lortuko zen gizarteratzea. Canterburyko artzapezpikua zen batzordearen buru, eta etorkinen hainbat talderen bozera-maile ezagun<sup>i</sup> ere tartean ziren. Azken horiek etorkinen ordezkari politikoak izango ziren. Artzapezpikuak bere kezka agertu zuen: kontrolaren prozesuak etorkinei ezarriko zien estigmak gizarteratzea ezinezko bihurtuko zuela uste zuen. Artzapezpikuak beldur horiek adierazten jarraitzen zuen bitartean, NCCI bertan behera utzi zuten eta Harreman Komunitarioen Batzordeak (*Community Relations Commission*) ordezkatu zuen. Batzorde horrek, hainbat motatako gizarte-lanen bidez, etorkinak modu paternalistan gizarteratzen lagunduko zuela esaten zen, haiei politikan hitza eman beharrean.

Gizarteratzearekin zerikusia zuen beste elementua legerari zegokion. 1964an, Arraza Harremanei buruzko Legea (*Race Relations Act*) onartu zen: arrazakeria debekatu egin zen leku publikoetan. Legea hedatu egin zuten 1968an<sup>ii</sup>, eta etxebizitza eta lana ere barne hartuko zituen. Mark Bonham Carter buru zuen Arraza Harremanen Batzordearen (*Race Relations Board*) esku utzi zuten legea ezartzeko ardura. Aparteko bi unitateak (Harreman Komunitarioen Batzordea eta Arraza Harremanen Batzordea) elkartu egin ziren azkenean, eta Arraza berdintasunerako Batzordea (*Commission for Racial Equality*) sortu zuten, 1976an.

### **Immigrazio-kontrola kolorearen auzian oinarritzea: Afrikako ekialdeko asiarrak eta “patriality” delakoa edo arbasoak**

Arazo handia sortu zen, 1962ko Legea eta Alderdi Laboristaren 1965 ondorengo politika etorkin “ez zurien” arazoaz arduratzeko eginak zeudelako. Hori oso argi geratu zen 1968an, Afrikako ekialdeko asiarrak askok Britainia Handira emigratu nahi izan zuenean, Idi Amin-en jazarpenaren beldur. Afrikako ekialdeko koloniek independentzia lortu zutenean, pertsona horietako askori herritartasun britainiarra

<sup>i</sup> Ordezkarri hauek aukeratu zituzten etorkinen komunitateak ordezkatzeko: David Pitt doktorea, Antilletatik etorri eta Parlamentuko hauteskunde batzuetako hautesle ohia; Vishnu Sharma, Indiako sindikalisten liderra; eta Hamza Alavi, unibertsitateko irakaslea Manchester-en. Argi eta garbi hitz eginda, batzorde horrek ez zuen inor ordezkatzeko. Hala ere, arazoa definitzeko eta horri irtenbidea aurkitzeko buruzagi liberalen ahalegina izan zen.

<sup>ii</sup> 1968ko Legea asko ahuldu zen. Izan ere, Tokiko Kontseiluaren mende zegoen, Etxebizitzari zegokionez; eta sindikalisten mende, lanari zegokionez.

eskuratzeko aukera eman zitzairen, Afrika ekialdeko herrialdeetakoaren orde. Askok lehena hautatu zuten, eta, beraz, ezin zieten baimena ukatu, 1962ko Immigrazio Kontrolari buruzko Legeari jarraiki. James Callaghan Britainia Handiko Barne ministroak berehala bideratu zuen Afrikako ekialdeko asiarroriek “ilaran jarriko” zituen legeria, urtero kopuru txiki bat bakarrik onar zedin<sup>iii</sup>. Horrenbestez, kopuru berri bat gehitu zitzairen bizilagun britainiar “ez zuriei”.

Bestalde, Commonwealth-eko Immigrazioa hasiera batean Old Commonwealth-eko “zurien” lurraldeetako etorkinei ezartzen zitzairen, eta, beraz, azken horiek desberdintzeko modua aurkitu beharra zegoen, immigrazio-kontrolatik salbuesteko. 1971n lortu zen hori, “patriality” (arbasoak) delako nozioa 1971ko Immigrazio Kontrolari buruzko Legean sartzean. Hurbileko jatorri britainiarra zutenak immigrazio-kontrolatik salbuesten zituen lege horrek; aberriarekin gisa horretako loturarik ez zuen edonori, berriz, atzerritar estatutua ezartzen zion.

### **Mobilizazio arrazista, hirurogeiko hamarkadan**

Arazismoa izan zen 1962ko Arrazaren araberako Immigrazio Kontrol Selek-tiboaren Legea ezarri zuen indar eragilea. Midlands eskualdeko Immigrazio Kontrolaren aldeko erakundeek eraginez onartu zen 1962ko Legea. 1964ko hauteskundeetan, joera orokorra laboristen aldekoa zen. Hala ere, Gordon Walker Atzerri Arazoetako bozeramaile laboristak Smethwick udalerriko aulkia galdu zuen, kontserbadoreek lelo hau erabili baitzuten beren kanpainarako: “auzokide beltzak nahi badituzu, bozkatu laboristen alde”. Beste diputatu laborista batek Londresko aulki segurua Gordon Walker-i utzi zionean, azken horrek porrot egin zuen berriro ere. 1968an, Enoch Powell Alderdi Kontserbadoreko buruak bere hitzaldi ezaguna eman zuen Birminghamen, eta odol ugari isuriko zela aurreikusi zuen, beltzen eta asiarren immigrazioak aurrera jarraitzen bazuen. Edward Heath-ek Powell oposizioiko kabinetetik bota zuenean, haren aldeko martxak egin zituzten langileen klaseko zuriek, Londresko East End auzoan. Oposizioan zegoen Thatcher andreak aditzera eman zuen etorkin beltzen eta asiarren fluxuekin “itotzeko” beldurra zutela britainiarrek.

### **Herritarrak ez arrazistak izatea lortzeko politikak eta erakundeak**

Pertsona ezagun batzuk, ordea, etorkinen gizartratzea lortzeko oinarria osatzen hasi ziren. Ongizatearen estatuak eskaintako herritartasun sozialaren bidez, klase-

---

<sup>iii</sup> Hala ere, 1972an, Idi Amin-en jazarpena eta Afrikako ekialdeko politikak aldatzeko ahaleginaren porrota zirela-eta, Robert Carr Lan ministro kontserbadoreak onartu egin zituen. Hasieran, etorkinak kanpamentuetara eramane zituzten, eta gero barreiatu egin zituzten, nahita. Azkenik, horietako asko Afrikako ekialdeko asiarren komunitateekin elkartu ziren, Leicester hirian, batez ere.

en desberdintasunak gaudituko zirela oinarri hartuta (Marshall, 1951), Roy Jenkins Barne ministroaren adierazpen ezagunari atxiki zitzaion asko. Izan ere, NCCIk antolaturiko gobernuz kanpoko erakundeen bilera batean, honela definitu zuen Barne ministroak etorkinen gizarteratzea: “ez da prozesu uniformatzailea, aukeraberdintasunari lotutako aniztasun kulturala baizik, eta elkarrenganako tolerantzia du ezaugarri” (Joppke, 1999). Edward Boyle diputatu kontserbadoreak arraza huteskundeetako auzi ez bilakatzera bideratu zuen bere partiduko atal bat, 1964an eta 1970ean. Anthony Lester abokatu eta laboristen burua eztabaida politikoa eta arrazazko etengabeko gatazka bereizten saiatu zen, eta, horretarako, arrazismoaren aurkako politikak proposatu zituen. Hark eta Mark Bonham Carter Arraza Harremanen Batzordeko kideak ikerketa-programa bat antolatu zuten, arrazakeriagatiko bazterketa zenbaterainokoa zen azalertzeko. *Political and Economic Planning* (PEP) erakundeak egin zuen ikerketa hori, eta *Racial Discrimination in Britain* (Daniel, 1966) liburua kaleratu zuten horren ondorioz. Atzetik beste hiru azterketa egin zituzten PEPEk eta haren ondorengoak, *Policy Studies Institute* (PSI) erakundeak (Smith, 1974; Brown, 1982; y Modood et al, 1997). Gertaera horien guztien azpian ideia hau zegoen: pentsamendu liberaleko Gobernu britainiarrak arrazakeriaren aurkako konpromisoa hartzeko ardura politikoa izan beharko lukeela. Alabaina, zalantzan jartzen zen zenbaterainoko borondate politikoa zegoen era horretako politikak aurrera eramateko. Ondorengo gobernuek ere sentitu zuten arrazakeria-presioei jendaurrean eta komunikabideetan erantzuteko beharra. Gisa horretako arazoez indarra zuten oraindik ere *Runnymede Trust* (Runnymede, 2000) erakundeak txosten batean bi eskakizun hauek egin zituenen: batetik, Britainia Handia etnia anitzeko gizartea zela onartzea eta, bestetik, erakunde guztietan arrazakeriaren aurkako politika egitea. Jack Straw Barne ministroak kaleratu zuen txostena. Politikaria izanik, Iritzi Taldeen (*Focus Groups*) presioa zuen. Izan ere, talde horien bidez izaten zuten gobernuek iritzi publikoaren berri<sup>iv</sup>.

Gertaera horietan harrigarria zen nola sortu zen Britainia Handiko “Establishment” berria eta nolako bateratasunaz jokatu zuen erakunde horrek. Hasiera batean, arrazakeriagatiko bazterketaren aurka egingo zuen erakunde nagusia *Campaign Against Racial Discrimination* (CARD) izango zen itxaropena zuen jendeak. Zenbait buruzagi afroamerikarrek Britainia Handira egindako bisiten ondorioz sortu zen erakundea. Martin Luther King 1964ko abenduan izan zen Londresen, eta Malcolm X 1965eko otsailean. King etortzearen eraginez, CARD sortu zuten, eta Malcolm X etortzearen ondorioz, berriz, iragankorragoa izandako *Racial Adjustment Society* erakundea.

<sup>iv</sup> Politika guztiak Iritzi Taldeekin kontsultatu behar zirelako printzipioa ezarri zuen Straw-k Barne Ministerioan. Argi geratu zitzaizkion horrek zer esan nahi zuen, Coventry Evening Telegraph egunkarira gutun bat bidali nuenean, Dover hirira ehun bat ijito txekiar etorri zirela-eta Mike O'Brien ministro izendatu berriak immigrazioaren aurka eman zuen hitzaldiaren aurka kexatzeko. O'Brien jaunak berak erantzun zidan: nik eta ni bezalako jende liberal ezkertiarrek esandakoa entzun ondoren, “beste aldekoek” adierazitako iritziekin orekatu behar izaten zuela argudiatu zidan. Begien bistakoa da gaur egun ministroek ez dietela jarraituko zientzialari sozialen iritziei, Gaitskell-ek Ceri Peach-en aurkikuntzak erabili zituenen bezala.

CARDek *West Indian Standing Conference* erakundearen babesa zuen; Notting Hill-eko auzokide beltzei egindako eraso batzuen ondorioz sortu zen. CARDen historia Benjamin Heineman-en *The Politics of Powerlessness* (Heineman, 1972) liburuan kontatu zen. Izenak bestelakoa adieraz badezake ere, CARD ez zen arrazagatiko bazterkeriaz bakarrik arduratzen. Aitzitik, arrazakeriagatiko erasoei aurre egiteko beltzen komunitatearentzako autodefentsa antolatzeaz ere arduratzen zen. Horrek esan nahi du “Black Power” (Botere Beltza) izeneko mugimendu zabalago baten parte zela. Mugimendu horren barnean, erakunde berriak eta adierazpen kulturalak ari ziren sortzen. Erakundeen artean bazen bat oso garrantzitsua: Sivananadan Sri Lankako bibliotekari marxista buru zuen *Institute of Race Relations* erakundearen barneko mugimendua. Afrikan interesak zituzten pentsamendu libe-raleko kapitalistek sortu zuten institutua, eta Philip Mason<sup>v</sup> <sup>vi</sup> zuen zuzendari. Gaitasun politiko handia erabiliz, Sivanandan-ek batzordearen porrota lortu zuen, eta erakundearen jabe egin zen. Erakunde horren *Race* (“Arraza”) egunkaria bere mendean hartu zuen, eta *Race and Class* (“Arraza eta Klasea”) izena jarri zion.

Azken finean, hirurogeiko hamarkadako arraza-harremanei buruzko eztabaidei erreparatzen badiegu, tartean hainbat joera izan zirela ohartuko gara. Militante beltzen erantzun politikoa izan zen, bai eta zurien arrazakeria ere, hala irekia nola ezkutukoa. Bestalde, arrazakeriaren aurkako mugimendu bat egon zen Elizan eta gobernuz kanpoko erakundeetan. Batez ere paternalista zen, eta herritar beltzak beren kasa jarduteko gaitu beharrean, haien alde zer egin behar zen argudiatzen zuten. Azkenik, “Establishment” liberal bat zegoen; haren helburua arrazakeriaren aurkako politikak sustatzea zen, legezko eta erakundeetako bitartekoen bidez.

## Etniari buruzko galderak erroldan

Gutxiengoan kopurua nolakoa zen jakitea oso garrantzitsua zen, arrazakeriaren eta bazterketaren aurkako politikak egitean. Frantzia, jaioterriari eta herritartasunari buruzko estatistikak jasotzen ziren arren, ez zen zuzentzat jotzen herritarren etnia erregistratzea. Britainia Handian, berriz, ez zen hala gertatzen. Ekintza zuzentzaileen bidez arrazakeriagatiko bazterketari eta desabantailari aurre egiteko, beharrezkotzat jotzen zen, jaioterria edozein izanda ere, beren burua talde etniko bateko partaidetzat jotzen zutenen kopuru estatistikoa edukitzea. 1981ean, gai horri buruzko erantzunen bila hasi ziren erroldan, eta, horretarako, herritar ororen eta gurasoen jaioterria zein zen galdetzen zuten. 1991n, ordea, galdera-mota berri bat sartu zuten. Norberaren ustetan zein talde etnikotakoa zen esateko eskatzen hasi zitzaion jendeari. Aukera hauek ematen zitzaizkien: “zuria”, “beltz afrikarra”, “beltz

<sup>v</sup> Mason-en datuak eskuragarri zituen Chris Mullard-ek, eta datu interesgarriak eman zituen institutuaren historiari buruz (Mullard, 1985). Baina Mullard-en asmoa ez da historia kontatzea bakarrik, erresistentziaren kontzeptua ere aztertu nahi du.

<sup>vi</sup> Mullard-ek askotan aipatzen ditu bertako artxiboan gordetako Mason-en Eskutitzak. Hala ere, York-eko Unibertsitateko *Centre for Southern African Studies*-ek bere goren aldian izandako Helburuei buruz ere badiharduo Mason-ek (Mason, 1976).



karibearra” edo “beste jatorri bateko beltza”, “indiar pakistandarra”, “bangladeshtarra” edo “srilankarra”, “txinatarra”, “beste jatorri bateko asiarra” edo “beste jatorri batekoa”. Askok egin zioten kritika galdera horri, eta ilogikotzat eta potentzialki arrazistatzat ere jo zuten. Argi dago “zuria” ez dela benetako kategoria etnikoa. Bestalde, “zuri britainiarren” talde etniko bereko partaide izateko aukerarik ez zaie ematen “beltzei”. “Asiarren” kategoriakoak beren jaioterriari lotuta daudela dirudi. “Zurien” taldea anitza da; britainiar sorterrria dutenez gain, irlandarrak, zipretarrak, maltarrak eta europarrak sartzen dira. Azkenik, jatorri mistoa dutenen talderik ez dela onartzen ematen du. Gainera, erlijioarekin zerikusia duen galderarik ez zen egiten, juduen lobby boteretsua aurka agertu zelako. Ondorioz, pakistandarren eta bangladeshtarren zenbatekoa musulmanen parekotzat jotzen zen. Azkenean, erlijioarekin zerikusia zuen galdera bat jarri zuten 2001eko errolan. Kenneth Leech-ek (Leech, 1989) *Runnymede Trust* erakunderako idatzitako liburuxkan aztertu ziren etniarekin zerikusia zuten arazoetako batzuk.

Nahiz eta etniari buruzko galderei kritika egin, zientzialari sozial eta politikari askoren babesa izan zuten, laurogeita hamarreko hamarkadan. Bazterketa eta desabantaila zenbatekoak ziren jakiteko —eta zuzentzeko—, kategoria horietako partaidetzat jotzen zituztenen (edo beren burua halakotzat jotzen zutenen) zenbatekoa jakitea nahitaezkoa zela esaten zen. Bazterketaren oinarria nagusiki kolorea bazen, lehenengo bereizketa “zurien” eta “zuri ez zirenen” artean egitea garrantzitsua izango zela argudiatzen zuten. Bereizketa horren ondoren, beste bat egin zitekeen “beltzen” eta “asiarren” taldeen artean, bazterkeria latzena nork jasaten zuen erakusteko. Argudio hori ulergarria da, baina azpimarratu beharra dago, Modood-ek eta haren lankideek egindako Desabantailaren Laugarren Inkestan, erroldako kategoriak aldatuta daudela, haien ordez sofistikatuago batzuk jarri zituztela.

## **Asilo-eskatzaileak eta legez kanpoko etorkinak**

1962ko eta 1968ko Immigrazio Kontrolari buruzko Legeak onartu eta gero, lan bila zebiltzan pertsonen sarrera jada ez zen mendeko lurraldeetatik zetozen etorkinen etengabeko fluxua. Immigrazioa geldiarazteko ahalegin horretan, Britainia Handia lehen postuan zegoen, Europako mendebaldeko beste herrialde batzuek hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran ezarri baitzituzten era horretako neurriak. Orduetik aurrera, etorkin gehienak asilo-eskatzaileak izan ziren, edo, era orokorrago batean esanda, arrazoi politikoak zituzten migratzaileak; eta desberdina zen arrazoi ekonomikoak zituzten migratzaileak esatea. 1951ko Genevako Hitzarmenari jarraiki onartzen zituzten asilo-eskatzaileak. Hitzarmen horren arabera, errefuxiatu-egoera eskatu nahi duen edonork izan behar du “arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, talde sozial jakin bateko partaide izateagatik edo iritzi politikoagatik jazarria izateko beldurra”. 2002an, era horretako 85.865 baimen eskatu ziren Britainia Handian. %42ri errefuxiatu estatutua eman zitzaion, eta %10i “gelditzeko ohiz kanpoko baimena”. Gainerakoen artean, batzuk bota egin zituzten eta beste batzuk beren herrialdeetara

itzuli ziren beren borondatez. Britainia Handiko Gobernuak eskatzaileen kopurua murrizten saiatu zen, herrialde batzuk seguruak zirela adieraziz, eta eskatzaileek bisak beren herrialdeko Britainia Handiko bulegoetan lortu behar zituztela esanez edo garraiolari izan zitezkeenei etorkinik ez eramateko eskatuz. Asilo-eskaera egin zezaketenek baino talde askoz handiagoa osatzen zuten Genevako Hitzarmeneko baldintzak bete ez eta politikoki egoera jasanezinean bizi zirenek, gerra zibilak edo hondamendi ekologikoak zirela-eta. Britainia Handiko Gobernuak, oro har, ez zion errefuxiatu egoera onartzen talde horri; benetan arrazoi ekonomikoak zituzten migratzaileak zirela eta errefuxiatuak izateko itxurak egiten zituztela baieztatzen zuen askotan. Egia esan, immigratzeko beste bideak ixten zitzaizkienean, arrazoi ekonomiko-engatik migratu nahi zuten etorkin batzuek errefuxiatu-egoera eskatzeko erabakia hartzen zuten, azken baliabide gisa.

Gobernuztat, ez zen gauza bera arrazoi politikoak zituzten migratzaileen edo arrazoi ekonomikoak zituzteten onarpena justifikatzea. Azkenekoen kasuan, Gobernuak arrazoi zezakeen migratzaileak beharrezkoak zirela, haiek egon ezean bete gabe geratuko lirakeen lanpostuak betetzeko. Arrazoi politikoak zituzten migratzaileei zegokienez, ordea, onartu izana justifikatzeko, betekizun legal edo moraletan bakarrik oinarri zitezkeen, migratzaileak hartuta herrialdeak onura izan ala ez izan. Batzuek froga zezaketen beren gaitasun profesionala, noski, hogeita hamarreko hamarkadan errefuxiatu judu askorekin gertatzen zen moduan, baina horren baliagarritasuna atzera begira bakarrik onartzen zen eta, printzipioz, ahal bezain arinen jatorrizko lurraldera bidali behar ziren gizaki arriskutsutzat hartzen ziren. Ijitoei eta erromaniei zegokienez, jazarpena talde gisa jasaten zutela baieztatzen zuten talde horietako kideek, baina errefuxiatu-egoerarik ezin zitzaien onartu banakako jazarpena izateko beldur ez baziren. Txekiar Errepublikako, Eslovakiako eta Errumaniako ijitoak onartzeak era horretako etorkinen aurkako etsaitasuna ekartzen zuen askotan<sup>vii</sup>.

Baimena lortu ez zuten asilo-eskatzaile batzuk komunitatean barreiatu ziren, eta dokumenturik ez zuten legez kanpoko beste langile batzuekin elkartu ziren. Horietako batzuk pertsona-trafikatzaileek sartu zituzten ezkutuan herrialdean, baina, nekazaritza- eta eraikuntza-industriako arlo gehienetan, enplegu-emaileek "gangmasters" (bandetako buruak) direlakoengana jotzen zuten, esku-lana kostu minimoan lor ziezaieten. Legez kanpoko langile horiek dilema bat zuten: soldataren eta etxebizitzaren baldintzak negargarriak ziren, baina sindikaturen batean afiliatzen baziren, beren presentzia agerian geratzeko arriskua zuten eta, beraz,

<sup>vii</sup> Erromanien egoera eta beste etorkinena desberdina zen, gaiak ekonomikoak nahiz politikoak izan. Erromani batzuk sedentarioak ziren eta beste batzuk nomadak edo "travellers" deritzenak. Erromanien taldekoak ez ziren nomadak ere bazeuden. Britainia Handian, ijito britainiarrez eta ijito ez ziren "travellers" direlako ez arduratu behar izaten zuten Barne Ministerioak eta tokiko gobernuetako departamentuek. Halaber, jazarriak zirela baieztatzen zuten Europako erdialdeko eta ekialdeko erromanien komunitatea immigrazioaren mehatxu orokorraren adierazgarritzat hartzen zen, Dover hirira ijito-kopuru txiki bat etortzeagatik Mike O'Brien ministroak izandako erantzunak erakutsi zuen moduan (ijitoei buruzko Britainia Handiko politiken gainean argibideak izateko, ikus Acton and Kegan, 1974).

deportatu egin zitzaizkion. Gaur egun, lanari buruzko estatistiketan “zulo beltz” bat dagoela dirudi, ez baitakigu legez kanpoko zenbat langile zeuden.

### **Klasea, arraza eta etnizitatea, laurogeiko hamarkadatik gaur egun arte**

Klaseen arteko zatiketa gainditzearen arazoa eta etorkinen gizarteratzearen auzia etengabe korapilatuta zeuden, Marshall-i eta Jenkins-i buruz jardutean argudiatu dudana bezala. Thatcher-ek boterea eskuratu zuenean, haren politikan azpimarragarriena ez zen etorkinen gizarteratzearen aurka egitea edo arazoaren errua etorkinei leporatzea. Izan ere, kapitalismoan zuen uste sendoa zela-eta, langileen klasea —sindikatuak zituen buru— etsai handientzat hartu zuen eta horiei porrot egina-razten saiatu zen. Malvinetako Gerran argentinarrak garaitu ondoren, *National Union of Mineworkers* meatzarien sindikatua hartzen zuen “barneko etsaitzat”. Gainera, immigrazioaren edo arraza-harremanen auziek ez zuten asko kezkatzen John Major ondorengo Lehen ministroa ere. Klaserik gabeko Britainia Handia zen harentzat ideala. Lurrean ideal horretan, edonor, jatorria edozein izanda ere, iritsi zitekeen gailurrera. Azkenik, Blair-en lan-politika berriak alde batera utzi zuen guxtiengo etnikoen eztabaida oro, gizarte-zerbitzuen mende egon beharrean, haiek lan-merkatuan sartu beharra azpimarratzen baitzuen.

### **Ingalaterrako iparraldeko istiluak eta kultur aniztasunaren eztabaida**

Etorkinen gutxiengoaren alternatiba politikoei buruzko edozein eztabaidatan, oro har, kultur aniztasuna babesten zuen herrialdeetatik hartzen zuten Britainia Handia. Aitzitik, Frantziar asimilazionismoa zen ideala, eta, Alemanian, *gastarbeider* sistemaren ideia inplizitua; azken horrek, printzipioz, ez zituen hartzen etorkinak langile iraunkortzat. Gai hau oso zabal eztabaidatzen da nire *Ethnic Minorities in the Modern Nation State* (Rex, 1996) liburuan. 2002an Lancashire eta Yorkshire konderrietako hiri batzuetan istiluak izan baziren ere, etxebizitza- eta hezkuntza-gaie-tan izandako bereizketari egotzi zitzaion istilu horien errua. *Nottingham City Council*eko zuzendari izandako Cantle Barne ministroak oztopo etnikoak desagerraraziko zituen kohesio komunitario bat behar zela zioen (Cantle, 2001). Bradford-en, berriz, Herman Ouseley-k (Ouseley, 2001) egindako txosten bati antzeko erabilera eman zitzaion. Jenkins-ek defendaturiko kultur aniztasuna amaitu egin zela zirudien eta, 2004. urtean, ideia horrekin bat zetorrela adierazi zuen Trevor Phillips Arraza Berdintasunerako Batzordeko zuzendariak (BBC, 2004ko apirila). David Blunkett Barne ministroak zeremoniak antolatzen zituen, etorkinek Britainia Handiari leialtasuna aitortzeko. Zeremonia horietan, halaber, tokiko agintariei eskatzen zitzaizkien ahalegin berezia egiteko, etorkin guztiek ingelesa eta balio ingelesak ikas zitzaizkien. Gainera, nortasun agiria egiteko programa bat proposatu zuten, eta agiri hori izatea oso garrantzitsua zela jakinarazi zitzaizkien etorki-

nei. Aldaketa horiek aditzera ematen duten bezala, gizarteratzeaz jarduteko hiztegi berri bat erabiltzen zen une horretan, eta britainiarren pentsatzeko era frantziarren asimilazionismoari hurbiltzen ari zitzaion.

### **Musulmanak eta islamofobia, irailaren I Iren ondoren**

Britainia Handian, gertaera batzuek bereizketa sortu zuten musulmanen eta britainiarren artean, 2001eko irailaren 11n New Yorki eta Washingtoni egindako erasoak baino lehenagotik sortu ere. *Migration Watch* erakundeak iradoki zuenez, immigrazioa murriztu egin zenez, ez zen komeni musulmanei sartzen uztea, horiek asimilatzea zaila suertatzen baitzen (Coleman, 1999). Samuel Huntington-en ideiek nozio hau sustatu zuten Estatu Batuetan: Islama eta Mendebaldea, hala kristaua nola laikoak, garapen desberdineko bi agertoki bateraezin zirela (Huntington, 1993). Britainia Handian, Rushdie Auziak musulmanekiko etsaitasuna berritu zuen, eta Rushdie-ren liburua erretzean sortutako erreakzioek sinbolizatu zuten hori (Samad, 1992). *Runnymede Trust* erakundeak islamofobiari buruzko txosten bat kaleratu zuen (Runnymede Trust, 1997); bertan, jendeak musulmanekiko zuen etsaitasuna zenbatekoa zen azpimarratzen zen. Hori gutxi ez, eta 2001eko irailaren 11tik aurrera, musulmanak terrorista potentzialtzat jotzen hasi ziren<sup>viii</sup>.

### **Immigrazioa eta arraza, 2005eko hauteskundeetan**

Dokumentu hau idazteko unean eman zen jakitera Britainia Handiko Parlamentuko hauteskundeak 2005eko maiatzaren 5ean izango zirela. Kanpainan, gai jakin batzuei eman zieten lehentasuna alderdi politikoko nagusiek. Garrantzitsuenetakoa Irakeko gerra izan zen, eta lehen ministroak legez kanpo jokatu ote zuen. Demokrata Liberalek beren gai nagusi bilakatu dute hori. Alderdi Kontserbadoreak, berriz, immigrazioa bihurtu zuten funtsezko gai, laboristen immigrazioaren gaineko kontrola galdu zutela argudiatuz. Egoera zorrotasunez kontrolatzen zutela erantzun zuten laboristek. Eztabaida horretan ez zen bereizketarik egin arrazoi ekonomiko-engatik egiten den migrazioaren eta asilo-eskaeraren artean. Hein batean, kontserbadoreak "arrazaren auziarekin jokatzeko" ari direlako gertatzen da hori, etorkin "ez zurien" oldea nabarmentzen baitute. Hala ere, kontserbadoreen kanpainak Europaren aurkako dimentsioa ere badu. Europar Batasunaren zabalkundeak ateak irekiko dizkio Europako ekialdeko etorkinen oldeari, eta etorkin horiek britainiarrenak izan behar luketen lanpostuak beteko dituztela uste dute kontserbadoreek eta horien aliatuek. *Migration Watch* ikerketarako erakunde independentea dela esaten da. Etorkinen eta asilo-eskatzaileen kopurua murrizteko eskatzen du. Horri erantzunez, Alderdi Laboristak dio arrazoi ekonomikoengatik migratzen duten gaitasun profesionaldun etorkinak animatu nahi dituela, asilo-eskatzaileen

---

<sup>viii</sup> Britainia Handian eta Europar musulmanen inguruan dagoen arazoa sakonki aztertzeke, ikus nik idatzitako (Rex, 2002) Islama Britainia Handian atala, bai eta Shireen Hunter-en *Islam Europe's Second Religion* liburuko beste atal batzuk ere.

izapideak azkartuko dituela, eta asiloaren auzian duen ardura Europako beste herrialdeekin partekatzen saiatzen ari dela. Kaleko jendeari egindako elkarrizketek emandako emaitzen arabera, oro har, etorkin gehiegi dagoela uste da. Mugen kontrol zorrotzagoak ezarri nahi ditu Alderdi Kontserbadoreak.

Maiatzaren 7rako bagenekien hauteskundeetako emaitza. Zaila da immigrazioak emaitzan izan zuen eragina kalkulatzeko. Izan ere, gai hori funtsezko ez bihurtzea erabaki zuen Alderdi Kontserbadoreko zuzendaritzak, “arrazaren auziarekin jokatzeko” itxura ematen bazuten, beren aukerei kalte egingo ziela uste baitzuten. Bestalde, etorkinek hazkunde ekonomikoan egin zezaketen ekarpena azpimarratu zuten Alderdi Laboristako bozeramaile batzuek, eta beste laborista batzuk, berriz, beren alderdiak immigrazioa kontserbadoreek baino hobeto kudeatu zuela eta kudeatuko zuela argudiatzen saiatu ziren. Arrazoi politikoengatik egiten zen migrazioa eta arrazoi ekonomikoengatik egiten zena gai bakar baten gisa jorratzen saiatu ziren bi alderdiak. Une hartan, New Commonwealth-eko “zuri ez zirenen” immigrazioa baino kezkarriagoa bihurtu zen Europako erdialdeko eta ekialdeko immigrazioa. Bi alderdiek kezka handia zuten mugetako kontrolak zirela-eta. Gainera, gai horiez guztiez gain, Europarekiko zuten mendekotasun-mailaren auziaz ere arduratu behar zuten.

## **Britainia Handiko eta Europako immigrazioaren esperientziak**

Gaur egun, Britainia Handiko immigrazioaren esperientzia oso konplexua da. Jada ez da kolorean bakarrik oinarritzen, eta etorkin asko Europako erdialdetik eta ekialdetik etortzen dira, zabalkundearen prozesuan onartutako herrialdeetatik, hain zuzen. Lehen, Britainia Handiak era horretako immigrazioari hesia jarri zion Schengen-go Hitzarmenean, baina orain askatasun osoz etor daitezke etorkinak zabalkundeko herrialdeetatik. Gainera, ez dira asilo-eskatzailak izango, Europar Batasuneko herrialdeak segurutzat jotzen baitira. Zabalkundeko herrialdeei eta New Commonwealth-i dagokienez, britainiarrek uste zuten immigrazioari sorburuko lekuan itxi behar zitzaiola bidea, bisen bidez eta legez kanpoko etorkinak eramaten zituzten garraiatzaileei (“pertsone-trafikatzaileak” deritzenei) ardura exijituz. Espainiak, Frantziak eta Beneluxek Magrebetik —bereziki Marokotik— etorritako immigrazioari aurre egiteko arazoa zuten, batez ere. Europako gobernuen artean ideia nagusia Europaren Sendotasunaren kontzeptua izan arren, etorkin afrikarrak bidaia gogorrek egiten ari ziren, eta bizitza arriskuan jartzen, European sartu ahal izateko. Droga-trafikoaren kontrolarekin eta terrorismoarekin batera aztertu zen era horretako immigrazioa, Europako Ministroen Kontseiluan. Halaber, eztabaida handia izan zen Islamak European zuen rolari buruz. Ezbairik gabe, egun, musulman asko dago European, eta Turkia European sartzeko aukerak eztabaida sortu zuen; hots, Europar Batasunak, guztiaren gainetik, herrialde kristauez osatuta egon behar lukeen ala ez. Immigrazioari buruzko Britainia Handiko eztabaida Europako eztabaida zabalago baten parte zen.

## **Bibliografia**

- Abbas, T. (2005) (Editorea), *Muslim Britain, Communities under Pressure*, Zed Books, Palgrave MacMillan-ek banatua, Londres eta New York.
- Acton, T. eta Kegan, P. (1974), *Gypsy Politics and Social Change*, Routledge, Londres.
- BBC News, 2004ko apirilaren 10a.
- Brown, C. (1982), *Black and White Britain*, Heineman Educational Books, Londres.
- Cantle, T. (2001eko abendua), *Building Cohesive Communities: A Report of the Ministerial group on Public Order and Community Cohesion*, Barne Ministerioa, Londres.
- Coleman, D. (1999), Irratiko eztabaidetan egindako ekarpenak; adibidez, *Rites of Refuge*, BBC Home Service, 16-12-99.
- Crossman, R. (1979), *The Crossman Diaries, Selection from the diaries of a Cabinet Minister 1964-70*, Anthony Howard-ek aurkeztua eta editatua, Magnum Books, Methuen Paperbacks, Londres.
- Daniel, W. (1966), *Racial Discrimination in England*, Harmondsworth, Londres.
- Goodhart, D. (2004), *The Strangers Among Us*, hasiera batean *Prospecten*, 2002ko otsailan, Londres. *The Guardian* egunkarian agertua, 2004ko otsailaren 26an.
- Harris, N. (2002), *Thinking the Unthinkable: The Myth of Immigration Control*, I.B.Taurus, Londres.
- Hayter, T. (2000), *Open Borders: the New Common Sense*.
- Heinemann, B.W. Junior (1972), *The Politics of Powerlessness: A study of the Campaign Against Racial Discrimination*, Oxford University Press, Oxford.
- Home Office (Barne Ministerioa) (1963), *Commonwealth-eko etorkinei buruzko Legea, 1962; Immigrazio-kontrolari buruzko estatistikak: 1962ko uztaila-1963ko ekainaren 30a*, Barne Ministerioa, Cmnd 2151.
- Huntington, S. (1993), *The Clash of Civilizations in Foreign Affairs*, 1993ko uda, 72. liburukia, 3. zenbakia, Washington.
- Joppke C. (1999) *Immigration and the Nation State: the United States, Germany and Great Britain*, Oxford University Press, Oxford.
- Leech, K. (1989), *A Question of Dispute: The Debate about an "Ethnic" question in the Census*, Runnymede Trust, Londres.
- Marshall, T.H. (1951), *Citizenship and Social Class*, Cambridge University Press, Cambridge.

Mason, P. (1976), *The Institute of Race Relations*, Centre for Southern African Studies, York-eko Unibertsitatea.

Migration Watch UK. (2002), 7. buletina, Komunen Ganberari emana, 2002.

Modood et al (2000), *Ethnic Minorities in Britain: Diversity and Disadvantage*, Policy Studies Institute, Londres.

Mullard, C. (1985), *Race Power and Resistance*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 1985.

Ouseley, H. (2001eko uztaila), *Community Pride and Prejudice*, Bradford Vision, Bradford-eko Udala.

Peach, C. (1967), West Indians as a Replacement Population in England and Wales, Extracto de *Social and Economic Studies* en laburpena, 16. liburukia, 3. zenbakia, 289.-294. or.

Rex, J. (1996), *Ethnic Minorities in the Modern Nation State*, MacMillan, Basingstoke.

Rex, J. eta Tomlinson S. (1979), *Colonial Immigrants in a British City: A Class Analysis*, Routledge and Kegan Paul, Londres.

Rex, J. (2002), "Islam in the United Kingdom" in Shireen Hunter, *Islam Europe's Second Religion*, Praeger, New York, Council for Strategic and International Studies-ekin batera, Washington.

Runnymede Trust (1997), *Islamophobia: A Challenge to us all*, Runnymede Trust Londres.

Runnymede Trust (2000), *The Future of Multi-Ethnic Britain – The Parekh Report*, Runnymede Trust, Londres.

Samad, Y. (1992), Book-burning and Race Relations: Political Mobilisation of Asians in Bradford, *New Community*, 8. bolumena, 4. zenbakia, Londres.

Smith, D. (1974), *Racial Disadvantage in Britain*, Hammondsport, Londres.





# Bernako Ekimena eta Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agenda<sup>1</sup>

Michele Klein Solomon

## A. Sarrera

Bernako Ekimena estatuen kontsulta-prozesu bat da, nazioan, eskualdean eta munduan migrazioaren kudeaketa hobea lortzea helburu duena, estatuen arteko lankidetzari handiagoaren bidez. Helburu hori izanda, gobernuak laguntza ematen die lehentasun politikoak identifikatzeko eta, hizketakide garrantzitsuekin batera, migrazioaren kudeaketarako baterako orientabidea identifikatzeko. Bernako Ekimena Suitzako gobernuak jarri zuen abian eta ohiko instituzio-egituretatik kanpo garatu zen.

Bernako Ekimena nazioarteko lankidetzari eta konfiantzari hobetzeko beharrezko ondorioz sortu zen –munduko eskualde guztietako gobernuen artean, eta eskualdeko eta nazioarteko erakundeek, gizarte zibilak eta migrazioan adituak diren independenteek parte hartzen zutela–. Migrazioa gaur egungo munduaren oinarritzko ezaugarri bat dela onartzen du, eta eraginkortasun handiagoz kudeatzeko moduak aurkitzea estatu guztien erronka dela, migrazioa segurua, ordenatua eta migratzaileentzat eta gizarteentzat onuragarria izan dadin.

Bernako Ekimenaren produkturik garrantzitsuenak Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agenda (*International Agenda for Migration Management*, IAMM) da. Agenda hori erreferentzia-sistema bat eta eremu politiko bat da, loteslea ez izan arren. Agenda osatzean, estatuak izan ziren agente nagusiak migrazioaren kudeaketaren eremuan; eta eskualdeko eta nazioarteko erakunde garrantzitsuek, GKE-ek eta migrazioko aditu independenteek aholkularitza eta laguntza eman zuten.

---

<sup>1</sup> Michele Klein Solomon-ek, Migrazioetarako Munduko Erakunde Migrazio Ikerketa eta Politika Saileko alboko Zuzendariak konferentzia honetan egindako diskurtsoan oinarritua: "Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa" Bibaon, 2005eko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean eta 2an.

## I. Bernako Ekimenaren testuingurua

Azken urteetan, migrazioak gero eta garrantzi handiagoa hartu du, nazioarteko gaien agendaren goinera iristeraino. Horri dagokionez:

- Munduko, eskualdeetako eta eskualdez azpiko ekonomia-, politika- eta segurtasun-instituzioen eta -erakundeen agendan migrazioa sartu da; esate baterako, Europar Batasunaren (EB), Munduko Bankuaren, Hego-ekialdeko Asiako Nazioen Elkartearen (*Association of South East Asian Nations*, ASEAN), Afrikar Batasunaren (*African Union*, AU), Hegoaldeko Merkatu Bateratuaren (MERCOSUR), Hegoaldeko Afrikako Garapenerako Komunitatearen (*Southern African Development Community*, SADC) eta Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Antolakundearen (*Organization for Security and Cooperation in Europe*, OSCE) agendan;
- Nazio Batuen Idazkari Orokorrek migrazioa nazioarteko komunitatearen lehentasuna dela adierazi zuen, Batzar Nagusirako egindako bi txosten haue- tan: "Nazio Batuen sendotzea: aldaketan sakontzeko programa" (*Strengthening of the United Nations: an agenda for further change*, 2002) eta "Askatasu- naren kontzeptu zabalagoa: garapena, segurtasuna eta giza eskubideak guz- tiontzat" (*In larger freedom: towards development, security and human rights for all*, 2005);
- Nazioarteko Migrazioari eta Garapenari buruz Goi Mailako Elkarrizketa anto- latzea erabaki zen, 2006ko udazkenean egin beharreko NBEren Batzar Nagusien 61. saiorako;
- Migrazioetarako Munduko Erakundean (IOM) kideen kopuruak gorakada handia izan du, denbora gutxian. 1998an 67 kide ziren, eta gaur egun 112 estatu eta beste 23 estatu behatzaile dira. Gainera, gobernuen arteko kide asko eta gobernuz kanpoko erakundeak ere badaude; eta
- 2004. urtean Nazioarteko Migrazioei buruzko Munduko Batzordea (*Global Comisión on International Migration*, GCIM) ezarri zuten Brasilgo, Maro- koko, Filipinetako, Suediako eta Suitzako gobernuak, eta, geroago, interesa- tutako beste zenbait gobernu elkartu zitzaizkien.

Munduko demografiaren, ekonomiaren, politiken eta gizartearen joerek bermatzen dute gobernuak eta gizarteak arreta handiagoa jarri beharko dutela migrazioaren kudeaketaren alderdi guztietan.

Migrazioa kudeatzeko erronkak mota askotakoak dira eta hainbat gai barne har- tzen dituzte: segurtasuna, egonkortasuna (soziala, politikoa eta ekonomikoa), mer- kataritza, garapena, lana eta osasuna. Dena den, erronka horietako asko aukera onuragarriak izan daitezke jatorrizko herrialdeentzat, helmuga diren herrialdeen-

tzat eta migratzaileentzat beraientzat, modu eraginkorrean kudeatzen baldin badira, betiere. Ezin da migrazioaren kudeaketa eraginkorrik lortu, politikako berariazko elementu batzuk bakarrik hartzen badira kontuan. Migrazioaren ikuspegi orokorra eta orekatua behar da, migrazioen errealitateak eta joerak aintzat hartuta, bai eta migrazioen eta funtsezkoak diren beste alderdi batzuen (ekonomikoak, sozialak, politikoak eta humanitarioak) arteko loturak ere.

Migrazioa nazioaren esparruan kudeatzen da batik bat, eta estatu bakoitza subiranoa da bere lurraldean nor eta zein baldintzatan sartu eta egon daitekeen zehazteko. Erantzukizun subirano hori erabiltzean, estatu gehienek migrazioaren alde bateko ikuspegia hartu dute aintzat, bi aldeko akordioekin eta *ad hoc* akordioekin batera. Horren ondorioz, migrazioei buruzko nazio-politika bakoitzak bere bila-kaera izan du. Hala eta guztiz ere, migrazioa gero eta gehiago nazioz gaindikoa denez eta beste gai batzuekin duen harremana konplexua denez, gobernuak gero eta gehiago onartzen dute interes berak dituztela migrazioaren alorrean, bai eta migrazioa kudeatzeko lankidetzeta eta koordinazioa areagotzea oso garrantzitsua dela ere. Nazioarteko migrazioa behar bezala kudeatzeko, nahitaezkoa da ikuspegi orokorra eta orekatua izatea, eta ikuspegi hori lortzeko, elkarriketa eta lankidetzeta ezinbestekoak dira eskualde-mailan eta nazioartean.

Gobernu-funtzionarioak, nazioarteko erakundeen ordezkariak, eta, zenbaitetan, GKEak biltzen dituzten migrazioari buruzko eskualdeko kontsulta-prozesuak gero eta ugariagoak dira. Horietan, elkarriketan jardun eta informazio informala eta ez-loteslea trukutzen da. Prozesu horiek ugaritu izana positiboa izan da nazioen arteko eskualdeko lankidetzarako, eta horien bidez, aurrerapauso garrantzitsua eman da, migrazioari buruzko baterako oinarriak eta ikuspegiak sortu ahal izateko.

## **B. Bernako Ekimena**

### **1. Ikuspegi orokorra**

Eskualdeko kontsulta-prozesuek estatuak eskualdeen eremuan biltzen dituzte; Bernako Ekimena, berriz, nazioarteko lankidetzeta eta konfiantza bultzatzeko behar-aren ondorioz sortu zen. Bernako Ekimenean parte hartzen dutenen artean, munduko eskualde guztietako gobernuak eta hizketakide garrantzitsu guztiak daude (nazioarteko eta eskualdeko erakundeak, gizarte zibila eta migrazioan adituak diren independenteak barne). Hainbatek zeregin aktiboa izan dute prozesuan; bereziki, hauek: Migrazioetarako Munduko Erakundeak (ingelesez, *International Organization for Migration*, IOM) eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE; ingelesez, *International Labour Office*, ILO), Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak (ingelesez, *Office of the United Nations High Commissioner for Refugees*, UNHCR), Europako, Ipar Amerikako eta Australiako Asilo-politikei, Errefuxiatuei eta Migrazioari buruzko Gobernuen arteko Kontsultek (ingelesez, *Inter-governmental Consultations on Asylum, Refugees and Migration*

*Policies in Europe, North America and Australia*, IGC), Europako Batzordeak eta Migrazio Politika Garatzeko Nazioarteko Zentroak (ingelesez, *International Centre for Migration Policy Development*, ICMPD). Idazkaritza Migrazioetarako Munduko Erakundearen esku dago.

Bernako Ekimenak migrazioari buruzko lehentasun politikoak banatzeko aukera eman die munduko eskualde guztietako gobernuei, bai eta epe luzeko interesak identifikatzeko aukera ere. Gainera, migrazioa kudeatzeko baterako ikuspegia garatzeko aukera ematen du, kontzeptu hauek oinarri hartuta: lankidetzak, elkar-tzea, osotasuna, oreka eta aurreikuspena.

## 2. Bernako I. konferentzia

Bernako Ekimena Suitzako Errefuxiatuentzako Bulego Federalak jarri zuen abian, 2001. urtean, Migrazioari buruzko Nazioarteko Sinposioan ("Bernako I. konferentzia"). Bernako I. konferentzian, 80 bat gobernu-funtzionario eta nazioarteko agentzietako adituk, GKE-ek eta ikasketa-zentroek migrazioaren egungo dinamikak eta joerak aztertu zituzten, honako hauek barne hartuta: garapen demografikoak, globalizazioaren eragina migrazioan, atzerriko laneskuaeren eskaera, migrazio irregularra, pertsonen salerosketa eta generoa migrazioan; gainera, nazioarteko migrazioa gaur egungo beste alderdi garrantzitsu batzuk ere aztertu zituzten.

Bernako I. konferentzian parte hartu zutenek kontuan hartu zituzten jatorrizko, igarotzako eta helmugako herrialdeetako interes eta ikuspegi dibergenteak. Migrazioaren kudeaketari buruzko estatu guztien baterako interesak ere identifikatu zituzten. Esate baterako, migrazioak hazkunde ekonomikoari egiten dion mesedeak, auzokoen arteko harreman onak, segurtasuna, legearen inperioa eta kultur aniztasuna ahalik eta handiena izatea eta migrazioaren ondorio negatiboak minimizatzea (migrazio irregularren eragin negatiboak –finantzarioak, ekonomikoak, sozialak eta legezkoak–, kasu).

Bernako I. konferentzian, legezko migrazioa errazteko eta migrazio irregularri oztotoak jartzeko ikuspegi orekatu bat behar dela eta estatuen arteko lankidetzak sendotzeak estatu horiei onura sortuko liekeela ondorioztatu zuten parte-hartzaileek. Argi eta garbi geratu zen alor horretan nazioarteko zuzenbide berria sortzeko ahalegina (esate baterako, migrazioari buruzko hitzarmen baten negoziazioaren bidez) kaltegarria izango litzatekeela, eta egitekorik onuragarriena eskualde edo herrialde bakoitzak jarduerarik eraginkorrenak gainerakoekin banatzea izango litzatekeela.

Beraz, estatuak, zenbait lehentasun nazional izateaz gainera, aldi berean jatorrizko, igarotzako eta helmugako herrialde dira nolabait, eta gero eta neurri handiagoan, gainera. Horren ondorioz, migrazioari buruzko baterako interesak eta ikuspegiak identifika daitezkeenez, parte-hartzaileek oinarri gidatzaileen esparrua nola

garatzen zen ikertzea erabaki zuten, kontsulta-prozesu zabal eta iraunkor baten bidez.

Ondorengo kontsultetan, 2003. urteko uztailean, munduko eskualde guztietako gobernu-funtzionarioek esparru politiko ez-lotesle zabal bat garatzea onartu zuten. Esparru horren helburua estatuen arteko lankidetzaz erraztea zen, jende-mugimenduak gizatasunez eta modu ordenatuan planifikatzeko eta kudeatzeko. Hasiera-hasieratik onartu zen horrek izan behar zuela Bernako Ekimenaren prozesuko ondorio garrantzitsuena. Esparru ez-lotesle hori geroago garatu zen kontsulta-prozesu baten bidez: Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agenda (*International Agenda for Migration Management*, IAMM) deitu zitzaion.

### 3. Bernako Ekimenaren kontsulta-prozesua

IAMMren adierazpenerako erabilitako kontsulta-prozesua prestatzean, Migrazioetarako Munduko Erakundeak, Suitzaren babespean, migrazioari eta migrazioarekin lotutako zuzenbideko arauak eta nazioartekoei buruzko azterketa egitea eta argitaratzea agindu zuen: *Nazioarteko arau juridikoei eta migrazioari buruzko azterketa*<sup>2</sup>, 2003. urteko maiatzean argitaratua. Azterketa horretan, migrazioari buruzko nazioarteko esparru juridikoa balioztatu eta nazioarteko zuzenbideak barne hartzen ez dituen (edo behar bezala barne hartzen ez dituen) arloak identifikatzen dira. Izan ere, jarduera eragingarriak lantzea erabilgarria izan daiteke arlo horietan. Gainera, kontsulta-prozesua prestatzeko, Migrazioetarako Munduko Erakundeak gaikako laburpen bat prestatu zuen. Laburpenean, honako hauek ageri dira: baterako printzipioak eta migrazioari buruzko nazioarteko adierazpen garrantzitsu ez-lotesleak, migrazioari buruzko kontsultarako eskualdeko prozesuetatik ateratako printzipioak eta adierazpenak, eta migrazioarekin zerikusia duten nazioarteko konferentzia hautatuak. Laburpenak nazioarteko komunitatearentzat interesgarriak diren migrazio-gaiei buruzko jarraibidea ematen du eta nazioarteko adostasuna zer eremutan egon daitekeen adierazten du.

Printzipioen baterako esparrua garatzeari eta hori zuzentzeari buruz eskualde guztietako gobernuak kontsultatzeko, IOMk eta Suitzako gobernuak oinarri handiko eskualdekako lau bilera antolatu zituzten, gobernuen eta migrazio adituekin kontsultatzeko. Afrikako kontsulta-bilera Addis Abeban egin zuten, Europa eta Erdialdeko Asiako Budapestean, Asia eta Ozeano Barekoa Guilin-en, eta Amerika eta Karibekoa Txileko Santiagon. Lau kontsulta-bileretako parte-hartzaileek nabarmendu zuten une egokia zela elkarrizketako eta kontsultako prozesu bat garatze-

<sup>2</sup> T. Alexander Aleinikoff, Vincent Chetail, (2003, La Haya: TMC Asser Press). Sarrerako kapitulua ere IOMk argitaratu zuen Migrazioari buruzko Nazioarteko Elkarrizketaren barruan, 3. zk., *International Legal Norms and Migration: An Analysis* (2002, Geneva), ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz (*Un análisis sobre normas jurídicas internacionales y migración*); honako hauetan ageri dira, hurrenez hurren:  
[http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/EN/IDM\\_3\\_English.pdf](http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/EN/IDM_3_English.pdf)  
[http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/FR/IDM3\\_Fr.pdf](http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/FR/IDM3_Fr.pdf), eta  
[http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/SP/IDM3\\_Sp.pdf](http://www.iom.int//DOCUMENTS/PUBLICATION/SP/IDM3_Sp.pdf).

ko, eta migrazioa nazioan, eskualdean eta munduan oso gai garrantzitsua bihurtu dela onartu zuten. Lau bileretan, herrialde gehienek baterako interesak dituztela onartu zuten, eta migrazioaren baterako printzipioen laburpena egiteko interesa azaldu zuten, migrazioarekin lotutako politikak, legeak eta instituzio nazional egoikiak garatzeko erreferentzia gisa, bai eta migrazioa kudeatzeko estatuen arteko lankidetzarako oinarri gisa ere.

Lau bileretan, migrazioaren kudeaketaren zenbaterainokoari buruz aldeak egon ziren arren, baterako funtsezko gaiak ere sortu ziren:

- Behar bezala kudeatuz gero, migrazioak potentzial positiboa du jatorrizko herrialdeetarako eta helmuga direnetarako, bai eta migratzaileentzat ere;
- Migrazioak garapenerako potentziala ematen du, migratzaileek prestakuntza, inbertsioa eta baliabideak ematen dituzte, eta horrek guztiak migratzaileen jatorrizko herrialdeetako garapenari laguntzen dio;
- Beharrezkoa da migrazioaren eta horrekin lotutako alor politikoen artean –merkataritza, ingurumena eta osasuna, esate baterako– loturak ezartzea;
- Beharrezkoa da tokian tokiko instituzioak eta instituzio nazionalak sendotzea, migrazioa kudeatzeko;
- Erronka nagusia guztien artean eraginkortasunez lan egitea da, migrazioa kudeatzeko, horren eragin negatiboak murriztu eta eragin onuragarriak ahalik eta handienak izan daitezen;
- Nazioko eta nazioarteko migrazioa kudeatzeko, elkarrizketa, konfiantza eta lankidetzaren hobetu behar dira –jatorrizko, igarotzeko eta helmugako herrialdeen arteko migrazioa barne–, ezinbestekoak baitira migrazioaren kudeaketara hobe lortu ahal izateko; eta
- Oreka aurkitu behar da bi hauen artean: bidezko helburuak dituen migrazioarako –lanagatiko migrazioa, bereziki– erraztasunak ematearen eta migrazio irregularren murrizketa eta kontrolaren artean, horrekin lotutako delituak barne –esate baterako, migratzaileen trafikoa eta pertsonen salerosketa–.

Eskualdekako kontsulten osagarri gisa, IOMk, *Foundation for Population, Migration and Environment* (PME, Biztanleriaren, Migrazioaren eta Ingurumenaren Fundazioa) erakundearen babesarekin –Suitzan du egoitza–, estatuen arteko lankidetzari buruzko eskualdekako lau azterketa egiteko agindua eman zuen, estatuek gaur egun migrazioaren alorrean eta horrekin lotutako beste alor politiko batzuetan duten lankidetzari buruzko ikuspegi orokorra izateko. Azterketek honako eskualde hauek hartzen dituzte aintzat: Europa eta Erdialdeko Asia, Asia, Afrika, eta Amerika. Azterketa horietan guztietan, migrazioari buruzko kontsulta-prozesuen gorakada azkarra aztertu zuten: jarduteko moduak eta emai-

tzak aztertu zituzten, eta estatuen arteko lankidetzaz errazteko eraginkorrak ote ziren balioztatu zuten. Azterketa gehigarri baten bidez, gaur egun estatuen artean lankidetzaz nola jarduten den aztertu zuten, mundu osoan<sup>3</sup>.

#### 4. Bernako II. konferentzia

Eskualdekako kontsultak amaitu ondoren, 2004ko abenduaren 16an eta 17an bigarren konferentzia orokorra egin zen ("Bernako II. konferentzia"). 100 herrialdetik gora ordezkatzeko zituzten 300 bat parte-hartzaile izan ziren bertan (horietako batzuk behatzaile gisa), bai eta nazioarteko erakundeetako ordezkariak, GKEak eta migrazioan adituak diren independenteak ere, munduko eskualde guztietakoak eta migrazioari buruzko gai guztiak barne hartzen dituztenak. Bernako II. konferentzian, IAMM erabiltzeko modurik egokienari buruz eztabaidatu zen, eta konferentzia amaitu bezain laster, IAMM amaitzea lortu zuten.

### C. Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agenda

#### 1. Edukia

IAMMren funtsezko helburua politikak diseinatzen dituztenei eta migrazioari buruzko profesionalei laguntza ematea da, instituzioak indartzeko, eta horrela, migrazioaren kudeaketarako estatuen arteko lankidetzaz eraginkorra garatu ahal izateko, estatu bakoitzaren subiranotasuna errespetatuta. Agenda formatua aukeratu zen, dokumentuaren izaera praktikoa eta ez-loteslea nabarmentzeko. IAMM funtsezko bi osagai ditu:

- *Baterako printzipioen* multzo bat. Bertan, migrazioaren kudeaketaren azpian dauden suposizio eta printzipio elkarbanatuak azpimarratzen dira, eta migrazioari buruzko gobernuek dituzten balioak eta pertzepzioak laburbiltzen; eta
- *Jardute eraginkorren* multzo bat. Horren bidez, migrazioaren kudeaketaren ikuspegi planifikatua eta koherentea izatea lortu nahi da.

*Baterako printzipioetan* migrazio-herrialde guztien interesak eta helburuak sartzen dira; balioen eta ikuspegi baten baterako puntuak identifikatzen dira, baina ardurak eta beharrak kontuan hartuta. Beste hizketakide batzuen interesak eta ikuspegiak ere islatzen dira; esate baterako, GKE-enak, nazioarteko erakundeak, enplegatzaileenak eta migratzaileen taldeenak. Nazioaren esparruan migrazioa kudeatzen eta migrazioari buruzko kontsulta-prozesuak egiten esperientzia aberatsa duten estatuetatik aterata daude baterako printzipioak, eta nazioarteko eta eskualdeko arauetan oinarrituta daude. Dokumentu honi IAMMko baterako hogeitun printzipioen zerrenda erantsi zaio (ikus A eranskina).

<sup>3</sup> Eskualdekako lau azterketak eta azterketa orokorra IOMren web orrian ikus daitezke: <http://www.iom.int/en/know/berneinitiative/index.shtml> (Berne Initiative Research Policy Papers: Inter-State Cooperation).

*Jardute eraginkorrek* ikuspegi orekatuak ematen dituzte, migrazioari buruzko gaien sortan ageri diren alderdi ugariak kudeatzeko. Nazioko eta nazioarteko migrazioari buruzko politika orokorraren elementu nagusiak ezartzen dituzte; hain zuzen ere, alor horretan estatuen arteko lankidetzaz sendotzeko bitartekoak bultzatuko dituen politika izan dadin. Jardute eraginkorrak gobernuen benetako esperimentuak eta jarduteetatik aterata dira, bai eta migrazioari buruzko konferentzietan, migrazioari buruzko eskualdeko kontsultetan eta beste foro batzuetan onartutako adierazpenetatik ere. Legezko printzipioetan oinarritzen dira, migratzaileen eskubideen babesarekin zerikusia dutenak barne. Migrazioaren kudeaketa batik bat estatuen esparruaren barruan geratzen dela kontuan hartuta, jardute eraginkorrek oso aintzat hartzen dituzte erabaki-hartzea eta ikuspegi nazionalak, bai eta malgutasunari eutsi beharra ere, etorkizuneko joeretara eta politiketara moldatzeko. Dokumentu honi IAMMren jardute eraginkorrak antolatzeke erabiltzen diren goi-buruko enpresa zerrenda erantsi zaio (ikus B eranskina).

Baterako printzipioek eta jardute eraginkorrek migrazioari buruzko funtsezko gaien sorta orokorra barne hartzen dute, bai eta honako hauek ere: migratzaileen giza eskubideak, lanagatikoa migrazioa, integrazioa, migrazio irregularra, pertsonen salerosketa eta migratzaileen trafikoa, garapena, eta merkataritzarekin eta osasunarekin lotutako gaiak. Baterako printzipioak eta jardute eraginkorrak arrakastaz identifikatzeak agerian uzten du estatuak –zenbait lehentasun nazional izateaz gainera–, nolabait, eta gero eta neurri handiagoan, jatorrizko, igarotzako eta helmugako herrialdeak direla aldi berean.

## 2. Aplikazioa

IAMMk balio handia du migrazio-gaietako estatuen arteko lankidetzarako oinarri gisa, esparru guztietan. Balio hori nabarmen geratu zen Bernako II. konferentzian, bertan parte hartu zutenek IAMMn landutako hiru gai-multzo hauei buruz jardun baitzuten:

- Migrazioa, garapena eta estatuen arteko lankidetzaz;
- Legezko migrazioa, irregularra eta lanagatikoa, eta estatuen arteko lankidetzaz; eta
- Eskubideak, erantzukizunak, integrazioa eta estatuen arteko lankidetzaz.

Gainera, IAMM oso tresna baliagarria izan daiteke, migrazioa kudeatzeko gobernu-politikak diseinatzeko dituztenen eta migrazio profesionalen gaitasuna sendotzeko. Bernako II. konferentzian parte hartu zutenek IAMMren honako balio eta erabilera hauek nabarmendu zituzten, besteak beste:

- Baterako erreferentzien dokumentua izatea, migrazioari buruzko estrategia politikoa orokorra osatzen duten elementuak planifikatzeko;



- Planifikatzeko tresna izatea, egitura administratiiboak garatzeko eta administrazioaren erantzukizunak banatzeko;
- Agentzien arteko lankidetzaren errazteko tresna izatea, nazio-esparruan;
- Ebaluazio-tresna izatea, estatuek migrazioari buruz dituzten nazio-politikak aztertu eta garatzeko;
- Prestakuntzarako bitartekoa eta instituzioak sendotzeko tresna izatea, migrazio-gaietan aritzen diren gobernu profesionalentzat; eta
- Estatuaren arteko lankidetzarako oinarria izatea, bi aldeko, eskualdeko eta munduko esparruetan.

Behin IAMM eginda dagoela, gobernu guztietan zabaltzen ari da, migrazioa kudeatzen laguntzeko. IOMk nazioan, eskualdean eta munduan IAMM erabiltzen lagunduko die gobernuari, horiek hala eskatuta: instituzioak sendotzeko, tailerrak antolatuko ditu berariazko politiken gaiei buruz; erraztasunak emango ditu, elkarriketa estuagoa izateko eta migrazioari buruzko eskualdekako kontsulta-prozesuekiko lankidetzaren ezartzeko; eta berariazko migrazio-politikei buruzko ikerketa egingo du, ikerketa horrekin lotutako ikasketak prestatzeaz gainera. Instituzioak sendotzeko buruzko lehenengo tailerra, IAMMn oinarritua, 2005eko uztaileko dago programatuta. Hegoaldeko Afrikako Garapenerako Komunitateko (*Southern African Development Community*, SADC) estatuaren bilera Hegoafrikako Errepublikan egingo da, IOMk eta Hegoaldeko Afrikako Migrazioari buruzko Elkarrizketa (*Migration Dialogue for Southern Africa*, MIDSA) izeneko erakundeak antolatuta. Beste tailer bat ere badago aurreikusita, Mendebaldeko Afrikako instituzioak sendotzeko buruz, 2005. urteko bigarren erdian, Mendebaldeko Afrikako Migrazioari buruzko Elkarrizketa (*Migration Dialogue for West Africa*, MIDWA) izeneko erakundearen eskutik. 2006. urtean beste tailer batzuk antolatzeko aukera ere aztertzen ari dira.

Gainera, IAMM migrazioari buruzko eskualdeko kontsulta-prozesu nagusien presidenteei eta idazkaritza banatu zaie. GCIMri ere bidali zaio eta Nazioarteko Migrazioari eta Garapenera buruzko Goi-mailako Elkarrizketarako Nazio Batuen Batzar Nagusiari (2006. urterako aurreikusia) ere bidaliko zaio, informazioa emateko eta beren lanean laguntzeko, eta haien jarduerak eta ikuspegiak osatzen laguntzeko.

#### D. Ondorioa

IAMM –ikuspegi zabalak eta esperientziak testuinguru ez-lotesle eta ez-aginduzkoak dituenak– garatzeko balio izan zuen estatuaren kontsulta-mekanismoa oso ekarpen garrantzitsua izan da, gaur egungo munduko migrazioari buruzko gai guztiak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko, bai eta estatuaren arteko elkarriketaren eta lanki-

detzaren balioa bultzatzeko ere. Kontsulta konstruktiboan bidez, migrazioa baterako interesa duen gauzatzat hartzen da eta aukeratzat jotzen da, banaketa eragiten duen gaitzat jo beharrean. Gainera, parte-hartzaileek behin eta berriz azpimarratu zuten guztiak egoera berean zeudela prozesuan, eta sumatzen zutela beren itxaropenak, lehentasunak eta ardurak gainerakoek ulertzen eta hautematen zituztela. Bernako Ekimenak bultzatutako lankidetzak eta elkartzeko-espirtua funtsezkoa da migrazioaren indar konstruktiboari eusteko. Bestalde, nahitaezkoa da migrazioaren indar konstruktiboa ahalik eta handiena izateko eta eragin negatiboak murrizteko.

IOMren ustez, IAMM oinarritzko ekarpena da migrazioaren kudeaketarako, eta itxaropen handiak sortzen ditu migrazioari buruzko gaietan estatuen arteko lankidetzak handitzeko, bai bi herrialderen artean, bai eskualdean eta bai munduan. Halaber, migrazioa kudeatzeko gobernu-politikak diseinatzen dituztenen eta migrazioeko profesionalen gaitasuna sendotzeko oso tresna baliagarria da IAMM. IOM bere lana egiteko irrikan dago, IAMMren indarra egia bihurtu dadin lagunduz.

## **A. Eranskina**

### **Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agendaren (IAMM) “nazioarteko migrazioaren kudeaketarako baterako printzipioak”**

Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agendaren oinarriak baterako printzipio hauek dira:

1. Mugetan zehar pertsonak etengabe aurrera eta atzera ibiltzea globalizazio azkarrean murgildutako munduaren ezaugarri integral bat da.
2. Migrazioaren kudeaketa ordenatua eta gizatiarra bada, mesede egiten die herrialdeei eta migratzaileei.
3. Migrazioaren kudeaketaren oinarritzko erantzukizuna estatuena da: estatu bakoitzak migrazioari buruzko bere esparru juridikoa garatzeko eta biztanleen segurtasuna eta ongizatea babesteko eskubidea eta betebeharra du, indarrean dauden nazioarteko printzipioekin eta arauekin koherentea izanik.
4. Nazioarteko ohiturazko zuzenbideari jarraiki, estatuak migratzaileen giza eskubideak eta duintasuna babesteko eta errespetatzeko betebeharra dute, edozein dela ere haien egoera. Emakumezkoen, haurren, adinekoen eta ezintasunak dituzten pertsonen behar bereziei aparteko arreta eman behar zaie. Era berean, migratzaileek men egin behar diete herrialde hartzailearen legeei.
5. Herrialde guztiek dute nazioarteko migrazioari buruzko lankidetzak sendotzeko interesa, beren etekinei ahalik eta indarrik handiena emateko.
6. Migrazio-politika nazional orokor eta koherenteak abian jartzea da esparru horretan nazioarteko migrazio-politika eta -lankidetzak eraginkorrak lortzeko

- gakoa. Behar beste baliabide, egitura edo trebetasun ez duten herrialdeei beren instituzioak sendotzeko emandako laguntza ekarpen egokia izan daiteke testuinguru horretan.
7. Bi aldeko, eskualdeko eta munduko bitartekoak oinarri sendoa dira migrazioaren kudeaketarako lankidetzaz garatzeko.
  8. Nazioarteko giza eskubideak eta errefuxiatuen nahiz langile migratzaileen eskubideak arautzen dituzten printzipioak onartzea, batetik, eta nazioz gaindikotako delitu-jarduerean aurkako legeak onartzea, bestetik, ezinbestekoa da migrazio-kudeaketarako edozein sistematatan.
  9. Interesa duten hizketakide guztien arteko lankidetzaz eta elkarrizketa -berezik, gobernuen, nazioarteko erakundeen, gobernu kanpoko erakundeen eta gizarte zibilaren arteko, migratzaileen elkarteak, ugazaben elkarteak, sindikatuak eta komunikabideak barne- ezinbestekoak dira migrazioaren kudeaketarako elkarte eraginkorrak izateko eta migrazioaren kudeaketarako politika sakonak eta orekatuak garatzeko.
  10. Bi aldeko, eskualdeko eta eskualdeen arteko kontsulta-prozesuak nahitaezkoak dira migrazioaren kudeaketa kooperatiboa garatzeko, eta munduko lankidetzaz sustatzen dute.
  11. Migrazioaren kudeaketa eraginkorra egiteko modu bakarra faktore ekonomikoak, sozialak, politikoak, humanitarioak, garapenekoak, osasunari eta ingurumeneri buruzkoak eta migrazioa eragiten duten zergatiak aintzat hartzea da.
  12. Lotura estua eta konplexua dago migrazioaren eta garapenaren artean; lotura horrek, behar bezala bideratzen bada, herrialdeen eta haietako biztanleriaren garapeneri mesede egin diezaiolke.
  13. Migrazioa kudeatzeko nahitaezko elementu bat migrazioarako bide egokiak eta legeak eskaintzea da.
  14. Migrazio irregularrari aurrea hartzea eta murriztea herrialde guztien erantzukizuna da, eta horretarako, beste hizketakide batzuen laguntza behar dute.
  15. Ahalegin handiagoak egin behar dira pertsonen salerosketaren, migratzaileen trafikoaren eta migratzaileei eragiten dieten nazioarteko beste delitu-jarduera batzuen aurkako borrokan, bai eta salerosketaren biktimei laguntza emateko ere.
  16. Migratzaileen integrazioak gizarte kohesioa eta egonkortasun politikoa sustatzen ditu, eta migratzaileek egin ditzaketen ekarpenak indartzen ditu, arrazakeria eta xenofobia txikitzeaz gainera.
  17. Familia da gizartearen funtsezko nukleoa, eta, beraz, arreta berezia merezi du. Migrazioaren testuinguruan, familia banatuta egoteak gizarteratzea era-

gozten du, eta familia berriro biltzeak, berriz, migratzaileak komunitate hartzailean sozialki eta kulturalki integratzearen eragin positiboak ahalik gehien indartzen lagun dezake.

18. Migrazio-politikei eta -prozedurei buruzko informazio fidagarria, objektiboa eta egokia zabaltzen bada, migratzaileek badute beharrezko informazioa erabakiak hartu behar dituztenean. Iritzi publikoa ere behar bezala informatu behar da, eta migratzaileek eta migrazioak gizarte hartzaileetan behar besteko babesa dutela ziurtatu.
19. Migrazioaren alderdi guztiei buruzko datu eguneratuak, fidagarriak eta aldegarriak pilatzea, aztertzea eta sistematikoki trukitzea, eta, aldi berean, pribatutasunerako eskubidea errespetatzea ezinbestekoak dira, migrazio nazionala, eskualdekoa eta mundukoa kudeatzeko.
20. Beharrezkoa da migrazioaren alderdi ugarietako buruzko azterketa gehiago egitea, nazioarteko migrazioaren zergatiak eta ondorioak hobeto ulertzeko, eta etorkizunean politika eraginkorragoak egiteko.

## **B. Eranskina**

**Migrazioaren Kudeaketarako Nazioarteko Agendaren (IAMM) "migrazioaren kudeaketaren ikuspegi planifikatu orekatua eta orokorra izateko jardute eraginkorrak"**

IAMMren jardute eraginkorrak honako goiburuko hauen arabera antolatzen dira:

1. Nazioarteko lankidetzak (estatuen eta migrazioaren kudeaketarako elkarrekin arteko elkarlanean eta lankidetzak barne).
2. Migrazio-politika nazionalak.
3. Sarrera eta egonaldia (bisei, mugen kontrolari eta bizilekuari buruzko baldintzak barne).
4. Legezko migrazioa: aldi baterakoa (heziketa- edo trebakuntza-helburua duen migrazioa, negozioak edo turismoa egiteko migrazioa eta familia bisitatzekoa barne) eta iraunkorra (immigrazio-programak, familia bateratzea eta arrazoi humanitarioengatikoa birfinkatzea barne).
5. Lan-migrazioa.
6. Migrazio irregularra (pertsonek salerosketa, migratzaileen trafikoa eta pertsonen salerosketaren biktimen babesa barne).
7. Migratzaileen giza eskubideak (giza eskubideak, bereizkeriarik ezaren printzipioa, *non-refoulement* printzipioa, herrigabeak eta barruan lekualdatutako pertsonak barne).

8. Errefuxiatuen asiloa eta nazioarteko babesa.
9. Integrazioa.
10. Naturalizazioa eta nazionalitatea.
11. Itzultzea (itzultze-politika, lagundutako borondatezko itzultzea, derrigorrezko itzultzea, aldi baterako itzultzea eta migratzaileen berrintegratzea barne).
12. Instituzioak sendotzea.
13. Migrazioa eta garapena (migrazioko eta garapeneko laguntza, diasporaren laguntza, “garun-ihesa” eta “garun-irabazia”, eta bidalketak barne).
14. Migrazioa eta merkataritza.
15. Migrazioa eta osasuna.
16. Migrazioa eta ingurumena.
17. Nazioarteko eta nazioko segurtasuna.
18. Informazio publikoa.
19. Ikerketa eta datuak (ikerketa, datuak pilatu eta aztertzea, informazioa eta datuak trukitzea, eta datu-babesa barne).
20. Beste lotura politiko eta laguntza-neurri batzuk.



## Ondorioak

Ana María Mendieta

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

Azken urteotan immigrazio-hazkunderik handiena izan duen Europako herrialdean bizitzeak hainbat kezka eta galdera eragiten dizkigu. *Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa* izeneko Nazioarteko Konferentzian –talde-lan honen sorburua– galdera eta kezka horiek guztiak aztertu ziren.

Lau hilabete eskas eman zizkiguten nazioarteko migrazioan adituak diren puntako hainbat profesional –Hania Zlotnik, Kathleen Newland, Joaquin Arango, Daniele Joly, Antonio Izquierdo, Dolores Cortes, John Rex, Manolo Abella, Trinidad Vicente eta Michele Klein Solomon, besteak beste– Bilboko Euskalduna Jauregian biltzeko. Erronka handi horren ondorioz, harrotasun profesionalez beterik geratu gara Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behategiko kideak.

Lehenik eta behin, Hania Zlotniketik migrazio fluxuekin lotutako kopuruak eta zenbakiak ordenan jarri eta horiei buruzko ikuspegi orokorra eman zigun, 1980z geroztik nazioarteko migrazioak izandako joerei buruzko azalpenaren bidez. Azken bi hamarkadetan migratzaile-kopuruak gora egin du etenik gabe, etengabe-ko desberdintasun ekonomikoen eta Sobiet Batasun ohiaren bloke komunista banatu izanaren ondorioz. 1991. urtean soilik, Sobiet Batasun ohiko 27 milioi pertsona nazioarteko migratzaile bihurtu ziren bat-batean. Alabaina, 2000. urtean, nazioarteko migratzaileen hiru laurdenak 28 herrialdetan biltzen ziren, horietako gehienak AEBetan. Kontzentrazio horrek gora egin du garatutako herrialdeetan; garapen bidean dauden herrialdeetan, berriz, nazioarteko migratzaileen proportzioa %33tik (1980) %20ra jaitsi da (2000).

Halaber, Kathleen Newlandek migrazio-sareen funtzionamenduaren berri eman zigun. Migrazioak funtsezko baliabidea dira jatorrizko herrialdeen garapen ekonomikorako; horrekin batera, migratzaileek nazioz haraindiko komunitateak osatzen

dituzten heinean, goitik behera aldatzen dira herrialde hartzaileetan nortasun nazionalaren eta nazionalitatearen ohiko kontzeptuak.

Duela urte batzuk oso zaila zen iragartzea 2004an migratzaileek 100 bilioi dolarretako bidalketak –Munduko Bankuaren arabera– egingo zituztela eta kopuru hori 150 bilioitara ere iritsi zitekeela –herrialde aberatsek garapena bultzatzeko bidaltzen duten laguntza guztiaren bikoitza baino gehiago–. Bestalde, ikasitako jendeak jatorrizko herrialdetik alde egitean eragiten dituen galera ekonomikoak ere kontuan hartzekoak dira. Indian, esaterako, atzerrian bizi diren hinduek bidalitako diruak herrialdeko diru-sarreraren %10 osatzen du.

Alabaina, eta Newlandek adierazten duenari jarraituz, migrazioak garapenean duen eragina neurtzeko, diru-bidalketen onurak ezin dira orekatu ikasitako jendeak jatorrizko herrialdetik alde egitean eragiten dituen galerekin. Dagoeneko esan dugu migratzaileek nazioz haraindiko komunitateak sortzen dituztela harrerako herrialdeetan, eta horrek argi eta garbi uzten du migrazioen kapital ekonomikoa ezin dela inolaz ere horien gizarte kapitaletik banandu.

Migratzaileek, beraz, familiei bidaltzen diete irabazitako dirua eta beren jatorrizko herrialdeetan egiten dituzte inbertsioak merkataritza-sareen, turismoaren eta ongintzako fundazioen bidez, baita auzi politikoak babestuz ere. Horrez gain, ordea, jatorrizko herrialdeetako gizarte-kapitala ere bultzatzen dute migratzaileek, ideia eta jarrera berriak sartuz, batez ere giza eskubideei, emakumeen eskubideei edo indarkeriaren erabilerari dagokionez. Newlandek honako adibide hauek ematen ditu: 54 herrialdetan finkatutako Sri Lankako diasporak Tamil Eelameko mugimendu armatuari emandako laguntza ekonomikoa edo AEBetan finkatutako irlandar diasporaren eragina IRA taldearengan, 1998ko Ostiral Santuko akordioak sinatzeko orduan.

Hori dela-eta, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako gobernuek harreman estuak sortu nahi izaten dituzte diasporarekin, dibisez gain ezagutza teknikoak, babes politikoa eta kanpo merkatuekiko sarbidea ematen baitie. Migratzaileek, beraz, bultzatu beharreko ikerketa-ildo garrantzitsua osatzen dute, zalantzarik gabe, garapen-eragile izateaz gain nazioz haraindiko komunitate berriak sortzen dituztelako.

Europar ordea, mesfidantza eta areriotasuna dira nagusi migratzaileei dagokienez. Jarrera hori sarbideak eta baimenak debekatzeko politika gogorretan islatzen da. Izan ere, Joaquin Arangoren hitzen arabera, Europan ez da izan orain arte lanera datozen pertsonak onartzeko inolako arteztaraurik. Alabaina, egoera horrek bere horretan jarraituko du politikak eta segurtasunak demografia eta ekonomia menderatzen dituzten bitartean.

Bestalde, migratzaileek oso babes gutxi izaten dute eta, legez kanpo egonez gero, baztertu eta esplotatu egiten dituzte sarritan, bai gizartearen, bai lanean. Muturreko



kasuetan, berriz, gizakien trafikorako sare antolatuek esklabo gisa hartzen dituzte etorkinak. Daniele Jolyk azaldu zuenez, egoera hori guztia larriagotu egiten da Europako gobernuek gero eta politika gogorragoak aplikatzen dituztelako errefuxiatuentzat; izan ere, gaur egun aldi baterako sarrera ematen zaie eta eskubide mugatuekin gainera. Horrez gain, politika horiek errefuxiatuen aberriratzea lehenesten dute.

1951ko Genevako Konbentzioak ezarritako asilo-erregimenak hainbat eskubide ezarri zituen Bigarren Mundu Gerrako errefuxiatuentzat; 70eko hamarkada amaieran, berriz, Europako atzeraldi ekonomikoak ordezkatu egin zuen aurreko zabal-kuntza-epea; hain zuzen, mugak ixten hasi ziren 80ko hamarkadaren amaieran Sobietar Batasun ohiaren desagitearekin batera heldu ziren asilo-eskaera piloaren aurrean.

Babesaren esanahiak jatorrizko herrialdearen barruko babesak dakar berekin gaur egun, eta asilo-politika hertsienak hain aldekoak ez diren harrera- eta birkokapen-politikekin parekatu dira: horixe da, esate baterako, bosniarren eta kosovarren kasua. Asilo-politika berri horren ondorioz, hamar milioi errefuxiatu aberriratu zituzten 1991. eta 1997. urte bitartean. Gainera, errefuxiatu esan beharrean erbesterratu, lekualdatu edo nahi gabeko etorkin esaten da gaur egun.

Horrenbestez, errefuxiatu-kontzeptua –XX. mendean erabili zena– desagertzen ari da gaur egun. Europaren eredu berriak hegoak moztu dizkio Genevako Konbentzioari eta harrera-herrialdeen eskuetan uzten ditu asilo-eskatzaileak: herrialde horietako askotan, ordea, errefuxiatuak mehatxua dira erregimen politikorako, kultur nortasunerako, ordena sozio-ekonomikorako eta nazio- nahiz ingurumen-segurtasunerako, Jolyk azaltzen duenaren arabera.

Gizakien salerosketa-sareetan sartuta dauden ia lau milioi pertsonak –emakumeak eta haurrak dira gehienak– ere inolako babesik gabe bizi dira. Mundu-mailako negozio horrek 8.000 eta 10.000 milioi dolar bitartean mugitzen ditu, Drogaren eta Delituen aurkako Nazio Batuen Erakundearen arabera.

Dolores Cortesek azaldu duenez, emakumezkoen salerosketa ez da jada adiera egokia. Salerosketaren –iruzurra, indarkeria, irabaziak eta pertsonen merkataritza dakartza berekin– helburuak askotarikoak izan daitezke: sexu-esplotazioa, lan-esplotazioa, esplotazio militarra, esklabotzarako salerosketa, organo-trafikoak, behartutako haurdunaldiak, alokairuzko sabelak edo legez kanpoko adopzioak.

Honako hau da auzi honetako alderdirik interesgarriena: Nazioz Haraindiko Delinkuentzia Antolatuaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioak dagoeneko barne hartzen dituela Pertsonen Salerosketari buruzko Protokoloa eta Migratzaileen Legezko Kanpoko Tratuari buruzko 2000ko Protokoloa (Palermoko Protokoloa); horren ondorioz, pertsonen salerosketa eta trafikoa nazioarteko

migrazio-agendaren funtsezko elementu bihurtu da. Azpimarratzekoa da, gainera, trafiko horrek zuzeneko lotura duela legez kanpoko migrazioarekin eta emakume etorkinen kopuruaren areagotzearekin –migratzaileen %48 emakumezkoak dira–.

Izan ere, Europar Batasunak eta Latinoamerikak adostu dute dagoeneko pertsonen salerosketaren aurkako borroka migrazio-elkarlanaren funtsezko alderdia dela, asilo-gaiekin, migrazio-gobernagarritasunaren sendotzearekin eta bidalketekin batera. Horrez gain, nabarmentzekoa da Espainia dela sexu-harremanetarako salerosketaren helmuga garrantzitsuetako bat eta Andeetako emakumeek dutela sexu-salerosketaren biktima izateko arriskurik handiena, horien egoera ekonomikoa oso eskasa delako eta hezkuntza jasotzeko aukerarik ez dutelako.

Salerosketen biktimak legez kanpoko etorkinen taldeko zati bat baino ez dira eta horiek guztiek dute esplotazioan, bazterketan eta arrazismoan sartzeko arriskua. Demokraziarik eta eskubiderik gabeko demoak dira, Antonio Izquierdoren esanetan. Legez kanpoko etorkin gisa tipifikatzen dira, baita ezkutuko edo dokumenturik gabeko etorkin gisa ere, horien %95 Espainian legezko bideetatik sartu diren arren. Tipifikazio horrek helburu jakina gordetzen du hauteskunderi begira, etorkinen esplotazioa, kriminalizazioa eta babesgabetasuna kontuan hartu gabe. Izan ere, legez kanpoko etorkinek askoz ere mugikortasun-aukera gutxiago dituzte eta familiengandik urrun bizi dira, Izquierdoren arabera.

Espainian, azkenaldian iritsitako legez kanpoko etorkin gehienak Ekuadorkoak, Errumaniakoak, Marokokoak, Boliviakoak eta Bulgariakoak dira; etorkin horiek gazteagoak dira. Gainera, gizon gehiago eta ezkongabe gehiago sartu dira azken epean. Lautik hiru erroldatu egin dira eta etorkinen ikasketa-maila ertaina eta altua dela esan daiteke, gehienek uste dutenaren aurka. Alabaina, legez kanpoko etorkinak prestakuntza-maila txikiko eta aldi baterako langiletzat hartzen dira oraindik eta, administrazio-burokraziak erabat ezinezkoa bihurtzen du etorkin horientzat behar bezalako kontratuak lortzea edo harrerako herrialdean legezko bideetatik geratzea. Legez kanpoko etorkin gehienak honako jarduera hauetan dihardute: etxeko lanetan eta adinekoak zaintzen (%31), eraikuntzan (%21), nekazaritzan (%15), ostalaritzan (%5) eta kanpo-merkataritzan (%5).

Izquierdoren arabera, legez kanpoko immigrazioa iraunkorra –etorkinen %40 4 urte edo gehiago zeramaten Espainian bizitzen–, etengabea eta ugaria da, eta harre-rako herrialdearen bizitza demokratikoari eta sozialari eragiten dio. Hain zuzen, 2005ean beren egoera legezatu zuten 687.000 etorkinek Erregimen Orokorrean bizi direnen edo Europako Erkidegotik kanpoko etorkinen %52 osatzen dute.

Gainera, legez kanpoko immigrazioen gorakadak izan ditzakeen ondorioei buruzko gogoeta egitera gonbidatzen gaitu egile horrek, baldin eta Espainiako gobernuak migrazio-politika babesaren ikuspegitik eta poliziaren eskutik bultzatzen jarraitzen badu, politika horien norabidea espainiarrei egindako galdeketetan oinarritzen badu eta kontratazio informalean oinarritutako sektore jakinetara mugatzen

den enpresa-kulturari jarraitzen badio. Izquierdoren ustez, ikuspegi horren arabera etorkinak prestakuntza-maila txikiko langileak dira eta ezinbestean irregulartasun gehiago sortzen dituen burokrazia “gogaikarrian” sartu behar izaten dute, hala-beharrez.

Egile horrek Espainiako ezkutuko lana ikuskatu behar dela dio; alabaina, komenigarria izango litzateke etorkinen migrazio-proiektuen arrazoiak eta ibilbideak eza-gutzea, baita haien gizarteratzea bultzatzea ere, migrazio-fluxuak murriztera mugatu beharrean.

Alde horretatik, legez kanpoko immigrazioa murrizteko kontzeptu berritzailea proposatzen du Izquierdok: udalei eta elkarte autonomoi etorkinen egoera legezatzeko eskumenak ematea –nor bere elkarte autonomoan behar bezala kokatuta dagoenean eta behar bezalako prestakuntza eta lanbidea aurkitu duenean–, hain zuzen, gobernu zentralaren ohiz kanpoko erregularizazio masiboak sustatu beharrean.

Espainiako enpresarien beste erronka bat prestakuntza-maila altuko etorkinen eskaria da: Horretarako, ontzat hartu beharko dituzte etorkinen hezkuntza- eta prestakuntza-tituluak, lanbide-mugikortasunaren prozesua bizkortu ahal izateko.

Hemendik gutxira, beraz, Espainiak langile kualifikatuak lortzeko lehia globalaren dinamikan sartu beharko du, garapen teknologiko azkarrak, eskulanaren hazkuntza-tasa geldoek edo negatiboek eta biztanleriaren zahartzeak migrazio-mota berri hori eragingo baitute, Manolo Abellaren esanetan.

Handituz doan eskari horren ondorioz, immigrazio-politika liberalagoak bultzatu dira industriren lehiakortasunari eusteko premia dagoen arloetako espezialistak ekartzeko. Horrela, kualifikazio baxuko eskulanaren munduko batezbesteko emigrazio-tasa %0,94koa da, eskulan kualifikatuarena, berriz, %1,64koa eta oso eskulan kualifikatuarena %5, 47koa.

Lehia global horretan, AEBak dira nagusi: izan ere, 90eko hamarkadan, Europako 83.000 zientzialari eta ingeniari joan ziren bertara bizitzera. Oraingo hamarkadan, AEBek eta Kanadak etorkin kualifikatuen onarpenen %70 biltzen dute. ELGAN, berriz, 47 milioi biztanle atzerritan ELGAko kide ez diren herrialdetan jaiokoak dira: goi-mailako ikasketak dituzten 1,3 milioi erbesteratu Sobiet Batasun ohikoak dira eta beste milioi bat, berriz, Indiakoak.

Eskari horri aurre egiteko, gero eta herrialde gehiagok libratu egiten dituzte kualifikazio-maila altuko etorkinak murrizketa burokratiko guztietatik, lehenbailehen onartuak izan daitezzen. Kasu batzuetan, hainbat abantaila ere eskaintzen dizkiete: zerga-arintzeak, tituluaren edo kualifikazio profesionalen homologazioa, hizkuntza ikasteko laguntzak eta familientzako laguntzak. AEBetan, zehazki, betidanik malgutu izan dituzte ikasleentzako bisak, titulaziorik onenak dituzten etorkinek bertan lan egiteko aukera izan dezaten. Esaterako, AEBetan doktoregoa lortu duten

txinatarren %88 bertan jarraitzen dute graduatu eta bost urte igaro ondoren. Ikusteko dago oraindik zer-nolako eragina izango duen egoera horrek etorkin kualifikatuen jaioterrietan: esate baterako, HIESaren aurkako borroka erabat ahultzen ari da Afrikan egoera horren ondorioz.

Emakume migratzaileen gorakada ez da, berez, gertakari berria; hala ere, 80ko hamarkada arte egoera horrek ez zuen hainbestearainoko garrantzirik izan, Trinidad Vicenteren arabera. Espainian, emakume etorkinen 2004an erroladatutako atzerritarren %47 osatzen dute eta mundu-mailan, berriz, atzerritarren %48,8.

Oro har, emakumeek zailtasun handiagoak dituzte migrazio-esperientzietan sartzeko, familiaren berrelkartze-prozesuetan izan ezik. Hala ere, emakumeen migrazioa errazagoa izango da emakumeek eremu publikoan parte hartzen duten herrialdeetan, seme-alaben zainketan duten erantzukizun-maila handiagoarekin batera. Hori dela-eta, hainbat emakume aitzindari izango dira migrazio-prozesuetan, bai etxekoak mantentzeko, bai maila sozio-ekonomikoari eusteko, bai seme-alabentzat hezkuntza hobea ziurtatzeko.

Alabaina, emakumeak asko kontrolatzen diren gizarteetan ere, modernizazio-prozesuak, hezkuntza jasotzeko aukerak edo migrazio-mugimenduetan aitzindari izanik jaioterrira itzultzen diren gizon etorkinen eraginak erraztu egiten dute emakumeen migrazioa autonomia.

Bestalde, emakume etorkinek lan ezegonkorak baino ez dituzte lortzen –etxeko lanak, haurrak edo adinekoak zaintzea edo sexuaren industria–; alabaina, egoera horren arrazoa ez da horien hezkuntza-maila, harrerako gizarateak emakume atzerritar hauei uzten dien lan-aukeretara egokitzekeo estrategia baizik.

Nazioarteko migrazioen azterketarekin lotutako etorkizuneko erronkei dagokienez, *Mugak zeharkatuz* delakoak Bernako ekimena aurkezten du, baita ekimen horren Migrazioa Kudeatzeko Nazioarteko Agenda ere. Horrekin batera, John Rexek ere Britainia Handiko immigrazioaren kontrolari eta etnizitatearen gaiari buruzko analisi bat egiten du.

Rexek Britainia Handiko migrazio-kontrolaren kontaketa historikoa egiten du, 1962an gobernuak britainiar protektoratuko edo Commonwealth delakoko (Karibeko, Indiako, Afrikako Ekialdeko, Zipreko eta Maltako hainbat kolonia) etorkinen urteroko sarrera murrizten hasi zenetik.

Horrekin batera, erakunde-integrazioaren aldeko politika bultzatzen hasi ziren 1964ko Arrazen arteko Harremani buruzko Aktaren bidez: akta horrek debekatu egiten zituen ekintza arrazistak eremu publikoetan eta lan- eta etxebizitza-bazterketaren aurkako neurriak ere zabaldu egin ziren 1968an, Britainia Handian etnia-aniztasuna nagusi zela onartu ondoren. 1981ean, britainiar Zentsuan, zentsatutako pertsonaren edo haren gurasoen jaioterriari buruzko galdera jarri zuten eta 1991tik

aurrera, berriz, beste galdera batean, zentsatutako pertsonak bere etnia adierazi behar zuen emandakoen artean (zuria, afrikar beltza, Karibeko beltza, etab.).

Halaber, Blairren gobernuak alde batera utzi zuen gutxiengo etnikoei buruzko eztabaida, gizarte zerbitzuekiko mendekotasuna atzerritarrek lan-munduan berriz sartzeko politikengatik ordezkatu behar zela azpimarratuz. 2005eko maiatzean, immigrazioa -Europar Batasunaren zabaltzearen testuinguruan- funtsezko gai bihurtu zen Britainia Handiko parlamenturako hauteskundeetan; hainbestearinoko garrantzia hartu zuen gai horrek, britainiarrak gehiago kezkatzen hasi baitziren Europako Erdialdeko eta Ekialdeko immigrazioengatik Commonwealth berriko edo independentzia lortu berri duten herrialdeetako etorkin “ez zurien” immigrazioagatik baino.

Alabaina, nazioarteko migrazioen alderdirik berritzaileena Migrazioa Kudeatzeko Nazioarteko Agenda (IAMM) da. Michele Klein Solomonek aurkeztutako Agenda horrek Bernako Ekimenean du sorburua. Ekimen hori Suitzako Errefuxiatuentzako Bulego Federalak aurkeztu zuen 2001eko Migrazioari buruzko Nazioarteko Sinposioan: estatuen arteko kontsulta proposatzen du migrazioaren kudeaketa hobetzeko, bai nazio-mailan, bai eskualde-mailan, bai mundu-mailan.

Bernako ekimena ez da ezerezetik sortu, Nazio Batuei asko interesatzen zaien esparru batetik baizik. Nazio Batuen Biltzar Orokorrek Nazioarteko Migrazioari eta Garapenari buruzko Maila Goreneko Elkarrizketa baterako deialdia egin du 2006ko udazkenerako.

Migrazioa Kudeatzeko Nazioarteko Agenda NBen 61. Biltzar Orokor horretan aurkeztuko da, eta printzipio komun batzuk ditu migrazioaren kudeaketaren arloan estatuen arteko elkarlana sendotzeko: migratzaileen giza eskubideen babesa eta errespetua, migrazioaren eta garapenaren arteko lotura estua, legez kanpoko migrazioaren prebentzioa eta murrizketa, pertsonen salerosketaren eta migratzaileen trafikoaren aurkako borroka, migratzaileen gizarteratzea, familiaren babesa eta migrazio-prozedurei buruzko informazio fidagarriaren hedapena.

*Mugak zeharkatuz* delakoaren oinarria izateaz gain, Agenda horren printzipioek laburbildu egiten dituzte *Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa* izeneko Nazioarteko Konferentziaren txosten gehienak: migrazio-sareak garapen-baliabide gisa (Kathleen Newland), Europako asiloa (Daniele Joly), legez kanpoko etorkinak (Antonio Izquierdo), pertsonen salerosketaren kontzeptua (Dolores Cortes) edo langile kualifikatuak erakartzeko lehia globala (Manolo Abella).

Konferentziaren amaieran une hartan Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Saileko Zuzendari zen Boladji Omer Bertin Okek esan zuenez, konferentzia “lagungarria izan da horrelako guneak sortzeko eta immigrazioa ezagutzeko bidean aurrera egitzeko”, baita “emigrazioa eta mugikortasunak mundu-mailako gertakaria direla ulertzeko ere, eta ez hemen gertatzen ari den zerbait soilik”.



## **Egileak**

### **MANOLO I.ABELLA**

Lanaren Nazioarteko Erakundeko (LANE) Nazioarteko Migrazioen Programaren zuzendari ohia: 1999. eta 2004. urte bitartean langile etorkinen eskubideak babes-teko programak zuzendu zituen nazioarteko arauen, estatu-kideentzako laguntza teknikoaren eta ikerketaren bidez. Horrez gain, Asiako Erdialdeko, Europako Ekialdeko, Erdialdeko Amerikako eta Afrikako hainbat gobernuren aholkulari ere izan da lan-migrazioei buruzko gaietan. 1976. urtean Manilan Lanaren Institutua sortu zuenetik, Abellak hainbat erantzukizun-kargu izan ditu lan-migrazioei buruzko politiken alorrean. 1986. urtetik 1993. urtera bitartean lan-migrazioei buruzko espezialista izan zen Genevan, LANeko Nazioarteko Migrazioen Arloan. Lan-migrazioei buruzko 15 konferentzia eman eta 17 argitalpen espezializatu idatzi ditu; besteak beste, “Errekrutatze-langileen eginkizuna lan-migrazioetan”, International Migration Prospects and Policies in a Global Market (2004) izeneko argitalpenean. Horrez gain, 1998. urtean Nazio Batuek Hagan antolatutako lan-talde batean ere parte hartu zuen, Migrazioari eta Garapenari buruzko Sinposio Teknikoa antolatzeko.

### **JOAQUIN ARANGO**

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Katedraduna Soziologian, Migrazioei eta Hiritartasunari buruzko Ikerketa Zentroko zuzendaria eta Nazioarteko Migrazioei buruzko Doktoretza Programako zuzendaria, Ortega y Gasset Ikerketarako Unibertsitate Institutuan. Horrez gain, doktorea ere bada Historia Ekonomikoan eta Demografikoan, Kaliforniako Berkeleyko Unibertsitatean. Hainbat zuzendari-postu izan ditu Arangok. Hona hemen posturik aipagarrienak: Ikerketa Soziologikoen Zentroko Presidentea (1991-1996), Menendez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateko Errektoreordea (1989-1991), Hezkuntza eta Zientzia Saileko idazkariordea eta

Hezkuntza saileko Idazkari Nagusia (1982-1988). Bestalde, Mediterraneoko Desoreka Demografikoei buruzko Adituen Taldeko Presidente ere izan da Europako Kontseiluan, baita Hegotik Iparrerako Migrazioei buruzko Batzorde Berezikokide ere (Biztanleriaren Azterketa Zientifikorako Nazioarteko Batasuna); gaur egun “Cooperative Efforts to Manage Migration” izeneko proiektuan parte hatzen du Arangok, Transatlantic Learning Dialogue, German Marshall Fund eta Hewlett Foundation delakoen babespean.

### CRISTINA BLANCO

Zientzia Politikoetan eta Soziologian Doktorea Deustuko Unibertsitatean; gaur egun Soziologiako Irakasle Titularra de Euskal Herriko Unibertsitatean. Blancoren lan-arlo nagusia migrazioak izan dira, gaiaren hainbat ikuspegi landuz eta migrazioek dituzten gizarte-eraginak aztertuz. Nabarmentzekoa da bere Doktore Tesia: *Etorkinen integrazioa gizarte hartzaileetan; EAerako analisi-metodoa eta aplikazioa* (1993). Blancoren proiektu akademikoen artean, honako hauek azpimarra ditzaizkegu: Immigrazioari eta Xenofobiari buruzko Euskal Behatokiaren (BEHA) sortzailea EHU (1999-2001) eta *Migrazioei buruzko Unibertsitate Espezialista* delako Graduondoko Ikastaroaren (EHUko Titulua) antolatzailea eta zuzendaria; gaur egun, ikastaro horren laugarren ikasturtean ematen ari dira (2002az geroztik). Hainbat ikerketa eta argitalpen egin ditu. Hona hemen gai nagusietako batzuk: etorkinen integrazioa, immigrazio-politikak (Espainiakoak eta Europako Erkidegokoak), barruko migrazioak, enklabe etnikoa, bizileku-segregazioa edo nazioz haraindiko komunitateak. Immigrazioaren Euskal Behatokiaren zuzendari-kide (2003-2005) eta migrazio-gaietako aholkulari izan da EAEko hainbat administrazioetan. Gaur egun, Blanco EHUko Master Ofizial bat diseinatzen ari da, nazioarteko migrazioen ezagutzari eta kudeaketari buruzkoa.

### DOLORES CORTES

Migratzaileen legez kanpoko trafikoari eta pertsonen salerosketari buruzko gaien bozeramalea Migrazioari buruzko Nazioarteko Erakundeak (IOM) Liman (Peru) duen Andeetako Herrialdeetarako eskualde-bulegoan. Hainbat ekimen aurkeztu ditu migratzaileen trafikoari aurre egiteko, hedabideetan egoera horren berri emateko eta poliziei, epaileei eta funtzionarioei migratzaileen trafikoari buruzko prestatuntza emateko. Cortesen azken proiektua honako hau izan da: “Sexu Industriarako Emakumeen Nazioarteko Salerosketa Peru”. Informazio Zientzietan lizentziatua eta Nazioarteko Harremani buruzko Ikasketa Aurreratuetan diplomatu da Euskal Herriko Unibertsitatea. Horrez gain, Nazioarteko Politikari buruzko masterra ere lortu zuen Londresko Unibertsitateko Afrikari eta Ekialdeari buruzko Ikerketa Eskolan. Azken bi urteotan, Cortesek pertsonen salerosketari eta migratzaileen legez kanpoko trafikoari buruzko 12 konferentzia baino gehiago eman ditu. Gaur egun, irakasle-lanak ere egiten ditu *Globalizazioari eta Migrazioei* buruzko Diploman, Peruko Unibertsitate Pontifiko Katolikoan (Lima).



## ANTONIO IZQUIERDO

Soziologiako Katedraduna A Coruñaiko Unibertsitatean. Soziologian lizentziatua eta doktorea izateaz gain, Gizarte Zientzietako Matematiketan eta Informatikan diplomatua da Centre National de la Recherche Scientifique Grenoble delakoan (Frantzia). Irakaskuntza eta ikerketa-lanekin uztartzen du Izquierdok. Gainera, 40 ikerketa eta txosten baino gehiago egiten lagundu du eta, horietako 30etan edo gehiagotan, zuzendari edo zuzendarikide izan da gainera: horien artean, nabarmentzekoa da “Gogokoenak atzerritar iraunkorren aurrean: marokoar immigrazioa XXI. mende hasieran” (Marokoar Immigrazioaren Atlas Spainian, 2004). Egile honek idatzi dituen azken liburuen artean honako hau azpimarra dezakegu: “Immigrazioa: Lan Merkatua eta Gizarte Babesa Spainian” (Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Madril, 2003). Europako Arteen eta Letren Akademiako kide eta EUROSTATEko aditua immigrazio-estatistiketan. Izquierdok hainbat ikerketa egin ditu atzerriko unibertsitateetan; besteak beste, legez kanpoko migrazio-fluxua neurtzeko eta Espainiako eta AEBetako immigrazio-politikak aztertzekeo proiektua Notre Dameko Unibertsitateko Kellogg Institute delakoan. Gaur egun, Administrazio Publikoaren Galiziako Eskolako zuzendaria da Izquierdo.

## DANIÈLE JOLY

Harreman Etnikoen Ikerketen Zentroko Zuzendaria Coventryko Warwick Unibertsitatean (Erresuma Batua), 2000. urteaz geroztik. Doktoregoa Astongo Unibertsitatean (Erresuma Batuan) eta masterra Parisko Sorbonan egin zuen. Ospe handiko aditua da mundu osoan, eta honako gai hauek lantzen ditu bereziki: gutxiengo etnikoen kokapena eta integrazioa Europan, islamiar komunitateak Europan, asilatuentzako eta errefuxiatuentzako gobernu-politikak eta Karibeko gazteak Erresuma Batuan. 13 liburu idazteaz gain hainbat atal idatzi ditu nazioarteko migrazioei eta Europako gutxiengo etnikoei eta errefuxiatuei buruzko beste 25 liburutan. Halaber, 74 konferentzian ere parte hartu du: horietan azkena 2004an izan zen, Warwickeko Unibertsitatean, “Musulmanak Europako presondegietan” izenekoa. Joly Frantziako eta Ingalaterrako hainbat komunikabidetako aholkularia da errefuxiatuei eta harreman etnikoei buruzko gaietan, baita “European Journal of International Migration and Ethnic Relations” delakoaren (Nazioarteko Migrazioei eta Harreman Etnikoei buruzko Europako Aldizkaria) argitalpen-batzordeko kide ere; horrez gain, nazioarteko 12 konferentzietako batzorde zientifikoko kide ere izan da 1987az geroztik.

## ANA MARIA MENDIETA

Gaur egun, *Etorkinen bizileku-kokapena eta horren eragina integrazio-prozesuetan. Bilboko enklabe etnikoen azterketa* izeneko ikerlanean dihardu lanean bekadun gisa, Cristina Blanco EHUKo irakaslearen zuzendaritzapean eta BBVA Fundazioaren babesarekin. Mendieta Informazio Zientzietan Lizentziatua da EHUn (1989) eta Kazetaritzako Masterra egin zuen Iowako Unibertsitatean (Iowa City,

AEB, 1993). 2005eko otsailetik maiatzera bitartean, Mendieta “Migrazioak: egungo joeren behaketa eta analisia” izeneko nazioarteko konferentziaren koordinatzaile zientifikoa izan zen (Bilbo, 2005eko maiatza), Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak babestuta. AEBetan egindako ibilbide profesionalaren barruan, 1993. eta 1998. urte bitartean Mendieta La Raza eta Éxito astekarietako (Chicagoko bi astekari hispaniar nagusiak) erredaktore-lanean aritu zen eta 1998tik 2004ra bitartean, berriz, Chicago Sun-Times aldizkariko (AEBetako hamar aldizkari nagusietako bat) Espainiako lehen erredaktorea izan zen. 1998. urtean AEBetako Kazetari Hispaniarren Elkarte Nazionalaren (NAHJ) Idatzizko Kazetaritzaren Saria irabazi zuen Mendieta eta EFE Agentziako Rey de España Sariaren finalista izatera ere iritsi zen. Chicago Sun-Times aldizkariko erredaktore-taldearekin batera, Mendieta Berri/Gertakarien lehen saria irabazi zuen Illinois Associated Press Editors Association delakoaren eskutik.

### **KATHLEEN NEWLAND**

Washington DCko Migration Policy Institute delakoaren sortzaileetako bat eta institutu horren zuzendaria da 2001. urteaz geroztik: erakundeen independente horrek errefuxiatuen egoera eta nazioarteko migrazioen errealitatea aztertzen ditu. Hona hemen Newlanden lan-ildo nagusiak: errefuxiatuen babesa, migrazioa eta garapena eta nazioarte migrazioaren alde anitzeko kudeaketa. Emakume eta Haur Errefuxiatuen Batzordeko zuzendaritza-batzordeko (Women’s Commission for Refugee Women and Children) eta Erreskaterako Nazioarteko Batzordeko (International Rescue Committee) kide da. 1994tik 2001era Nazioarteko Migrazio Politikari buruzko zuzendarikide izan Carnegie Endowment for International Peace izeneko fundazio ospetsuan, Washington DCn. Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi-Ordezkaritzaren, Munduko Bankuaren eta Nazio Batuen Idazkari Orokorraren Bulegoko aholkularia izan da. Harvardeko Unibertsitatean eta Princetoneko Unibertsitateko Woodrow Wilson Nazioarteko Gaietarako Eskolan lizentziatua da. Newlanden argitalpenen artean, honako hauek nabarmen ditzakegu: “Diru-bidalaketaz haratago: erbesteratuen eginkizuna horien jaioterriaren pobrezia murrizketan” (Erresuma Batua, 2004).

### **JOHN REX**

Soziologiako Irakasle Emeritua Erresuma Batuko Warwickeko Unibertsitatean. Hegoafrikan jaio eta Britainiar Itsas Armadako kide izan zen 1943. urtetik 1945. urtera bitartean; 1946. urtean Soziologian eta Filosofian lizentziatu zen Hegoafrikako Rhodes University Grahamstown delakoan. 1949tik 1962ra soziologia-irakasle izan zen Leedsko Unibertsitatean eta 1962. urtetik 1964. urtera bitartean, berriz, Birminghameko Unibertsitatean. 1964-1970 epealdian Durhameko Unibertsitateko Soziologia Saila sortu zuen beste irakasle batzuekin batera. 1970. urtean, Rex Warwickeko Unibertsitatean hasi zen irakasle-lanetan eta 1979. urtera arte soziologiako eskolak eman zituen bertan. 1984. urtetik 1988. urtera bitartean,

Gizarte Zientzien Ikerketa Batzordeko Harreman Etnikoei buruzko Ikerketen Zentroko zuzendari izan zen eta 1984-1990 epealdian, berriz, zentro bereko zuzendarikide. UNESCOko Arrazen arteko Harremani eta Aurreiritziei buruzko Batzordeko kide izan zen Rex 1967. urtean eta gai horri buruzko aditu ospetsua da mundu osoan. Hona hemen Rexen argitalpen nagusietako batzuk: *Key Problems of Sociological Theory* (Funtsezko Arazoak Teoria Soziologikoan); *Race, Community and Conflict* (Arraza, Komunitatea eta Gatazka); *Colonial Immigrants in a British City* (Etorkin Kolonialak Britainia Handiko Hiri batean); eta *Ethnic Minorities in the Modern Nation State* (Gutxiengo Etnikoa Nazio Moderno batean).

### MICHELE KLEIN SOLOMON

Migrazioei buruzko Nazioarteko Erakundearen (IOM) Komunikazioari, Ikerketari eta Migrazio-Politikari buruzko Saileko zuzendari-ondokoa. Klein-Solomon zuzenbidean lizentziatua da eta Zerbitzu Diplomatuari buruzko Masterra egin zuen; Cum Laude kalifikazioa lortu zuen gainera bietan, bai Georgetown University ospetsuan, bai Georgetown Unibertsitateko Diplomazia Eskolan. 2000. urtean IOMn sartu aurretik, abokatu-lanetan aritu zen AEBetako Estatu Saileko Lege Gaietako Bulegoan, 1989. urtetik 2000. urtera bitartean. Hainbat ataletan aritu zen abokatu gisa lanean: Inteligentzia, Giza Eskubideetan, Gerentzia eta Nazio Batuen gaietan. Nabarmentzekoa da Klein-Solomon Estatu Saileko migrazio- eta errefuxiatu-gaietako abokatu nagusia izan zela 1991-1996 epealdian. 1994. urtean Urteko Abokatu Gazteenaren saria eman zion AEBetako Abokatuen Elkarte Federalak.

### TRINIDAD L. VICENTE

Soziologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Unibertsitate horretako Zientzia Politiko eta Soziologia Saileko irakaslea eta Giza Eskubideen Institutuko kide da. Horrez gain, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Migrazioei buruzko Ikerketen taldeko kide era bada, baita IMISCOE (International Migration, Integration and Social Cohesion in Europe) sareko kide ere. Hainbat hitzaldi emateaz gain (bai maila nazionalen, bai nazioartean) artikulu ugari argitaratu ditu hainbat liburutan eta aldizkako argitalpenetan. Hona hemen argitaratu berri diren batzuk: *Emakumeen presentziak eta hutsuneak migrazio-mugimenduetan* (2002), Espainia “*emakumeen immigrazio-herrialdea*” (2003), *Women migrants: invisible or creative actors?* (2003), *Emakume etorkinak: hainbat emakume, hainbat egitasmu, hainbat egoera* (2004).

### HANIA ZLOTNIK

Nazio Batuen Biztanleria Saileko zuzendaria New Yorken, 2005eko otsailaz geroztik. Mexikon jaiotako demografoa da Zlotnik, ospe handikoa gainera. Nazioarteko migrazioak izan dira haren aztergai nagusietako bat. Estatistikan eta Demografian doktorea Princetoneko unibertsitatean eta Matematikan lizentziatua Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoan. Nazio Batuen hainbat sail zuzendu ditu

1982az geroztik: besteak beste, Hilkortasunen eta Migrazioen Saila eta Analisi Demografikoen Saila. Nazioarteko migrazioen estatistikei, estimazio demografikoarekin lotutako teknikei eta emakumeen migrazioaren analisiari buruzko 35 artikulua argitaratu ditu. Biztanleriaren Azterketa Zientifikorako Nazioarteko Batasuneko (IUSSP) presidenteordea da 2002az geroztik. Argitaratu dituen azken lanen artetik honako hauek azpimarra ditzakegu: “Nazioarteko Migrazioak Afrikan: migratzaileen estimaziotan oinarritutako analisisa” *Migration Information* (2004ko iraila) eta “Munduko Urbanizazio: joerak eta ikuspegiak” *New Forms of Urbanization: Beyond the Urban-Rural Dichotomy* (Hants, England, 2004).



Giza migrazioak garrantzi handiko gertakariak dira gaurko munduan. Izan ere, egun nagusi diren hainbat faktorek inoiz ez bezala bultzatzen dute giza mugikortasuna: eskualdeen garapen-maila desberdinek, nazioen elkarrenganako mendekotasun ekonomikoak, komunikabideen eta garraioen aurrerakuntzak, etorkinek beren familiekin bizitzeko duten eskubidearen aitortpenak, munduan zehar gero eta ugariagoak diren gatazkek –horien eraginez, gero eta gehiago dira errefuxiatuak edo desplazatuak– eta abarrek.

Egoera horren aurrean, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak, 2003an sortu zenetik, helburu nagusitzat du gertakari hori hobeto ezagutzeko ekimenak bultzatzea. Hain zuzen, ekimen horietako bat da 2005eko maiatzaren 31tik ekainaren 2ra Bilboko Euskalduna Jauregian antolatu zuen Nazioarteko Konferentzia: *Migrazioak: gaur egungo joeren behaketa eta azterketa* izeneko.

**Cristina Blanco** Euskal Herriko Unibertsitateko Migrazioen Soziologiako irakaslea da eta edizio honen arduraduna.